




Ander Lizarralde

ARAOZTARRAK

(I)



ARAOZTARRAK

(I)



Ander Lizarralde

**Gure
Bazterrak**



OÑATI
dabilen herria

1. edizioa: 2025eko uztaila

Egilea: Ander Lizarralde

Maketazioa: Iñigo Biain-Berraondo

Inprimategia: Gertu (Oñati)



Araotz Araotz zan lenaa!

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Oharrak testuko euskararen gainean

Lan hau *Araoztarrak* proiektuaren barruan aterako diren bi liburukietatik lehena da.

Liburuki hauetan jaso ditugun testuen oinarria araoztarrei egindako grabaketak dira.

Batzuk aurrez eginak zeuden (*Ahotsak* proiektua). Hauetatik zaharrenak 1990eko hamarkadakoak dira.

Beste batzuk 2010eko hamarkadan Arantzazu Sagarzazu eta biok egin genituen *Azken araoztarrak* proiektuaren baitan.

Besteak, gehienak orain egin ditugu (2020-2024). Gutxi batzuk *Erreusak* proiektukoak dira.

Grabaketetako euskara osatu dugu testuetan. Hitzunak “*eon*” esaten badu, guk “*egon*” jarri dugu. Hitzunak “*ein-bi-een*” esaten badu, guk “*egin biher eben*” jarri dugu. Salbuespenak atzemateko moduan jarrita daude.

Bustiduraz (ñ, ll. Tt, dd...): hitz barruan dagoenean, jarri egin dugu “*billa*”. Hitz bukaerakoak ez ditugu jarri, “*egin*” (eta ez “*egin*”). Debagoienako Badihardugu Elkartearen idaztarauak dira horiek.

Parentesi artekoak azalpenak dira, edo hobeto ulertzeko jarritako hitzak. Gehienak Euskara Batuan daude. Batzuk Oñatikoan, hobeto ulertzeko.

Liburuki hauetan aurkituko duzuen euskara ez da zehazki araoztarrek hitz egiten dutena, liburuki hauetako euskara araoztarrek hitz egiten dutena osatuta eta batuta jarri dugu. Batuta jartzeak esan nahi du aldaera guztiak aurkeztu beharrean, batasun bat eman diegula, joera nagusiak kontuan hartuta.

Araozko Euskara izan denari egindako hurbilpena da hau, ez zehazki grabatu ditugun araoztarrek hitz egiten duten euskara. Zorrotz esanda, testu hauetako Euskara ez da existitzen. Baina auzoan hitz egin dena ezagutzeko balio du.

Araozko Euskara jasotzerakoan, arazo nagusia hau izan da: nahastuta dagoela. Hala izanik, jasotakoa batu dugu, eta joera nagusien arabera jarri ditugu testuetako hizkuntza formak. Askok “*basuan*” esaten dute, guk “*basuen*” jarri dugu beti. Askotan “*pasaitten naiz*” bezalakoak entzun ditugu. Guk “*pasauten naiz*” jarri dugu beti.

(“*Enda*” (“*eta*”) jarri dugun guztietan hala esan dute, nahiz eta jakina denez forma hau ez den Araozkoa bakarrik, ezta Oñatikoa bakarrik ere; galtzera doan forma bat da).

Araoztarrek Oñatiko Euskararekin nahastu dute eurena. Nahastu aurrekoa nolakoa zen irudikatu behar izan dugu, beranduegi delako bere horretan aztertzea.

Hala ere, adi. Izan ere, Araotzen, 1960ra arte 500 lagunetik gora bizi zen. Horregatik hizketa-batasun erabatekorik ez zen izango lehen ere, nahiz eta auzotarrak batu dituen gune inportantea izan den Elizondoa. Gune horrek auzoko euskara batuko zuela uste dugu eliza, eskola han zeudelako, eta dantzalekua, juntalekua zelako.

Testua osatzeko jasotakoa batu dugu.

Aditzean adibidez, joera nagusia hau da:

Hak “*zittun*”, haik “*zittuen*”. Eta hala jarri ditugu guztiak. Berdin hak “*ninddun*”, haik “*nindduen*”. OEZean Hak “*zittuan*”, haik “*zittuain*”. Eta hak “*nindduan*” eta haik “*nindduain*”.

Hala izanda ere, ezaugarri batzuk bakarrik hiztun batek edo besteak esandakoan jaso ditugu:

—Aditzetako “*ere*” hotsak. “*Ingorou*” (egingo dou), “*in-biria*” (egin biher dira).

—Bokal bikoitzak. Hauek OEZean (Oñatiko Euskara Zaharra) ere badira, baiña Araotzen hobeto gorde dira. “*Frakaak, jaaten, eraaen, baarik*”...

Bokal bikoitzen kontua ez dago behar bezala aztertuta. Horregatik hiztunak esandakoak bakarrik jarri ditugu. Susmoa dugu batzuk (adibidez, “*jaaten*”) ez zirela beti erabiltzen, esaldian zuten kokapenaren arabera erabiltzen zirela. Eta beste hainbeste gertatzen zela “*xaat*” eta horiekin ere. Ezin dugu baieztatu.

—“*xaku*” eta “*xakun*” aditz laguntzailea (esanahia, “*xako*” eta “*xakon*”, “*zaio*” eta “*zitzaion*”). Gerneta Etxebarrikoei bakarrik jaso diegu. Baina mantentzea erabaki dugu. Berrikuntza bat da.

—ia>ie kasu batzuk. *Gu umiek gitzan* (Bittoina, Gerneta Etxebarria)

—“-*tik*” beharrean “-*ti*”. “*Aurreti*” (Bittoina). Hau OEZekoa (Oñatiko Euskara Zaharrekoa) ere bada.

—“*xaot*” aditz laguntzailea. Araotzen “*xaat, xaazu, xaa, xaazue*” agertzen dena. Beste bi pertsona markak (guk eta haik) ez dira ageri, ez Araotzen ez OEZean.

—Menpeko aditz laguntzailearen forma batzuk “*dakíala*” (dakidala), “*duan*” (dudan).

—Bokal jateak. Batez ere Manuel eta Bittoinari jasoak: “*Esne fuertia, t’esne hori egosten dozu eta*” (Manuel, Gerneta Handiketxekua). “*Et’euki egin zittun*” (Bittoina).

Testigantza gutxiegi ditugu hauetaz baloraziorik egiteko.

Ezaugarri hauek, esan bezala, ez ditugu sistematikoki jarri.

Beste forma batzuk muestra moduan daude jarrita, ez esaten diren guztietan. Bakarrik adibide batzuk, interesgarriak direlakoan. Adibidez:

—“*Lenaakuak gu’takiu! (guk dakigu)*” (Manuel, Gerneta Handiketxekua). “*Errenterua’tienak*” (*errenteruak diranak*) (Bittoina, Gerneta Etxebarrikua). Hauek OEZean ere aurkitu daitezke.

Osatu gabe daude, eta sarri agertzen dira, Araozko Euskarari dagozkion ezaugarriak:

—“*-ago*” atzizkiari dagozkionak: “*gutxiaa*”...

—“*egon*” aditzari dagozkionak: “*na*” (nago), “*da*” (dago). Hiztun batzuek “*daa*”, “*naa*” (batez ere Gernetako Bittoinak).

—“*-gaz*” deklinabide atzizkia, “*astuaaz*” (ez “*astuagaz*”). OEZean ere badago, baina Araotzen hobeto gorde da, gehiago erabiltzen da.

—“*zien*” jarri dugu. Behin eta berriz agertzen delako. OEZean ere agertzen da, baina gutxiagotan. Araotzen beti edo ia beti. Eta hau osorik “*ziren*” jartzea ez zaigu egokia irudit. Jatorria hau dela uste dugu: ziran>zian>zien. “*die*” ez da ageri (baizik eta “*dia*”, baina menpekoetan bai, “*dien*”, “*diela*”...

Denak ez ditugu hemen jarriko. Aparte aterako dugun “Oñatiko Euskara Zaharra, apunteak 1” liburuan Araozko Euskararen ezaugarri bereizleak jasoko ditugu. Ez deskribapen oso bat, baizik eta OEZarekin egindako alderaketa bat.

Zehaztasun horiek interesatzen zaizkionak han aurkituko ditu.

Euskara Batuaren grafia erabili dugu orokorrean. Hala ere, “ts” hotsa baztertu egin dugu, nahasmena eragin dezakeelakoan. Horregatik, jaso dugunaren arabera “tz” edo “tx” erabili dugu.

Filologia lanak egiteko, fonetikarenak gehienbat, grabaketetara jotzea gomendatzen dugu. Bestela lexikografiarako, edo sintaxia aztertzeko, edo morfologia, baliagarriak dira hemen agertzen direnak.

Azalpena testuen aukeraketaz

Ezer baino lehen baieztapen bat egingo dugu: Araozko Euskarak aldaera berezitua osatzen du. Ezaugarrien konbinaketa beregaina da, auzokoa.

Baina gehituko dugu ezaugarriek bere horretan ez dutela berezitasun azpimarragarririk.

Araozkoa funtsean OEZren berdina da, batasuna dago bien artean. Araozkoak diferentzia txiki batzuk ditu, batez ere, itxura guztien arabera, Leiztarren euskarak eragindakoak.

Egiturazko diferentziak txikiak izan arren, “tonua”, belarrira nola sartzen den, kontuan hartuta, atzemateko modukoa da aldea. Ezaugarriak behin eta berriz ageri direlako (*zien, gutxiaa, pentzauten, jaaten, neutako, astuaaz...*).

OEZa hala edo hola, transmititu da. Eta haren ondorengo euskara darabilte gazteek (darabiltenek). Araozkoa ez da transmititu. Eta galtzera doa.

Horregatik jasoketan emaitza modu zabalean aurkeztu nahi izan dugu. Araozko Euskararen nondik norakoak ezagutu nahi dituenak non begiratu izan dezan.

Araoztarren ondorengoek Oñatiko Euskara Berria (OEB) hitz egiten dute. Ez Araozkoa izan denaren ondorengo euskararik. Horregatik, haien arbasoen euskararen testigantza zabala eskaini nahi izan dugu.

Horregatik jaso ditugu antzekoak diren horrenbeste pasarte, bestela larregi liratekeenak.

Gainera araoztar batzuek askoz protagonismo handiagoa dutela. Hau da arrazoia: Hiztun gutxi batzuk aurkitu ditugu araozko euskara ondo samar gode dutenak. Horregatik agertzen dira hainbeste Manuel Goitia eta Bittoina Goitia.


Araozko baserri askotako kontuak falta dira. Hala beharko du.

Lan hauen (Olabartarrak, Araoztarrak) helburua OEZa ikertzea da. OEZeko testuen corpora osatzea, eta jasoketa lan zabala egitea. Horregatik da hau emaitza. Pasarte askok antzeko gauzak esaten dituzte, lehentasuna euskara izan dugula, ez hainbeste edukia (hau ere, interesgarria, dudarik ez).

Argazkiak utzi dizkigutenei eskerrak eman nahi dizkiegu. Eta esker berezia Gerneta Etxebarriko Joxeanjel Urkia eta Mañako Azkoittin Haundiko Luis Zumalderi, argazkietako araoztarrak identifikatzen emandako laguntasun ezinbestekoarengatik.

Argazkiren bateko izenak gaizki baleude, edo beste edozein ohar bidaltzeko hau da helbide elektronikoa:

jardunaldiak@hotmail.com (Ander Lizarralde)



Araozko auzouneak.

Lanean agertzen diren araoztarrak:

Nieves Agirre, 1939, Sakristauena.
Juanito Altube, 1943, Goittikua.
Joxemai Altube, 1953, Goittikua.
Bittori Barrena 1943, Otała Txikiñekua.
Juanita Barrena, 1946, Otała Txikiñekua.
Benito Barrena, 1937, Otała Haundikua.
Juli Bergara, 1951, Txantonbalduena.
Eustaki Bergara, (1917-2016), Txantonbalduena.
Rosario Bolinaga, 1945, Beittikua.
Mikel Bolinaga, 1967, Beittikua.
Maixol, 1962, Bolinaga, Beittikua.
Xeberi Erostarbe, (1933-2023), Agerrekua.
Manuel Goitia, (1922-2013), Gerneta Handiketxekua.
Bittoina Goitia, 1928, Gerneta Etxebarrikua.
Eugeni Goitia, 1931, Gerneta Etxebarrikua.
Agustin Guridi, (1926-2017), Txomenakua.
Enkarna Grisaleña, (1928-2022), Txomenakua.
Rikardo Ibabe, (1924-2016), Agerrekua.
Eusebio Lazkano, (1917-2010), Antzuena.
Jabier Mugartza, 1935, Etxeberri Txikiñekua.
Eugeni Olalde, 1936, Zumaaldekua.
Matilde Uriarte, 1942, Txapelena.
Miren Uriarte, (1934-2021), Emiemenena.
Joxeanjel Urkia, 1953, Gerneta Etxebarrikua.
Mariangeles Zelaia, 1946, Elortokua.
Jesusa Zumalde, 1947, Aizkorbe Azpikua.
Amparo Zumalde, (1929-2019), Maña, Azkoittin Txikiñekua.
Maximo Zumalde, 1942, Maña-tti Behekua.
Marijoxepa Zumalde, (1919-2019), Mielen Txikiñekua.
Eugenio Zumalde, (1916-2002) Aizkorbe Azpikua.
Fermin Zumalde, 1930, Borjena.



HITZAURREA

Hitz batzuk idazteko gonbita jaso dut. Ez dakit nondik hasi, ez dakit zer esan... Atrapatuta nago hala ere, esku eta bihotz. Eta kondenatuta ere bai, nire hanka gorriak ere Araotzen agertu ziren eta. Eta ezinezkoa zait EZ esatea. Beraz, enbajada honek eskatuko dit ahalegin handia, purgatorioa. Baina hartuko dut arnasa, hartuko dut lizentzia, eta saiaturko naiz zenbait gogoeta-edo pantailan jartzen: unibertsala*.

Arotz*. *Eskua, lana, beharra, zeregina, trabailua, izerdia...*

Doakit burua iraganera: Gauzak asko aldatu dira, ezta? Eta gaur ikusita *leitze** agertzen zaizkit orduko lanak: ganadu zain, itaurren, belarretan... Etenik eta azkenik gabeko lanak. Eta azalpena ez da zaila: garai haietan zer ez zen izaten baserrietan: behiak, ardiak, txerriak, behorak, oiloak, untxiak, txakurrak, katuak..., eta bizidunak 365 eguneko katea du ganoraz atendituko bazaio. Zereginak ez dute amairik edozein dela ere jarduna, hori horrela da; baina aziendak ez dizu itxarongo: egiten diozu kasu edo atarramendu eskasa! Hori lehen eta orain.

Eskerrak orduantxe hartu zuen indarra fabrikak: egutegia, ordutegia, soldata, opor egunak... Eta bidenabar baserriaren sententzia: soro lanak ezkutatzea, aziendak urritzea, etxeak txori etxe geratzea... Besoak behar zituen industriak, eta aurkitu zituen gurean, bai horixe: eta ez nolanahikoak!

Ez dira atzo goizeko kontuak: *Araotz, ez gari eta ez arotz*. Argi eta garbi zioen esaera zaharrak: “Ez duzu hemen zeru errazik”. Beraz, askotan gure aurrekoei entzundako hura: *hemen ez zuan inor geraketan. Etxietan: emakumiak, umiak, eta aittajun-amandriak; eta abadia sakristauagaz Elizondon. Gaineratikuak: mutikuak kriau; mutillak eta gizonak trozuan*; eta neskatillak eta neskak kriara: auzua hustuta urte gehixenien*”.

Ikasiko ez zuten ba neskatila-mutiko haiek lanean! Derrigorrean. Oinez ikasi orduko lana etxean, lana eskolan*... Eta auzolanak*! Beti zen auzolanen bat: auzune bakoitzak antolatutakoak, eta auzoan alkateak agindutakoak. Urrezkoa hizkiekin idaztekoa da: “Auzolanari esker gara”. Eta iritzi bat ere bada franko zabaldua: “Ez dugu asmatu transmititzen auzolanaren garrantzia, funtsezkotasuna”. Uste okerra al

da? Eta zenbat egin daitekeen guztiok pitin bat eginda! Berehala igarriko genioke: inguru txukunagoak, konponbide errazagoak, aldarte erosoagoak.

Hortaz, eskulangile aparta haien seme-alaba gara. Txikitatik lanaren eskolan hazi eta heziak, nahiz eta bideak aldatu ditugun gure gustu eta ahalen arabera. Gure aurrekoek ez bezala, guk aukera gehiago eduki dugu -ikasketak egiteko, batik bat. Baina isilean gorde ezin den miresmena eta esker ona zor diegu; eredu izugarri ederrak izan baitira auzoan eta zuztarra hartu duten leku guztietan*.

Mirotz. *Argazkia, irudia...*

Zer gordetzen du araoztarrak begi ninian, zer geratzen zaio neuronetan atxikita? Erantzunak dezente aldatzen dira segun eta adina, bizitzak bakoitzari erakutsitakoak ez du parekorik eta. Eta ez dira araoztarren gauza partikularrak, bai zera! Nonahikoa zarela ere, antzeko prozesuak ditugu hemen eta munduko edozein bazterretan.

Adibidez, garai bateko araoztarrari ez zion harridurarik sortzen Aitzulok, edo Jaturabeko haizpitarteak... Horiek kontu berriagoak dira, eta miresmen handiagoa sortzen diote egun ere -etxekoa beti gutxietsi da- kanpotarrari auzotarrari baino: “Haizpitarte horretatik pasa eta horrelako lekua behar zuenik!”. Beraz, gure aurrekoekin mintzatuta ohartzen gara beste “bihotzeko” batzuk zirela erantsita geratzen auzotarren burmuinean: Barriara egindako lehenengo bidaia, Madinazubitako erromeria Sandalitik bueltan, *trinidadia*... Horrelakoak ditu buruan oraintxe bizi izanda *leitxe*. Alegia, eguneroko zeregin atergabeak aparte laga eta jera-jeraka gozatutako uneak, Arabara ardotara egindakoak*, etab. Neskatilemutikotako bizipenak dira, arin iristen baitzitzaion nerabeari auzoari agur esan eta norabait urratsak emateko ordu garratza: “*Galdetu-galdetu niri egun ha zer izan zan*!*”.

Azkenik izango litzateke zenbat aldatu den argazkia? Zein den begiek salatzen diguten aldaketa. Eta horiei aiseago antzematen dio aspalditik kanpoan denak: “*Hemen bidiak pe aldatuta xagozen*”. Eta zer aldatu da, ba? Ezkutatu dira soroak, aziendak, esparruak... Benetako iraulia, ordea, bizimoduan gertatu da, pentsamenduan. Eta horrek begiratzeko era ere aldatu egin digu. Aldaketa onerako ez ezik, beharrezkoa ere bazen.

Bihotz. *Taupada, malkoa, sentipena, zera...*

Gauzarik normalena da munduratu zaituen lurrari estimua edukitzea: “Gure bihotza beti hementxe, baina...*”. Salbuspena legea da, jakina, baina lur horri lotuko zaio gure taupada jaio eta hiltzen gareno. Zer du ba gogoan hil hurren ere gizon-emakumeak? “Honek ez du beste konturik: umetako gauzak, txikitako gauzak...”. Lehen urteetako inguru familiar, sozial, kulturalean bizi izandakoaren arrastoa betiko omen da; halaxe diote psikologoek ere. Ez dio ukorik egiten inork zuztarrari: izan xumea, izan oparoa... Beti dugu kutun hazi eta hezi gaituen ekologia; izan urrun, izan gertu: sekula eteten ez den zilbor hestea.

Era berean, baina, badu ifrentzua ere berekin. “Bihotzak ez du ematen ogirik*”. Egia gordina baino ez dugu, gupidagabea. Begira egoten natzaio batzuetan *Vascos por el Mundo* saioari; ia guztiak kualifikazio altuko beharginak dira. Lekutan geratu dira garai haiek! Irakurtzen eta idazten motel -edo zero-, eta altzotik partitu beharra: herrimina herrimin, alabaina, lehen eta orain. Dakarkit beti agurreko esaldi bat burura: “Natalia, zu ez zara itzuliko gehiago Kolonbiara*”.

Ogia, ogia... aipatzen da, arrazoi nagusia da eta. Baina bestelako kontu batzuk ere ukaezinak izan dira eta dira, tamalez. Hala nola: auzo eta herrietako giro itogarria -gaztearentzat, batik bat-, non zailagoa izan baita ezberdin pentsatzea, izatea, bizitzea. Demagun duela ez urte asko zer izanen zen Araotzen bizitzea homosexual batentzat, ateo batentzat; edota emakumeari zer hondar zegokion, adibidez?... “Askatasuna ezagutu dut Venezuelan*”.

Araotz. Hotz leotzean

Badu iragan bat; ez da atzo goizekoa. Nahiz eta -aitortzen dut- galderak eta galderak baino ez ditudan: zeintzuk izan ziren hasierak, aurreneko haien bizimodua... Interesatzen zait historia: *atzeak erakusten du aurrea zelan dantzatu*. Ez naiz sartuko, hala ere, historialarien gauzetan; nahastuko nituzke egiak, mitoak, usteak... Zer hartu dugun badakigu, zer-nolako izerdiak isuri zituzten gure aurrekoek antzematea ere ez da zaila; beraz, errespetua eta esker ona.

Orainaz ere ez dut gauza handirik esango: “Ezagutu dugu Araotz hobeto, ezagutu dugu okerrago*”. Itsaso zabalean dakusat auzoa; Araotz ez dugu uharte isolatua, eta ahalegin etengabea dihardu igerian inguru guztiak bezala*: kontsumo gizartea, mundu digitala, kosmetika... Betikoarekin eten ez eten, eta aukera berriei atea zabaldu ez zabaldu: norbanakoa versus komunitatea. Saiatzen naiz oso modan dagoen leloari leku egiten: *carpe diem*. Baina buruak biharamunera narama gehienetan. Eta betiko esaldiarekin amaituko dut: *ez daude gure aittajun-amandriak begira!*

Datorren astea, urtea... Etorbizuna dut nik kezka, esperantza, ipar... Eta horrek sortzen dit aztikerian murgiltzea, ene alorretan saiatzea: *ezina ekinez egina*. “Kina joko ote du ba auzo honek!” Horrelako ardurekin irudikatzen ditut orain dela ehunka urte ere auzotar haiek.

Beraz, gogoetaren bat merezi duela iritzita, analisi moduko bat aletzeko lizentzia hartuko dut: guztiz oinarrizkoa, xumea... Noiz eta Adimen Artifizialak (AA) bi segundoan egiten ahal digunean askoz ere zehatzagoa, zorrotzagoa, zurrunagoa...

Zer du ba ardatz gureak? Auzotarra. Eta hitzaren zentzu zabalenean hartuta. Halakoxea baita araoztarra*. Beste edozein lekutakoa bezalakoa: “*Eztako horretxek pe oillalurra saltzeko!*”. Atxikimendu patologikotzat ere har lezake baten batek, baina egoskorra ere izan beharra dago batzuetan: “*Sentimendua, Koldo, sentimendua!**”.

Zerk salbatu du gurea? Bada makina bat herrixka orainik gabe bazterretan. Araban, adibidez, horrela dugu Ribera*, erabat hustuta. Eta hark ez bezala Araotzek

bizibidea ez du urrutiegi eduki: Legazpi, Arrasate... eta Oñati. Jendeak eutsi egin dio ekosistemari hurbileko industriari esker. Diru iturriak (trozua, fabrika...) aldatu egin dira, baina, etxeetara dirua oro har kanpoan egindako lanak ekarri du; eta baserria osagarria baino ez da izan.

Eta zer espero genezake? *Araotzi ez dio inorkaterako danbolinetik gaztainarik*. Eta aurrerantzean ere, auzotarrek tinko beharko diote eutsi ahaleginari, pentsamenduak pentsamendu: proiektu egingarriak antolatu, bidelagunak aurkitu eta helburura eraman. Noski, ezinbestekoa: ilusioa; eta lehentasun batzuk jartzea ere bai, nahiz eta ez den batere erraza. Ikuspuntuak baitaude, ikusmoldeak, inertziak... Hori gauza jakina da: *“Jainkoak eskuko hatzak ere ezberdinak egin zituen”*.

Beraz, izan Gasteiz, izan Nazar, izan Urrexola... erronketatik ez da inor libratzen. Aldea, baina, existentziak marrazten du. Handiak ez du sentitzen izatearen kezkarik, ziurtaturik baitu; txikiak, aldiz, beti du hor jarraipenaren ezpata. Aspaldiko gai filosofikoa: esentzia eta existentzia lehian. Ni araoztarra naiz, eta ni existentziak arduratzen nau; esentziak ez dit lorik galarazten.

Hortaz, aurkitzen naiz nire desideratum zerrenda aurkeztu beharrean: etorkizuna*. Erronkak, desafioak... Hor ditu hibernazioan aspalditik Araotzek, eta zeharo estrategikoak zaizkio ene aburuz. Irudi dakioke baten bati elektorala ere: *“Samur esaten ttuk horreik!”*. Bai, jabe naiz: aldea dago esatetik egitera; alabaina gogora ekartzea, azpimarratzea ez dut ikusten kalterako.

1)**Errepidea**. Funtsezkoa jotzen dut. Ehun urte eta gero, behar du eguneratze ganorazko bat. Ez naiz hasiko errepide horren premiak zerrendatzen, begien bistakoak eta larriak dira: amaigabea litzateke.

2)**Auzobideak**. Kilometroak dira, eta zenbait puntutan segurtasunak ez du berme apurrik.

3)**Saneamendua***. Ez da ezelako gutizia. Zaila dela, garestia... Ezinbestekoa, ordea, lehen, orain eta gero. Eskatuko du nekea, denbora, eskuzabaltasuna...

4)**Etxebizitza**. Bai, gurean ere bizilekuaren arazoa bizi eta gordin dago. Zeren eta jende asko dago —esan egin behar da— landa eremuetan bizitzeko prest*, eta gazteak dira gehienak; ez al da itzela! Konponbide errazik ez dago; emango ditut, hala ere, zenbait iritzi: a) orain arte ezagututakoak ez digu balio; hots, etxebizitza + baserria. Beraz, eraikin *“barrakoi”* horiek 2,3,4,5... etxebizitza bihurtzeko adina ematen dute*. Zein da arazoa? Datorkigun liturgia familiarra*, legeria atzeratu eta zurrana, etab. Hortaz, mentalitate iraultza, ala jai dugu. b) Eraiki behar dira etxebizitza berriak ere (2 eta 3 solairukoak) edozein herritan bezala, babes ofizialekoak eta bertan bizi nahi dutenentzako.

5)**Auzo lurrak**. Baditu lur sail batzuk Araotzek, Aizgain aldean gehienak. Baina ez du metro kuadro bakarrik ere Elizondo inguruetan. Aurkitzen da auzoa eskuak loturik edozein egitasmo aurrera ateratzeko; ez du eragozpen makala!

6)**Instituzioa**. Araban-eta kontzejuak baditu eskumen txiki batzuk; Gipuzkoan hutsaren hurrengoak gara. Hori dela eta, ari dira hor auzo udalak eratzen batean eta bestean. Aztertze kontua da: on-gaitzak?

7)**Auzo Batzordea**. Ez dira nire hitzak: “Hemen denok gaude laguntzeko, baina beti egin behar du tira talde batek*”. Hortaz, txandan-txandan ardurei heldu eta bultza egingo duen taldea zaindu beharra dago. Irudimena eta kuraia. Epizentroa.

8)**Bizibideak**. Ametsetako zero kilometroan ogibidea errazago eduki dute batzuek. Erraztuko al zaio kontu hori gurea bezalako txikiari? Badut esperantza. Esate baterako: zer ekarriko du etxetik lana egiteko aukera infinituak? I. Sektorea. Gaur egun ez da inor bizi nekazaritzatik auzoan. Alabaina, txapela erantztekoa da* zaletasun hutsez kultura horri eusten dioten izerdia; segi dezatela urte askoan. Baserritik bizitzeko jauzia, ordea, nekeza dakusat. Agertuko dira proiektuak: gazta, baratzea, basoa, eztia... Sustapen eta laguntza guztiak horretan murgildu nahi duten guztiei. II. Sektorea/ Zerbitzuak. Potentzialtasun itzelak ditu nire ustez: Jaturabe-Sandali*, landetxeak, ibilbide ongi seinalatuak... Eta Araotz ez dago aukera bakar bati ere muzin egiteko.

Lana. Ander. *Gure Bazterrak* elkartea

Esan beharko dut zer edo zer eskuetan duzun aurreneko liburukiaz ere: zer diozu, Koldo? Kandido Izagirre dakarkit gogora, *txikiñok pauloka* elizpean, eta hura gure esateko erak harrapatu eta oharrak izkiriitzen: “*Zer itten dau fraide honek?*”. Askoz beranduago ohartu nintzen zeinen lan erraldoiak egin eta oparitu zizkigun; lexikografo itzela!

Urrretxuko seme haren antzera aritu zaigu Ander ere, zehatz eta zorrotz. Eta are eta gehiago saiatu da araoztarraren barrunbeetan arakatzeko: portaerak, arrazoiak, usteak... Ekografia soziala. Zinez dira miragarriak egileak erakusten dituen eskolak eta dohainak; transkribatzaile aparta!

Baina ohartuko zen honezkero baten bat: bai, talka moduko bat sortzen zait; nostalgia! Izan ere, Anderrek halako miresmen leiala die *zaharkinei*! Hala eta guztiz ere, hunkitu egin nau ikusteak liburuan auzotarren arnasa, odola, muina, egia... Biluzarazi. Aitortzen du zeinek? Auzoari modernitatea besterik desira ez dion batek. Gu eta gure kontraesanak.

Eta huts egiteko beldurrik barik esango dut: “Hortxe da araoztar estimatuaren itzala”. Goza!

Zur eta lur utzi ninduen Anderrek*: “Bi liburukik osatuko dute *Araoztarrak* lana”. Sinetsi ez sinetsi geratu nintzaion. Oker nengoen. Badu mutil honek adorea! Belauniko jartzen natzaio, esateko: “*Siñistu ezinda nak. Saiatu haiz benetan, asmau dok, eta dextente gehixaa xakixau oin. ESKERRIK ASKO! Araotz betik egongo dok zorretan hiregaz.*”

Eta zer esan *Gure Bazterrak* elkarteari buruz. Ba, elkarte gaztea dela, herrikoa. Eta ezaguna sustatu eta aurrera atera dituen lan itzelengatik. Ezin naiteke gera horietako zenbait aipatu gabe: *Erreusak*, baserrietako ondarearena; *Txondorra*, Oñatitik kanpo ere harridura sortu zuen eskola bizia; *Olabartarrak*, auzotarren zuztarrak; *Araoztarrak*, eskuetan duzun oparia. Eta Elkartek bultzatu eta finantzatutako: *Irunberri 1990*, *arroilaren negarra* eta *Kanpazar 1975*, *gera*

zikinaren hastapena, memoriari zorra —Pako Aristik idatziak—. Eska ote dakioke gehiago bost urteko elkarte bati?

Behar zuen Oñatik, behar zuen Euskal Herriak horrelako zain bat: zortekoak gu! Euts diezaiola urte askoan.

Koldo Zumalde Barrena

(Aizkorbe Azpikua)



Oharrak

***Unibertsala**. Ekitaldi polita egin zen 2019ko martxoaren 16an Araozko plazan. Gogoan dugu. Orduantxe aurkeztu zen **Araotz zigilua: Arotz, Mirotz, Bihotz**. Badut anedota bat. Geroztik atera dugu zigilua baliaturik merchandising moduko bat (kamisetak, mantalak...). Horrelako bat ikusita, esan zidan neska argentinarr batek:

—*Arotz, mirotz...* Ez dut harrapatzen”.

—Begira zuen herrian ere jendeak lana egiten du.

—Noski. Mundu guztian bezala.

—Lanari egiten dio erreferentzia *Arotz*-ek.

—Ados. Eta *Mirotz*? Hegazti bat da, oso dotorea, ikusmen itzelarekin.

—Zer argazki dakarkizu zure herriak burura?

—Zubi bat, parkea, aitarek denda... Lau mila laguneko herria da gurea. Beti bisitan joateko, baina ez da erraza...

—*Nekez uzten du bere sorterrira sustraiak han dituenak...* Ezabatzen ez diren irudiak, ezta? Hori da *mirotza*.

—*Bihotz* ongi harrapatzen dut. Luze joko dit euskara ikasteak...

Eta malko batzuekin alde egin zuen. Kontu arruntak eta unibertsalak.

***Arotz**. Bi esangura ditu Araotzen: 1) Batetik, ogibide bat izendatzeko: arotza, zurgina. Kontuz: *arotza* zenbait euskalkitan errementaria da, eta oker ulertzeak sor ditzake; 2) Bestetik, *arotz* berba normala izan da puntura arte, nahiz eta orain lastok hartua dion nagusitasuna. Ez da inguru hauetan erabiltzen soilik, Nafarroa aldean-eta ezaguna da. **Ahotz** forman du onartua Euskaltzaindiak.

***Leitxe.** Behin baino gehiagotan azaldua dut: *leitzen* du zuztarra. *Leitzen* indartua baino ez da. Adibideak. “*Azerixa hemendik horra leitz ikusi dot*”, “*Zenbat leitz ifiniko dotzut (arrandegixan)?*”. Leitz→leitxe.

***Trozuan.** Eraikuntzako lan baldarretan gehienak; eta ofizioak, hobetotxoago: arotz, hargin, igeltsero... Aitaren hitzak: “*Hamahiru urtegez trozuan Araozgo kamiñuan, hamaseigaz trozuan Iratin, hamazortzigaz trozuan Allozko presia egiten, hogeigaz trozuan Loiola txokolateixian. Hiru urte gerran, eta berriro trozua Legazpin; tartietan basolanetan, ikazkintzan, estraperluen... holaxe fabrikia agertu zan arte*”. Baserrian ez zen soldatarik.

***Lana eskolan.** Ez, ez ginen eskolan ere lanetik libratzen. Joan behar izaten zuen egunero pare batek ordubete lehenago estufa piztera, txandan-txandan. Horrez gain, garbitasuna, suegurra txipitu eta sartu, Elizondo ingurua garbitu trinidadietan...

***Auzolana.** Behar du azalpena-edo auzolanaren gaiak. 1) Historikoki zer izan da auzolana: auzoak erabakitako lanetan parte hartzea nahitaez; hots, kontrolatu egiten zen zeinek parte hartzen zuen edo ez. Kopurua: etxe bakoitzetik bat gehienetan. Baziren aintzat hartzeko aldagaiak ere: animaliak jartzea etxe batek, materialak, etab. 2) Eduki du eboluziorik, noski. Gaur hainbat eratako eginbide, zeregin, jardun eta parte hartzek du auzolan gradua; eta derrigorrekoa izatetik aportazioa boluntarioa izatea ere pasa da.

Aipatuko dut Urtiagaindik Araotzera errepidea egin zenekoa (1929-31). URIARTEk hartu zuen lan hura egiteko ardura, baina Araozko etxe bakoitzak ere aurre egin behar izan zion agindutako auzolan kopuruari. Hala, hiru multzotan banatu ziren etxaldeak, eta mailaren arabera auzolan karga ezarri zitzaion etxe bakoitzari: I.mailako etxaldeak hainbeste lanegun, II. mailako etxaldeak horrenbeste lanegun, III. mailakoak...

***Leku guztietan.** Amerikan, Nafarroan, Oñatin, Legazpin, Zumarragan, Arrasaten, Gasteizen, Donostian...

***Arabara ardotara egindakoak.** Halaxe kontatu zidan Primi handiak: “Arabara ardotara... Egun ederrak izaten ziren haiek! Ez edozelan jantzita, gainera; neskaitillatxo bat artian, baina... Bi eta hiru abade auzuan: uf”.

***Galdetu-galdetu niri egun ha zer izan zan!** Horrelaxe erantzun zidan neskaitila-neskaitila Donostiara neskame joan zen emakumeak. “*Nik banekixen zaila izango zana barriro Araotzera bueltautia*”.

***“Gure bihotza beti hementxe, baina...”**. Horrelaxe mintzatu zitzaigun gazterik Txilera joan, bizi gehiena han egin eta bisitan etorri zen Zumaaldeko semeak: “*Bihotza beti hemen, baina gure bizimodua han xak: gure negoziua, seme-alabak, illobak... Lana eginda, e!: hementxe leitxe, baina guria han xak*”.

* **“Bihotzak ez du ematen ogirik”**. Badira urte batzuk entzun nuela, eta ez nuen neureganatu mezua oso ondo; zortekoa ni, eta ezjakina. Guk alde egin genuen Araoztik, bai; baina migrazioan ere graduak daude, aldeak: eta ez makalak!. Esaldi hura Ekuadortik etorritako migrante batek jaulki zidan: *ikasiak badaki, probatuak hobeki*.

***“Natalia, zu ez zara itzuliko gehiago Kolonbiara”**. Bogotako aireportua, 2007a. Amak alaba Nataliari. Araoztarra dugu 2013tik, eta haren izatea erdibi Kolonbian eta Eskal Herrian. “Bai, Koldo, bai: iltzaturik ditut amaren hitz haiek bihotzean”.

***“Askatasuna ezagutu dut Venezuelan”**. Meza eman berria iritsi zen Gabilondo apaiz Araotzera, gazte lerdena. Harekin egin nuen nik neuk ere lehen jaunartzea. Berehala bidali zuten misiotara Venezuelara. Itzuli zen handik laupabost urtera, sotanarik gabe, bisitan. Eta horixe bota zigun. Asfixiantea apaizentzat ere.

***“Ezagutu dugu Araotz hobeto, ezagutu dugu okerrago”**. Ikaragarriko indarra eman zidan esaldi horrek. Ez edozeinek esana: Seberi Erostarbek... ezagutu dugu

okerrago... Galdetu nion neure buruari: “Hasia al du goranzkoa?”.

***...inguru guztiak bezala.** Bagaude hor taldetxo bat: ZERTZUK berripapera taldea. Azken alea gabon aurtxoan atera genuen, hamahirugarrena. Zenbaki horietan ikusten dugu auzotarren ahalagina zelakoa den. Eutsi tinko, arren.

***Halakoxea baita araoztarra.** Urte dezente dira elizan lan ederrak egin zirela. Mendizabal frailea izan zen akuilu nagusia, eta hark esana dut buruan: “Ez zen egingo lan erdirik ere hortik zehar bizi diren araoztarren apartaziorik gabe”. Aintzat hartzeko hitzak.

***“Sentimendua, Koldo, sentimendua!”.**

—Egin duzue hemen lan eta inbertsio itzela. Ez zaizue burutik pasatu: ... ez dakit, etxe bat erostea Hendaian, Errioxan...?

—Ez, Koldo, zalanza *txikixenik* pez.

***Ribera.** Gaubeako herrikkari oso urruti geratzen zaizkio soldatak, eta jendeak denbora gutxian alde egin du. Leku aparta iruditzen zait: lurra, ura... Zerk zigortu zuen: distantziak. Errepiderik ez, eta lanlekuak kilometro askora.

***Etorkizuna ginenean, errazagoa zirudien.** Gorka Urbizu.

***Saneamendua.** Aritu ginen zertan-hartan, eta ezagutzen dut gaia. Idatzi zen proiektu bat, xahutu zituen udalak 14.000€, eta zertarako? Hozkailuan dago.

***Landa eremuetan bizitzeko prest.** Entzungo duzu edozein hiri eta herritan: “Bizi nahi dut landa eremu batean, naturatik hurrago”. Jende gaztea, seme-alaba txikiekin. Ez dute aurkitzen, ordea, bizilekurik. ...eta herri eta auzo txikiak jende horren premian: tragedia! Horiek ez dute eskatzen lurrik; ez, etxebizitza normal bat baizik, ez dute-eta nekazaritza bizitzeko asmorik.

***Liturgia familiarra.** Esan zidan Arrasateko adiskide batek: “Gurasoak tabernariak genituen, ni neu ere lan asko egina naiz mostradorean. Hartu zuten erretiroa, eta hogeita hamar urte daramatza itxita gure tabernak: ez alokatu, ez saldu... Ez gatoz bat senideok; badakizu, liturgia familiarra”. Oso gauza hedatua.

***2,3,4,5... etxebizitza bihurtzeko adina ematen dute.** 2020an, Zertzuk 9. zebakian, auzoko baserrien inbentarioa egin genuen, zeinetan agertzen ziren gutxienez bederatzi etxebizitza irentsita; hau da, orain bakarra baina bi izandakoak historian (Adibidez: Errasti Txiki/Handi, Amiamen Txiki/Handi, Erramuen Txiki/Handi...). Garai haietan, ez zen izango etxerik aziendarik gabe: “*behi pare bat izango babe*”. Errazago moldatzeko bidea ikusten dut orain.

***...tira talde batek.** German Urkia Goitiak zioen ostatuaren proiektua hizpide. ZERTZUK 11

***Txapela erantztekoa da.** Zuek badakizue noiz erein zen garia orain hurrengo Araotzen? Orain dela hirurogei urte. Aurtan, 2025ean garia hartuko da, ogia egingo da Araozko irinarekin. Gora Jausoro Txikiko Jabi!

***Sandali.** Erakutsi nion behin talde atzerritar bati Sandali. Hauxe bota zidan haietako batek: “Hemen sekulako altxorra duzue; hau Frantzian balitz, sarrera ordaindu beharko litzateke ikusteko”.

***Zur eta lur utzi ninduen Anderrek.** Manuel Gernetarekin hizketan behin, hauxe esan zidan: “*Hemen agintzailla gehixagorik eztok biher; hemen egintzaillak biher txuau*”. Ander Lizarralde Lizarralde, gazte egintzailla nekaezina.



Araotz, baserri mundua ardatz

Oñatiko jarduera nagusia baserriari lotua egon da. Araotzekoa ere bai. Ez dakigu noiztik, auskalo.

Bostehunen bat bizilaguneko harana izan da oraintsu artean Araotz.

(Batzuek esaten dute “*Aranotz*” (haran hotz). Baina ezin da baieztatu. Bada euskaraz “-otz” atzikia han eta hemen, “hotz” esanahitik harago).

Araba Mendiak ditu alde batera eta Aloñakoak bestera. Auzoak badirau. Ez dugu esango abandonatuta dagoenik. Baina lehenagoko baserri komunitatea galdu da betiko.

1960-70 urteetakoa da auzoaren gainbehera garaia. Fabrikak gogor sartu ziren orduan, galtzera bidean jarriz baserriko bizimodua (Fabrikez aparte, faktore gehiago ere badaude).

Oñatiko gainetiko auzoetan ere aldaketa berdina eman zen. Eta euskal probintzia guztietan, bakoitza bere abiaduran.

Gertatzen dena da Araotz kaminoz iristeko auzo oker bezala agertu zela goizetik gauera, kotxearendako traketsak direlako harako bideak. Horrek isolatu egin zuen auzoa, eta hustuarazi.

Auzo jendetsua izan da bestela Araotz, pasarte honek erakusten duen moduan:

Orduen hamar-hamaika ume izaten zien (etxe bakoitzean). Méltxor zan nere gizona.

Eta haren aittai: “Hik zenbat ume dakok ba? Hik ez dakok ba asko?” esan otzain. Eta: “Hamaika bakarrik!”, artien esan eben hak.

Hamaika bakarrik!

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)



Meltxor Urkiaren aita eta ama; Fermin Urkia eta Maria Elorza. Maria Koruetako Errekabittarte baserrikoa.

Oñati Araoztarren ondorengoak josita dago. Neurri batean auzo berezia izan da, aparteko ezaugarriak. Beste neurri batean auzo bat gehiago izan da. Lurrari lotua, abeltzaintzari lotua, erlijioaren jarraitzaileak hezia.

Lehenagoko bizimodua oso ezberdina zen. Hobe edo okerragoa erabakitzea ez da gure lana. Gerneta-Etxebarriko Eugeniak hau esan zigun Legazpin (2024an) egin genion elkarrizketan:

Gauza polit asko itxiko ttugu atzera!

Eurek baino lehenagoko zaharrek kontu gehiago zekizkitela esan zigun Txomeen Enkarnak:

Lenaako zaharrok egon bazien, ba igual gehixaa jakingo zittuen (zituzten) gauzaak, baiña...

Lan honetan Araozko kontuak eta Araozko euskara jasotzeaz gain, auzoko argazki zaharrak jaso ditugu. Elortoko Mariangelesekin, argazkietaz:

Tia Ursula bizi zan Elórton, Artien eguen ezkondu baarik, artien Elorton bizi zan.

Eta euren ilusiñua aitta eta amak batera etarateko, fotografia bat.

Orduen itxerik itxe ibiltten zien kuadruak-eta egitten. Eta etorri da holako gizon bat eta tia Ursulak esan xaa: “Ba, nik gura dot kuadro baten nere ama eta aitta!”.

Eta gure aittajuna, faten zan domeketan mezetara, meza nausittara... Eta beruzkutan Mantxúenien egoten zien, eta hoi gizonoi fan da, eta erakutzi'ste kuadrúa: “Beittu zelako kuadrúa”.

Eta gure aittajunak ikusten dau, eta “bla!” apurtu. Jenixo haundikua zan. Holako gauzak ez xakon gustauten!

(Mariangeles, Elortokua)



Eugenio Zumalde eta Pilar Barrena.

Eugenio eta Pilar ere ohartuta zeuden zenbat aldatu zen dena:

Baiña enee, orduko kontuak... Oingo umiok diferente bizi dira! (Pilar, Aizkorbe Azpikua)

Orduen baiño hobeto bizi da jentia! (Eugenio, Aizkorbe Azpikua)

Gauza bat egoten zan, ordupeerik ez, hoixe zan ona. (Pilar, Aizkorbe Azpikua)

Bai, oin jentia da (dago), ba, trabauta. (Eugenio, Aizkorbe Azpikua)

Oin da (dago) tentziñuan jentia! (Pilar, Aizkorbe Azpikua)

Lan honetan lehenagoko Araotz hartako kontuak jaso ditugu.

Joxe Anjel Urkiari eta bere amari eskainia dago.

Joxeanjeli, lana hasi bezain laister berarengana jo genuenean, eskuzabalik hartu gintuelako. Kontaktuak lortuz, proiektua aurrera eramateko animoak helaraziz, azalpen argigarriak emanez...

Eskerrik beroenak berarendako.



*Ezkerrean Askazubiko Felipe Lizaur.
Eskuman Joxeanjel Urkia.*

Joxe Angelekin joan ginen Legazpira.

Han bizi dira Aizkorbe Azpiko Fermin eta bere emaztea Eugeni. Bittoina, ere etorri zen. Luze hitz egin genuen.

Bittoinari elkarriketa bat baino gehiago egin dizkiogu. Araozko euskararen altxorra ondoen gorde duena da. Eta Araozko berri inork baino hobeto daki. Liburu hau atera dugunean 96 urte dauzka, 97 egiteko.

Ohore bat da bera ezagutu izana.



*Ezkerretik eskumara goian:
Bittoinaren gizona (Méltxor
Urkia), Bittoinaren ama
(Eusebia Larrañaga)
eta Bittoina. Ezkerretik
eskumara behean: Joxeanjel
Urkia, Enrike Lazkano eta
Gerardo Urkia.*



*Ezkerretik, Bittoina Goitia, liburuaren egilea (Ander Lizarralde), Fermin Zumalde eta Eugeni
Goitia.*





Bittoina, larrosia

Beste baten, autobusien-ero, eskurziñoon bat ero, ez dakitt Arantzazu ero nunbaitetik. Eta Arabako Báltiako mutil bat, Jóxe izena eukena, ezautu egitten neben nik ha. Eta nere onduen ha tokau zuan. Eta esan nontan: “Zu ez jaatzi!”.

Eta autobusetik beste danak jaatzi eta: “Zela geldittuko naiz ba hemen?”.

Eta: “Dakotzun begixakin neuk biher zaut zu!”, esan nontan. Baiña billurtu egin nintzan. “Zer xabik honek?”. Eta bajau nintzan.

Baiña zeozer ikusi nontan politta.

Amandria zahartuta oin zakartu egitten da, baiña larrosia be bere denporaan politta izaten da, zakarrena be!

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Lan honetan batzuetan hikako forma solteak agertzen dira (*nere onduen ha tokau zuan*). Horren arrazoia da grabaketaren elkarriketan pertsona gehiago daudela eta aldika hari edo haiei zuzentzen zaiela, hika. Hala mantendu ditugu forma horiek.





Ezkerreko argazkia: Bittoina, baserriko atean.

Gaineko argazkia: Bittoina Goitia. Gerneta Etxebarrikua.





Lenaako bizimorua

Gure bizimorua oso diferentia zan oinddik, e!

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Liburu hau atera dugunean Eugenik 94 urte ditu, bere gizonak, Ferminak 95.



Ezkerretik Marijoxepa Zumalde, Maxima Zumalde. Poltsa beltzarekin Beittiko Melitona Zubia. Eta laugarrena Mari Juana Ezkurra, Maximo Zumalderen ama, Koruetakoa.

Orduen be orduko kontuak bazien. Pobriak pobre oso. Maiaaskuak ibiltten zien zertxobaitt gehixaa zielakotan... Geuk baiño gorrixaguak ikusitta sarrittan, e!

Janaaz eta, plantak bai, eurek ez dakitt zelako opillak egitten zittuela (zituztela) eta holakotxe gauzak.

Baiña danok be arlote bizitten gitzan!

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)

Bota ezebez guk, e! Dana gorde.

Honeik, Eneko-eta, gure alaba gaztieten semia-eta etorri ezkerro: "Hau bota, bestia bota!".

Horreik botaten dakixe (dakite). Gu eza ikusitta gaz, eta guk gorde!

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Bizimodua asko aldatu da lehenagotik oraingora. Honela Mañako Amparok:

Lenaako konturik oin ez da (dago), e! Oso diferente lenaatik...

Neuk diferentzia haundixa topauten dot, lenaatik oingora oso zea. Bai jaaten, bai jazten, bai ibiltten eta bai berba egitten, eta bai danera. Lenaatik oso kanbixauta.

Esaten daue mundua kanbixau dala. Baiña mundua ez, mundukuak kanbixau gara hemen asko, mundukuak!

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)

Oin be ordupeien... Orduko aldien ordupeien, jentia! Guk orduakin hainbeste (zera)...

Egonaldixak be majuak bai, eta gaizki ibilixak be majuak.

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)

Dirua iñun be ez. Baserrittik be zailla! Ardixen gaztaetxon batzuk eta, ba holaxe zerbaitt..

Eta gerra-denporan berriz, zenbat hetarea, hainbeste gari entregau egin biher. Artua be bai. Eta patatia be bai, artien entregau egin biher.

Eta zortzi-beraatzi ume, eta nere gizonen etxien hamaika ume eukein.

Eta Férmin euken izena aittak, eta: "Férmin, hik ez dakok ba ume asko?"

Zenbat dakok ba hik?”. Eta: “Hamaika bakarrik”, artien, “ bakarrik”. “Hamaika bakarrik!”. Uesteiko Beekoitxekua zan.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)



Araoztarrak. Bizkarrez dagoen gizonaren eskumatara atzera begira dagoena Adrian, Emiamena. Aurrez kamariari begira dagueña Goittiko Pedro Haundi.

Pentzauten dou lenaako kontuak dirala, baiña ez oso urriñak onddion, zeatik neuk be ezautu dot eta!

(Miren, Emiemena)

Manuelek oraingoa hobea dela zioen:

Lenaakua eta oingua... Oingua hobia, hor “de acuerdo”, e!

(Manuel, Gerneta Handikoetxekua)

Xeberi Erostarbe Araotz-Urtiko Garaikua baserrian jaio zen. Agerrera ezkondu zen eta han egin zuen bizimodua. Grabaketa bat egin genion duela urte batzuk:

Bai, kanbixua danien...

Gu ezkondu giñala berrogeta hamabost urte bai, eta orduen, hamar urtien-ero egin eben kanbixua izugarrixa izan zan.

Gu “el año cincuentayochuen” ezkondu giñan. Eta momentuen kanbixau zan dana. Porke artien len-lengo zeetan geontzen, iñor ez ebillen fabrikan. Eta gero danak batera sartu zien.

(Xeberi, Agerrekua)



*Frantziska Erostarbe (Beittikua) eta Xeberi Erostarbe (Garaikua).
Lehengusinak.*

Sei urte nittunetik zertzuk pasau dien, zerbaitt badakitt.

Ze atrasau bizi giñan lenaa, zenbat adelantau gaien... hoi danoi. Zuek ez dakitzue lenaako konturik. Lenaakuak gu'takiu (guk dakigu)!

(Manuel, Gerneta Handikoetxekua)

Adelantuak gauza haundixak dira gero e, terribliak dira!

(Manuel, Gerneta Handikoetxekua)

Manuelek bizimodua Araotzen egin zuen. Belaunaldi hortakoa da. Baserritar jaio, bizi eta hil. Kalera jaitsi ez ziren azken araoztarretakoa izan zen. 2010eko hamarkadan hil zen. Ahotsak-ek egindako grabaketatik (eta familiak pasatako beste batetik) jaso dugu bere hitza:

Lenaa dirurik ez zan. Oin, biher be ez oin beste, e! Dirurik ez zan, baiña zainketan ekitten bazara, asko ez da biher, e!

(Manuel, Gerneta Handikoetxekua)



Manuel Goitia, bere andrea Angela Unzurrunzaga eta Jesus Mari semea (Manueltxo).

Baserritako alimentua izaten zan enjeneral, goizien talua eta esnia, esne ona, lenaako behi gorri harein esnia, esne fuertia, t'esne hori egosten dozu, eta talo horreaz hoi esnioi jaaten boozu...

Eta bestela tremesa zopatu, eta mutikua, hori jandakuen...

Oingo kafesne makal hau janda baiño... Gero eguardixen babagorrixa eta urdaixa, eta txorixo pusketatxon bat.


Neguen babia eta azia...

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Maiaazkuak, Mirenek kontatua



Miren Uriarte, Emiemenen baserrikoa, burdian jarrita.

Goizien esnia zopaakin. Kafesnia lujua zan! Hori eguen lekuen nehiko ondo. Beste batzuk mookillok, ero taluakin esnia. Hori ikusi dou saillien!

Zuk Errástiko Ricardo ezautu zebeñ? Harek esaten eben: “Maiaasko izena bai, izena itxe batzuk, baiña ze maiaasko? Goizien eta illunkaran esnia jaateko eukena, haxe bai harro, haxe bai maiaasko!”.

*Eta nere semerik zaharrenak entzun eben bai, eta sekula ez xako ahazketan.
Goguen dako hak esandako esaera hori.*

Eta ba holaxe!

*Eta egurdixen baserrixen, babia, eta azia, eguenien (zegoenean). Betik ez zan
egoten azia be!*

*Sagarrak-eta, oin alperrik galtzen dienak, orduen egon bazien! Nik etxien
ikusten dot oin, intxaurrak zatittuta, garbittuta gertu ifini bai, eta oin probau be ez
daue egitten!*

(Miren, Emiemen)





Lenaako bizimorua, Gerneta Etxebarriko ahizpek kontatua

Ondo pentzau ezkerro, baloria emun biher xaku (xako, zaio) lenaako bizimoruai, e!

Danak batera etxien, aittajunak, amandriak, gu umiek gitzan artien baiña... (Harremana) gerien etxien euki gebena behintzat ona zunan.

Gauza asko ikesten dozu. Haik aittajun-amandriak egitten ttuen hitzak, umiak holaxe egoten dira (begira-begira), eta gauza asko ikesten da.

Eta neuk ikaragarriko baloria emuten xaat gauza horreiri. Gaur hainbeste telefono, hainbeste (zera)... Umiak ibilli be ez dira egitten zuzen! (mobillagatik). Ez da normala, kalien zoiezela, hola faatia...

Neutako (neuretake, nire ustez) lenaako bizimorua trankillagua zan hori baiño. Berba egin biher danien berba egitten zan. Baiña oin telefonuakin umiek daz... Umiak txiki-txikittatik, e! Eskolaan-eta hasi dira pittin bat kentzeen, baiña...

Bizimorua trankilla zunan lenaakua, e!

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Gutxirekin konpontzen zirela esan digu Bittoinak, Eugeniren ahizpak:

Bai, lapikua gozaketarakuen-eta zartaiñaan kipula apurtxuak-eta, lapikuai botateko... Baiña baten bat haunditxuagua ifiñi eta ogi-apurtxo baten gure amandriak aittajunai. Aittajunai emun, eta mozuan igortzitxo bat pasaraan eta... Majo arrelauten zien, bai!

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Egongo zien astolanak eta egongo zien gauza asko. Baiña baegozen gauza gozuak be.

Gu egoten giñan beti josten. Lenengo souen ibilli eta gero afalostien (josten)... Igual hamabixak arte egoten gitzunan, e!

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Kaltzagiñen, jersegiñen...

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Jaittan (domeketan), mezia entzun, eta etxia garbiketia, izaten zan. Kántu báten danok. Kantuen, eta barre gehixaa egitten zan oin baiño! Oin guk gaztien konturik ez xakiñau asko, baiña gauza noblia... Nik emuten xaat baloria horri be, emuten xaat baloria!

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)





Araozko euskara

Araozko Euskararen eta Oñatikoaren artean aldea dago, diferente sonatzen dute, ezaugarri gehienak azalekoak diren arren. Arreta jarri xehetasunetan, bien arteko aldeaz ohartzeko.

Normalean hiztunak ez du izaten hitz egiten duen hizkuntzaren detaileen autokontzientziarik. Araotzekoek ere ez:

Oñatin eta Araotzen antzera egitten dok, e?

(Fermin, Borjena)

Diferente hitz egiten zen Araotzen?

Zerbaitt bai. Akordauten naiz detaille batzuk. “Naranja,” eta guk “laranja” esaten geben eta ba gaizki esaten zala. Honeik (kalekoak) fintxuaguak.

Holako berba batzuk baegozen...

(Nieves, Sakristauena)

Guri eskolara etorri gitzenien (Oñatira) burla itte’skuen “aa” luzeketan gebelako.

(Joxeanjel, Gerneta Etxebarrikua)

Neri burla itte’stain hona Oñatira etorri gitzanien (eskolara). Oin ez’tai burlarik egitten.

Orduen, zerbaitt diferentia egitten gixuan.

(Joxeanjel, Gerneta Etxebarrikua)

Oñatin “eztau eta badau”. Eta guk “eztaa eta badaa” (“ez dago” eta “badago” esateko)

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Xeberiri galdetu genion ea araoztarrek diferente egiten zuten berba:

Igual bai, pittin bat, palabra batzuk bai. Dana ez noia esatera, baiña neuk be igarte’stet. Kalekua eta hemengua, pittin bat kanbixauten da bai.

(Xeberi, Agerrekua)

Ez dira diferentzia handiak, egiturazkoak, morfologiazkoak-eta. Ia denak fonetikako diferentzia txikiak dira. Baina behin eta berriz agertzen direnez, Araozko hizketa diferente sartzen da belarrira.

Maximok:

Diferentziak... araoztarrak euskeraz kaletarrak baiño neuk esango nauke, hobeto. Kaletarrak zelebriaa egitten daue guk baiño.

(Maximo, Maña-tti Behekua)

Maximo Mañako pastorea da. Bizitza osoa egin du Mañan. Oraindik han bizi da. Azkenengoetakoa da bertan jaio eta bizi dena. Baserri munduari lotuta egin du bizimodua.



*Maximo Zumalde,
gaztetan, iixkuaaz.*

Txomena baserriko Enkarna Grisaleñak hau esan zigun:

Eske Oñatin bastante xeblebre egitten dozue-eta.

(Enkarna, Txomena)

Txantonbalduen Juliri galdetu genion araoztarrek diferente egiten duten berba:

Bai, hitz batzuk bai...

Nik ez dot konserbau. Baiña beziño batek ixa ehun urte kunpliu eben eta harekin berba egitten nebenien, akordauten nintzan harek esaten zittula hitz horreik, nik umetan ibilittakuak. Harek bai, hil arte euki eben. Eta ondiok ez da denpora asko hil dala, e!

Zan Errámuena. Erramueneko Braulio. Errotarixa. Kalien bizi izan zan.

Juntauten nintzanien harekin, eta berba egitten gebenien, orduen bai akordauten nintzala harek ondiok hitzak manteniuten ebela Araozkuak.

(Juli, Txantonbalduena)



*Feli Bergara,
Txantonbalduena,
eta Mielen
Txikiñeko Arantxa
Zumalde.*





Araozko euskara, Jesusak kontatua



*Jesusa Zumalde, eta
Pilar Madinagoitia
(Mañakua, Azpiko
Haundikua).*

Ni akordauten naiz, ni Etxeberrian egonda na (nago) kriara (Kale Barriako jatetxea)... Ni hor egonda na ixa hiru urtien, fija bertan, e!

Ni fango nintzan hara hamazazpi urtekin... Eta ni Araozdik etorri, eta erderaz be oso gutxi entzunda, eta mostraorien lanien eta...

Orduen Etxeberrian mutillak asko egoten zien, txikiteuen ero zeien, eta nik ba araoztar-araoztar egitten neben, claro, eta besta bat be han ebillen Araozkua, (Mañako) Azpiko Haundiko Pilar.

Eta hak urte pare bat ya baxoian han, eta harek be barre egitten eben, zeatik, claro, nik araoztar-araoztar egitten neben, eta mutillak badakitzu, hori distingiuten euen...

Eta nik holako zerik ez neuken ondiok, eta Pilarrek: “Ai, horreik badakin barre zeatik egitten dauen (duten)? Gu araoztar netuak gaittun bai, eta araoztar egitten doulako, horreik itte’skunai barre. Baiña kasorik be ez egin horreiri, e!”. “Kaso? Nik nere zea egitten xonat, ze gura don ba, horrein mouen berba egittia? Horreik zela egitten xonai ba, diferente, ala?”.

Eta: “Ené, oso diferente don hemengo zea, horreik ez xakiñai berba egitten be, esateko mouen!”.

Gero faten zara denporiaz konturatuaz, “etórri biáazu”, “pentzauten” eta holakuak, ezta?

Araoztarrak, bertatik urten-bakuak, harek bai araoztar, beste tonada bat...

(Jesusa, Aizkorbe Azpikua)





Araozko euskara, Benittok kontatua

Berba batzuk baxazek (baxagozak, bazeudek) diferentziak, oin momentuen ez nauk akordauten baiña... Diferentzia baxaguan bai. Esate baterako, “pentzauten” esaten gixuan guk betik.

Eta gero, Araozdik Uasteira diferentzia xaguan, uasteiarrak ya leiztar egitten xuain. Bueno, uesteikuak leiztarra’tzittuan (leiztarrak zittuan) izan be, e! Ha Kórueta dok. Uesteikuak, haik Araotzen egitten xuain bizimorua, lau baserrixak, baiña izatez Kóruetakuak ttuk haik.

Guk mutikotan “pentzauten” eta holako gauzak bai, bageukan. Oin kaleko jentiakin hainbeste urte fabrikan eta zeien, ba...

Benittok urte pila bat egin ditu kalean bizitzen. Eta gainera bertsolari bikaina izanik, euskara izan du bertsoetarako langaia. Horregatik, bere euskara ere aldatu egin da, kaleko formekin nahastu zaio Araozkoa. Ohikoa da, kalera joan diren denei gertatu zaie.

Horrek zaildu egiten du Araozkoa nolakoa zen garbi jakitea, baieztapen ziurrak egitea.

Honakoa galdetu diogu Benittori: “Oñatiarrak konturatzen ziren zuen euskara diferentea zela?”

Bai, bai, eta burla itte’skuen gaiñera, burla egin be bai: “Honeik araoztarrok berba egitten be ez xakixai honeik!”, eta burla itte’skuein bai... “Honeik ez xakixai euskeraz be egitten!”. Entzuten gixuan horreik.

Nik uste xuat Urrúsulan be ez zala egitten Araozko mouen. Araoztarrak bageukan hori pittin bat, aparteko zeoi bageukan.

(Benitto, Ojala Haundikua)



Ezkerrean Paulo Azkoitia, Mañako Azpiko Txikiñekua. Eskuman Benitto Barrena.





“Osaba” eta “izeko”, Bittoinak kontatua

Gutako “izeko” eta “osaba”... “Izeko” esaten gotzan tiai. Nere amandria eta aittajunen senidiek, horreik “osaba”...

Nire amandrien ahizpia euken andria (Errotabarrikoak).

Haik aberatza’zielako (abertzak ziralako), hareitxeiri tio, hareitxekin hasitta.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)



Araoztarren izaera

Norbea jaixotako lekuak beti tiraketan dau gehixaa.

(Maximo, Maña-tti Behekua)

Araoztarrek izaera berezia duten... Zaila da jakitea. “Araozkuak halakuak dira”, edo “holakuak”... Baina zeintzuk, araoztarretatik zeintzuk, ze auzounatakoak, ze baserritakoak? Hainbeste araoztar izan dira...

Baserri komunitate bat osatu dute, eta geografikoki aparte samar egon dira. Horregatik, batzen dituzten ezaugarriak izan daitezke. Baina zaila zehaztea.

Baserri munduko jendearekin lotzen diren ezaugarriak ez dira Araozko partikularrak, Oñati guztian aurkitzen ditugu, Olabartan, Larrañan, Murgixan, Berezaon... Bestalde, ero, ausart, basati fama, horrek asmakizun bat dela ematen du, besterik ez.

Taldeek, eta giza taldeek, bere ezaugarri diferentzialak indartzeko joera ezaguna da. Ezaugarri horiek batzuetan funtsa dute, beste batzuetan ez.

Enkarnari galdetu diogu zer esaten zieten araoztarrei kalean:

Araozko “enkanntauak” eta, burlak... hori gaitzizen bat izango da.

(Enkarna, Txomena)

Eske ni tabernan ibilli nintzan, Txaketuanien, bastante urtien. Eta “Araozko enkanntauak”, hori esate’skuen.

(Xeberi, Agerrekua)



Ezkerretetik: Maria Uriarte (Txapelena), Eugeni Goitia (Gerneta Etxebarrikua), Enkarna Grisaleña (Txomena), Asuncion Barrena (Otalakua), Juanita Odriozola (Aizkirri, Arantzazu), X... (Karpokoa?), Rosario Uriarte (Jaturabe Makinetxekua), Estanis Uriarte (Makinetxekua).

Elexpuruk honela jaso zuen bere Hiztegian, Oñatiko forma moduan:

“Persona creída, satisfecha de sí misma”.

Araoztarrak “enkanntauak”?

Araoztarrak enkanntauak, bai, araoztar enkanntauak... Ez dakitt ze esan gura dauen horrek. Gaixkiizen bat izango da-ero.

“Eske zelebriaguak zai zuek araoztarro, izan be!”, hori entzun izan dot.

Ez dakitt ze zelebrikerixa dakoun.

Leku danetan diferentia izaten dira bai gauzaak, eta... Mendixen gazelako-ero izango da, kaletik aparte gazelako. Egon-be halaxe gaz, e!

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)

Araoztarrak itsasoa ikustera joan zirenekoa kontatu digu Enkarnak:

Entzun izan dou, “hau dok zelaitzarra, enee guk bagiñakuk holako zelaixa, behixak manteniuteko”, esaten euela.

Eta hortik aurrera badira gehixaa be, e...

Horreik etaratako gauzak dira, e, fan ez zien egingo haik...Oñatiarrak etarata horreik kontuak. “Araoztarrok atrasauak” eta holako gauzak eukein eta...

(Enkarna, Txomena)



Enkarna umekin.

Itsasoarena entzunda daukan galdetu diogu Mañako Maximori:

Ez, hori ez dot entzun. Araoztarrak egingo ete euen ba hori? Esan bai, baiña keba.

Hain tontuak ez zien izango! Soua eta ura oso dira diferentiak!

Ez dot pentzauten hori hola izango danik.

(Maximo, Maña-tti Behekua)

Honela galdetu diogu Maximori: “Ze sentitzen zara “araoztarra” edo “oñatiarra”?”

Ze esango dotzut ba nik... araoztarra. Gu araoztarrak!

(Maximo, Maña-tti Behekua)

Gu, araoztarrak, gu hemengotxiak. Gu Oñatira faten gara, baiña atzera hona etorten gara, e, aguro.

(Enkarna, Txomena)

Oñatiarrak ez zarete?

Bueno, ayuntamiento haraxe fan biher dou eta zerbait eukikorou (eukiko dou), baiña gauza gutxi.

(Enkarna, Txomeena)

Araoztarrak kalera doanean, Oñatira doala esaten du.

Auzo bakarra da, dakigula, hori horrela esaten duena. Hainbeste mende eta gero, galderak hor jarraitzen du? “Araotz zergatik ez da herri aparteko bat?”.

Geografiari dagokionez, aparte dago, handia da, biztanle asko izan ditu, bere parrokia du... Erantzunak hau dela ematen du: Konderriaren parte zelako. Kondearen agindupean mantendu zelako (1845era arte).

Bestela, hala izan ez balitz, bi herri lirateke Oñati eta Araotz. Tolosaldean, adibidez, herrixka pila bat daude (Albistur, Asteasu... 28 udalerri).

Enkarnari: “Kalean ze esaten zizueten?”

Betik kalien gu hola atrasauak izan gaiela... Araotzen ba, jentia atrasaua. Betik euki daue kalien honako zeoi. Kaleko jentia ba, haunditxuagua gu baiño...

(Enkarna, Txomena)

Ez ziren Araozdik askorik irtetzen.

Ni gutxi faten nintzan herrira, txahalakin ero... Eta ferixa egunen baten ero hola.

(Manuel, Geneta Handiketxekua)

Ni hamasei urtekin Madrillera fan nintzuan; eta harrezkero, ba, hor ibilli gaittuk.

(Fermin, Borjena)

16 urtera arte Araotzetik irteten zinen?

Ez, ez. Bueno, egunen baten bai, baiña bestela ez.

(Fermin, Borjena)

Guk gere bizimorua egitten geben...

Orduen kalera gutxi bajauten zan. Gure denporan gutxi bajauten zan kalera. Eskolia-eta bertan egozen eta...

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)

Oiñez zenbat buelta kalera, oiñez be!... Gero jentia fabrikan hasi zanien, Garaiñera faten zien kamionakin. Baiña geutako be ondo etorten zan.

Baiña lenengotik ezebez. Astuakin, eta ba kitto!

(Xeberi, Agerrekua)



Xeberi Erostarbe, alabekin.

Asto gogor-samarra izan ezker, gaiñera igo, eta andrak airoso!

(Rikardo, Agerrekua)

Oin aiña kotxe be ez zan ibiltten!

(Xeberi, Agerrekua)

Nieves Agirre, Sakristauaren alaba. 1939an jaioa.

85 urte dituela egin diogu elkarrizketa. Araozdik kalera lehenengo aldiz noiz joan zen galdetu diogu:

Lenengo aldiz hamalaukin. Bai.

Ordura arte Araotzen?

Araotzen. Gustora gaiñera! Dantza baten. Domeketan. Eta bestela, berriro, eskolaan. Eta nola bizi nintzan plaza-plazan, ba beti egoten zan han jentia. Neskailla-mutikuak.

Badakitzu baserri baikotzien zenbat neskailla-mutiko!

Ba, han danak juntaute giñan!

Neskaillak geure eskolia geuken, eta mutikuak euren. Aparte ibiltten giñan gu, e! Bai. Formal asko! Rekrea be diferenteko orduen urtetan eben.

(Nieves, Sakristauena)

Oñatira joan zinenean, ze inpresio egin zizun?

Ba, nere lagunak bajauta egozen eta mobimentu gehixaa. Eta ni salseria betik nola izan naizen ba...

(Matilde, Txapelena)

Matilde Uriarte, Araotz Urtiko Txapélana baserrikoa, Legazpira joan zen bizitzera, gizonaren lanagatik. Gizona Arantzazuko Zapiarbe baserrikoa. Biak Legazpin bizi dira.

Jausoro auzuneko Jausoro Garaiko Floreni galdetu diogu noiz jaitsi zen lehenengo aldiz Oñatira:

Zortzi urtekin, Candido anaiakin, behi bat bajautera, esto, zeaana, betenarixuana, indiziñua ifinttera, zea eukitteko... Iiskuakin ez xuan eukitten, eta indiziñuakin.

Ez xuan hartu artian-be, e!

Oñez e, behixakin, Araozdik.

(Floren, Jausoro Garaikua)

Oñatik ze inpresio egin zizun?

Nik orduen anaiai galdeketan nitxan ikusten neben dana: "Hori zer da? Bestia zer da?". Azkenien anaia aburriuta, hainbeste preguntakin!

Claro, ikusten neben dana, neretako barrixa zuan!

(Floren, Jausoro Garaikua)



*Ezkerrekoa, Maria Isabel
Lazkano, Antzuena. Eskumakoa
Floren Agirrebalzategi,
Jausoro Garaikoa. Atzekoak
Joxemari Txantonena eta
Jausoroko Lurdes.*

Kalera gutxi etortzen zineten?

Bapez. Kalera? Bapez! Kalera bajauten hasi giñan hoge urtekin ero hola...

Gu kalera oso gutxi.

Ez eguen dirurik eta moruik be ez (kalera jaisteko). Eta oso gutxi.

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)



*Ezkerretik:
Mariangeles Zelaia
eta Arantza Elorza,
Lurgorritakua.*

Gu Araotzen ondo jirautez giñan, bajau baarik.

(Mariangeles, Elortokua)

Kalera, Oñatira, gutxi jaisteaz gain, Araotzen bertan ere ez ziren mendirik mendi ibiltzen. Elizondoan, euren auzounean, basoan (iratan, gaztaiña-batzen...) ibiltzen ziren.

Behin fan gitza mendira, gatzatua jatera ero, Degurixara... Eta neskatilla eta mutikuak hasarratu gitza.

(Mariangeles, Elortokua)





Araozdik irteera gutxi. Txomenak kontatua



Agustin Guridi, Txomena. Haria egiten.

Orain afiziño handia dago Aizkorrira, Aloñara, lehen ibiltzen zineten?

Bai zea, astirik ez baiña!

(Agustin, Txomena)

Iñobez, oingo moruen mendira jenterik, gure denporan ez da ibilli e!

(Enkarna, Txomena)

Astirik ez geuken!

(Agustin, Txomena)

Gu ez arren, gaiñetiko jentia be oingo moruen ez zala mendira faten... Oin daguen afeziñua jentia mendira fateko, keba! Urbixara-eta be ez oingo moruen jentia lenaa... Hoixe, gure moruen noizipeiñian baten batzuek.

Oin esaten dauenez (dutenez), jente asko faten da.

(Enkarna, Txomena)

Tontorretara joaten zineten?

Aloñara, Jaione (alaba) txikitxua zala ni lenengo aldiz.

(Enkarna, Txomena)

Aizkorrrira?

Honeik (alabak) ya haunditxuaguak ziela fan giñan lenego aldiz.

(Enkarna, Txomena)

Aizkorrrin behin na egonda.

(Agustin, Txomena)





Aizkorri, Aloña, Bittoinak kontatua

Aizkorrin zenbat aldiz egon zara?

Aizkorriko puntaan bi aldiz bakarrik, e! Orduen ganau-janak egin biher izaten zien domekaan be!

Aloñan?

Aloñan egon naiz... Punta-puntan sekula be ez. Fotografian ikusi dot bakarrik.

Nere koñata Felipaaz-eta hara beheraiño, beheko launtxora, Bélarrera, haraiño bai.

Pittin baten behin goora mobiu eta ni baiño zahartxuagua zan nere gizonen arreba Felipioi, eta “eh, ez dou fan biher!”. Eta buelta.

Haaxe ikusi baarik penia badakot, baiña gero ikusitta dakot zeien, telebisiñuan. Telebisiñuan dakot ikusitta behin ero behin.

Olabartan?

Olabartan egon egin naiz, baiña asko ez dakitt (hango) barri, e!

Olabartan egongo nintzan lau aldiz ero bai.

Gero zeien (merenderuan), taberna hortan be bi aldiz ero bai.

Baiña Olabartako barri asko ez dakitt.

Beste elkarizketa batean antzeko galdera egin genion: Olabarta eta Larraña eta, ondo ezagutzen zenituen?

Horreik ez, horreittara gu fan be ez... Kalera errekaue egittera eta buelta egin, eta itxera (Araotzera).

Eta gero, fiestetan, faten gitzen (Oñatira). Geuken hemengo aitten hiru arreba Oñatin. Eta haitxetara konbidau, eurek be gerera etorten zien hemengo festa 'tzienien (fiestak ziranian), eta geu be haraxe fan, eta kalien dantzan egin eta zea.

Eta gero han aurrekua etaraten eta zeien ibiltten zien. Eta gure bi ahizpa etara zittuen (zituzten)... Neskari ederrenak etaraten zittuen.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)





Araozdik kalera, Eugenik kontatua



*Eugeni Goitia,
Gerneta Etxebarrikua.*

Gu Oñatira faten gitza Korpus Egunien. Hiru tia geuken, eta eurek Trinidadetan gerera (etortzen ziren), eta gu Korpusetan hareiña.

Faten giñan hiru-lau neskatilla-mutiko... Marmittan hartzen geben esnia, tiai asko gustauten xaten eta gatzatua egitteko... Faten giñan marmittatxuen esnia

hartu, eta Korpus Egunien.

Eta gero, ba, Oñatin egoten zan, Tiobibua egoten zan, hoi bueltakuoi. Gu ilusiño danakin, txakur-haundin batzuk eukitten gittun aurreratuta, hantxe gastauteko, eta faten gitzan ilusiño danakin hantxe bueltia egitteko.

Eta abariak, gu neskatiillatuak, ze ikusiko oskuen ez dakitt... ez ibiltteko Tiobibuen, asko ikusten zala-eta!

Urte danetan faten giñan.

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)





Herrira, Jesusak kontatua

Asko ez ziren jaisten Araozdik kalera, Oñatira. Eta jaisten zirenean, herri txikietakoak hirira joatea bezala zen haiendako. Jesusak:

Gu bajauten giñanien kalera, ez gitzan gustora egoten. Zeatik, claro, kaletarrak eukein gutako (guretako)... ba, aldeana batzuk gitzan eurendako!

Ez gekixen erderaz, eta euskeraz egitten geben.

Erderaz egittia gura geben, baiña gaizki egitten geben, claro, eta hor egoten zan tremendako zea... Eta askotan ez etortia (kalera) guraa izaten zebe. Askotan, hamabost urte-ero neukenien, akordauten naiz: “Kalera ez fatia guraa xuat!”.

Oñatiko beste auzoetara joaten zinen, adibidez Olabarrietara?

Olabartan ni egonda na fiestetan, baiña orduko (ordurako) ya kalien ninguela. Guk bestela ez dou urten hola...

Claro, kotxerik be ez geuken, eta handik urteteko, ez pentzau Araozdik kalera... Gaztetan, gu hasi giñanien kalera etorten, hamabost-hamasei urte eukiko gittun.

(Jesusa, Aizkorbe Azpikua)



Herrira, Benittok kontatua



Ezkerretik, Benitto Barrena eta Felix Arenaza, Haizgaingoa (Araztakua).

Herrira (Oñatira) gutxi jaisten ote zen galdetu diogu Benittori:

Oso gutxi, herrira gutxi. Ni herrira...

Akordauten nauk, lenengo aldiz etorri nintzan Oñatira... Zazpi urteaz egitten zan komuniua eta nere primo batzuk xakuain hor Merceria Aixkirri, eta hara frakaan

batzuk egittera...

Lenengo aldiz orduantxe etorri nintzuan nere arreba zaharrenakin kalera, zazpi bat urtekin.

Gero be asko ez e, zeatik kalera bakarrik etorten hasi nintzanien be, hemen plazatik Araotzera biria... Atzeko Kalera hartu biharrien, besteko kalera hartu, eta mutikua, akordauten nauk, fan nintzana Bidaurretaraño... Eta han akordau: “ño, hau ez dok!”.

Eta gero buelta egin eta...

Hori neri pasautakua, e! Nik orduen euko nixuan dozena bat urte ero.

Etorten gintzuan (Oñatira), txahalak egitten zienien hogeta hamar bat erralde-ero, urtia inguruen. Oiñez ekarten gitxuan. Muturra sokiakin lotu eta atzetik jotene torri biher zuan. Eta mutikuak, parte, anae zaharrai lagunketan, anae zaharrai ero aittai lagunketan, haxe atzetik jotene etorten gintzuan.

Eta mataeixia hamen xaguan, San Juan Kalen.

Hor bire-zar bat xaguan “Bidebarritta” esaten xakona, eta bire-zar hortatik etorten gintzuan matadeixara.

Eta orduantxe ikesi gixuan pittin bat (kaleko berri).

(Benitto, Ojala Haundikua)





Araoztar enkanttauak, Bittoinak kontatua



Agerrekoak. Zutik ezkerretik: Joxepa, Nikolasa, Beneita eta Pilar. Behean: Mariana, Joxemari, Paula, Marianjeles, Bittori eta Lorentzo.

(Kalera plazara joandakoan) Guri igarte 'skuen araoztarrak gitzana.

Astuaaz faten gitzan beheraiño. Kornelion aurrien... Zela esaten xakok hari etxiari? Don-Pedron etxia-ero...

Hak euken errajetxo batzuk, Kornelion aurrekaldien. Eta astua hantxe lotzen geben. Eta gero handik eskuetan otzaria...

“Araoztar enkanttauak!” esate’skuen, bai.

Ez dakitt ba harrotasuna ero ze ikuste’skuen.

Gu geu eskasaguak gitzalako egoten gitzan, kaletarren beti inbiixetan, buruko puñuelua jantzitta-eta baltzittu ez gaittezen eta, hola ibiltten gitzan gu baiña artien be “araoztar enkanttauak” esate’skuen eta...

Fiestetan-eta be, “baxoiazek horreik txixara-zopia jaatera!”.

Txixaraak badakitzue zertzuk dien, ezta? Fideo-zopia.

(Bittorina, Gerneta Etxebarrikua)



— — — — —

Fermin, Eugeni eta Bittoinarekin hizketan



Eskumako biak hauek dira: Antonio Uriarte, kontratista eta bere emaztea Teresa Madinagoitia.

Kontrabandoan aritzen zineten?

Kontrabanduen bai, garixa ekarten be bai. Anaiak ibili zittuan. Arabatik patatia pasauten be bai...

Errotara nora joaten zineten?

Errotabarrira, Araotzen bertan. Barrira, eta zaharrera be bai.

Braulion aurreko errotarixa, Sebéro. Uriarte kontratistien anae gaztiena. Ameriketara fan zan ha.

(Fermin, Borjena)

Araotzen “osaba” eta “izeko” esan dira. Hala esan digute Gernetakoek. Izagirrek ere jaso zituen hiztegia.

Eta seguruenez, Oñatin ere hala esaten zen. Umerezek ere erabiltzen ditu:

Guk tio... Aurreti osaba, e! Gure aitta-amak, danak “osaba”. Aurretik danien “osaba”. “Osaba” eta “izeko”, “aldeko osaba” eta “izeko”. Bai, holaxe esaten zan.

Eta gero, Errotabarrikua, haik aberastxua’tzien (aberrastxuk ziran), kontratistia gizona eta zea, eta haitxeiri hasi gitzan “tio” esaten.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Guk gere aittajuna eta amandrien erareko danairi “osaba” eta “izeko”. Gero tio...

(Fermin, Borjena)

Sebero mutilzarra zan. Badakin Seberok ze esaten eben Mañako andra horreatik? “Mañar madarikatuoi!”. Mañakua zan Teresa, eta “mañar madarikatuoi!”...

Bere anaien andria zan, eta señoia.

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Gizona zuan... Arantzazuko elizia egin euenak... Uriartetarrek egin xuain. Hiru anae Antonio, Juan eta Maurizio.

(Fermin, Borjena)

Bere anaien andria zan gure amandrien-eta ahizpia. Narzisa (Borjenara ezkondu zena) be horrein ahizpia zan... Narzisa eta Maria, Azpiko Haundikuak, Madinagoitia (abizena), handik etorritakuak...

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Nora joaten zineten ira-ebatera?

Urrin. Mariuntz oster, Koóstolara, Lakiñolara, eta Potóskuetara be bai. Badakik nun daguen Potóskueta? Hori zuan oso paraje politta, pagua'txauzan (paguak xauzan) ikusgarriko paguak! Dana pagua.

(Fermin, Borjena)



*Xeberi Erostarbe
eta Eugeni Goitia,
elizako atean.*





Kalera bidea, Bittoinak kontatua

Egitten zan, hemendik Ugaranera fan biherrien, Elorto paretik, goittik behera, zeara, zelaixen behera, baiña Errotabarrin urten. Bai. Eta gero Jaaturaben be, zubittik zuzen behetik gora... Han sendatxo bat egoten zan, eta handik buelta dana, Jaaturabekua be, kendu egitten zan, zuzen behetik gora fanda.

Urtieñen be, buelta dana itxi, eta goittik behera. Ointxe be egongo da lekua faateko. Handixe behera. Eta ixa ordubetien kalera aillau. Asto baarik fan ezkerro, e! Horreik senda txikiñak, astuak faateko...

Bestela burdibiria eguen. Jaaturaben, kamiñuen azpittik pasauten da biria. Jaaturabeko etxia eta pittin bat horrutzaatxua, piñuak-eta deskargauten zien lekuen, kargaderua daguen lekuen, azpitxotik. Kamiñuen azpittik, han daa zulua. Gu handik azpittik pasauten gitzan.

Mañakuak, presa-barrenera, oiñez doiezenien handitxik. Bestela, ba, astuakin, hoi bueltioi egin egin biher. Astuakin eta burdixakin eta, hoi bueltioi egin egin biher. Baiña presa-barreneti asko kentzen otzain, oiñez fan ezkerro...

Gu askotan, neskaillaak, hamar urte inguru... Eta igual ba, zerbait falta, azukarra ero tomateen batzuk erostia ero, holako arin samarra zanien, eskuetan hartu eta horreik buelta danok egin baarik, aguruaa aillau.

Hor Espillako biria, eta Jaaturabeko atajuak eta horreik itxi ezkerro, ixa ordubetien aillauten gitzala. Astuakin-eta bi ordu, horreik buelta danok zeatu ezkerro, bi ordu biher.

Beraatzi kilometro uste dot diela.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)



Baserritarrak baztertuak



Araoztarrak mahaian. Eskumatik ezkerrera: Pedro Elorza (Lurgorritako Pedro), Lazaro Lezeta (Mantzen Lazaro), Luis Madinagoitia (Azpiko-Haundiko Luis), Manuel Goitia (Untzuten Manuel), Martzelo Ibabe (Agerre-garaiko Martzelo), Seferino Goitia (Andretako Seferino).

Araoztarrak izatearren “enkanttauak”. Eta baserritarrak izatearren “atrasauak”:

Gu araoztarrak atrasauaguak... Kaleko jentia argixagua (hori uste izan dute). Oñatin beti euki daue hori, e!

(Enkarna, Txomena)

Erderaz hobeto ekixen (zekiten). Eta uste geben euskaldunak tontuak gitzala. Eurek listuak. Eta geuk be erderaz ikesten alegiña danien.

Dendara fan (Oñatin, kolean) afraketak eroatera eta: “¿Qué quieres?” eta: “Apargatas para yo”. Eta haik barrez guri!

Orduen baserrikuak besuak-eta baltzittu ez daixen, manga-luziakin eta ibiltten giñan, buruko pañuelua hola ifiñitta puska bat keizpe egitteko eta...

Bestela kaletarren artien gu eskas, gu baltzittuta, eta eurek zuri-zurixak.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)





Oñatira jaitsi, Mariangelesek kontatua

Oñatira jaisten zinetenean, ze esaten zizueten kaletarrek?

“Ya vienen las caxeras”...

Baiña badakitzu zer? Guk erderaz be, tautik be ez gekixen erderaz! Eta orduen, claro, hemen kalien, itxuria erderaz egingo zan... Eta neskaillak gaiñera, gehixaa mutikuak baiño.

Guk ez gekixen erderaz. Guk dana euskeraz egitten geben. Guk dan dan dana euskeraz egitten geben.

Haundikerixia zan erderaz egittia. Orduen erderaz ondo jakittia zan...

Baiña guk dana euskeraz.

Euskaraz diferente hitz egiten duzue Araotzen?

Ez dakitt diferente egitten doun, baiña kalekuak esate'skue: “Araoztarrai igarri egitten xazue!”.

(Mariangeles, Elortokua)





Kalera, Goittikuak kontatua

Joxemariri galdetu diogu: “Oñatira lehenengo aldiz noiz joan zinen?”

Auskalo. Besua apurtu nebenien, orduantxe. Oiñez. Trena hartzeera.

“Tu,tu”, eta mobiu, eta aitta diaarka goittik, han zeien goittik behera, estaziñora. Eta mobiu eta gero geratu trena!... Eibarrera.

Orduantxe izango zuan ni lenengo aldixa Oñatira. Besua apurtu nebenien. Izango zittuan, eskolan nebilla... hamabi bat urte ero.

Ume-denporia hemenditxek urten be egin baarik... Gure jolasak izaten zittuan, basorik baso, okillak harrapauten... Horreik zulua egitten xuai barrura, eta gero ume-mordotxua hazten xuai han barruen.

Eta egunero-egunero faten gintzuan bijilautera.

Eta “da da da” makilliakin jo eta okillak ez badau urteten, txikitxuak xazek onddiok.

Hurrengo egunien fan, eta atzera “da da da”.

Eta halako baten “tzii” batek urteten badau, eskua ipiñi aguro. Eskua ipintten dok eta urten egitten xuain eta “tzii” burua etaraten ebenien, “da!” heldu eta...

Eta gero jaateko e! Lenaa, lenaa ez xaguan jaateko ezer!

(Juanito, Goittikua)

Euren ama plazara jaisten zen. Zer saltzen zuen amak plazan?

Intxaurrak, urrak, arrautzak, gaztaiñak, Eguen dana.

(Joxemai, Goittikua)

Etixerako uzten zituzten arrautzak?

Bai zea, itxien babia eta azak eta... Holoko gauzak plazara, dana plazara! Dirua etara biher gixuan ba! Orduen ez xaguan fabrikarik, e!

(Joxemai, Goittikua)

Urrak silbestriak batu bai, eta amak plazara saltzeera... Txokolatia-ero ekarten xuan gero eta...

Astuakin. Játurabetik, gero Urtiaaiñera igo, hortik faten zuan kalera. Astero zapatutan faten zuan, eta plazan egoten zuan saltzen.

(Juanito, Goittikua)





Emakumeak kalera, Benittok kontatua

Emakumiak egitten xuain zapatutan asterako konpria. Kalera eruen be egitten xuain (jeneroa). Orduen ez xaguan pensiñorik, ez xaguan pensionistarik, eta itxetik ekarten txuain (kalera) arrautzak, gaztaak, uran keizak...

Keizak batzen be ibiltten gintzuan, keizak mordua! Dirua nunbaittetik biher zuan. Haik emakumiak xaukain merittua.

Goizien zortzirak aldera urteten xuain, eta gero atzaldeko laurak-bostak aldera bueltan atzera.

Errekauak egitten betik emakumiak ibiltten zittuan.

(Benitto, Ojala Haundikua)





Plazara, Gerneta Etxebarriko ahizpek kontatua

Araozko andraak, gure amandria eta horreik, faaten zien kalera. Eurek erueten euen igual babia ero patatia ero, gero olixua eta azukarra eta gauzak ekarteko.

Eta gure amandria eta aldekua zien ahizpak. Aldeko Justa. Eta guria zan Maria. Horreik bixok faaten zien astuakin kalera. Zapatu danetan. Oiñez, e! Ordu bi biher zien.

Eta haik etorten zien, eta ekarte'skuen mandarina bana ero pikuak ero.

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Eta platanuak. Aittajunendako platanuak. "Panpanua" esan be egitten otzan aittajunak. Gero komora gaiñien gordeten zittuen (zituzten) aittajunendako.

Eta aittajunak: "Ekarri izue komora gaiñetik panpano bat!". Eta gu fan, uhe-gaiñera igo, eta komora gaiñetik hartu eta aittajunai ekarri.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Eta gero egoten zan ferixia. Santamañan. Eta horra be faaten zien, e, zeara, ferixara. Eta hortik be kontu asko etorten zan.

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)



Kalera, Amparok kontatua

Kalera joaten zinen?

Len zapatu danetan, astuakin, asterako errekauek egittera, azukarra eta kafia eta...

Ogixa etxien egitten geben, baiña bestiak...

Zapatu danetan ez dot esaten baiña ba, gehixenetan. Gaztaak egitten gittunien, gaztaak eruetera. Eta dozenaen bat arrautza baeguen, haxe eruetera eta...

Bidea luzea zen?

Bai, biria luzia... Goizien urten eta ba arratzaldeko bostak aldera etxien. Astogaiñien jasarri eta... Fan, Arrikruzdik buelta eta etorri Játurabetik buelta.

Oñatiarrek ze esaten zuten, araoztarrak kalera joaten zinetenean?

Ba, "Araoztarrak etorri ttuk. Ekarriko xuain zeozer oin be, arrautzak ero zeozer ekarriko xuain, konejuun batzuk ero oillaskoon batzuk ero zeozer".

Orduen dana plazara erueten zan, gauza dana. Oin dendak erozein lekutan zela dazen... baiña orduen dana hantxe zeeketan zan.

(Amparo, Maña Azkoittin Haundikua)

Paulo eta Maria aramaixoarrak zien eta Araotzera etorri zien, Mañako Garaiko-Haundi baserrira. Nire andrien amandria zan.

(Joxeanjel, Gerneta Etxebarrikua)



Maria Otsoa-Aizpurua, Mañakua. Oraingo Lope Agirre kalean.





Zapatuetan kalera, Marijoxepak kontatua

Zapatuetan faten gitzan kalera...

Beti garbantzua jateko okelia domekarako. Pañuelotxo baten lotuta zela ekarten euen be, akordauten naiz.

Txokolatia akordauten naiz, tia Mañakuak eta bixak erdi-bana ekarten euela. Hori amak errekauek egitten zittuneko denporakua.

Eta urri-urri, baiña...

Beste pittin bat estendiuten gitzan. Aittajunak be ardao pittin bat be betik eraten eben.

Arabatik ekarten eben beak.

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)





Kalera, Eustakik kontatua

Errekauak egittera ama astuakin segiru, zapatu danetan.

Urte danien patatia saltzen...

Haizgáiñen itxabolia. Ha iraz eta sitzez bete biher... Gero hango sitzakin eta miñeral pittin batekin...

Tremendako terreno-sailla hormakin zerrauta txirringillia, Haizgáiñeko txirringillia... Burdikaa patatak karriuten gittun handik. Oso patata-lekua da, lurra harro-harrua...

Eustaki Bergara Txantonbalduenian jaio zen. Bizimodu gehiena kalean egin zuen, baina Araozko kontu asko zekizkien. Ahotsak-ekoek elkarrizketa bikainak egin zizkioten.

Gure amak berrogetapiku oillo euken han Haizpeien, eta “entre patata y algo de leche y huevos...” ba gero soiñekon bat erosteko ero... azukarra, txokolatia, kafia...

(Txantonbalduen Eustaki)



Mirari Guridi (Goittikua), eta Kepa Ibabe (Emiamena). Lehengusuak.





Kalera astuaaz, Bittoinak kontatua

Kalera joaten zineten?

Bai, kalera faten gitzan, errekauek egittera be beraatzi urteaz faten nintzan.

Asto baarik fan ezkeru, bi kilo tomate, azukar apur ba... ekartera bialketan gindduen (gintuzten). Beraatzi urteaz askotan be ez giñan fango, baiña beraatzi urteaz be bialdu, zerbaite ekartera.

“Hau bialduko dou!”.

Eta fan, oiñez hor Ugáango bueltia egin baarik, eta Játurebako bueltia be ez, han be behetik gora, eta Urtiaaiñen be, ha bueltia egin baarik, goittik behera...

Horreittan danetan daz biretxuak. Eta orduen, ba, ordubete eta larenien-ero aillau (Gernetatik Oñatira), horreik buelta danok egin baarik.

Eta astuaaz faten zanien, ba orduen gehitxuaa, olixua, azukarra eta ba bialdientxuak (behar direntxoak) ekartera...

Ama faaten zanien, gu ez.

Batzuetan hamabost egunera eta beste batzuetan zortzi egunera, astua hartu eta hirurok igual zapatuen, baikotza preparauten zanien, aide, kalera. Eta beste itxietatik be juntau egitten zan, eta hareikin faten gitzan.

Kotxerik be ez zan egoten orduen.

Hemen, Araotzen, batek euker, “Errotabarri” esaten xakun horrek. Gútako (guretako) tio zan, eta bea zea zan, kontratistia, eta haatxek euker (kotxea)...

Gu astuakin, eta batzuk bihorrak be baeukein, hezitta...

Hezi egin biher izaten da. Bestela zestuak eta zeak ezin ifiñi. Gazte-gaztetatik

hezi biher izaten zan astua be, eta ganauak be holaxe, lan egitteko...

“Biaia” esaten xako gaztetxuai. Eta gaztetxotan lotu biher uztarrixen eta zeien. Bestela gero ez daa errendiuterik, gero inddar asko eukitten daue, eta holaxe gaztetatik errendiu biher, eta astua be holaxe, hezi egin biher!

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)





Kalera astuaaz, Eugenik kontatua



Araotzetik andra danak etorten zien (Oñatira, plazara) zapatuetan, merkaura, astuak hartuta. Konfitteruanien egoten zien astuak lotzeko arandela batzuk ifiñiitta.

Asto pillak!

Besta batzuk, "Korneliona" esaten gotzan, han be bai; besta batzuk Hankaluzenien...

(Eugeni, Zumaaldekua)

Ezkerretik: Karmen Uriarte Igartua (Deskargako primia, ama Maña Garaikua), Juan Karlos Fidalgo Igartua (Barzelonako primua), Angeli Igartua (Amparoren alaba), Karmen Igartua (asto gainean, Angeliren ahizpa), Manolo Igartua anaia, Arantxa Uriarte (Deskargako primia). Maña Garaiko larraiñien (Angelitaren azalpenak).



Kalera, Jesusak kontatua



Leona Ugarte, Bórjena. Jesusaren amandria. Berarekin ezkondu zen Cayetano Zumalde, Mañakua.

Zapatu danetan, astuakin. Lau gauza erueteko. Goizien zortziretan urten eta ordubixak ero hirurak ero laurak aldera itxera asto-gaiñien.

Ama etorten zan astuakin plazara, zapatuetan, errekauek egittera. Ez dakitt zapatu danetan ala hamabostien behin zan, baiña astuakin.

Araozko andra gehixenak astuakin etorten zien orduen, astuakin, asto-zestuakin, Eskólatxoneko kantalien han goittik behera. Gurien amak behintzet han izten eben.

Eta iñoiz amakin etorritta na ni.

Gu txikixak gitzala, akordauten naiz, Garáikua da beraako etxia, eta handik ama eta aldamenekuak eta danak agerketan zien, hiru-lau asto andrakin. Andrak gaiñien gaiñera, e!

Eta urteten gotzan estraia behera. Ene... eta segun ze epokatan mandaina atalen batzuk, ero platano erdikiin bat, ekarte'skun.

Gero itxera fandakuen ha izaten zan gauzia gozua! Oingo mouen sobra, ala? Platano erdiki bat ero, ha izaten zan ha gauzia!

(Jesusa, Aizkorbe Azpikua)





Arrautzaak plazara, Bittoinak kontatua

Hoi otzarioi arrautzak erueteko kalera...

Saltzeeko, plazara erueteko. Beartxo bat ifiñi, eta gero arrautzaak gaiñien, atzera beste beartxo bat ifiñi, eta atzera arrautzaak gaiñien. Ez eguen arrautza kajarik, eta hortxe eruen biher. Eta hori (otzara) ebaalten geben, beste ezetarako be ez.

Amandriaak ebaalten euen hori...

Neu be fanda na plazara, saltzeera. Gaztaak eta arrautzaak erueten gittun. Eta gero hantxe saldu. Eta gero danak ez zienien saltzen, ba Silleroana ero faaten giñan.

Oiñetako dendia bada ba, haraxe erun, eta haik hartze'skuen apurtxo bat merketxuua (gaztak). Baiña haik hartze'skuen sobrauten xakunak.

Eta danak erderaz egin biher... eta ba Silleroana faten gitzanien... “¿Qué quieres?”, gerra-denporaan dana erderaz egin biher zan ba, eta “¿Qué quieres?”. Eta: “Apargatas para yo!”.

Guk, ez gekixen erderaz, eta kitto, holaxe afraketaak erosi eta pozik.

Geuk konserbarako gaztaak, gero urte danerako, gari-arkaan eukitten gittun, garittan tapauta.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)





Gernetatik plazara, Bittoinak kontatua

Bai, bai, pañuelua segiru. Eske bestela, kalera fan eta zea, gu morena-morena eta kalekuak igarri itte'skuen baserrittarrak gitzana.

Eta mangaak be luziak ebalten gittun uraan, eta gero pañueluek ero bestela lastozko sonbrerua, ebaalten geben.

Ni oin, hutzik ibiltten naiz, baiña orduen horreik ebaalten gittun baserri-antza kentzeeko, ez dakitzu?

Guri tio Felixek esate'skun, horko ahizpia... gure amandria Maria eta Justa, bixek buruko pañuelua hola lotuta, kaletik etorten zienien, ezta? Hola lotuta. Eta bestela berriz, moiñua eta hola atzekaldera lotuta.

Gero tio Felix guriak esate'skun, zea, "beittu oin horreiri"...

"Vino ransio" emute'sten Kornelionien apurtxo bat, han errekauek egindda.. Eta: "Gaur barriketia ugari xabiñai, pañuelua ez xakonai gaur normal ifiñitta!". Eta bixek: "Ha karu eguen eta bestia merke eguen, eta bestia ez dakitt zer eta..."

Ba, ahizpaak badakitzu, holoko barriketan.

Tio Felix zan Fedérikon, hemengo aittajunen anae gaztiena, zan. Eta gutako ba, anae gaztiena, ba géuaz (geugaz) tratua euki ebena...

Felix Goitia... Untzutzu Txikiñeko semia, horra itxera (aldekora) eta hona be semia, etorri zien.

Hona etorri zanak hau etxiau egin egin eben. Horreik Naparruan eta zeien hargin lanien ibilli zien. Eta gero hantxe irabazittako diruaaz... Errementeriko etxia, Errementerin be beste Goitia bat, horrein anaia. Eta Errementeriko Baxiliok, gerokuak, esaten eben hau etxiau eta Errementerikua igual-igual egindda daazela. Eta ordun, parientiek...

Eta gero, txarrixa hiltten zanien-eta odolostiak erueten xakon hola parientieiri. Neu eruenda naa Erremitterira be, zeak, odolostiak. Lurgorritara be bai, e! Úntzutu Txikiñekua, Goitia zien handik etorritakuak, horkua (aldekua) eta hemengua. Eta hara be bai, odolostiak hartu eta...

Zortzi-beraatzi ume eta...

Nire gizonen etxien hamaika ume eukein. Eta Férmín eukén izena aittak eta “Fermín, hik ez dakok ba ume asko? Zenbat dakok ba hik?”, “Hamaika bakarrik”. Artien. Bakarrik, hamaika bakarrik! Uesteiko Beheko Itxekua.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)



Eskuman eskopetarekin dagoena Felix Goitia. Federiko Goitiaren familiakoak dira, Gerneta Etxebarrikoak. Federiko eserita dagoena da umetxoarekin. Maria Madinagoitia, bere emaztea, eserita dagoena, ezkerretik bigarrena. Bittoina jaio gabe zegoen.






Gizonak ferixara

Lenaa ferixak egoten zien Santamañan, oin ez dakitt egoten dien be... Ferixia, eta gero merienda, gizonan zea hori izaten zan. Eta hori egitten eben guriak be...


(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)

Ni gutxi faten nintzan herrira, txahalakin ero... Eta ferixa egunen baten ero hola.

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)



*Eugenio Zumalde eta
Paulo Zumalde.*



Eugenio Zumalde eta Paulo Zumalde. Ferixan.



Eugenio Zumalde.





Donostiara eskurziñua, Gernetako ahizpek kontatua

Hantxe geuk eruendako bazkaixa jan geben danok hantxe. Eta plaiara. Egin biher doula oiñetakuak kendu eta ibilli, uretan, apur bat hankaak bustixaz.

Eta han gabitz danok eta Uesteiko Pedrok, Ferminen primo batek, ez zittun oiñetakuak kentzen. Eta Fermiñek esan otzan: “Hi, zeatik ez haiz sartzen?”. Eta: “Hankaa’txakuat (hankaak xakuat) zikiñak. Atzo iketza etaraten ibilli nintzuan-eta!”. Uesteiko Pedrok.

Holakuak segiru, e!

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Belaarronduak, ostiak, zikiñak eta, ikusi egitten zien eskolaan.

Ura be gutxi egoten zan-eta. Iñok euki be ez zerik, lekurik, baiñauteko-eta. Gure aldekuak be ez xakonain. Haik segiraan edarria hartu buruen eta itturritik ura ekartera.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Gerera etorten zien uretara.

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Gerera be bai.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Gurien egitten eben barriketaldi bat. Martina zunan, izena. Ez eukein urik etxien.

Guk geuken teillaatu danak hartuta eta deposittua egindda. Aittak egin eben deposittua. Eta geuken gaiñera, erropaak eta garbiketako... Lenenego jabonau eta gero errakara.

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Zeaketara, hari jaboia kentzeera errekarra.

Eta egosi subanien. Egosi egitten zan. Gaiñien ehunezko izara gogor bat ifiñi eta gero hara bota sutako hautza eta gero behera, ba hartzen zan... Esaten xakon "lisixa", azpira doienari. Eta ha gordeten zan erropa illunak-eta garbiketako.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)





Erromerixia



Plazan, Teofilok soiñua joten ebenien, dantza apur bat egin...

Baiña oingo mouen ez. Illunkararako itxera!

(Amparo, Maña Azkoittin Haundikua)

Dantzan egitea zen entretenimentu nagusia. Bola-jokoan ere ibiltzen ziren:

Ustein bolalekua, hor bolalekua (Araotz-Urtin)- Ídargo Haitzien bolalekua. Araotzen bolalekuak pillak, e! Zelabaitt dibertiu biher..

Hatxuloko kobatik hemetikaldera urteten dok eta gaintxuen harri-koskortxo bat xak. Hor bolalekua. Ídargo haitza.

(Juanito, Goittikua)

Auzuen egitten zan (erromeria), soiñujollia bertakua. Eta larogei bat neska-mutil igual plazan, e!

Eta neska guapa asko be bai, e!

Araoz baten, plaza publikuen dantzan ibilli, illunabarra etorten zanién, kanpaak, “amaittakua” esaten xakon, eta hori jotén zanién dana fuera, etxera zintzo. Eta artien be gaiztuak giñala, gaztiak abusau egitten euela...

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)



Mielen Txikiñeko Ana Mari Zumalde, eta Erréstiko Jesus Mari Maiztegi, dantzan.





Erromerixa kontuak, Agerrekuak kontatua



Ni hor Aátz-Urtikua naiz. Eta, claro, istorixa luzia da...

Guk geuken anaa bat, soiñua joten ebena, kordeonista mouen. Elizondon hor joten eben, era baten. Aurretik besta batzuk, eta gero hak...

Guk gabonetan-eta tremendako juergak egitten gittun, baiña itxietan, e! Nere etxien be askotan. Asaldien Elizondon dantza, mordua egitten geben orduen dantza, e, oingo aldien...

Etorri, eta afaldu etxien, eta juntauten gitzan...

Aatz-Urtikuak bakarrik, e, bestietan ez hainbeste. Baiña guk nola soiñujolia geuken... Eta zelako alegria! Gutxikin konformauten giñan, besterik ez geuken-eta.

Mezia entzun, eta plazan... Tremendako musikia, eta dantzan! Gu dantza asko eginddakuak gara.

Gero ya ezkondu gitzanetik hor ez da (dago) ezer... (ezkondu ziren garai inguruan erromeriak egiteari utzi zitzaion).

Abare batek gogor itte'skun. Ez pentzau agarraurik egitten gebenik gura dan beste, e!

Baiña orduen badakitzu ze neska-mutil pillia juntauten gitzan hemen!

Neuk neuken bost anaa, eta han gure inguruen, Aátz-Urtin, erare ingurukuak, ez dakitt zenbaitt!

Gurien aitta zana oso dantzaarixa zan.

(Xeberi, Agerrekua)

Baten na gaixki ibilitta, Úrsulako fiestetan.

Bixok fan gitzan, gero bueltan etorri, itxera entregau neben (neska-laguna), eta gero han goittik behera, illun, ezebe ez zan ikusten, hainkak tarras...

Halako baten horreatio, aillau nintzan behera, eta pozik!

(Rikardo, Agerrekua)

Gu, Trinidadia aillau bai, eta bazkaixa egin eta, han guk larraiña geuken, eta danak juntauko zien haraxe!

Danak etorri bai, eta hantxen dantzan, Trinitade asaldien. Hori urtero!

Gu geu be alegere.

(Xeberi, Agerrekua)

Eta gabonetan, itxeen baten, gau guztikua (fiestia)!

(Rikardo, Agerrekua)

Kanpotarrak ere etortzen ziren Araotzera fiestetara?

Asko etorten zien.

Ni hor; nola Aratz-Urtin bizittakua naizen, Haizgaiñetik behera tropak etorten zien jentia! Hor SanPedro aldeko jentia etorten zan, baiña asko, e!

Hemen Trinidadetan juntauten zan jentia izugarri!

(Xeberi, Agerrekua)



Errastiko Jose Antonio eta Erremeintiko Karmen.





Erromerixak, Txomenakoek kontatua



Araotzen dantza diferente egiten zen?

Bai, eskumiakin helduta.

Oin egoten naiz begira, eta gizakumia ezkerrakin helduta (egoten da). Hemen eskumiakin.

Egoten zan faboresa. Kendu...

Konparaziño baterako, zu bazabitz mutil bateaz (dantzan), eta “joño haretxeana fan biher xuat” (emakumeak bere buruari), eta “favores!”, eta fuera!

Gure amak panderua joten eben.

Oso eleante joten eben, kantuan egin eta panderuakin... Gaztia zanian, aurrerreraak be esaten eben hola egitten euela. Orduen be euren fiestia baeukein hareik, jai eguna ondo zelebrauteko...

(Agustin, Txomena)

Leiztarrak etorten zien hona, eta hor gaiñetik hasi lekaixoka, eta buenoo. Pillak e, (etortzen ziran), erromerixara. Oñatittik be bai, kaletik be bai jentia, hona, erromerixara, etorten zan (jendea)...

Akabauten zanian dantziori, azkenengo bueltia danok plazan jera-jeraka...

(Enkarna, Txomena)



Araoztarrak jera-jeraka. Ezkerretik: Pepi Zumalde, Arantza Zumalde, Angelita Igartua, Mari Tere Zumalde, Adela Guridi eta Felisa Zumalde.





Filarmonika jotzen Joxeanjel Urkia. Bere kuadrillako araoztarrak jera-jeraka, Zelaizabal jatetxe aurrean.

Egoten zan... “bezperak” esaten xakon, elizan. Eta hara, lenengo, fan... Eta gero handi urtendakuen, hasten zan, bostak aldera ero lenaa hasten zan fiestia. Soiñu-joten. Eta handik amaitakua jo arte, dale! Danak dantzan geldittu baarik. Uesteittik etorten giñan gu, eta hemen ezautu giñan gu, fiesta lekuen (senar-emazteak). Gero neri lagunketan nontan Uesteira eta hola.

(Enkarna, Txomena)





Erromerixako kontuak, Eustakik kontatua



Nik nobixua neukelako, ni ez nintzan faten erromerixara. Baiña zelako erromerixa ederra egitten zana! Anixetak joten eben panderua. Eta sekulako erromerixia egitten zan!



Gu Araozko plazan asko ibiltten giñan dantzan. Zelako erromerixa ederra egitten zala! “Txapárta” esaten otzain, kojotxo batek jotén eben, Erreka Txikiñekua zan. Huerfano geratu zien, eta amandria “Éperrena” esaten otzaiña...

Eta amandriak jaso zittun horreik, hiru huerfano-ero. Eta haittako batek jotén eben kordiona. Eta gero, “Anixeta” esaten otzain, begixa galduta eukén alta bat, tuertia zan, eta Anixetak panderua.

Eta sekulako erromerixia egitten zan!

“Txaparta” deitzen diona Teofilotxo izango da.

Kontua etara, nere amak elizati urten bai, eta plazara beitu ebela, eta hasi zala kontauten, eta bere semealabak dantzan zazpi kontau zittula. “Ené, zazpi pare afraketa!”. Afraketa hareik, espartzuzko flojo hareik, domekako bat apurketan geben, eta “enée ...” holako esakerak eukén gure ama zanak be...

Danok giñan dantzarixak, gaztiak eta, ba, alegere!

Amaittakua jo orduko sartuta egon biher ziñan. Jota sartzen baziñan, hango xibitta-hotza! (hotsa)

(Eustaki, Txantonbalduena)





Teofilotxo



Teofilotxo. Teofilo Uriarte Erostarbe.

Erromerixia egoten zan; Pedró-Joxek eta Teófilotxok eta jotén euen, Txómek-eta be bai, jotén euen.

Domeketan egoten zan erromerixia. Ondo pasauten geben, erromerixa politta egitten zan.

(Jesusa, Aizkorbe Azpikua)



Teofilotxo

Teofilotxo ikusten gebenien, pozik dantzara faten gitzonan!

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Dantza asko egitten geben. Oso ondo pasauten geben. Teofilotoxo eguenien esaten gotzan: "Teofilotxó, joko'skuzu?"

(Mariangeles, Elortokua)

Teofilotxo soiñu-joten kojoka-kojoka, eta geu atzetik Mantxúenetik gora.

(Xeberi, Agerrekua)

Teofilotxo soiñu-joten, kojotxo bat eta txikitxo bat zan.

Hementxe hazittakua (Gernetan) zan. Nere aittajunen-eta denporaan hementxe hazittakua.

Ha beti soiñu-joten egoten zan hemen. Teofilotxo esan ezkerro, Araozko danak dakixe (dakite) zein dan Teofilotxo.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)



Teofilotxo

Orduen domeeka arratzaldien zea bai (erromeria), eta han gazte-jentia asko, e!

Claro, itxe baikotzien sei ero zazpi semealaba, ero gehixaa igual, eta gazte danak han, nire eraretik hasi eta handik zaharraguak ba...

Jente asko juntauten gitzan han plazan, neska-mutil asko.

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)





Erromerixa kontuak, Eugenik kontatua

Gure amak panderua joten eben. Lenaa holaxe dibertiuten zien, euren gazte-denporan, panderua jo eta dantza egin eta...

Teofilotxo zan kojotxo bat, beé-kasa (bere kasa) ikesittakua soiñua. Eta harek jo, eta dantza egitten geben, eta gero amabittakua (ave marietakoa) joten ebenien (kanpaiak), aide hor-goeizek danok itxera! Neguen izango zan zortzirak inguruen, eta uraan beatzittardixak ero hamarrak ero. Etxien be bai, e, “amabittakua jote orduko itxera gero danok, e!”



Orduen fiestetan, hamen baserrixetan konbidauak egoten zien. Itxe danetan, e! Orduen, oin baiño maixak eleantiaa ifiñitta, e, mantelak eta danak ifiñi maixan, eta...

Itxe danetan, hango jentia, kalera eta beste leku batzuetara ezkonduta egozenak, semealabak-eta, danak etorten zien euren baserrixetara. Aitta-amak egoten zien... Ero anaia ezkonduta daguen itxera ero... Eta danak pasauten zittuen (zituzten) bi egun-ero illaran konbidau, euren etxietan (Araotzen, Trinidadetan).

Konbidauakin, bazkaixa be danak junto, afaldu be danak junto, itxietan be sekulako alegrantzakin, baserri danetan.

Hori fiestatan, eta gabonetan be bai.

(Eugeni, Zumaaldekua)





Auzoa hustu egin zen (1960-1980)

Argazki honetakoak araoztarrak dira. Jende asko bizi izan da Araotzen. Bostehunen bat izango ziren 1960ra arte. “Gehiago ere bai”, diote auzotarrek. Gero apurka-apurka husten hasi zen. Inoiz aurretik ez bezala.



Trini Bergara, Txantonbalduena.

Politto-politto fan da (jentia kalera). Hola segiran be ez. Baiña hustu! Danak behera, danak behera...

Behien samurraa ikusi-ero. Horreatik fango zien. Hemen baiño samurraa behien... Nik hementxe geraketia erabai neben. Eta hementxe! Honezkero hemen biherko dou guk.

(Maximo, Maña-tti Behekua)



Araoztarrak.

Nola ikusten duzu auzoa, hutsik?

Hoixe hutzik! Bete ez da egingo honezkero. Honezkero hemen iñor... zailla. Bestela gauziak buelta gogorra egin biher dau.

Lanik ez daguela baiña, hona lanera ez da iñor etorriko!

(Maximo, Maña-tti Behekua)

Hemetik gora akordauten naun ni (emazteari ari zaio), hamalau bizi gitzala. Ganaudunak e, hamalau itxe. Eta oin bat (ganauduna). Eta bea kalien bizi da.

(Agustin, Txomena)

Zergatik hustu da Araotz?

Erosuagua dalako, jentia fabrikara fan zan. Eta horrek hustu dau. Nere ustez, e!

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)

Bi eskola, neskaillena eta mutikuena... Orduen jentia? Jentia asko! Domeketan be elizaan jentia kabiñu ezindda... Eta oin iñobez!

(Maximo, Maña-tti Behekua)



Ezkerretik: Frantziska Goitia (Otxuen Frantziska), Bixenta Bengoa (Otxuen Bixenta), Narziso Bergara (Txantonbalduen Narziso), Julian Zumalde (Maña-tti Beheko Julian), betaurrekoduna Pedro Uriarte (Txantonen Pedro), Martin Beitia (Maiña-tti Goiko Martin), puroduna Eulogio Arregi (Epaantzako Eulogio), urte askoan Araozko alkate izana.

Ni hemen jaixo eta hemen bizi.

(Agustin, Txomena)

Bizi osoa Araotzen egin zutenetik azkenak izan ziren Txomenatarrak, Agerrekoak, Gernetakoak, Amiamenakoak, Mañan baserri pare batekoak...

Huste-jarioak ez zuen etenik izan. Oñati “modernotu” eta Araotz hustu, biak batera egin ziren. Beste nonbaiten turismora begira jarriko ziren. Baina hemen lana zegoen fabrika. Eta horregatik hustu zen. Nekazaritza eta abeltzaintzak ere orduan utzi zioten bizimodua ateratzeko jardura izateari, Araotzen, Oñatin. Ia Gipuzkoa osoan...

Bai, denpora gutxixen gaiñera, e! Gizonak hasi zien fabrika lanien, ez eguen bertatik zerik.

Jente dana, poliki-poliki, urteten hasi zan.

Aittak eta amak, lenengotik tristuria haundixa, baiña ikusten euen (zer zetorren).

Bizi guztien han bizittako personia... Pena bat izan da, baiña hola fan da asuntua.

Oin rekuertuak etorten xazu...

(Jesusa, Aizkorbe Azpikua)

Erun euen kalera eskol'umiak. Lanera gizonak erun zittuen fabriketara... Eta gero zela bizi andra'pakarrik (andrak bakarrik) hemen? Gero danok fan egin biher. Han (Oñatin) etxiak egin gittun, eta behera. Hoixe egin geben.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Aixkórbe hutzutu da! Aldiko bat, aldiko bat, hutzutu da Aixkórbe “del todo”!

Eta Elizondo be, halako auzounia zan bai lenaa, entre que abaria, maestra, maestra, sakristaua, eskolia, eta hau eta hori eta... Beziñorik hurrena Txoména...

Bórjena, ha hutzutu zan... Gero Ántzuen, Errástikua... Úxarte Garáikua...

Mántzena jausi egin zan...

Sesíñena ez neben nik ezautu.

(Miren, Emiemen)



Zutik ezkerretik: Jose Arrizabalaga (Mantxuena), Hilario Uriarte (Jaturabe), Angel Goitia (Untzutentxikiñekua), Felix Barrena (Otal txikiñekua), Rikardo Maiztegi (Errastikua), Felix Ibabe (Amiamena), Emilio Zubia (Erramuena), Antonio Bolinaga (Beittikua), Eusebio Uriarte (Uxartekua).

Behean ezkerretik: Mariano Elorza (Lurgorritakua), Juanito Bilbatua (Mantxuena), Eusebio Goitia (Andretakua), Isidro Uriarte (Txantonena).

Zenbat urtera arte bizi izan zinen Araotzen?

Araotzen? Nik Araotzen eruen dot bizimorua. Ni hamaika urtera arte han... Hamaika urtekin egon nintzan urte eta erdixen Agustiñuetan... Atzera urten neben, eta atzera baserrixen, haiketa soldautzara fan arte. Eta atzera soldautzia akabau zanien, Garaiñien berrogei urte eta sei hillebete.

Baiña Araotzen bizi izan gara anae bixok.

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)

Zenbat jende bizi zen Mañan, laurogei?

Larogei ez zien izango. Baiña asko.

(Maximo, Maña-tti Behekua)

Araotz hustu egin zen, baina abandonatuta ez zen geratu. Pirineotako herriak asko dauden bezala ez zen geratu. Askok Araotzera, jaiotetxera, joaten jarraitu dute, baserriari eusten, inguruak lantzen.

Baina hustu egin zela begibistakoa da.

Baserriko bizimodua galdu zenenan, araoztarrak fabriketara joan ziren lanera. Oñatira, Legazpira joan ziren bizitzera.

Araotzen jente asko bizi zuan orduen.

Onddiok, lengo egun baten, Araotzen zenbat baserri eguen diskutiuten... Eta batek esaten xuan Olabartan gehixaa egongo zala. Eta itxera etorri eta kontauten ibilli nintzuan Araotzen egozen baserrixak.

Onddiok zutik dazenak kontauten hasi nintzuan, auzoka, ohien suabe-suabe. Eta 67 baserri kontau nitxuan.

Onddiok zutik dazenak, e! Eta Olabartan hainbesterik ez xak!

(Benitto, Ojala Haundikua)



Goixan ezkerretik:
XX (ez dakigu nor den), Irene Zelaia? (Elorto), Josefa Goitia (Gerneta etxeberri), Mari Carmen Maiztegi (Errastikua), Justina Iturbe (Maiñatti goikua).

Behean ezkerretik:
Juanita Urkia (Ugastegiko erdikoetxekua), Bittoina Goitia (Gerneta Etxebarrikua), Ibarrondo (Eskistan itxabolía eukena, Jaturabeko Rosarion gizona), Pilar Maiztegi (Errastikua), Maria Zumalde (Borjena), Felisa Maiztegi? (Errastikua)



Araotz hustu, Amparok kontatua

Semeak-eta fabrikara jooan izanak pena eman zizun?

Orduen tristuria, fabrikara fan zienien! Baiña pozik, behintzet han dirua irabazten euela-eta.

Etorri, itxera, egunero egitten zien eta...

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)



Goian ezkerretik; Xole Uriarte Igartua (Deskargako primia), Karmen Uriarte, Manolo Igartua. Behean ezkerretik: Angeli Igartua, Karmen Igartua (Amparoren alabak) eta Lurdes Uriarte (Deskargako primia). "Itxaburuko arto artien".

Hustu... Eske hemen, konparaziño baterako, semia itxera ezkontuta eguena, hasi zan fabrikan, eta pisua egin, eta erosidadiaati (erosotasunagatik) fabrikara fateko hobeto kaletik. Eta horreatik hustu zan... Nere ustez, Araotz hustu zan horretxeatik, erosidadiaati!

Etorri danak egingo dira, baiña lo egittera ez, e! Atzera behera fateko.

Baiña itxe asko hustu zan orduen. Itxe asko!

Lenengo-lenengo hemendik fan zien nire beziñuak. Hareik fan zien Legazpira. Horreik fan ziela dira hirurogeta bi urte. Hirurogeta bi urte lenengo hemen etxia hustu zana.

Eta gero fan zan besta bat elizia baiño goraatxuen, Mántzena-ero. Oin etxia botata da (dago). Horko (Mañako Segurajauregi) alabia eguen han ezkontuta, eta ha be... Haik fan zien hurrengo. Haik fan ziela be, hirurogei urte behintzet bai...

Eta gero saillien, bata fabrikara faten zanien, bestia be bai. "Hi bai, ni be bai". Danak!

Eta oin berriz, eliziaz goitti be, baten bakarrik biziko da jentia, Txomenak, bertan lo egitten behintzet, e! Bestiak be egunero etorri egingo dira, oilluak ero konejuak ero zeozer egingo daue. Baiña lo egitteko kalera.

Eta hantxe letxe beste itxe danetan.

Etxien ezkontuta egozenak, fabrikara fan ez zienak, lau ero bost izango zien. Beste itxe danetatik fan zien.

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)





Araotz hustu, Xeberik kontatua

Hamarkada pare batean hustu zen auzoa (1960-1980):

Hemetik (Araotzetik) fatiak, alde batera pena emu'skun. Baiña konprendiu geben hobeto izango zala. Bixar ero etziko mejorixia izango zala!

Danak ezkutau zien hemendik. Eta ya ondorien ez da jaixo banakaan bat besterik.



Araoztarrak.

Hau (gizona) faten da bai, Aixkorbera, eta: “Iñor ikusi dozu?”. Eta: “Hor ez da (dago) iñobe!”.

Txoména, Borjenak eta... Bai, badaz banaka batzuk hor bizitten. Kalien lana, eta bertan alojauten dienak. Baiña hor inguru danien, lengo jenterik... Txomenak!

Tristura handia hartu zenuten Araotz husten hasi zenean?

Haundixa tristuria!

Tristuria bai, baiña beste soluziñorik ez da (dago)! Hona ez dator iñor bizitako. Pasauteko bai.

Araotzen ez dakitt zenbat egongo dien bertan bizi dienak. Gu be hemen gabitz bueltaka. Baiña oso gutxi, bertan bizi dienak.

Arátz-Urtin jente asko bizi giñan.

Eta lenaako famelixak be, badakitzu, oingo moukuak ez zien!

(Xeberi, Agerrekua)





Araoztarrak kalera, Txomenakuak kontatua



Makurtuta edo erdi makurtuta: Roman Guridi (Goittikua), Paulo Barrena (Otala Haundikua), Loontxo Mujika (Popelena), Pedro Joxe Erostarbe (Aratzurti Garaikua), Esteban Ibabe (Emiemen), Martin Zumalde (Azkoittin Haundikua).

Goian ezkerretik: Joxemari Azkoitia (Azpiko Txikiñekua), Joxe Uriarte (Txapelena). Mariano Elorza (Lurgorritta), Fermin Zumalde (Aizkorbe Azpikua), Eulogio Uriarte (Uxarte Garaikua), Esteban Mugarza (Etxeberri Txikiñekua), Juanito Beitia (Maña-tti Goikua), Agustín Erostarbe (Etxetxokua), Juanito Barrena (Otala Txikiñekua), Bittoriano Elorza (Lurgorritakua), Felix Zelaia (Elortokua).

Jendea kalera jaisten hasi zen; hori nola bizi izan zenuten?

Ba oso gaixki, triste, oso gaixki.

*Famelixa asko fan egin zien. Gu ez giñan fan, aitta eta ama be zaharrak eta...
Gaztiak be danak lanera-eta fan zien.*

Eta hau geldittu zan hildda.

Saloia be zerrau zan, eta gaixki. Triste, ez dakitzu? Holako gauza triste bat...

(Enkarna Txomena)

Umiak egozenien zaratia behintzet etaraten euen sikiera eta...

(Agustin, Txomena)

Zenbat ume eguen... Ume pillia!

(Enkarna, Txomena)

Jende asko bizi zen Araotzen?

Askok. Hemen etxietan, oin berrogei urte-eta (1970 aldera)... Honeik fan zienien



Araozgo neskatilla-mutikuak. Goittikuak eta Emiemenak.

kalera, itxe danetan egozen zaharrak, eta mutilzarren batzuk be bai, eta ondo.

Gaztiak danak lanera fan zienien, kalien nobixak eta gauzak, eta bizimorua han, kalien, Oñatin.

Eta hau geldittu zan ezebezien.

(Enkarna, Txomena)

Tristura handia hartu zenuten?

Haundixa, haundixa, batez be umiak fan zieneien, e! Umiak fan zienien, buenoo, geldittu giñan oso-oso behia jota...

(Enkarna, Txomena)

Goizien “mezetarako errepikia” esaten xakon... ordubete ero orduerdi lenaa, ezta? Plazia beteta egoten zan, eta bolan eta... (bola jokuan)

Auzo baterako izugarriko alegrantzaia.

Gero danok gastau zien. Eta esate'tzut, zelako tristura haundixa geldittu zan.

(Enkarna, Txomena)



Kalera jaitsi zirenean, Marijoxepa Zumaldek kontatua

Hemen txikiña geuken labrantzaia be. Eta ezin geikien bizi hemengo jornalakin. Eta aittajuna fan zan Garaiñera lanera (aittajauna, senarra).

Araotz husteak pena handia eman zizun?

Neri badakitzu zek emun nontan pena? Behixak. Neu fatia ez, bapez. Aspertuta nenguen. Aittajuna fabrikan eta honeik be eskolaan, eta burdi-bearra ekarri



Marijoxepa senarrarekin eta Esther alabarekin.

eta... Zu baserrikua ez zara, ezta? Burdi-bearra ekarri, aurretik euroi sendortxua egindda. Gaiñera ez geuken kamarara bireik... Eta eurok egitten euen, baiña gero bakarrik geratu nintzan, eta neuk eruen biher. Eta aspertuta konpleto. Hauxe behintzet ez!

Eta aittajuna (senarra) fabrikan, eta etxiek... Hau (baserria) orduen erosi geben. Don Felix Arrazolana zan. Abaria zan, eta bea be handik laister hil zan, Kále Zarrien bizi zan...

Eta gero kalien Olanan egin zien itxiak, eta dirurik ez geuken, baiña behintzet erostia pentzau... Eta han etxia egin gebenien, neu be kalera.

Holaxe bizimorui.

Lenengo gaiñera danak gaizki-esaten fan gitzanakatik.

Orduen, akordauten naiz ni, kanpantorreko erretillaak egitten, eta gu kalera fan gintzanok gintzan Errámuena, Bernardo (Gernetakua), gu... zazpi-zortzi bat itxe.

Eta ez gindduen (gintuzten) ametiu (erretilaren kontuan). Ya fuera fan gitzala eta auzotik etaratako mouen, egin gindduen.

Eta abaria, Plazido, agustiñua, ha eguen hemen parroko, eta neuk hankia sartu nebelako demanda in'stan nere gizonak baiña...

Guk ez geben ainketan ezebe, arteartien batera ibilitta... eurak pagauko euen mouen zeoi, erretillioi... Guri be borondatia...

Eta gure gizonok, han ebitzenok, pentzau euen bi milla peseta emutia, erretilliorrendako. Eta neuk abariai esan notzan egun baten: "Gu zetako etara biher gaue ba auzotatik horreik? Betik egin dou ba guk hemen hola".

Maiorala-eta izaten zien orduen, alkatia maiorala.

Eta horrein danon artien pentzau euen, maiaaskuak... Eta orduen esan notzan: "Zenbaitt emuten daue ba eurok kanpantorreko erretillaak-eta egitteko?" Eta: "Lau milla peseta erabai daue".

Guk bi eta eurak lau, eta gu fuera? Geuk be lauatik emun ingoru (egingo dogu)!

Eta gero abariorrek auzua batu zanién, nik ze esan notzana esan eben auzuen. Eta gero gizonorrek esan ostan neri: "Zetan sartu zara!".

Eurak erabaitten daue!

Maiaaskuak hemen zien, ba, Errastikua, Agerre Garaikua... Eta honeik fabrikara fateko haundixa'tzien (haundixak ziran) orduen.

Gero danok fan zien, danok fan zien gero fabrikara. Baiña orduen fan gitzanok, ezin eruen euen gaiñera... Maiaaskuak hola hasitta egozen, "ez dok igarten oin, maiaaskua eta erreterua zein dan be. Ez dok igarten!".

Eta holakotxiak entzuten geontzen geu be.

Horreik maiaasko banaka'tzien (banakak ziran).

Holaxe bizi zan orduen! Beti pobriok egoten gitzan erreteruen moruen.

Guk geuken errentia sei anea gari. Eta gero hogetalau duro. Orduen, duro-zurixak, nere akorduen, zien. Eta gero dozena bat arrautza eta dozena bi sagar eta... Geuk be gerua gehixaa, imillaun bat baba, baba-gorrixa, be eruen eta...

Bi erreterero gintzan.

Ugezabaana faten gitzan eta bazkai bat emute'skun, bakaillau bateaz... Lenengo nere akorduen, aittajuna faten zan. Gero geu be bai, geu be faten gitzan.

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)





Fabrikara, Araozdik Legazpira

*Biziketia, horrekin faaten zan aitta, mutil-gaztia zala, Araozdik Legazpira,
Patixio Etxebarrianera, lanera. Egunero!*

(Mielen Txikiñeko ahizpak)

Neri fabrikaiek sekula ez nontan tiratu. Danerakuak biher daue eta!

(Maximo, Maña-tti Behekua)



Araoztarrak.

Mañan bizi izan da beti. Amparo bizi izan zen bezala. Inoiz kalera bizitzera joan gabe.

Hemen jaixo, eta hementxe bizi, eta hementxe hil.

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)

Maximo bizi da. Amparo hil zen. Biak beti Mañan, beti Araotzen. Amparo Mañako Azkoittin Haundian jaio zen, baina Mañako Garaiko Txikiñera ezkondu zen, eta han egin zuen bizi osoa.

Baina hauena salbuespena da. Gutxi geratu ziren auzoan. Gehienak Legazpira joan ziren, edo herrira jaitsi ziren. Fabrikara joan zirenen guraso batzuk bai, gelditu ziren auzoan. Haiek izan ziren Araozko azken baserritarrak ehundaka urteren ondoren.

Lenengotakua Mielen Txikiñekua, Marijoxepen gizona izango zan. Eta gero politto-politto mordua.

(Xeberi, Agerrekua)

Gure bizimoru dana hamentxe izan da betik!

(Enkarna, Txomena)

Fabrikara joan ziren Jausorokoak?

Txurdiñenak Legazpin ibili zittuan. Gu baiño zaharraguak e, hareik gu baiño zaharraguak zittuan.

Gero, gure aitten erare ingurukuak, batzuk Naparruara... Txurdiñenetik Naparruara be fan zittuan.

(Floren, Jausoro Garaikua)

Legazpira Araotzetik?

Erostarbe anaiak, lau ero bost anae... Segurajauregi, Mañakuak. Araozko jente asko egon dok hemen (Legazpin). Fundiziñua eta laminaziñua eta... Lanera etorrittakuak, asko!

(Fermin, Borjena)





Fabrikara Legazpira, Benittok kontatua

Araozdik Legazpira jente asko fan zuan. Nere anaia be hara fan zuan. Paulo Barrena. Egingo txuan han, hogei bat urte ero gehixaa egingo txuan, lana. Gero Enarara etorri zuan.

Bizikletan faten zuan, eta astia han pasauten xuan. Astian egoten zuan apopillo, Araozdik aurretik fanda eguen baten etxien apopillo.



Goian ezkerretik: Etxetxoko Agustin Erostarbe, Gorren Liborio Lazkano, Otalako Pedro Barrena, Txantonbalduen Simon Bergara. Behean: Elortoko Juane Zelaia. Kazarako armak garbitzen.



Segurajauregitarrak. Mañako Azkoittin Txikiñekuak.

Eta ha ibillera zuan, e!

Araotzera okerreña, Urtiañera igo, bajau...

Otalara eguen bire-zarra artien. Oin pistia xak, baiña orduen burdixak be...

Legazpira zenbat lagun joan ziren?

Mordo bat. Esate baterako, Mañako Azkoittin Haundikuak, Joxen aitten hiru anae behintzet bai, han ezkondu zittuan. Asko Patrixionera...

Zumarragara baten batzuk bai. Esate baterako Enrike Txapelena, haren aitta, eta anaia, Zumarragara fan zittuan, eta soiñujollia, Teofilo Txiki, hak be Zumarragan egitten xuan lana. Uasteikuak be bai, Erostarbe, ha be bai. Banakia ibilli zuan (Zumarragan), baiña maiorixia Legazpin.

Gizonak Patrixionera fan zittuan mouen, neskaak berriz, Donostiara zerbiutera fan zittuan asko. Nere hiru arreba be, zaharrenak, Donostiara fan zittuan, zerbiutera. Onddiok bat bizi dok, atzo egin xuan urtiak, 98; bi alabakin han bizi dok. Eta solteria be, hil arte Donostian bizi izan zuan. Danak zerbiuten, Hoteletan, orduko jatetxe ona 'tzienak (onak ziranak).

(Benitto, Otala Haundikua)

Matias Zumalderen emaztea Gerneta Etxebarrikoa zen. Joxepa Goitia. Eugeni eta Bittoinaren ahizpa zen.



Fermin Zumalde, Borjena, eta Beneitta Ibabe Elorza, Aizkorbeko Mielenera ezkondua. Beneitta lan hau prestatzen ari ginela hil da 2025eko apirilean, 95 urterekin. Tamalez, saiatu ginenerako ez zegoen elkarriketa bat egiteko moduan.



Eskuman goikua Mañako Garaiko Txikiñeko Juanito Igartua. Behekua bere emaztea, Araotz-Urtiko Garaiko Rosario Erostarbe (Xeberiren ahizpa)



Nieves Uriarte eta Maria Uriarte, Txapelenak. Maria Legazpira joan zen bizitzera, Otala Txikiñeko senarra han fabrikan hasi zenean.



Maria Uriarte eta bere gizona, Juanito Barrena, semealabekin.



Matias Zumalde, Borjena.

Eta Gregori zen beste ahizpetako bat. Gregori ahizparen ondora arrimatu zen Burgoseko finkara. Eta hango langile batekin ezkondu zen. Han egin du bizimodua. Gregori bizi da Burgosen. 92 urte ditu. Matias eta Joxepa hil ziren.

Han Patricio Etxeberriaren finka batian kapataz xaguan Ferminen anaia Matias Zumalde, eta bere andria honein ahizpia zuan, Joxepa Goitia. Hara fan zuan, ez xakixat ahizpiari lagunketara ero holako zerbaittetara. Eta hango mutil batekin enamorau eta ezkondu eta han bizi dok, hiru semekin.

Bere gizona Leandro Perez zuan, finkako langillia.

(Joxeanjel, Gerneta Etxebarrikua)



Gregori Goitia, Gerneta Etxebarrikoa.





Araoztarrak fabrikara, Garaiñera

Zuen aitta ez zen joan Garaiñera?

Gure aitta fan zuan Garaiñera eske, lan eske, Rikardokin, semiakin, bixak sartzeko.

Baiña esan txain Garaiñien: “Ez, zu zahartxua zara Garain sartzeko”.

Eta: “Ah, ni zahartxua naiz, ba orduen semia be ez!”. Fuera, ez bata eta ez bestia!

Gure aitta 1902xian jaixo zuan.

(Floren, Jausoro Garaikua)



Autobusa Araotzera bidean.

Industria agertu zenean baserriko bizimoduaren gainbehera hasi zen.

1960ko hamarkadan fabrikek indarra hartu zuten. Araotzera autobusa hasi zen joaten. Honela esan digu Olabarrietako Zeriaga baserriko Joxemarik:

Garaik autobusa ipiñi xuan Araotzera, obreruak ekarteko lanera. Autobusa egunero goizian zazpiretan Araotzera eta gero illunkaran entregau danak atzera Araotzera.

Araoztarrak, neri maiñatxo batek esan xostai, nere erarekuak-eta: “Eskerrak Garaiñera etorri giñanari!”. Oin danak etxiak txaletak egindda, eta fabrikara etorri ez zanak, ezebez, teillaturik be ezin arrelau. Hoixe do’pa!

Jabierrek:

Etorri zan Felipe Jausoro, Urubarrin maistro egondakua, eta ha etorri zan obrero billa. Eskiñi ‘skuen komedoria eta trasportia.

Kamiona etorten zan.

Gastiasoro Angel difuntua, maiñatxo bat biaje eginddakua da. Kamiona enpresakua. Bankuak ifintten zittuen eta... Lekua egoten zan kamionien, eta gaiñetik jentia, kalera astuakin-eta etorri biharrien, kamionien etorten zien. Txoferrai zeozer emuten otzain propiña mouen eta...

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)

Horreik obreruok hasi zienien Garaiñien, horreik ifiñi euen kamion bat, asientuakin, eta Garaiñetik kanpora be, lana egitten euenak, ba aprobetxau egitten euen, betibe txoferrai holako zer bat emun, eskupetxo bat emun eta...

Hantxe igoten geben Araotzera. Gero, geruaa, ifiñi euen autobusa.

Eta zenbat bider, kaletik Araotzeraiño oiñez be bai dana, e!

(Eugeni, Zumaaldekua)



Fabrikara, Garaiñera, Nievesek kontatua

Hamasei urte neukela, Garaiñetik etorri zan porterua jente billa. Gizonak “sobre todo” biher zittuen (zituzten) Garaiñien. Eta etorri zan billa. Eta nik hamasei urte.

Eta akordauten naiz nire anaia fan zala, Mantxuenien eguen zeoi, tratuoi egin biharreko lekuoi. Eta esan otzala: “Nik arreba bat badakot, baiña onddiok hamasei urte dako bakarrik eta...”

Eta esan otzala: “Ez, badago horrendako lana”.



Araoztar mutikoak.

Eta halaxe hasi nintzan guardasolak, barillia... zea egitten, ultzetxuak sartzen. Haxe egitten hasi nintzan. Hamasei urtekin.

Porterua etorri zan.

Eta gero ifiñi 'skun kamion haundi bat, gora eta behera ibiltteko. Kabina haundi bat euen, eta emakumiak han etorten giñan. Bost hasi giñan. Bost emakume eta gizonak bastante, hamasei ero.

Porteroak ze esan zuen?

Garaiñera fatia komeni dala. Lana daguela eta jentia falta dala...

Egun baten etorri zan bakarrik. (Aurretik) abixua pasauta eguen Araotzen, e, nola etorriko zan Garaiñeko porterua, ba hoi tratuoi egittera.

Eta orduen nire anaia etxien eguen, eta fan egin zan eta holaxe, bea be hasi zan eta neu be bai. Eta esate 'tzut, bost neska hasi giñan, eta kamionakin egunero bajauten giñan goizien eta gero illunkaran (buelta)...

Ipiñi 'skuen komedore bat koziñeriakin. Harek preparaute 'skun bazkaixoi, eta han bazkaldu eta arratzaldien, akaboten gebenien, atzera Araotzera.

(Nieves, Sakristauena)





Garaiñera, Xeberik kontatua

Gu ezkondu giñanien, horreik danok artien martxan egozen (karretero lanak-eta). Artien kalera fan barik geontzen. Irixak, bearrak segiakin ebaten, behixak kanpuen...

Oin total diferente da (dago), baiña gu ezkondu giñanien dana martxan eguen artien hemen. Eta danok hementxe.

Umiak zainttu biher, eta geu bixok bearretan-eta bakar-bakarrik Uesteira fanda, ha izan zan “el remate”!

Gero hasi zan fabrikan (gizona), eta ganauak be gutxittu eta ba, beste moru batera. Orduantxe kanbixau giñan geu be!

Fabrikara fan zien gizon-pillak, baiña zelakuak uste dozu?

Mañan... Mañatik bertatik gutxien izango zan. Baiña hemen kamionkaa jentia faten zan baiña!

Lenengo Mielen Txikiñekuak eta horreik hasi zien. Gure ondorien asko ez, gu ixa azkenak fan giñen. Batzuk fan zienien, poliki-poliki danak! Lenengo hortxe Gernetako Zubia, ha fan zan lenengo fabrikara. Hamar ume euken. Eta ha ikusten zan ondo!

(Xeberi, Agerrekua)



Garaiñera, Bittoinak kontatua

Araoztar asko zegoen Garain?

Itxe danetakuak ixa. Danok horreatik fan giñan kalera. Handik eguen dirua-eta. Gero zapatuetan ero holokon baten etorri eta kitto. Gero hortantxe jentia.

Tristia... ba gero hobeto bizi eta ba dirua zeozer eta... Gustora bai, baiña Araotz, ba, zeaketan, gutxiketan. Gero domeeketan etorri ez batzuk artien eta bajauaz-bajauaz.

Eta eskolia be, eskolia be zerrau eta kalera. Eta gero egunero kalera fan biher, eta gero ba danok kalien etxiek hartu gero artien.

Garaiña etorri egin zan bat, gura ebenak apuntau...

Meza-Nausittara etorri, eta hantxe gizonok zeok, eta gura ebenak apuntauteko fabrikara faateko. Eta orduantxe apuntau zien, ba hau erdikuau-eta (Gerneta Erdiko Etxekua). Honeik erreteruok-eta lenengo horreik apuntau zien. Eta horreik be gustora, eta gaiñera dirutxuaaz. Gero maiaaskuak eurek okerraa. Eta gero maiaaskuak be bai gero. Danok apuntau eta danok Garaiñera gero.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)



Fabrikara, Garaiñera, Nievesek kontatua

Araoztarrak astokilo samarrak zirela pentsatu dezakegu, baina bereziki eroskak edo borrokazaleak zirela esateko arrazoirik ez dago.

“Matxiñuak” direla esan izan da, ez dakigu zergatik.

Kondairak esaten du ihesi zebiltzanek Araotzen hartzen zutela aterpe. Baina horrek ez dauka funtsik. Oñati osoak konderri moduan, lege diferentziaren bat izan zezakeelako baliteke legeari ihesi zebiltzanak (Arabatik, Gipuzkoatik...) Konderrira etortzea.





Baina ez Araotzera zehazki, koba artean gordetzera.

Araoztarak ez dira izan beste edozein baserri-auzotar baino kirtenagoak, ez dira izan beste edozein baserri-auztoar baino bihurragoak.

Oñatiarrez ere esan dira halakoak, gizarte hipermoderno bihurtu eta gero ere.

Hori esanda jipoi zital baten berri eman nahi dugu. Araoztarrek leiztar batzuei eman ziotena.

Atxabalta eta Mondraue aldetik eta jente asko etorten zan. Gaiñera Araotzen, fiesta (fi-éstia) egitten zan oso ona. Eta egozen neskak oso guapak. Eta etorten zien Mondrauetik-eta mutillak, neskak konkistautera.

Esaten daue Araozko mutillak harrika egitten ostela!

(Eugeni, Zumaaldekua)





Leiztarrekin burrukan, Amparok kontatua

Gazte asko eguen orduen Araotzen. Jente asko juntauten gitzan. Araoztarrak ez dienak be etorten zien zeetik Kórueta aldetik. Atxabalta aldekuak be etorten zien asko. Eta Ursulako jentia be etorten zan. Etorten zien jai arratzaldetan (jai, igande).

Kanpotarrakin ondo.



Baiña nire koñatuari-eta araoztarrak egurra emun osten. Bi neska, auzoko bi neska, hasi zien Atxabaltako batzugin, bixak Atxabaltako mutillakin, eta hemengo mutillai ez osten grazia-rik egin itxuria.

Enda domeka arratzalde gabien hona itxera etorritta bueltan doiezela, hor beheko presa-onduen emun osten egurra.

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)





Leiztarrekin burrukan, Marijoxepak kontatua

Atxabaltatik etortzen omen ziren dantzara...

Bai, era bat egon zan. Makilliaaz emundakuak be bai... Bi behintzet... Bat nere primiaaz ibiltten zan. Ezkondu zien e, gaiñera, artian be.

Hemengo mutillak ezin ikusi, itxuria, hango mutillak, hemengo neskokin. Neska-lagunketan, orduen itxera, Mañara...

Ezaunak... Oin be, zuek harein senidiak ezautuko ttuzue baiña... Bueno, bizi dira behintzet horrein senidiak kalien...

Batek euken gure primia, nobixia, Mañakua.

Eta bueltaan, Mañako Zubittan, eta hor urten zeoiri, eta total heriuta itxi zittuen (zituzten). Dana markauta. Makillakin jota. Baiña artien bixak ezkondu zien, neskok, hara, Leintz-aldera, bixak leintzarrak zien eta. Ezkondu zien Léintzera.

Baiña haik majo heriuta egon zien, e!

Gero juzgautan ibilli zien. Zela arrelau zien ez dakitt. Baiña holakuak be izaten zien, bai.

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)





Leiztarrakin burrukia, Txomenak kontatua

Kanpotik etortzen ziren erromerixara, Araotzera?

Bai, hor Léintz aldetik eta Oñatittik be bai. Onddiok bakarren batzuk biziko dira hona etorten zienak.

(Enkarna, Txomena)



Kontxita Errasti Zumalde. Bere aita da jo zutenetako bat. Bera Donostian bizi da. Laurogei urte inguru ditu.

Neskak kentzera?

Neskak kentzera, eta hemenguak hasarre egoten zien.

Leintzetik be etorten zien bai, eta hemen nobixa gurakua. Eta ez euen ikusi gura hemen...

Eta egun baten... Mañakuak zien (neskak)... Eta hor gorde zubipeien, eta hasi xatiein harrika...

(Enkarna, Txomena)

Harrika?

Egurraikin emun osten! Egurraikin palizia... Eta eskerrak zeak ihes egin ostena, kulparik gehixena euenak ihes egin ostena...

(Agustin, Txomena)

Xabiña Segurajauregi, Martzeliña Azkoitia... Felisa Zumalde uste dot zala bestia...

(Enkarna, Txomena)

Amorrúa eukitten euen hareintzako, kanpoko jentientzako. Hemengo mutillok ez euen gura ikustia. Neska polittenak kentze'stien ba! Eta hori ez euen gura.

Hemengo mutillak ez euen gura hareik etorri daixen. Baiña etortia gustau egitten xaten eta etorri egitten zien artien be.

(Enkarna, Txomena)





Leiztarrakin burrukia, Eustakik kontatua

Leiztarrak etorten zien Araotzera, kantidadia!

Egia da Araoztarrek harrika hartu zituztela?

Bai, hori hala da, baiña eurak be gaiztuak zien, e! Eurak be egitten euen, gabien tabernan egon bai, eta epel-epel egitten zienien, bueltan: "Araoztar kobardiak, araoztar kaltzaluziak!", araoztar ez dakitt zer eta badakitt zer.

Eta behin egurra jaso euen... Ixa hillian itxi zittuen hiru behin!



Araoztarrak. Batzuk dantzan, beste batzuk borrokan.

Leiztarrak Mañara lagundu'sten neskairi, eta bueltan Araozko mutillak, makillak gertu- gertu, eta Máina Zubittako zelaiunetxo baten harrapau zittuen hiru. Eta grabe egon zien, e!

Hori izango zan gerria baiño bost sei urte lenaa.

Bekokixa ebaitta!

Otala Zelaikua zan bat, Atxabaltakua, bestia zeekua, Larriñokua... Gero hotz in'sten Juzgaura, eta euki zittuen euren zeak.

Haik deklarau euen eurak zetako insultau zittuen aurretik. Eurak ixillik egon bazien, ez'tela hori egingo.

(Txantonbalduen Eustaki)





Leiztarrakin burrukia, Maximok kontatua

Hemen fiesta egitten zan. Eta hor Kóruetatik-eta etorten zien mutillak.

Eta (Mañara) neska-lagunketara etorri, eta egurtu! Eurek be zerbaitt egingo euen!

Hona auzora neska-lagunketara etorri eta behera doiezela, hor aldapia hasten dan lekuen, han heldu eta tremendako pasaria emun otzain. Bai.

Hori egia da?

Bai, bai, hoixe egixa, hori bai, hori hoixe dala egixa!

Harrika?

Harrika bakarrik ez, lenengo egurtu ona behintzet emun. Bai, hori egixa da.

Bat gaiñera gure amen primo karnala zan, bai, hor Kóruetakua.

Kontatu iezaiguzu hasieratik, mesedez:

Erromerixia egitten zan Araotzen, eta haik domeka danetan etorten zien hona. Baiña eurek be jugadaan bat egindda egongo zien-ero, bestela ez otzain hori egingo.

Eta neskak hemengua'tzien (hemenguak ziran) (Mañakuak). Eta hona etorri eta bueltan doiezela bestiak zain hor behien.

Eta harrapo zittuen eta emun osten tremendako pasaria.

Eta gaiñera bastante zeien egon zien, e. Baiña artien behintzat neskak manejau zittuen, hartu zittuen.

Hemen zela iñun-be ez zan egitten erromerixarik, erromerixia egitten zan eta horko mutil danak hona etorten zien, eta neskak be bai.

(Maximo, Maña-tti Behekua)





Tabernaak

Araotzen hiru taberna izan ziren; Mantxuena, Zumáaldekua eta Erreka Txikiñekua. Erreka Txikiñekua beste biak baino lehen. Hura itxi eta gero irekitakoak dira beste biak.

Zumáaldekua, Mantxuena, eta Errékatxikiñekua, hiru taberna egozen Araotzen (batera ez).

(Rikardo, Agerrekua)

Enkarnari galdetu diogu: “Hiru taberna zeuden Araotzen?”

Bai, hiru. Eta onduen. Pentzau izu zenbat jente egongo zan horreik manteniuteko hola. Oingo konturik ez zan egongo!

(Enkarna, Txomena)

Tabernak?

Erreka Txikiña nik ha ez neben ezautu.

Nik ezautu nittunak Mantxuena eta Zumáalde... Beteta egoten zien! Hor jentia egoten zan baiña hola...

Len ambientia ona, baiña gastau zan eta kitto. Hori ez da atzera bueltauko.

Ze egingo da ba, holaxe da mundua-eta!

(Maximo, Maña-tti Behekua)

Gure zentrua izaten zan Mantxuena, esaten xakon “Madril-Txiki”. Gure dibersiñuoi ha izaten zan, meriendautera fan eta... Gure reunixuok Mantxuenien izaten zien!

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)

Xeberik:

Oin esango dotzut polittagua, lenaa andrarik ezin zekien tabernan sartu!

Eta horreik (gizonek) itte'skuen guri, gu itxera mezetatik, eta eurak tabernara fan bai, eta kopeua!

Anisakin galletak jaaten eurok, eta andrak itxera!

Hori holaxe da, e!

Orduen tabernara? Ezta pentzau be!

Bai, bai, buenoo, lenaako kontuak gogorra'tzien (gogorrak ziran)!

(Xeberi, Agerrekua)





Azeitunak Zumaalden, Joxemaik kontatua

Akordauten nauk tio Felipe ezkondu zanien, Zumáalden egin xuan bodia. Zumáaldeko etxien eskumakaldien daguen zea, ha tabernia izandakua dok...

Eta emu'skuen azeitunak. Kauen la puta, azeitunak. Zer zan be jakin ez guk!

Hartu eta berde-berdiak, "honeik berdia'txazek!" (berdiak xazek, xagozak). Tomasek eta bixok, "honeik berdia'txazek!". Eta lurrera!

Beste bat hartu, eta berdia, lurrera. Beste bat hartu eta... Azeituna danak lurrera bota, eta...

Naranjarik be ez eta, platanorik be ez eta, lenaa ez zuan frutarik jaten.

Tio Felipe ezkondu zuan Zumaalden. Eta aitta-eta egongo ttuk ezkondata etxien.

(Joxemai, Goittikua)

Zumaalde tabernia, Eugenik kontatua

Ni Zumáalde baserrixan jaixo nintzan. Nere aitta zan Aurelio Olalde eta ama Marikruz Goitia. Gure aitta negoziante-antza be bazan... Batzen zittun Araozko esne danak eta etorten zan Oñatira muliakin, eta...

Kriau-kriara batzuk, “tripa trukekuak” esaten xaten orduen, egoten zien, eta haittako bat hartu lagun eta Oñatiraiño etorten zan esnia partiutera. Araozko esne dana batuta.



*Ezkerrean
Eugeni Olalde,
Zumaaldekua.
Eskumakoa
Eugeniren Bilboko
lehengusina, udan
oporretara etortzen
zena Araotzera.*

Ni artien umia nintzan,e!

Gero negozio horri jare otzan, zeatik Oñatiko atzotxuak ez otzain pagauten esnia. Beak baserritarrai pagau egin biher Araotzen, eta...

Gurera aittari lagunketara (Trinidadetan) etorten zien, Irizarreko panaderua eta beakin ebillen bat, Florentino, etorten zien “como camareros”.

Eta Angeles koziñeria, “como cocinera”. Eta Araozko beste lau-bost neska, guapienak, zerbiuten egoten zien.

Gure amak beak egitten eben normaleko koziñamentua. Baiña Trinidadetan, fiestetan, jaleo haundixa egoten zan. Eta orduen ekarten eben koziñeria, Angeles. Oñatittik faten zan, eta ama eta bixak ibiltten zien koziñera.

Gurien egoten zien kazuelakaa kalluak, kazuelakaa okela gisauak... Ardi-denporan ardixa, billos-buruak, tripakixak...

Eta flank eta horreik danok be bai, “como postres”.

(Eugeni, Zumaaldekua)



Santagera batzeia

*Santagera batzen ibilita be bai... Alkatien etxien egitten euen eguna eta...
Egun bi ero egitten zittuen...*

(Agustin, Txomena)

*Bezperan Santagera batzen, gabien han, egun dana, Santagera egunien han...
Aurreko egunien batzen, eta gero han lo egin, afaldu eta lo eta guztiok, eta
hurrengo egunien bazkaixok eta...*

(Enkarna, Txomena)



Santagera batzeia.



Santagera batzeia, Benittok kontatua

Goizien urten, eta Araozko baserri danak pasau. Izten gitxuan Errotaberri, Jaturabe. Beste danak pasauten gitxuan. Uesteira be faten gintzuan. Uestein egoten zittuan propiñak!

Goizien lenengo orduen urten, eta illunduta akabau, egitten gixuan.



Santagera batzeia.

Batzeia egin eta dirua soldauzkarako?

Ez, ez. Gero egitten zuan afai bat. Gure aurretik neska eta guzti egitten zuan... Nere kuadrillia ttuk honeik (argazkikoak), gehixen-gehixenak.

Zu zertan ari zara (argazkian)?

Danborra jotzen. Guk "danborra" esaten gitxan... Hau Jabier Guridi, soiñujolia, Txomena.

Ateko aittajuna nor da?

Hau hemen xak alkate zalako.

Alkatia beti gonbidauten zuan afaitterako. Claudio Goitia dok, orduen alkate xaguan. Enda hau zuan, berriz, hau kantore ibiltzen zuan, koplak kantauten, Bartolo Azkoitia, Mañako Azpiko Txikiñekua.

Hau Patxi-Gerneta dok, Gernetako Claudion bezinua, erreterua...

Honeik beste danok nere lagunak ttuk, danok, nere kuadrillia ttuk.

Emakumea nor da?

Hau dok Tomasen andria, Martzeliña... hau Idiazabalgo alabia zuan (ondoan semea); Tomas Kanteron andria...

Gorrixa zuan (Tomas).

Gizon haundi zabal bat zuan.

Hau Jeolimo Lezeta (Txurdiñena), alkatien sekretarixua, honeik konbidauak izaten zittuan... Karterua; aitta be karterua zuan eta beau be kartero ibilli zuan. Gero atzenien Zahorren akabau xuan.

Hau berriz, Araotzen maistro eguea orduen. Izena ez nauk akordauten, Mondraueko semia zuan, Araotzen maistro eguen. Maistrua erueten zuan afaira.

Erreka-Txiki dok, Mantxuenakin pegauta daguea (argazkiko baserria).

Soñujole hau zein da?

Pedró-Joxe, Erostarbe pelotalarixen aittajunen anaia, Aratz-Urtikua, Aratz-Urtiko Garaikua, Erostarbe; Pedro Jose Erostarbe dok hori. Trikitixa be jotzen xuan honek.

Lenengo trikitixakin hasi zuan. Honek gero, erromerixan, bastante urtetan jo



Santagera batzeia.

xuan, Araotzen plazan. Gizon on bat zuan. Horrek be Legazpin lana egitten xuan. Eta Legazpin hil zuan hau be, gerra ostien fan Legazpira eta...

Zertan ari dira?

Hau segurutik izango dok, Santa Agera batzekua izango dok.

Burdian joaten ziren?

Jatúrabera-eta bai, baiña bestela baserririk baserri oiñez.

(Benitto, Ojala Haundikua)

“Jatúrabe”, eta “Játurabe”, biak agertu zaizkigu, Jaáturabe ere bai. Ez dakigu zaharrena zein den.



Burduntzixa, Benittok kontatua

Araotzen ohitura zahar bat egon da, Karnabaletako asteartean mendira kuadrillatan joan eta sutan txorixua jateko. Ondoren garizuma hasten zen, eta “bijili” egiten zen. Horrekin lotuta dagoela uste dugu ohitura zahar hori.

Zertan ari dira (argazkian)?

Billotz-erreten.



Billotz-erreten.

Gere kuadrillakuk ttuk honeik. Hau dok Mañako Felix, Máña-tti Goikua, Felix Beitia Zumalde (eskumakoa). Ama xakuan honek Gesáltzaakua. Hau, bestia, "Háixgain", Felix Arenaza. Hau izango dok Góittiko JoxeTxikin koñatua, Iñaxio Guridi (lau lagun agertzen diren argazkiaz ari da, aurreko orrialdean).

Hau seguramente izango dok, Ándramaixan egitten gixuan San Josetan, guk, kuadrilla osuak, hogeiko bat izaten gintzuan... (kuadrillan agertzen diren argazkiaz ari da).

Lau billotz jaten gitxuan erreta...

Burruntzixan erreten gitxuan billotzak. Hoixe dok (argazkikoa) burruntzixa, horri buelta emun eta...



Beti ezautu zenuen burduntzia?

Ez, hori nere lagun batek, Pedro Uriate, Tomas Kanteron semiak... Elgoibarren egitten xuain lana, eta han-ero ikesi xuan, eta burruntzixak fabrikan neuk egin nixuan. Eta handik hasi gintzuan kuadrillia...

Gure baserrixen billotzak beti egoten zittuan eta lau billotz jaten gitxuan. Ándramaixa hik badakik nun daguen Araotzen? Agerrera birien eskumara izten dana, tontortxo bat, lenaa eliza mouen izandakua. Oso leku politta dok tontorra. Onddiok elizako arrastuak baxazek han; esaten xuai han leprosuak egon ziela, hara erueten zittuela (zituztela)...

Burduntzixan erreten zuan, eta oso ona urteten xuan, e!

Aurretik egiten zen?

Ez, hori geuk egin gixuan. Lenengo egin gebenak gaiñera ez'kuain oso ondo urten.

Etxean burduntzirik bazen?

Sutonduan nik neuk ez xuat burduntzirik ezautu. Palia ifintten zuan, talo-palia, hola kirten luziakin, txingarren gaiñien...

Talua-eta egitten zuan palan, baiña burduntzirik nik ez xuat ezautu. Oin, burduntzixan txorixua-eta bai, erreten zittuan; baiña burduntzi txikiñak.

Txorixotxo?

Hori famosua izaten zuan, hori bai, hori betidanik...

Gaiñera, itxeko txorixorik ederrenak jaten gixuan orduen, e! Egitten gixuan gure itxe-ondoko koban, ero goiko zeien...

Zortzi-hamar ero juntauten gintzuan eta...

(Benitto, Ojala Haundikua)





Txorixotxo Eguna, Goittikuak kontatua

Mutikuak ibillten gintzuan, Txorixotxo Egunien, mutikuak, makilla puntan ipiñi eta plau, sutara txorixua. Jota kixkalduta txorixua!

Txorixotxo Eguna ez dakitt ze fetxa izango zan.

Urtien behin izaten dok hori...

Txorixuakin fan Haizgáiñera eta erre, eta mutikuak zoraketan... Auzuen (aouzounean) juntau ume danok eta txorixua jaatera.

(Juanito, Goittikua)



Goittikuak.

Claro, lenaa ez xaguan basorik. Oin dana zikiña jantzitta xak hau. Lenaa ez xaguan holakorik.

Lenaa ni akordauten nauk, Txorixotxo Egunien txorixua erre biher, eta zotzien sartzen gixuan. Eta otatxo bat topau ezindda sua egitteko!

Oin selvia dok hori, baiña lenaa otatxo bat ezin topau txorixua erreteko.

Lenaa hoi danoi garbi-garbi egoten zuan.

(Juanito, Goittikua)

Noiz izaten zen Txorixotxo Eguna?

Marzuen...

Fan han Haizgaiñera, eta jarri txorixo-muturtxo bat han ziri-puntan eta sua egin eta erreten hasi eta sutara jausi eta enee, txorixua bal bal bal bal baltz egin.

Eta artien jan egitten gixuan!

(Joxemai, Goittikua)



Juanito Altube. Goittikua.





Txorixotxo Eguna, Jesusak kontatua

Haizgaiñera gu gaztetan asko faten giñan, enee...

Txorixotxo Egunien, ha izaten zan ba gure ilusiñuoi. Eskolatik kuadrillia faten giñan, gaztiok, neskaillak eta mutikuak...

Erueten geben txorixuak eta ogixa, eta egitten geben sua Haizgaiñen. Eta zotzen bat hartu eta bertan erreten geben.

Txorixuak egoten zien hagan, baserrixen.

Eta esate'skuen aittak eta amak: "Zotzen bat topau, eta han erre, txingarretan".

Kanpuen, Haizgaiñen egitten geben. Badakitzu Haizgain ze haundixa dan! Ota-lekuak eta zikiña eguen lekuen egitten geben. Ota-sikuak erreten gittun.

Txorixotxo Eguna izaten zan famosua. Ilusiño ona eukitten geben txorixua jateko ogixakin han. Ene, bai hoixe!

Oso ondo pasauten geben goixen, kantuen egin, txorixua jan, pozik neskailla-mutikuak. Mutikuak igual aparte, zeatik orduen ez zan ibiltten hola junto horrenbeste.

Zenbat urte euko gittun ba, zortzi-hamar urte?

(Jesusa, Aizkorbe Azpikua)



Txorixotxo Eguna, Mariangelesek kontatua

Txorixotxo Eguna ezagutu zenuen?

Bai, hori izaten zan gutako egun onena.

Ni akordauten naun, gure amak itte'skunan opiltxuak, eta hagaan, orduen, egoten zien txorixuak, baserri gehixenetan, eta emute'skun opiltxo hori eta txorixua.

Eta faten gitzunan Hatxúloko kobara...

Lenenengo jolas egin koban. Eta gero, zea, burduntzi egitteko, egitten geben zotzen batzuk topau, sua egin, eta han erre txorixua, eta... bueno, erre ez, baltzittu!



Elortokuak.

Baiña gozua!

Eta orduen, nik esaten dot, guk horrenbeste su egitten gixonan, eta “itxungi be egingo gixonan sua, e!”. Eske han sekula ez zan surik izan gero, e!

Guk suak egitten gittun han, eta gero saltoka ibiltten giñan, suari. Eta etxien-eta e'skun esaten “kontuz!”, eta holakorik, keba!

Txorixotxo izaten zan egun espeziala!

Illunetan bajauten ginan. Gu ez giñan billurketan ezekin be orduen. Eta linternak-eta urten euenien, hori gauza haundixa zonan.

Ni akordauten naiz lastuakin (lastoari sua eman argi egiteko).

Txorixuak ez zien erozein moutan jaten orduen, e! Egitten zien bi txorixo klase, bata normala eta bestia biikixak. Eta guri emuteko hareitxek, e!

Txorixuak baten bat bétorren (bazetorren), hari emuteko. Txorixuak, gorde egin biher zien, e! Txorixuak koipiakin gordeten zien. Eta gero ha koipia sobrauten zana, ez pentzau bota egitten zanik, e?

(Mariangeles, Elortokua)





Txorixotxo Eguna, Gerneta Etxebarriko ahizpek kontatua

Umetan gu faaten gitzan basora, burduntzixa egindda, zeakin, ziorrakin...

Eta gero han otairi-eta sua emun, eta itxeti eruten geben txorixo pedazo-bana, eta gero hoi makillatxui, "burduntzixa" esaten xakona...

Gernetako danok, ume danok fan, eta gero han egin zea, sua, eta hantxe erre, danok makillatxo banaaz, txorixua. Eta gero ogixa eukitten geben eta "bueno, erre dok!" pentzautakuen, ogi bin erdixen ifiñi, eta jan...

Baiña batzuetan sutara jausi txorixua... Eta gero bestiek emun biher erdixa! Batzuetan sutara jausi, eta gero txingarretatik hartu ezin!

Beittu eta ikusten zien, guk hemen sua, gero han beste tontorrien beste sutxo bat...

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Txorixotxo Egunaz Eugenik:

Hori izaten zunan, garizuma hasierako egun bat izaten zunan (karnabal asteartea aipatu du Bittoinak).

Eta egitten geben, Txorixotxo Eguna esaten gotzan.

Egitten gittun, makilla luzetxo batzuk, puntia ondo zorroztu, hol' erueten gittun, eta beste poltzatxoon baten txorixo-bana hartu eta faaten giñan...

Neskien Eira faaten giñan, e!

Eta egitten geben han sua, baiña ondo egitten geben, e! Lenengo bi harri-ero ifiñi, harri bat alde batetik, beste aldetik beste bat ifiñi, eta gero abartxo batzuk, abar-txikitxuak, sua egitteko, lenengo ondo ifiñitta. Ira-iarren batzuk ero be bai, sua zeaketako...

Eta poxporuak erueten gittun. Eta botaten gotzan, ya sua egitten zanien, zea, egur sendotxuaguak, brasia egitteko.

Hoi brasioi egitten zanien, burduntzixen ifiñi zea, txorixua, eta hamen (eskuetan) ogixa ifiñi, eta han berotu ala “da, da”, ogixen igorzten gixonan.

Hori egitten geben urtien behin. Beti egitten geben. Beti-beti egitten geben hori...

Eta umiak gitzan, e!

Gure beziñuekin juntau, eta... Handiketxien (Geneta Handiketxia) bi ero hiru bai, Jesusa, Juanito eta Pepita. Eta gu beste hiru ero lau igual, e! Bost urtekuak be gerekin batera, erun eskutik, eta hari be, erre hari be, eta hari emun (txorizoa).

Bire horreik ez egozen oingo mouen, e! Egurra ekarten, ardixak erueten, behixa... Horreik biriak egozen ondo. Horreik biriak oin apurtuta daz.

Piñurik be ez, eta leku garbixak egoten zien.

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Biriak txaarraguak bai, kamiñuak ez, bire-trokoilluak baiña artien arantzak eta zeak bapez orduen.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Oingo antzik, ez, e. Biriak arrelau egitten zien orduen. Beti egoten zan alde bata ero, burdixak-ero zea egindda, baiña harrixak ero zeozer sartu eta... Hortik Neskien Eira biriak onak egoten zien.

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Auzolana esaten xakun. Betibe beziñuak juntau eta “haaxe gaixki dakou ba”, eta haaxe arrelau eta zeatu, pittin bat zuzendu...

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)





Jittanuak Araotzen, Amparok kontatua

Beheko koban egoten zien bai, ikusi nittun jittanuak zela egoten zien... Sekula gauza txarrik ez euen zeetu e, dakiala behintzet ez. Baiña sarri egoten ziela hor jittanuak, bai.

Gero etorten zien hemen, eskien, eskekuak esaten xatenak, bastante etorten zien hareik. Baiña jittanuak hola eskatu ez euen ezer egitten.

Hareik eurak arrelauten zien. Iñoiz-iñoiz esnetara-ero etorten zien, baiña ez...

Lapurretan?

Geuri ez'kun behintzet sekula egin. Nunbaitzuetan egingo euen igual. Baiña hemen ez.

Erderaz egiten zuten, edo euskeraz?

Haik bixetara egitten euen.

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)





Jittanuak, Enkarnak kontatua

Urte danetan etorten zien jittanuak.

Hor Maña-Zubittan ero hor egitten euen lo, hor koba bat bada (badago) Mañara birien, eta...

Ni akordauten naiz Uastegin, kofrezko kaldara haundi bat, eukitten geben letxeriakin, etxia zuriketako.

Gau baten karia itxuli behera eta hartu bixkarrien eta eruen oskuen... Koruetan ikusi euela pasauten, jittanuak.

Eta holaxe itxe askotan gauzak erueten zittuen.

Etorten zien galleguak (galbaak saltzera), zaldi batekin, danak ixaitta ifiñi eta “el baiero” diar egitten euen. Urtien pare bat aldiz ero etorten zien. Baiña urte asko dala. Aspaldiko kontuak dira.

Kinkilleruak be bai, eta lapikuak eta arrelautekuak eta, zer ez lenaa! Baiña dotore arrelauten zittuen lapikuak.

Kinkilleruak gauzak saltzeko ekarten zittuen, kutxilluak eta beste milla txutxerixa, kubieltuak (kubi-er-tuak) eta belarritako, eta gauza danetatik ekarten zittuen.

Onddiok azkenengo urtietan hortxe Oñatin bizi zan bat aspaldi hilgo zan baiña, azkenengo ibilli zana hoixe zan, Oñatin, gallegua ero zan. Eta etorten zan, bueno, tremenduko maletin bat ixaitta zinttaakin, eta haxe bixkarrien dala Oñatittik etorten zan, pentzau izu. Orduen be bizimorua ez zan egongo samurra, hola ibiltteko.

Gure koñatua astuakin ibiltten zan; Fernandueneko Iñaxion andrien aitta; Gernetakua zan... Eta bi astokin, han ebalten zittun telak, izerak, alkondarak, frakak, barruko erropak, horreik saltzen ibiltten zan itxerik itxe.

Eta hemendik Arabara faten zan, eta Araba guztia ebalten eben. Eta atzera bueltan hona. Hola etara eben bizimorua. Gere koñatua, hola azkenengo ibilli dana hemen hola saltzen gauzak.

(Enkarna, Txomena)

Gizon hau Anastasio Zubia zen (Gernetako Erdiketxekua). Migel Angel Kortabariak eta Jose Antonio Aspiazuk liburua egin zuten bere ibilerak kontatuz.





Jittanuak, Maximok kontatua

Etxietan danetan egoten zien hemen astuak. Eta astuak moztu-eta egitten zittuen (ijitoek). Eta moztu zela? Ulia mozten euen, baiña eleante, e!

Astuakzela egoten zien hemen, gurien be... Tiozela ebillen zeien (kontrabandoan)... Bi eukitten zittun, eta haik urtero etorten zien jittanuok.

Astuok moztu eta hemen ibiltten zien.

Arazorik jittanuekin?

Ez, hemen jittanuak ez euen holako ezer haundirik, lapurreta haundirik-eta egitten. Hor koban egoten zien, eta hona etorten zien goizien esnetara-eta.

Hiru bat egun ero egitten zittuen, hoi denporioi egin eta... Gaiñera esaten euen, leku bat hoi denporioi baiño gehixaa ezin zekiela egin. Eta hatik esaten euen faaten ziela.

Baiña jittanuak, hoixe jittanuak egoten ziela, han kobapeien. Baiña hemen lapurretarik eta, jittanuak ez euen...

Eskekuak gutxi, banakaan batzuk bai. Nik azkenengo eskekua dakot entzunda, entzunda eta izan be bai, hor behien eskekuoi, eta guardazibillak, eta horreik be gauza zuzenik ez, enda euken trastiok hartu, kendu, eta handik behera bota otzailla, eskekuai.

(Maximo, Maña-tti Behekua)



Jittanuak, Marijoxepak kontatua

Orduen jittana-pillak etorten zien hona, tripia ifñi hola enbarazauta dazen mouen eta...

Eta hamen Andreetako Maria, beak mutikuak hazitta euken orduko eta erropak emuten hareiri.

Hurrengo egunien Errotabarrixen dantzan, tripioi kenduta, jittanioi!

Gero geu esaten: "Erropak emunda bialdu geben atzo, enbarazaua dalakotan, eta gaur, zer da eta Errotabarrixen dantzan andrioi!"

Jittanaak hola, apainddutakuak, e! Jittana dotoriak etorten zien. Orduen jittanaak bastante ibiltten zien hemen. Gastau zien gero.

Non egiten zuten lo?

Santakruzko itxabolan askok. Saneliasen-eta be baitta. Holako lekuetan. Bastante jittano ibiltten zan orduen. Baiña jittano zeak, iñak, jittano pobriak ez, hola dotoriak.

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)





Eskekuak Araotzen, Marijoxepak kontatua

Eskekuak. Eskeko asko etorten zan orduen. Ez euen lanik topauten, eta eskeko gixaaajuak asko!

Nongoak izaten ziren?

Erdeldunak behintzet, gehixenak. Erdeldunak parte. Kanta-papelak saltzeera etorten zanen bat, euskalduna...

Trinidadetan etorten zan amandriatxo bat, gaiñera errezau egitten xonan atien onduen... Eta marmittia ekarten eben. Eta hemen Trinidadetan garbantzauak-eta jaaten zien orduen be. Eta garbantzauak ero sobrauten zienak, ero zerbaitzuk, hara marmittara.

Emuten gotzanak, beak marmittara danak... Euskelduna zan ha amandria. Errezaitte baten hemen eukitten geben.

Orduen eskekuak ibiltten zien asko.

Hor Goittikuan (Aizkorbe Goittikua), akordauten naiz, neri billurra emuten nostan. Baiña hemen aldeko amandria balientia zan, bea kriara be asko ibilittakua zan, eta beitu egin gotzan itxuria, bea Goittiko Larraiñien jasarritta eta... “¿En estas tierras no existe más que pan?”. “Yo si tendría pan, estaría sin trabajar!”, hemengo amandriaorrek atzera.

Eta holakotxe gauzaak. Baiña neri emuten nostan billur bat harek, eskeko harek! Holakotxe eskekuak ibiltten zien orduen. Eta bastante e, bastante.

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)



Ospiziotik Araotzera

Goitikua (Aizkorben) Dolores. Gero Errastikora ezkondu zana. Ha Ospizianua zan. Uesteikuak be ekarrirta eukein, bi gaiñera, Joxe-Haundi eta Maritxu, Uesteiko Goiko Etxekuak.

Nik ez dakitt zela izaten zan hori. Pagau ez dakitt ez euen egitten, gaiñera. Exacto. Diputaziñuak umia hartzeiarren pagau egitten eben. Bai. Hori dakot entzunda. Frairesoron. Umiak hara erueten zittuela, solteratan eukittakuak, eta ba, nunbaittera eruen biherko euen eta, ba haraxe, dontzak.

(Nieves, Sakristauena)

Lenaa zeak ekarri egitten zittuen, ospizianuak-eta, hartu egitten zittuen holoko jentia lenaa...

Lenaako zea zan mundu bat...

Hor, Uesteikuak, Maria eta Joxe-Haundi taxistia... Horreik agertu zittuan gurera, hona, eta gero hor Uestein umerik ezin ekarri tia Justak... Eta Joxe-Haundi eta Maria fan zien Uesteira bizittera. Eta gero hara bizittera fan eta gero estauen geratu zan tia Justa. Eta umia ekarri euen gero, Juanita... Hemen egon zittuan ospizianuak bi, eta gero Uesteira fan zien.

Eta zenbat holoko lenaa...

(Juanito, Goitikua)

Neu nintzan gaztiena... Bueno beste anae bat gaztiagua neuken. Baiña ha txikittan hil zan, bos-sei hillabetekin ero hil zan... Eta hillten zanien (umeren bat) eguen kostunbria... haren ordia ekarri egin biher nunbaittetik.

Gurien ez zan hori tokau, baiña itxe askotan daz haren ordezuak ekarrirta. Ospisiotik. Orduen Villabonatik-ero izaten zan normalien.

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)



Ezkerrekoa Dionixio Erostarbe, Etxatxo baserrikoa. Eskumakoa da Beittira Ospiziotik etorritako Kontxúelo (kon-txú-e-lo). Bere abizena mantendu zuen: Kontxuelo Gonzalez. Beittin bi semealaba izan ziren ospiziokuak, besteak ere bere abizena mantendu zuen: Angel Etxebarria.



Angel Etxebarria, Hospiziotik Araotz Urtiko Beitti baserrira joandakoa.



Jose Ignacio Ibabe, Maiñako Garaiko-haundikua. Nire andrien primua. Hospiziokua zuan eta txikittatik espeziala zuan. Gure kuadrilakua. Ulman lana egin xuan, baina Santa Agedan bukatu xuan. Onddiok bizi dok, Oñatiko Erresidentzian xak. (Joxeanjel, Gerneta Etxebarrikua)

Jose Ignacioren ezkerretara Benitto, Ojala Haundikua. Aurrean txapelarekin Bernardo Bilbatua (Mantxuen), honen ondoan Victor Urkia (Errekondokua). Soinua jotzen Teofilotxo.



Enkarnaren Uestegiko famelia.

Enkarna ere Ospiziotik eraman zuten Ugastegira:

Jaixo nintzan Zizurkillen. Hillebetekin Uesteira ekarri. Eta hogetabost urtekin hona etorri. Eta hemen oin arte bizimorua (Araotz, Txomena). Uesteittik hogetabost urtekin hona Agustiñeaz.

Uestein oso ondo, oso alegere, Uestein jente oso alegeria egon zan. Kantuak eta bersuak eta bueno... Hamen hona etorri bai, eta hamen jentia tristiagua (Araotzen). Uestein lako anbienterik nik ez neben topau, ezta sekula be ez, e!

... Egitten zittun tremendako edurtiak. Igual hillebete edurpeien (Uestein).

(Enkarna, Txomena)

Bezperan Santagera batzen, gabien han, egun dana, Santagera egunien han... Aurreko egunien batzen, eta gero han lo egin, afaldu eta lo eta guztiok, eta hurrengo egunien bazkaixok eta...

(Enkarna, Txomena)



Enkarna, umeein. Atzekoa Enkarnaren ama Eugeni Olalde, Ugasteiko Ataunekua.



Justina Iturbe, umea eta Pedro Barrena, andragizonak. Justina ospiziotik Maña-tti Goikora eramán zuten eta handik Ojala Haundira ezkondu zen. (Agustin, Txomena)





Sanelias, Sandali

Araotzek beste auzoek ez dituzten berezitasunak ditu. Bat Saneliasgo koba da.

Dirudienez, Sandali izan da kobaren izena. Guri auzotarrek “Sanelias” esan digutenez, hala mantedu dugu.

Hori izaten zan San Juan aurreko ero hurrengo domekia, erromerixia. Auzuak parte hartzen eben... Tokauten xakonien gertatu biher izaten eben bazkai asuntua-eta. Txandan-ero izaten zan.

Eta gero, bazkalostien, asaldien, erromerixia, Maña Zubittan.

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)



Araoztarrak Sanelias Egunean. Ezkerretik: Lurgorritako Pedro, Etxatxoko Dionisio, Errekatzikiñeko Tomas, Errementeriko Basilio eta Untzuten Klaudio.



Zutik ezkerretik: Mañako Azpiko Haundiko Luis, Mañako Aldeko Pedro, Mielen Felix, Gernetako Handikoetxeke Manuel, Gernetako Erdikoetxeke Bernardo.

Hurrengo lerroan, eserita: Emiamen Felix, Antzuen Euxebio, Gerneta Etxebarriko Meltxor, Epaantzako Eulogio, Erramuen Braulio.

Behean eserita: Untzuten Manuel Xarra, Elortoko Juanito, Mañako Azpiko Txikiko Bartolo, Errestiko Rikardo.





Sanelias Eguna, Txomenak kontatua

Politta zan oso (Sanelias Eguna)... Bertan bazkaixa, bertan sua egin eta bertan gertaketan zan eta...

(Enkarna, Txomena)

Baiña han lana egitten ebenendako, ona ez!

(Agustin, Txomena)

Gizonentzako ondo. Gizonak fan eta jan!

Eta andrak gertatu egin biher goizetik fanda, han kee baten. Keia, itxututa dana... Bestela politta izaten zan...

Gero ba danak han alegere eta, agurok eta puxka bat txispa...

Zurrutia eta, gero alegere, badakitzu, illunkara orduko batzuk itxera aillau ezindda eta, danetatik...

Eta gero han akabauten zanién, hor Mañako birien, hor eguen plazatxo bat oso politta, oin hondatuta da (dago)... Eta hor egitten zan gero erronerixia.

Han sobratuen zanakin meriendaak... Bazkaixan sobrauten zien gauzak horra (Maña Zubittara) meriendauteko.

Oso politta izaten zan e, oso politta!

Zurrutean gizonak?

Claro, andrak ez eukein astirik be. Lenengo preparau, gero etara, gero ontzixok kendu... akaberabaakua andrentzako.

Nola gertatzen zen?

Konparaziño baterako, bost famelixak, bost itxek, eukein mai bat, beste igual zortzik ero beste mai bat. Zenbat mai egozen, dozenardin bat mai ez egozen? Maiaaskuak eukein euren maixa...

Eta ba, gero sua hola, haundixa, egitten zan eta zuk hor egin biher zebe lana, bestiak hemen, baikotzak bere lekuetan, jana gertaketan zan. Garbantzia eta azia. Enjeneral behintzet hola izaten zan.

Gaiñien flana eta beste batzuk gaztanberia. Entzun dozu sekula gaztanberia? Gaztaa bat da, esnia egositta egitten dana, oso gozua da, gaztaien moukua da, baiña bigun- bigunetan jatekua. Postrerako hori... Hori, enjeneral, maiaaskuak, krabeliña gorri bat han ifiñi, eta hola dotore eruete'sten, horreik maiaaskokerixak horreik. Beste pobrienok ba enjeneral zea, flana.

Egitten euen urtien... konparaziño baterako, bost bageuntzen, aurten zuri tokauten xatzu, hurrengo urtien bestiai, eta ba hurrengo urtien neri... Hola, urtian batek egin biher izaten eben hori, mai hortako itxe batek.

Marijoxepak horreik hobeto jakingo ttu!

(Enkarna, Txomena)





Sanelias Eguna, Florenek kontatua

Saneliasen egitten xuin... Andrak sufriuten xuin han ikaragarri.

Lenengo xazen grupuak, han bazkaitteko, baiña danak batera ez, grupoka. Grupo baikotzien izaten xiutzan (zituan) bost-sei, holakon bat. Gu geu bost izango gintzuan, Gernetako Erdiko Etxekua, Epáantzakua, Errástikua, Agerrekua eta gu.

Eta egitten zuan, lenengo bezperan, neri tokau xatek, oillaskuak batu, grupoko etxe baikotzeko oillasko bat batzen zuan, hurrengo egunien han oillaskua ifintteko. Amak hartu biher izaten xuan ha kargua be, hil, lumatu, garbittu... gertatu, hurrengo egunerako oillaskuak.

Gero hara fan, jenerua eruen... Hara fan eta lenengo gauzia ura jaso biher zuan. Han pozua baxak ba? Handik ura.

Ama enkargauten zuan, eruen dana eta... Gero, egin biher izaten zuan su haundi bat koleto danendako. Grupo baikotzendako su bat ez. Danendako su bat.

Han jarten ttuzan (zituan) buelta danien andrak. Grupo baikotzeko kargua euen andra bat. Eta lenengo saldia, ez han bazkaldu biher euenendako, zeatik han bazkaldu biher euenak izaten zien etxeko nausixak, aittak izaten zittuan. Hareintzako ez, saldia egin biher izaten xuin, ba, erozein fan, mezia entzutera, eta meza-ondorien saldia emuteko, erozeiñeri, e!

(Floren, Jausoro Garaikua)



Sanelias, Rosariok kontatua

Akordauten naiz ni neskatiillatan, ur-karriuen han behetik.

Han sua egitten zan, enda gu giñan mai nausixa esaten xakona, enda han bazkaixa.

Lenengo maixa zan guria, Errotabarrikua, eta bestia Gernetakua, lau-ero giñan. Enda hara ura karriu, eta han egoten zan oillaskua.

Gaztanberia egin biher izaten zan. Gaztanberia jakingo dozu zer dan, ezta? Hola gaztanontzixan moduko (zea) haundi baten egitten zan, hola erreonduan. Nik goguen dakot. Eta gero hari krabeliña gorrixak ipiñitta erueten euen. Hori mai nausikuak. Eta han egoten zien frailiak-eta. Mai nausixa esaten xakona...

(Rosario, Beittikua)

Sanelias Eguna, Benittok kontatua



Sanelias Eguna egun haundixa izaten zuan. Izaten zuan hori San Juanetatik hurrengo domekia, betik.

Mezia, saldia... Gero, hango soziuak, maiaazkua'txazen (miaaskuak xazen). Gu ez gintzuan maiaazkuak, baiña gu be... Euren maixa'txakuain (maixak xakuain) han koban. Eurak preparauten xuain, eta konbidauta faten gintzuan.

Han hormigoezko mai batzuk badakik zela dazen onddiok. Haik nere akorduen egin zittuan. Lenaa egurrezkuak zittuan maixak. Baiña han koban umerare haundixa, eta egurrak hondatu egin zittuan ziharo. Han umerare haundixa egoten dok, badakik, dana ittokiña eta...

(Benitto, Ojala Haundikua)



Errogatibak, Julik kontatua

Sikutia eguenien eta, errogatibak egittera be faten gitzan (Saneliasera).

Neskatillatan fanda na.

Abariak emuten eben mezia, eta ba faten gitzan, eta eurixa eskatu ero zeien eta...

Arabarrak be etorten zien.

(Juli, Txantonbalduena)





Sanelias Eguna, Bittoinak kontatua

Kaponeria, gaiñien jarritta egon be egitten zan.

Eta kapoiak ba, oillaaskuak kapau eta gero ba, erreterua'tienak (erreteruak diranak) ba, kapoiak entregau igual egin biher izaten zittuen (zituzten) eta...

Eta guk be ba Saneliasen ifintteko, kapautako oillaaskua, ezta, hobia izaten zala, eta... Han bazkaitteko.

Egitten geben, sei-ero izaten zien zeak soziuak, eta hareik eukitten euen sutondo bat, eukitten geben. Eta hantxe zeatu, egosi, nahiz garbantzuak eta (nahiz)... Eta gero oillaaskua ifiñi eta .. Gaztanberia izaten zan gaiñien jaateko eukitten gebena. Gaztanberia da bigunien daguen gaztaia. Egin be, behixena be igual... Eta bigun-biguna izaten zan, eta haaxe ba postre lekuen. Bai.

Han lau-bost mai egozen, eta baikotzen maixen sei. Eta hari oillaaskua erun egitten xakun (zitzaion) zeien, txandia tokauten danien. Seiren txandia tokauten xakunien (zitzaionean), bazkaixa preparau biher. Eta tokauten ez xatenak oillaasko bat erun. Eta tokauten xakunak etxeko nausixa eta beste bat erueten eben jaateko.

Eta gero Maña Zubittan, hango sobraakin, eta zeakin, eta gaztaa apur bat eta... Merienda partiu, umiari.

Eta hoi Saneliasoi, hoi sortu zan... Ba kriara bat hoi Eli ero zanoi, kriara egon, nausi baten etxien. Eta harek tremenduko tentaziñua ba sesurako (sexurako). Beti sesurako (sexurako).

Eta pekatu nola zan hori, harek egin eben ihes kriaratatik eta hortxe koban bizi. Eta horreatixek Santa Elia, Santali ezta atzenera orduko. Baiña Santa Elia, horreatixek. Hola zan istorixioi.

Bertan eguen aberga bat han, beeraatxua; haittatik etorren ura; abergia goraatxua, baiña haittatik etorren ura, zuek ez dakitt egon zain... Han pozu bat,

ba umerik euki ezin dauenak (dutenek), han ipurdixa busti, eta gero umia euki al (ahal) euen.

Akordauten naiz, araoztar bat, nire laguna... Eta haren alabiak ezin umerik euki, eta harek egin eben bere alabia ekarri eta ipurdixa busti erain. Eta gero egitten zan, altarien, oiñetako txikitxo batzuk ero, soiñukutxo bat ero zeozertxo itxi. Et'euki egin zittun gero hiru ume.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikoa)





Maña Zubittan erromerixia

Eta han egitten xuain, hoixe, saldia egin, eta oillaskua gertatu, egitten xuain han. Gero han xazen mai batzuk, eta han bazkaitten xuain. Han bazkaldu, eta gero, arratzaldien, egoten zuan erromerixia Maña Zubitta esaten xakon zeien, Mañarako birien, oin aparkalekua egindda daguen lekuen.

Eta han egitten zuan... zeien sobrauten xaten oillaskua. Eta inbitaute'skuen guri be bai.

Ni egonda nak han haitz-artien, Maña Zubittan, oillaskua jaaten.

Gure aittak eta kuadrilliak esate'skuen: "Etorri mutikuak oillaskua jaatera!". Semiai-eta... Erozeiñeri ez xain esaten.

(Floren, Jausoro Garaikua)

Gero erromerixia Maña Zubittan. Maña Zubitta badakik zein dan? Mañara birien han plazueletatxo bat, ba erromerixia han egitten zuan, bazkalostien.

Han (Saneliasen) bazkaldu, enda gero erromerixara zeera...

Eta erromerixara orduen be, neu akordauten nauk Koruetatik be jente mordua etorten zala, e, egun hortan...

Kanpoko soiñujollia beti egoten zuan.

Araotzen, bestela, bi trikitilari baxazen baiña orduen, egun hortarako kanpotik etorten zuan soiñujollia.

(Benitto, Ojala Haundikua)

Horra ezin zekien faltau...

Urte baten tokau xaten (zitzaidan) ura eruetia. Errotabarrittik eruen gittun, hiru biaje ero egin gittun, astuakin Saneliasera...

Sei mai ero egozen, enda hogeta bost ero ez dakitt zenbaitt zien hor soziuak, bueno, han jaaten egoten zienak.

Fiesta politta egitten zan, e, egun politta izaten zan Sanelias Eguna.

(Amparo, Maña Azkoittin Haundikua)

Eta han egitten xuain, hoixe, saldia egin, eta oillaskua gertatu, egitten xuain han.

Eta inbitauten xuain maixua, Don-Ángel maixua be bai, ha beti gure aitten-eta kuadrillan agregauten zuan, maixua.

(Floren, Jausoro Garaikua)





Ur miraritzuak

Putzua?

Han maillatan eskumakaldien, hantxe daa.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Lenaa esaten euen famelixia izateko, han ipurdixa busti biher zala. Iñok egitten eben ez dakitt, baiña ha pozua onddiok han egongo da, neu ez naiz egon aspaldixen baiña.

(Amparo, Maña Azkoittin Haundikua)

Ni akordauen naiz San Elias barruen han eguen beste holako santu... Eta zenbat jarseitxo euen hak barruen, jentiake eruenda! Hori nik ikusitta. Jarseixak umienak...

(Rosario, Beittikua)

Beheko pozuak, haik zittuan ur miraritzuak, gure amandriendako-eta. Ha zainttu egitten xuain, bustiñakin eta, erretxiñakin eta...

(Joxeanjel, Gerneta Etxebarrikua)

Umerik euki ezin ebenak, itxuria, han, beheko pozuen, ipurdixa busti, eta famelixia eukitten ebela, esaten xuain.

(Floren, Jausoro Garaikua)



Ur miraritzuak, Bittoinak kontatua

Sandali bada ba... Hor umerik ezin euki euenak, eguen zeatxo bat, huekotxo bat, zea, goittik behera ura etorrena... Abergatxo mouen, ez dakitzu? Eta umerik ezin eukitta egozenak, han ipurdixa busti eta gero erropatxoon bat zeien itxi, altarien itxi. Eta gero umia eukittera aillauten ziela, hori esaten euen.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Lenaako kontua!

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Akordauten naun, araoztar bat, umerik eukitten ez, eukitten ez, eta... "Hoixe esaten xonai ba! Fan be egin biher xonau Sanelias aldera".

Saneliasera fan bea, eta han ipurditxua busti eta itxi zittun zapatatxo batzuk zeien, eta bi ume euki!

Hori esaten xonan hak.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)





Ur miraritzuak, Enkarnak kontatua

Uste dozu jentiak ez eukela benetako fedia? Zeak, jerseitxuak eta han... Onddiok jentiak fedia badakola horrendako. Onddiok horreik erropatxuok hor argiketako (agertzeko), zerbaitteatik botaten ttuela, e!

Batzun batzuk badakoi fedia.

Jausten da txintxin bat bai, goittik, haitzetik, eta... han beti egoten da ura, oin be egongo da zeatik euri asko egin dau.

Oso sikatu ez xakiñat sekula be egitten dan, e!

Len zer esaten zen?

Han busti eta umia izaten zala. Horreik asmautako gauzak izango dira garain baten, e!

Eta ba jentiak euki egingo eben zea, siñismena, horrena.

(Enkarna, Txomena)



Ur miraritzuak, Bittoinak kontatua

Eta gero umia euki gura danak, Sanelias hortan egitten zan, euki ezindda egon ezkerro ero, han daa haitzetik datorren urtxo bat, eta hantxe ipurdixa busti. Eta gero umia ekarten zan. Egingo euen bata bestiaaz lo be, bixen bittartien!

Behintzet hantxe busti biher.

Araoztar baten alabiak, akordauten naiz, ezin euki umia, ezin euki. Eta ekarri eben alabia horraxa, eta hor ipurdixa busti eta erropatxoon bat itxi biher zan zeien, altarien erropatxoon bat umiendako. Bertan da (dago) ermittia...

Eta euki egin eben umia, eta atzera bigarrena be bai. Eta ez dakigu bestela be etorriko zien ala... Baiña hoi fedioi beti egoten zan, e!

Lenaa sartu egitten zan, egun bittan (Saneliaseko ermitara)... Urtien bi aldiz ero hiru aldiz egoten zan. Hiru zeatan. Gero Saneliasetan, eta beste egun baten be bai. Orduentxe erropia erun. Orduen ereitta egoten zan, eta orduentxe erropia erun. Eta hol'itten zan lenaa.

Artearte bastante siñisketan eben jentia. Oin gerua gutxiaa baiña ordura arte bastante.

Baiña ointxe be fuolistak eta zeak, hiru aldiz aittien egindda... Jentia onddiok majo akordauten dala estututakuen.

Hor esaten da, itxasuen, peskan eta zeien dabillenien, haik leku onak diela errezautek ikesteko. Estututakuen onddiok be aittien egin igual, e!

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)



Sanelias, askia, Rosariok kontatua

Saneliasen goiko askia, ha ez da, e!

Han behien, goora zoiezela, hola egitten dau ba pittin bat okertu, zeak... Oin harriz beteta da (dago); oin apurtuta igual da (dago), e, ni aspaldixen ez naiz egon...

Eta gero da (dago) holako kuadro bat, eta ha zan emakumiak ipurdixa bustekuo, e, ez goikua!

Han etxia pasau eta beheratxuaguen da (dago).

Eta claro, etorten zan negarra, ur-negarra goittik behera. Urakin ezautu geben guk lehen...

Fijau ezkerro, apurtuta bada (badago) be, ezaun izango da.

(Rosario, Beittikua)



Sanelias, erropatxuak. Julik kontatua

Egoten zien erropatxuak...

Han da (dago) harraska bat. Eta esaten daue harraskia...

Baiña nik umetako rekuerdia dakot, han sendan gora zatozela, haizpeien eguen ladrillo gorrixakin egindda, hola borobiltxo bat. Beraa. Eta nik, neretako, ha zala esaten euen.

Oin harraskia (dela) esaten da eta ba kitto!

Fan eta ba erropatxon bat han altarien, santuen esku gaiñien ifiñitta erropatxon batzuk... Hori dakot umetako rekuerdia.

Eta gero dakot rekuerdia, tremendakua, neskatiillatxuak gu, fan (Saneliaseko ermitara), eta izugarriko diarrakin itte'skula sermoia.

Pulpittotik egitten zan sermoia. Egoten zan Arantzazuko frairia.

Eta nik hoixe dakot goguen, hareik zaratak. Sermoia egitten zan diarka.

Oingo Sanelias ez zan orduen. Egoten zan garbi-garbixa.

Mezetara faten gitzan.

(Juli, Txantonbalduena)



Alejandro, Saneliasgo zaindaria, Nievesek kontatua

Jaturaben bizi zan Aléjandro, akordauten naiz.

Bakarrik bizi zan. Saneliasen etxia, hantxe, badakitzu daguena, han behien, hantxe bizi zan.

Oingo jeneraziñuen aittajuna. Eta harek zainketan eben. Ha zan Saneliasgo gorabeherak egitten zittuna.

Baiña etorri egitten zan, domekéro, goizeko mezetara. Zeatik bi meza egoten zien, goiz-mezia, eta gero meza-nausixa. Eta ha etorten zan... Aittak kafia egitten otzan, eta bixak barriketan. Ni neskaillia, parien lo, eta berba egitten eben fuerte. Ez eben entzuten ba dontzuak eta...

Saneliasen zein zen Alejandroren ardura?

Kanpaak joten zittun, elizia garbittuta euki...

Mezia be emuten zan.

Fiesta eguna izaten zan. Eta orduen mezia eta fiesta bat egitten zan, zea, preparau bazkaixa, eta gizonak bazkaitten egoten zien, eta eguna oso politta pasauten zan, Saneliasen.

(Nieves, Sakristauena)



Alejandro, Saneliasgo zaindaria, Benittok kontatua

Aléjandro zuan Saneliasgo koban han itxetxua baxak, hantxe bizi zuan hori, Alejandro Uriarte...

Gero Jaturabekuak ibiltten zittuan kanpaak joten-eta, baiña hori geruaa zuan. Baiña Jatúrabeke famelixakua zuan hori be, e! Horrein aittajuna zuan ha.

Ha han bizi zuan, bere itxetxuen. Eta ha etorten zuan asko... Lenengo etxia, nere jaixotetxia... handik Otalara, haitzetik sartzen zuan-eta.

Agura txapel-haundi bat...

Martiña zuan Alejandron erraiña. Martiña bea uste xuat Arrikruzgo alabia zala. Honen gizona zuan Alejandron semia, Angel. Honeik bizi zittuan Makiñetxien, behien bizi zittuan, baiña Alejandro bizi izan zuan han goixen.

Zerrajeriak saltua ifiñi xuan eta han enpliauten zuan (Martiñaren gizona). Behitxo bat eukitten xuain han. Guk relaziño haundixa geukan, zeatik gure hurrengo etxiak zittuan-eta...

Horreik, ez xakixat zenbat, baiña Antonio Uriartekin pariente zittuan, Errotabarrikua, kontratistia.

Ha (Alejandro) igual jaixo egingo zuan Saneliasen, e! Zeatik Jatúrabe (makiñetxea) geruaa egingdakua dok-eta, zeatik Jatúrabe (errotia) beste famelixa bat zuan. Eibarrera fan zittuan bizittera haik. Carlos zuan hangua, agura txikitxo bat, oso xalaua, zeak-eta rimauta esaten txuan.

Beak hogeta hamar bat arditxo eukitten txuan han, eta beti kamiñuen ibiltten zittuan eta orduen Mendi tasistia ezautu hian hik?

Araotzera etorten zuan Mendi taxistia, ez xaguan Araotzen kotxerik-eta. Eta Mendi, egun baten, kejau xakok: “Carlós, beti ardixok kamiñuen traban!”, eta

Carlosek erantzun txan: “Gure ardixak eta Mendi, ezin kendu hamendik!”.

Horreik ni mutikua nintzan kontuak ttuk; “ochenta y siete” xakuat.

(Benitto, Ojala Haundikua)



Makiñetxeko familia.



Beittiko familia. Erdian Jaturabeko Martiña Ugarte, Arrikrutz baserritik Jaturabera ezkondua.





Alejandroren kontuak 2, Benittok kontatua

Alejandro. Hik ezautuko hian ba Hillario Uriarte? Haren aittajuna zuan. Han bizi zuan.

Hak eukitten txuan oilluak, eta gero bost ahuntz ero eukitten txuan. Eta ardixak be euki zittula esaten xuan nere anaiak. Nik ardirik ez xuat ezautu, baiña ahuntzak bai. Hantxe. Ha len saill haundixa zuan. Oin dana sasiz beteta xak oin ha, baiña gero ardixak neu be ebalitta nak. Ha oso terreno ederra zuan. Oin dana kristo bat egindda xak. Etxia be ya baxoiak hondaketan.

Zee bat esango dostat politta... Nere jaixotetxien, Otalan, hi egonda hago gaiñera... Han xak erloju bat, Bidaurretan baxak ba elizaan, han ezkerrien, hola erloju bat? Igual-iguala xak gurien baserrixen. Eta ha erlojua erosi zuan ahuntzen truke. Ahuntz baten truke, erlojua.

Betik euki xuan harek kargua. Eukitten xuan kargua illunkaran amabittakua, kanpaia joten xuan, eta... Nere jaixotetxia, Araotzen, baserrixa, handik lenengua dok, eta gizonoi asko etorten zuan gure baserrira.

Alejandro, oso gizon... berba asko egitten eben gizona zuan, eta majua zuan.

Ha gurera etorten zuan, eta han arrautza pareen bat eta gaztaia jaten xuan eta... Gure amai emuten txan peseta-rubixaan bat, “nik gero badakot dirua, e!”, eta peseta rubixaan bat ero beste emuten txan eta...

Peseta rubixia, orduen pesetak zittuan oin zentimuak diran mouko kolorekuak eta...

Eta egun baten... Nere amak Juana xakuan izena, eta “Juaná, lartxo jan dot”. Gaztaia gustauten xakuan asko! Gurien, badakik, gaztaia beti egoten zuan eta...

Hak ermittiak kanpaia han xakok oin be.

Eta horrek (Alejandrok) illunkaran, amabittakua beti joten xuan. Eta gero, ha hil eta gero be, honeik billobok be, Hillarion anaiarrebak-eta han jo xuai kanpaak, urte askuen, e!

Amabittakua Araotzen parrokixa kanpantorrien be joten zuan, han sakristauak joten xuan, eta hor berriz, honek euki xuan (arduria) Alejandrok, eta gero bere semiak eta billobaak joten xuain.

Illunabarrien joten zuan.

(Benitto, Ojala Haundikua)




Jaturabe.





Jaturabeko Karlos, Julik kontatua



Jaturabeko familia.

Ez nekixen eguenik be hau fotografiau. Jaturabekuak izango dira... Zaharrena zan Xixilli. Paula, Rejina, Joxe eta ezkerretik, Xixilli, tia Martzeliña, Paula, Joxe, aitta Karlos, Euxebio eta Rejina. (kanbixau leike neskaillak).

Urte asko hartu euen Eibarren. Honek, Martzeliñak 102 ero hartu zittun. Eta bestiak noventaipiko be bai.

Karlos zan Olanan (apelidua), eta andria hemengua Txantonbalduena, Martzeliña Bergara izango zan, aittajunen arrebia zan-eta.

Itxia hutzik da (dago).

Mendi zan tasistia. Eta horkua zan Karlos. Eta horren esaeria da, ba, ez eukein terrenorik baiña ardixak eukein eta behixak eta dana eukein. Eta kotxerik ez ebillen orduen, baiña Mendi tasistia etorri egingo zan Araotzera. Eta orduen “nere ardixak eta Mendi, ezin leike kendu hemendik”.

(Txantonbalduen Juli)





Hatxulo, zapua urrea

Saneliaseko kobara sartzen giñan... Aurrera faten giñan koban. Goittiko Tomas, Juanito, Txerritxiñeko (Etxeberri Txikiñeko) Jabier, Beittiko Agustin; baiña urrin faten giñan, e!

Illun egoten zan.

Eta han eguen, zulo baten, urria gordeta. Hori ez dakozu entzunda? Urria eguen zulo baten, esaten euen. Baiña hori zuluoi oso zan kobia (oso behera). Eta betik



Ezkerretik, goian: Nieves Uriarte, Maria Uriarte, Juanita Ibabe. Erdian Matilde Uriarte, Eugeni Uriarte, Tomas Altube. Beheko neskatila Benita Ibabe da.

haren billa. Eta gure aitta-eta bajau zien sokakin-eta urrien billa, ez dakitt zenbat metruen, kuadrillia.

Eta bi zapotzar topau zittuen han behien! Eta urrien arrastorik ez.

Eramaten zenuten lastua-edo argitzeko?

Iñoiz bai, baiña ez'kuen izten etxien. Peligrosua zala, zeatik leku zarraua izaten zan kobatan, haizpeien.

Eta gu lastuakin, umiak... Ez'kuen izten. Baiña iñoiz ibillten gitzan, e!

(Txapelen Matilde)





Otala, koba, Anajesusek kontatua

Nik dakot entzunda gure aittai... Hori zuluoi, itxuria, lur-azpittik aillauten zan ixixa Otalaraiño.

Eta Otalako amandriak, Juanak, su-bajuen, hautzak kentzen eta zeien ebillela, han entzun egitten zala goiko zaratia (kobakoa).

(Anajesus, Otala Txikiñekua)





Urrea, Txomenak kontatua

Kobazuloren baten bazegoen urrezko bastoiren bat edo?

Bai. Zapua be bai, atzekaldien urria ebela... Saneliasko koban.

(Enkarna, Txomena)

Guri hala esate'skuen. Urrezko palankia eukela! Azpixen. Hatxúlo onduen xan (alabari zuzenduta) lezioi (ez Saneliasen). Palankia urrezkua (zela), eta zapua gaiñian eukela...

(Agustin, Txomena)

Inork ez du ikusi?

Horreik hor egon bazien, horreik esploradore ero trastiok, honezkeo kobok ero lezok... topauta euko ttue, begiratuta.

Horreik istorixak dira, lenaa asmautako istorixak!

(Enkarna, Txomena)

Hatxulora jente asko joaten da?

Asko, asko, honaxe bertara be preguntian zenbat etorten dan...

(Enkarna, Txomena)

Lehen ere jendea asko joaten zen?

Keba, gure denporan... Neu behin na egonda bakarrik.

(Agustin, Txomena)

Oin hartu dau fama haundixa Hatxúluorrek. Oin arte ez dau euki horrek bapebe famarik.

(Enkarna, Txomena)

Ez zineten joaten Hatxulora?

Hemen iñobez. Zubikuak, horreik fango zien...

Existiuten ebenik be ez gekixen guk horrek. Ez dako gauza asko euki. Ba hoixe, batetik besteraiño bostia dakola, bestela esan gura dot, ez dakola merittu haundirik euki, emun egin xauela oin merittu haundixa horri itxuria, oin, jentiak.

(Enkarna, Txomena)





Gesaltzaako koban, Otal Txikiñeko ahizpek kontatua

Gesaltzaako zulu, kobia...

Union Zerrajerakuak gura euen kueba horretara sartu eta lantxatxo baten sartu zien horra. Zeatik baekixen (bazekiten) urakin enkontrau biher ziela. Eta sartu zien hiru barrura.

Eta bat geratu zan goixen, sartu baarik. Eta sartu zien, eta enkontrau zien Araozko Sanelias parien daguen presiak dako zulo bat... Oin lokatzariakin tapauta da (dago), baiña Gesaltzaako zulotik urtetzen zan horra.

Eta enkontrau zienien urak kubriuten zittuela, egin euen buelta, bueltau egin zien. Eta bueltau zien, eta ezin euen topau urteteko zulorik.

Sartu zien lekua ezin topau!

Eta galduta! Eta argixa itxungi xaten, eta... Baiña bat akordau zan, sartu zanien, banastien eskarpi eguela sartu zien lekuen. Eta eguela zapo zuri zuri zurixa. Eta esan ebela: "Hementxe sartu gaittuk. Zeatik hori eskarpiori, horrekin zapuorrek horte xaguan!"

Eta hasi zien goikuari diarka. Eta efectivamente!

Baiña aittak esaten eben gaizki pasau euela. Eta gero etorri zan frantzes bat. Eta hori frantzesori zan oso montañerua. Eta holako gauzak gustauten xakon. Eta etorri xakon gure aittari esaten aber berriz sartuko litzakien horra, eurakin, e! Eta esan osten ezetz. Zeatik oso rekuerto zeak eukela, eta bea ez xoiela hara sartzera.

(Otal Txikiñeko ahizpak)





Araozko eskolia



Han (Araozko eskolan) ez eguen solfeorik eta inglesik eta holako konturik!

Umetako rekuerdak?

Horreik ez ttuk ahazketan, eskolako rekuerdak. Eskola-lagunan rekuerdak, horreik zoragarrixak ttuk asko, e!

(Benitto, Ojala Haundikua)

Jantzixak-eta be... Gu eskolan, edurra, eta abarka xapal nano batzugin, itxe ondoko berrehun metro pasau orduko hankaak edurrakin beteta, abarkaak. Egun dana hanka-bustixakin pasauten gixuan. Eta oin baiño katarro gutxiaa eukitten gixuan. Gogorra hori dok!

(Benitto, Ojala Haundikua)

Ortozik?

Aittai entzunda dakot. Goittikua zan, eta ha afraketak lepuen hartu eta eskolara etorten ziela ortozik. Eta eskolara sartzeko jantzi.

(Agustin, Txomena)

Eskolara joaten zinen?

Fan bai, astixa eguenien, betibe. Asko ez geben ikesi.

Etxien lanik ez eguenien. Lana eguenien, ittaurren ero, etxien biher eta, ero pastore egin biher zanien pastore eta... Betibe (eskolara).

Gero gau-eskolara eta faaten giñan, baiña asko ez geben guk ikesi. Defendiuteko lain.

(Maximo, Maña-tti Behekua)

Neskaillan eskolia nere akorduen egindakua da. Ni ondo akordauten naiz ha eskolia egin zala. Orduko baneuken beraatzi bat urte.

(Agustin Txomena)

Guk erderaz sekula ez xonagu egin!

Maixuak-eta hemen betik erdeldunak egon dira.

(Enkarna, Txomena)

Gure maistria zan Señorita Fermiña, eta haatxek euskeraz itte'skun... Euskeria egitteko idietan (con la idea de) hasi euen hau eskoliau, eta euskelduna maistria ekarri, eta holako danak egin zittuen.

Baiña gero gerria aillau, eta gero gerriak ziharo beste aldera ifiñi!

“Viva Franco” kantuen, eskua hola ifiñitta!

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Zein zen maixua?

Cristobal Colon esaten gotzan, Claudio euken izena. Kojo bat.

Guk erderaz bape ez gekixen, eta beak euskeraz bapez.

Zortzi makilla eukitten zittun joteko, e, leziñua ez bagekixen, hola ifiñi eskuak eta... Baiña zela jo!

Makillak batek erueten otzan. Hareaz amistare haundixa euken ba. Eta harek makillak eruen, gu joteko! Bea ez eben joten. Neri be asko ez nostan emuten, e, neuk ura ekarten notzan ba, itturri batetik... Itturri batetik ura ekarten notzan betibe, eta...

(Eusebio, Antzuena)

Maistruak Cristobal Colon esaera bat euken beak, eta gero beorri be haxe esaten gotzan.

Eta hak euskeraz bapez, eta guk erderaz ezebez!

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)



Eskolia, Manuelek kontatua



Bertakuak umetatik ezauketan giñan, eskolan ibilita alkarrekin. Lenengo ibili giñan eskola baten, neskatilla eta mutiko. Eta gero egin zan eskola barri bat neskendako, eta ha han da (dago) eskolia. Eta mutikuak baten eta haik bestien. Baiña jolasera danok batera plazara. Larogei bat ume, eskolan, juntauten giñan.

Gero jarri'skuen anillua. Euskeraz egittiaatik... Ha anillua etxera ekartia izaten zan... Anilluaaz itxera lo egittera... Hurrengo egunien enkajau biher besta bateri!


Hitzik be ez geben egitten, ez gekixen erderaz-eta!

Deskuidauten zana euskeraz "anillo!". Hori zan bajeza bat, anilluakin itxera!

Hamen Valládolisko maixo-zar bat, gizaajua, kojua, eta itxura txaarrekua. Kristobal Colon esaten gotzan. Eta hareaz zazpi urteaz hasi nintzan ni, eta nire moukuak.

Entendiu erderaz, ezebez. Hala eskolia ikesi? Ez, ez! Billurrez aidien... Erderaz eskolia ikesteko erderaz jakin egin biher dozu.

(Manuel, Gerneta Handikoetxekua)





Eskolia, Matildek kontatua

Urtien hiru hillebete (eskolara), neguen. Hamalau urte artien. Eta hamalau urteaz Durangora fan nintzan.

Erdaraz eskolan nola moldatzen zinen?

Gaizki, bape ez nekixen-eta. Ez nekixen bapebe.

Gure amak ez ekixen erderaz, ezebez. Eta aittak, soldau egon zalako apurtxo bat. Aittak baeuken eskolia, zeatik aitta Errekatzikiñeko semia zan. Eta ha itxe onekua zan, eta ha eskolara bialketan euen...

Gure maistria erdelduna zan, guk ez gekixen erderaz, eta dana erderaz, eta dotriña emute'skuin euskeraz. Baiña prohibiuta eguen, eta egitten geben elizako goiko sapaixen. Abariak emute'skun kontrabanduen, billurrez gaiñera, e, euskeraz.

(Txapelen Matilde)



Republikako maistria, Bittoinak kontatua

Gu eskolan hasi gitzana... Republika denporia eta... Ni zazpi urteaz hasi nintzan. Eguen zea bat bandera bateaz kuadro bat, señorita gorri-gorri jantzittako sorgin bat bandera gorrizkatxo bateaz, eguen eskolaan.

Eta Zumaaldeko Fuane, nere erarekua, haa be orduentxe hasitta eskolaan. Eta maistriak dantzan agarrauen erai'skun (erain oskun) bixoiri. Egingo geben zelabaitt.

Lenengo egunien dantza egin geben behintzet, zeien.

Eta gero kantua, handik zeatutakua, eskolaan urteterakuen. Señoritia bea be, eskolia emuten ebena be, beste hainbesteko sorgiña zan, eta: "Si supieran los curas y frailes, la palisa que van a llevar...". Hortik aurrera ez naun akordauten.

Hoixe kantau urteixeraan!

Hoixe zan lenengo eguneko eskolia, guria.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikoa)



Erderia, Xeberik kontatua

Lenaa ezjakinttasuna be haundixa eguen. Horren atrasua geuken guk asko. Erderarik bape ez gekixen. Eta maistrak etorten zienak danak erdeldunak. Horreaz problema haundixa euki geben, haundixa! Geuk be bai, eta ondorengiak be bai.

Araotzen jendeak ez zekien erdaraz?

Ze jakingo eben ba? Gure alabia, lau urtekin hasi zan eskolan, eta “buenos días” eta “buenas tardes” eta, erakusten neu ibilli nintzan, e! Ez ekixen erderarik. Eta eurok (irakasleak) danak erdeldunak!

Guk eskolan, prolemak (batuketa, biderketa...) ez gittun entendiuten erderaz! Nola egingo gittun ba ondo?

Erderaz entenditzen ez zutenak baziren Araotzen?

Auzuen erderaz entendiuten ez euenak hemen? Hoixe, bat baiño gehixaa!

Neuk be, euki duan penarik haundixena hoixe euki dot, biher dan mouen erderaz ez ikestia! Oin, ointxe be, aber zenbat papel etorten xazun itxera, “entre cartas y propagandas”. Eta ezin entendiui biher dan mouen!

(Xeberi, Agerrekua)



Arabarrakin erderaz, Bittoinak kontatua

Araba be hurrien geuken.

Urtien behin segiru faaten gitzan. Eurek be etorten zien betibe bueltia egittera. Hor eguen amandria eta... Baltia da lenengo etxia horkua, horreik ahizpaa'tzien (ahizpaak ziran). Errestiko etxetik hara fan zan.

Hangua etorten zan. Eta erderaz entendiuteko gaizki samar. Eta zeak, beak, etorri zan behin eta esa'skun: "¿Dónde estan los padres?", eta "en el baso!".

Basuen! Guk erderaz ez gekixen, "en el baso!", guk.

Zure amak bazekien erderaz?

Ez, amak ez. Erderaz ez.

Erderaz entzun eta "demanda" etzun (eskaria), eta "demanda esan xon. Demandan xabitzen?", hola esaten eben. Demanda ba, beste postura baten esaten daue erdeldunak. "Demandan xabitzen, ala? Demanda esan xon!".

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)



Araotzen erdeldunik ia ez, Otal Txikiñeko ahizpek kontatua

Han ez eguen erdeldunik. Lenengo erdelduna zein etorriko zan? Erdeldunak etorten zien maixua eta maistria. Guk erderaz kalera etorri giñanien ikesi geben formal. Bueno, formal oin be ez, baiña... Nere aittak erderaz, zero!

Araozko euskara diferentea zen? Somatzen zenuten?

Guk orduen ez geben somauten, baiña hemen (Oñatin) urte batzuk eruenda, ba bai. Batzuk egitten daue onddiok hango mouen. Aratz Urtin egitten da gehixaa. Ongi-Etorriko Mikelek eta, horreik araoztar egitten daue!

(Otal Txikiñeko ahizpak)



Erderia, Nievesek kontatua

Guk erderaz egitten geben.

Jeneralien gurien juntauten zien abariok, maistruok, maistrak... Guk subajua nola geuken ba giro gozuagua egoten zan, eta...

Zuen aitak erdaraz ze moduz egiten zuen?

Sartzen zittun taku batzuk... Baiña gaztetan Arabara fanda ikesten egon zan, e! Maistro-jente honeik gehixenok ez ekixen (zekiten) euskeraz, eta erderaz asko egitten zan gure etxien.

(Arabara joan zenean) ardixak zainketan ibiltten zala askotan, esaten eben. Erderaz ikestera fan, eta ardixakin mendixen, bakarrik. Eta ba, ez ebela asko barbarik egitten. Gero itxera etorten zanien itxeko andriorrek berba asko egitten otzala, eta bueno, ba hantxe ikesi ebela bastante. Bai.

(Nieves, Sakristuena)



Kristobal Kolon, Aizkorbekuak kontatua

Valladolidsgua... Don Claudio Alvarez, Cristobal Colon, hak esaten eben. Bere esaeria euken, "Cristobal Colon, si voy ahí".

(Eugenio Zumalde, Aizkorbe Azpikua)

Eta ume-mordua orduen eskolan hemen. Ehun bat bai... Bi andra euki zittun, bi ahizpa. Famelixarik ez eben euki.

(Pilar, Aizkorbe Azpikua)

Euskeraz?

Hak? Entendiu egitten eben, e! Entendiu egitten eben hak. (Pilar)

Bai hoixe! (Eugenio)

Enee. Eskolaan hol'egon biher izaten zan e, zuzen. Diziiplina bat eukitten eben harek! (Pilar)

Kabiu ezin. Eskolaan ehundakak. Ehundakak! Eurixa zanien bakarrik, e. Beste gaiñetikuen ittaurren-eta... (Eugenio)

Badakitzu ze ikesten geben? Dotriña bakarrik. (Pilar)

Euskeraz?

Lena dotriña nahasi zan. Eta lenaako... gure garaixen ero ondorien Astetia.



Eugenio eta Pilar.

Baiña orduen kanbixau zan euskerara. Eskola barrixa egin eta ondoren. Palabra batzuk erderaz be baeuken. (Pilar)

Maistrua ez zan ha txarra. (Eugenio)

Maistrua txarra ez zan ha izan. Baiña ume gehixei. (Pilar)

Hurrengo, uran bapez. Uran bi ero hiru. (Eugenio)

Uran bapez.

Orduko eskolia halaxe zan, Araozkua. Egualdi txarrakin. Sakua buruen hartu eta fan eta... Oingo umiak, enee! (Pilar)





Araozko eskolia

Gure aittajunak esaten eben neskaak etxien dazela onduen (eskolara joan gabe).

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)

Nere amak esaten nontan neskatiak eskolarik ez dauela biher, etxeko burua gizona zala, eta mutikuairei eskolia, baiña neskatiak etxeko lanak, josten, plantxan, koziñan jatordu gozuak egitten...

Hori zan haren mentalidadia.

(Eustaki, Txantonbalduena)

Ni esamiña sekula egin baarik naiz.

Guk eskolan ze egitten gixonan ba? Eurixa egitten ebenien horrenbeste ume faten gitzan eskolara, hor erretratuen, ikusten dozue?

Eta euririk egitten ez ebenien, ittaurrera, eta ganauzain, eta pastore, eta itxetara faten zan mutiko.

Eta beste hiru-laun bat eskolara.

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)

Ittaurren eta zeien, hementxe (Gernetan), zazpi urte arte eskolara fan be ez... Haunditxuaa eginddakuen eskolara fan gitzan... Ordun itxe baten zortzi giñan, eta haundixaguak be gehixaa egozen, eta hareikin fan, eta bazkaittera etorri, eta atzera elizondora.

Bire bastantia. Kilometro pare bat ero egongo dira.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Neskak eta mutillak aparte?

Aurretik danok baten, gerra aurtxuen egin euen barrixa, gero egin zan, Arabatik irixakin harrixak ekarritta, e!

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Eskolara joan zinen?

Fan bai, baiña ikesi ez.

Denpora gutxi egin neben. Zortzi urtekin hasi nintzan, eta hamabi urtera arte ibilli nintzan, eta gero itxien lan asko eguela eta...

(Eusebio, Antzuen)

Nolako oiñetakuakin! Oingo antzik ez eguen orduen.

Oiñetakuak zien abarka batzuk, eta eskolara orduko bustitta, eta... Estufa bat egoten zan. Erdi-erdixen egoten zan estufa bat.

(Ojala Txikiñeko ahizpak)





Eskolako kontuak, Bittoinak kontatua

Ez daa lenaako antzik, e!

Lenaa hemen eskolia be bertan eta lenaa beste gauza bat zan. Bai.

Abariak be, gero bat egoten zan, baiña aurretik bi egozen, bi abare. Sakristauen itxetik, han gaiñien beste itxetxo bat eguen, eta han abare bat eta gero, oingo abare lekuen, ba, beste bat, ezta? Bi abare. Eta haikin meza gehixaa eta zea gehixaa.

Ume danak eskolara. Oin tabernia ero egin dauen hor... Hoi eskoloi, ba lenengo neskailla eta mutiko, leku baten. Republika denporan. Danak haraxe.

Ni hantxe hasi nintzan zazpi urteaz.

Eta maistria, holoko republika bandera gorrizka sorgin bat euen... Eta agarrauen dantzan erai'skun (eragin oskun), Zumaalde Faane, gero Ameriketara fan zan. Nere erarekua eta batera eskolan hasittakua... Agarrauen dantzan erai'skun han. Bai.

Gure lenengo eskolia hoixe.

Eta hau, oin tabernia ifiñi dauen hau, orduantxe akabo euen. Ba, neskaillaak koziñera ikesteko eta zearako... Neskailaak hara eruetia... Mutikuak gero harrika igual, itte'skuen geri, e! Kulparik ez geuken baiña, barrira fan gitzalako.

Neu txikiñena nintzan...

Abarkakin fan eta han zapatillak jantzi egitten gittun... Estufia be hantxe, eta egurrak be besaazpizen txandan eruen biher, sua egitteko estufaan... Itxetik. Ba, horkuak atzo eruen ebela, ba, noiz ixa-ixa errien daazen, ba gero bestiek. Txandan. Bai. Holaxe egurra be, erueten zan.

Gero asaldien, josten ero jerseegiñen ero, hortan lenengo emakumiak. Eta gero koziñaan be, bat egon egitten zan. Maistriendako jana eta... Txandan horreik be.

“Xabiertxo” eta “Ixiartxo”... Gura euen euskeriai eustia, eta liburua “Xabiertxo” eta “Ixiartxo”, horreik euskerazkuak. Eta horrein kontuek-eta esplikaute’skuen euskeraz eta...

Eskola zaharrien hasi gitzanien, Republika denporia. Eta kantua, akordauten naiz: “Si supieran los curas y los frailes la palisa que van a llevar...” Hoixe kantui. Hori hasieria.

Uste euen euskeriai eutzi eta zea...

Zazpi urteaz (hasi nintzen eskolan), eta hamar-hamabi urtera arte.

Euskalduna, lenengo etorri zana, Señorita Fermiña.

Eta gero, Kontxita Medrano, Oñatikua zan. Medránuoi, nunbaitetik etorritakua igual izango zan... Jerseegiñen... Eta neu holoko zalia nintzan, eta neri ereitten nostan, itxera ekarten neben egitteko eta...

Señorita Fermiña, beti belauneko egoten gitzan goizien, haiketa dotriña emun arte. Eta neu ba, neskailla danen artien, belauneko han geozen aurrekaldien... Beraatzi neskailla ero, eta neuk esan notzan... ez dakitt zelako atrebidia nintzan... “Dotriñaan euskeraz t’hemeren erderaz, gehixegi da. Hori ezin leike ikesi buruz”. Neuk hori esan notzan eta “zu atzeko sesiñora!”. Egin nostan atzeratu.

Beak umia euki biher eta geldittu zan ha, eta Kontxita Medranuau etorri zan eta: “Baiña zu zela zaz ba hemen?”. Eta “ba neuk hoixe esan notzan eta maistriak atzeratu nau”. Eta “benga, benga zu lengo lekura. Hori baiño gehixaa dakitzu-eta”. Esan nostan, eta gero atzera jerseegiñen lagundu horri, eta hori pozik. Bai.

Eta holaxe gure eskolaak.

Mutikoek jo egiten zintuzteten?

Bai. Mutikuak handik bajauten itxi ez. Han eskillaratik behera bajau biher izaten zan. Goitti daa biria baiña...

Eta mutikuak eskola barrira geu, eta eurek zaharrien. Eta izten ez jolasera bajauten eta harrika eta holokuak be itte’skuen. Baiña gero akostunbrau zien. Gero sozio jolas be bai gero. Baiña lenenguen min hartu euen mutikuak.

Federiko gure aittajunak-eta egin euen ha eskolia.

Gure aittak esan ebela... Federiko oso langillia zan, oso fuertia, oso biher dan mouko gizona zan... Eta bea kontratistia, eta: “Oin neu ez nauk etorten eta oin zaharragua, aittajuna, bialdu biher lanera eta nehikua zea xakuat...”. Hola esan otzala eta: “Bestiak bikain egitten xok eta trankil ibilli hi”.

Federiko oso langillia zan. Eta gero, ba aitta be trankiltxuua eta...

Azuak egin eben hori. Auzolanien. Danak txandan, itxe danetakuak.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikoa)

Eskolako estufia, Eugenik kontatua

Gero neguen egitten geben, neguen, eskolaan... asko ez nintzan fan, e, ni zortzi urtekin hasi nintzan gerria eta gero... Egoten zan estufa bat eskolan erdi-erdixen, eta harako txandan erueten geben egurra.



Zutik ezkerretik: Eulogi Uriarte (Erreka-txiki), Gotzone Igartua (Mañako Garaiko-txiki), Arantza Zumalde (Mañatti-behekua), Karmen Barrena (Otal), Begoña Goitia (Gerneta-handikoetxe), Maria Luisa Zumalde (Mañako Azkoittina).

Behean ezkerretik: Pepi Zumalde (Mañako Azkoittina), Maria Luisa Altube (Aratzurti-garaikua), Agurtzane Zumalde (Aizkorbe-azpikua).

Hotz egitten eben, eta abarkak eta, oingo mouko oiñajia be ez... Oiñajia, oingo mouko ona ez abarkakin, botakin, gaiñera apurtu egitten zien segiran orduen, oiñetakuak...

Eta hotz egitten eben, baiña gu Gernetara orduko berotuta faten giñan, behetik gora hotzak be kendu egitten gittun.

Txandan erueten geben, estufa holoko ze bat eguen eskolan erdi-erdixen, han egitten zan sua, eskolarako. Erueten geben neskak eta mutillak, gu neskak giñan bakarrik, eta erueten geben txandan egurra, harako.

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)





Cristobal Colon, Pilarrek kontatua

Mañakuak etorten zien hona bai, eta nik be Mañakuak bistan eukitten nittun (Ojala Haunditik), eta Mañatik dozena bat igual umiak, neskatilla eta mutiko, eta Cristobal Coloneaz pasau egunoi, nunbaitten, eta bazkaittera Mañara, e, bazkaittera Mañara.

Eta atzaldien atzera berriz etorri. Eta illunkaran, asaldien, batien errekaan peskaan, ero txori-afixaak topauten... egunak emuten beeben behintzet, harrika, eta holakotxeko zea... Bizimorua, esan gura dot... oin dantzara fan biher, eta txistrura fan biher eta, hori ez, e! Patxara gehixaakin.

Ardixak ero behixak ero billotzak ero hau ero hori... baiña bixen bittartien ba hoi oingo zeoi ez, prisa hori!

Eskolaan be ez prisa haundirik... Cristobal Colonek... hak makillia eukitten eben, e! Hak “da!” koskorrekua, eta kitto. Hartu egin biher!

(Pilar, Aizkorbe Azpikua)



Arabarrekin kontaktua

Guk hemendik ez dou urten. Eta guk erderaz ez dakigu ondo.

(Enkarna, Txomena)

Esaten dute behar den moduan ez zekitela erderaz araoztarrek...

Biher dan mouen oin be ez guk. Lenaa be erderaz ikestera be, Arabara faten zien.



Araozko jaixetan, Trinidadetan.

Zutik ezkerretik: Gerneta-erdikoetxeko Balentin, Erramuen Juan, Azpilletako Joseba, Jausoro-garaiko Florentzio, Antzuen Jabier, Gerneta-Etxebarriko Joxeluis, Jausoro-garaiko Javier.

Behean ezkerretik: Jaturabeko Joxemari, Gerneta-erdikoetxeko Felix, Errestiko Joxeantonio.

Hemen Araozko bat, Arabara fan zala kriaui, erderaz ikestera, enda goizien irixakin bielketan euela soora eta “aida buey” eta “aida buey” (eta erdaraz ikasi ez).

(Maximo, Maña-tti Behekua)

Arabarrakin be asko tratauten geben, bai...

Gizonen aitten arrebia zela eguen Araban, hor zeien, Barrian, ba arabarrakin asko tratauten euen. Neuk be bai, baiña gizonak asko.

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)

Erderaz bazenekiten?

Asko ez, baiña entendiui beti, zeozer; defendiuteko lain beti.

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)

Araozgo alabia, Errastiko alabia, Baltian ezkonduia xaguan.

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)

Xexillio zan Maña-tti Behekua, aitten primua, ezkondu zan Aizpúrura, eta horrekin zea haundixa euen.

Andria zan Koruetakua, eta haik Aizpúrura ezkondu zien.

(Jesusa, Aizkorbe Azpikua)

Gure aitta-eta, eta Araotzen asko, faten zien gari-ebatera. Ittaixakin e, “aquellos tiempos!”. Ittaixa badakizu zer dan?

Eta beste batzuk teillia egittera Naparruara, asko!

Gure aitta be Iratin, Naparruan, ibilita da (dago). Uste dot teillagiñen ibilli zala. Eta beste batzuk ibilli zien egur-asuntuan, Lezeta eta honeik egur asuntuan, Iratin.

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)

Generaloi (Elorza) Vittorixara zaldi-gaiñien, hemendik, denpora baten.

(Rikardo, Agerrekua)



Erderia, Marijoxepak kontatua

Erderaz sekula be ez dot ikesi, e!

Arabarrekin?

Haikin be geuk egin biher, oker ero zuzen!

*Onddiok be erdeldunaz juntauten bagara, neuk egin biher izaten dot erderaz.
Oker egitten dot, baiña neuk enterau erain biher!*

Aittajunak eta amandriak bazekiten?

*Amandriak behintzet ezebe ez ekixen! Eta libururik irakurten be ez ekixen.
Aittajunak gehitxuaa, harek apur bat. Baiña amandriak ez. Amandriak neuk beste
be ez...*

*Baieruak-eta ibiltten zien orduen, galbaia-eta saltzen... Eta hemen aldamenien
be amandria bat eguen, ikezkiñen gizona, eta “¿marido dónde tiene?”. Eta “Monte,
carbón!”.*

Danak arrelauten zien, e!

Holakotxe gauzaak.

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)



Erderia, Matildek kontatua

Gure aittak erderaz apurtxo bat ekixen, soldau egon zalako.

Nere anaiak fan zien Arabara (erdaraz ikastera). Baiña goizien irixakin fan mendira lanera, eta illunkara arte, eta irixak euskeraz ikesi euen, eta beak erderaz ez eben ikesi!

Eguna bakarrik pasauten euen, eta zela ikesiko euen ba! Baltian egon zien. Han eguen, Baltian eguen Errastiko alabia ezkondata, Orueta.

(Txapelen Matilde)



Erderia, Benittok kontatua

Erderaz Araoztarrek nahiko justo jakingo zuten, ala?

Justo ez, kasi bapez. Guk be erderaz...

Eske orduen ez xaguan telebisiñorik, ez xaguan radiorik. Ni be Araba Mendixan arabarrakin juntauten nintzanien, hango pastoriakin, billurrez egoten nintzuan juntauteko. Larri, e! Eta ahal bada, ihes egin! Holaxe zuan.

Zenbat urte zenituen?

Lenengo zortzikin hasi nintzuan, baiña gero ardi-jaiztera hamairu-hamalau urtekin-eta be, erderaz... ez gekixaun eta!

Entendiu bai, maistruak be erdeldunak egon zittuan eta haikin entendiu egitten gixuan, baiña egin... Hantxe maistruak esaten ebena. Baiña besterik erderarik Araotzen ez zuan iñun entzuten. Ez tabernan eta ez iñun, erderarik, e!

Claro, ez xakixan iñok-eta!

Abariak be, dana euskeraz. Araotzen izan zittuan abariak danak euskaldunak... Guk dotriña ikesi gixuan, bueno, abogauak baiño hobeto. Baiña dana euskeraz, e!

(Benitto, Ojala Haundikua)



Erderia, Bittoinak kontatua

Guk erderaz ez gekixen orduen. Guk esaten geben ““si” tta “no” eta “poraki”, ez dakixenak baleki, eta dakixenak ez baleki”. Hoixe esan eta ibiltten gitzan hemen saltoka gaztetan.

Hemen bi ahizpa fan zien lenaa mendira. Eta mendixen, ba hor, Araban, dana erderaz egitten zan behin mendixoi pasau ezkeru.

Eta ahizpa batek esan otzan bestiai: “Hi, erderiak tentauten naixon!”, “ah, tierriak kausauko xon” beste ahizpiak kontestau otzan.

Eta: “Burdiñiai zela esaten etexakon?”, eta “zela esango xakon ba, “astúinko!””.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)



Gaztaiñaak saltzeera Arabara, Marijoxepak kontatua

Gu gaztaiñaak saltzeera, aldameneko neskia eta bixok fanda gaz (Arabara). Bi neska, asto banaaz. Eta lenengo Lárran saldu gittun batzuk, gero Aispúrun beste batzuk...

Larráako goixeneko itxequak, bi anae hemen egon i zien, txandan, euskeraz ikesten. Nere akorduen ez, aurretik. Amandriak esaten eben.

Nere aitta egon i zan, han erderaz ikesten. Amandria kejaz egoten zan. “Gu ondo gobernauten ibilli gitzonan hareik. Aldiko bat egon zien. Baiña gure aittajuna gosiak ebali xonain!”. Han Larraan...

Gero horreik gurien egondako mutillok, fan zien Ameriketara.

Haik etorri zien hona bixittautera, Ameriketatik etorritta. Eta ni orduko dozena bat urteko neskatilea banintzan hemen. Eta amandria labesua egitten, ogixak egitten...

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)





Haserre arabarrekin, Maximok kontatua

Guk geuk, hala be, beti relaziñua, pastoriok behintzet. Oin, beti hasarre antzien arabarrokin...

Hemengo ardixak, ganauak, hara pasauten dielako hangiak hasarre. Eta, gu, berriz, eurenak be pasauten diela honutz, eta hor eukitten geben jaleuoi.

Urte baten euki geben bastante serixua, Eta hasarratu be bai, gehixaa barbarik egin baarik denporalien egon giñen.

Horko pastoriak juntia egin euen, Degurixakuak abixauta fan giñan.

Onddiok ondo goguen dakot zela esan osten...

Arabar batek esaten eben zea egin biher zala, zangia, alde batera eta bestera pasau ez dain, eta Múxibar onddiok bizi da, ez dakitt ezauketan dozuen, harek euskeraz esan eben eta ez euen entendi: "Zangia? Eurok sartzeia onena bertan!".

Arabarrakin juntautakuen, preguntau ardixok ero bestia... eta entendiuten komerixak!

(Maximo, Maña-tti Behekua)



Arabarrak, Agerrekuak kontatua

Tiaoro (Mantxuena) ibilli zan urte baten, hemen basuen ikezgiñen, hor Andartotik ekin eta hor zeien, eta gero Ózetara karriuen ekin zien, astuakin, hor ekin zan hara karriuen, eta orduen egin zien lagun (eta harekin ezkondu zen).

Eta gero hoi baiño haundixagua egin eben harek, gero itxasora be fan zan, eta han ez dakitt zenbaitt urte, eta gero, aurretik lagun egindda egongo zien... baiña Tiaoron aitta hor behien jaixotakua, hemendik fan zan Ózetara, e!

Hemen (Agerre) beheko etxe zaharrien jaixotakua.

(Rikardo, Agerrekua)

Handik Oñatira etorritako gehixaa be badaz.

(Xeberi, Agerrekua)





Arabara, gari-ebatera, Benittok kontatua

Gari ebatera Arabara joaten ziren?

Bai, gurien ez zuan fan iñor, baiña hamen Uésteittik-eta faten zittuan ni mutikua nintzala artien, segan egittera Arabara...

Araban be orduen ez xaguan makiñarik eta segakin faten zittuan. Haik euran segiakin faten zittuan eta jornaltxua kobrauko xuain-ero.

Uestein orduen lau beziño zittuan, enda Arabakin tratu haundixa xaukain. Bueno, Araoz danak, e!

(Benitto, Ojala Haundikua)





Gari-ebatera Arabara, Joxemaik kontatua

Arabara garixa ebatera joaten zen jendea?

Bai, aitten anaia, gogorra gari-ebaten... Enda apostia egin xok arabar batekin, zeïnek gehixaa ebai.

Eta fan dok aurreko zeien (egunean), eta oillalokia emun txain, eta diarreakin jota ebaitta tipua!

Azkenien frakaak kendu, eta alkondaria luzia, alkondariakin tapau dana, eta fraka baarik, “zarrast” eta “parrast”, “zarrast” eta “parrast”.

Irabazi egin xuan, arabarrai irabazi egin txan!

Aitten anaia, Juane, gogorra!

Oillalokiak diarrea?

Bai, oillalokarik ez jan, bestela ikusiko dok! Oillalokia jan xuan eta... Bea zelebren hutza zuan, “rrast” eta “parrast”, “rrast” eta “parrast”... Harek euko txuan inguruak!

(Joxemai, Goittikua)

Amandrea ere joaten zen Arabara?

Ez. Neu bai aittakin paatxetara-eta.

(Joxemai, Goittikua)



Txahala saltzera Larraa, Marijoxepak kontatuta

Neu be askotan fanda na (Arabara). Askotan faten gitzan orduen hortik (menditik). Txahalaaz be fanda na ni, gizona eta bixok be, Larráa, oiñez...

Orduen holaxe!

Saltzera?

Salduta. Eruen egittera. Bai. Holaxe kontuak!

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)





Arabian erosi eta saldu, Manuelek kontatua

Nere, len esan doan amanrriak... Hemen eguen mai bat, sukaldeko mai bat (paretara jasotzen zena), Vitorixan hartu buruen, eta amanrriak ekarritakua zan. Vitorixatik hona, e! Oiñez. Ha buruen ekarri egin biher zan, e!

Eta amanrre hori iitaiz faten zan Arabara gari ebatera. Neskaak.

Eta... bialdu izue gaurko neska bat, Vitorixara, eta emun xozu mai bat “hau erun izu buruen Araotzera!”.

Eguen biria, mendi-gaiña pasau, Arabara jatzi, eta gero kamiñua...

Lenaa txahalak erosi hamen, Vitorixako tratante batek igual, eta ifintten-batzun (bazizun) “entrega alli”, oiñez e, hemendik Vitorixara txahalakin... Nik ez dakitt zela manejauko zien!

Ni Arabara eruenda na oiñez, mutikua gaztia nintzala, aittaaz, txahala. Behixak ondo faten dira, baiña txahalak egitten dira kantzau, mendi-gaiñera orduko kantzau. Guri egin xakun, mendi-gaiñera igo gebenien, txahala “da!” etzin, eta iixko fuertia zan. Eta ezin jai (jagi, jaiki). Gur’ez jaitterik!

Eta ni mutikua gaztia, eta aittak esan nontan: “Hartu sokati apur bat, sokiai euki eskuen, gero neri emuteko”. Eta aittak egin eben illarra ier bat hartu eta sua emun illarriai, eta hanka-arte aldetik (txahalari)... Joe, jo eben morraza bat sustuaaz!

Fan giñan Larráko txaboletaraiño. Baiña kantzau atzera hankak txahalai. Etzin zan. “Ointxe bai, burdixaana fan bihera... Hi, umé, egon hai hamen!”. “Lotu ez dou egingo, aittá? Jaitten bada, martxa egingo dau-eta!”. “Ez, ez, ez xak hau lotu biherrik!”.

Fan zan aitta, eta tratantia, Prudenxio Arratibel, Arabako tabernako aittajuna zan... Harek euken mataderua, eta harek hil biher eben.

Ekarri eben bixkaiñua, euskalduna, irixakin. Ni luze iritzitta nengun, “etorriko ete ttuk!”.

Halako baten, urriñera ikusi nittun, burdixa eta gizonok.

Etorri zien eta bixkaiñuorrek burdixoi sartu eben atzeraka eta “rrau!” bota euen (txahala). Eta “trankan, trankan, trankan” karro-bolantien Larráa.

Txahaloi hil, bazkaldu, eta gero oiñez, aittaaz, atzera hona.

Eta holaxe.

Eta, haatik, oin esaten dot hobeto bizi dala jentia. Hemetik ganaua eru-izu (eruan egizu) oiñez!

Oin kamionien etxien kargauten dira, eruen biher dien lekurako, etxe-etxien, iñora etara baarik. Len hemetik hor beheko karreterara etaraten gittun, haundixak izan, txikiñak izan, hirurogeta hamar erraldeko iixkuak, ixa laurogei be bai, eruenda na ni soka, hemendik behera. Et'ondo!

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Arabara astuaaz patatia ekartera, Bittoinak kontatua

Itxe baikotzien egoten zan astua, ikessitakua lanien eta zeien. Astua, nahiz ganau-jana ekarteko, kalera fan eta errekaia ekarteko... danerako.

Eta hemendik Arabara fanda naa, beraatzi urteaz...

Mantxúen Tiaorok han patatia... ba, kanbixau, hiru urtetik behin ero kanbixautia komeni izaten zan.

Eta ba, Mantxuen Tiaoroaz fan... astuen atzetik, neu beraatzi urtekua, eta bea mutilla, beak ez dakitt zenbat eukiko eben, hogeta bost ero holokon bat, treinta ero holokon bat eukiko eben.

Gero, han Araban niri astua kargau, patatiaz. Eta: “Nol’etorriko naiz ba?”, nik hemen etxien (preguntatu). Eta: “Zuk astuai jarraitu. Zuk ez egin iñori kasorik be, astuai jarraitu”.

Eta bea han geldittu zan Araban... Andria be hangua hartu eben... Eta ni astuai jarraituta, astua itxera berez etorri zan, eta (ni) astuen ondorien etorri... Beraatzi urteaz, e! Oin beraatzi urtekuak umia’tia (umiak dira) baiña...

Baiña astuak listua’tia (listuak dira), e!

Astuak behin esaten xazun lekura, haik zuzen faaten dira. Entendiu be ondo eta... Fan biher danien “arre!”, eta bestela “isó!”. Hori jakingo dozu, geldittu biher danien “isó!”. Oingo gaztiek ez dakixe (dakite) hori.

Arabatik hona bidealdixa da (dago), e! Baiña lana egoten zan danendako. Neskaillia be lanien.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)



Arabara, erdaraz ikastera

Araozdik Arabara erderaz ikestera? Ba bai, entzunda bai; oin, zeintzuk e'tzut esango.

(Jesusa, Aizkorbe Azpikua)

Arabakin relaziño haundixa xaguan. Kóruetakuakin haundixagua... esate baterako, Elgéa eta horreittan, eta Báltia eta horreittan, Araozgo alabak ezkondata baxazen, relaziñua baxaguan Arabakin.

Bai, ohittura haundixa xaguan (Arabara joateko erdaraz ikastera).

Nere anae zaharrena Vittorixara fan zuan, baiña ha fan zuan Corazonistetara erderaz ikestera. Baiña, erderaz ikestera, Arabara, bestela be fan zittuan, e!

(Benitto, Ojala Haundikua)

Gero Vittorixan egon nintzan, erderaz ikestera fan eta kria. Ni koziñan egon nintzan. Koziñeruen ayudante, aramaixoar bat eta ni.

Eta danok euskaldunak, eta ez geben egitten erderaz. Eta hola zela ikesi! Eta koziñerua be, Don-Símon, Arkarazoko semia, Atxabaltakua. Eta harek be euskeraz itte'skun!

Nun ikesi biher dou ba erderaz hola?

Eta gero soldau fan giñan, eta soldau beste hainbeste, euskaldun hutzak!

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)

Zure gurasoek bazekiten erdaraz?

Aittak bai. Amak zeozer bai, baiña ez, amak gutxiaa.

Aittak esaten xuan, erderaz ikestera Vittorixara fan, eta (han) bost mutiko araoztarrak... Erderaz zela ikesiko eben ba?

Baiña ikesi eben behintzet bere burua defendiuteko lain.

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)

Mutikotxuak, zortzi-hamar urtekin erderaz ikestera Arabara. Kriau mouen Joxe-Txiki eta, tio Roman eta, tio Felipe eta, aldeko Txapélen Nikolas eta...

Eta Txapelen Nikolas faten dok Arabara, enda etorten dok Arabatik bueltia egindda, han hiru hillebete ero egindda, eta “ñoo, gure mutikuak gogor ikesi dau erderaz, mekauendioska ixilldu be ez!”.

(Joxemai, Goittikua)

Erdaraz ikastera joaten ziren?

Bai, esango dotzut, hau oso politta da, e!

Bialdu euen mutikua Araozdik Arabara erderaz ikestera.

Eta handik hillebetera etorri zanien: “Ze, ikesi dok erderaz?”, eta: “Bai, “mekauen Dios”, eta “la ostia!””.

Ganauen ondorien. Juramentuak!

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)





Kontrabandoa, Txomenak kontatua

Mikeletiak han goixen, mendixen, xakuain etxia.

*Ez nauk akordauten han egon zienik. Baiña ikusi bai (etxea), ikusi sarri egin
xuat nik ha.*

Itxe ondotik Arabara estraperluen handik pasauten gintzuan.

(Agustin, Txomena)

Gu ez gara akordauten horreikin, mikeletiak oso gutxi...

*Horreik gerra-ostien hemendik polaiñak jaso zittuen (hanka egin zuten).
Norabait ezkutau zien.*

(Enkarna, Txomena)

Guardazibillak harrapo nindduen (ninduten) behin.

*Kargia kendu eta milla peseta multia... Mendixen, mendi azpizen... Bost
gintzuan. Hiru goizien fanda eta gu bi gero fanda, illunkaran fanda. Eta gabien
harrapo gindduen (ginduten).*

*Hamalau urteaz fan nintzuan ni Arabara gabaz, Herediara, Salbatierra ondora,
hamalau urteaz! (Gauez)... Eta eurixa, etxien urten eta eurixa... Eta atzera buelta
eurixaaz. Etixerako uruna ekartera.*

*Gerra-denporan ogixa xaguan erraziñora, eta zenbat egongo zien, mordua,
bazkaitteko...*

(Agustin, Txomena)



Kontrabandoa, Florenek kontatua

Kontrabandua?

Nik ez nixuan ezautu. Entzutia asko bai, entzutia bai, baiña ez, nik kontrabandorik ez nixuan ezautu.

Kontrabanduen ibilittakuak ezautu nitxuan asko, e!

Mantxuen Tiaoro, Juanito; Bartolo Mañakua be uste xuat baietz... Mordotxua uste xuat ibilli ziela.

(Floren, Jausoro Garaikua)

Eta orduan zuenera nola iristen zen ardoa?

Fan eta ekarri egin biher Arabatik. Ardaua guk asko ez gixuan eraten, e!

Gurien ardaua, hasten bagiñan danok, barrikia biher zuan! Guk ardaua ekarten gixuan, gari-jotia egitten zanién.

(Floren, Jausoro Garaikua)





Kontrabandoa, Jabierrek kontatua

Mantxúen Tiáorok andria euken Ózetakua.

Estraperlo denporan haik faten zien Arabara astien bi aldiz ero, garixa ekarri eta... gero saltzeko.

Eta hak be andria arabarra euken...

Arabatik ekarten zan estraperluen ardua... Lenaa ardua-eta ekartia prohibiuta eguen, etxerako, e!

Mantxuena-eta hartaraxe dedikau zien.

Dozenaerdi asto-ero...

Tiáoro, Benitto, Juanito eta honeik... Eta gero zea, Iñúzenzia Mantxúena, eta Mariajesus zeekua, Errékondokua-eta, horreik be, emakumiak be (kontrabandoan).

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)



Kontrabandoa, Jesusak kontatua

Mikeletiak-in-eta, aittak esaten eben, egitten zittuen komerixak, kontrabanduen orduen. Ardaua ekarten euen handik eta, ardaua behintzet bai zaraixen, aittak, askotan kontaute'skun. Enee, baiña guk kasorik ez gotzan egitten-eta...

Arabara asko faten zan gure aitta, eta gero Mikeletiak-in eukitten euen zea. Orduen egoten zien Mikeletiak San Juanen, hor goixen. Zaraixak ekarten zittun aittak. Ondo akordauten naiz horrekin.

Gabaz faten zan. Araban ezaupide haundixa euken aittak; aittak eta besta batzuk be bai. Araban, hor zeien, Larraan, eta Aixpúrun gehixenbat, eta Ozetan be bai...

Askotan gordeta egonda be bai.

(Jesusa, Aizkorbe Azpikua)





Arabarren kontuak, Bittoinak kontatua

Arabara joaten ziren galdetu diogu Bittoinari:

Bai, faten giñan. Ardua ekartera, eta patatia kanbixautera ..

Ni fan nintzan beraatzi urteaz, hor beheko tabernako Tiaoro sarri faten zan hara, tabernia euken eta arduaana, eta guk, patatia beti bat ebali baarik, ba hiru urtetik ero kanbixau egitten zan...

Eta Arabara, astuaaz, patatia han erosi eta sartzeko patatia ekartera, eta ni hango gizonaaz beraatzi urteaz fan nintzan, gehixaatan be fango nintzan, baiña...

“Gero etorri zel’ingo naiz ba?” esan nosten nik etxien, hareaz fan, eta gero ha Araban geldittu, eta “etorri zel’ingo naiz ba?”, eta “zuk astuari jarraitu!”. Eta astuak zuzen itxera, e!

Astuak dira gu baiño listuaguak, nundik urten dan (dauen) jakin egitten dau guk baiño hobeto, astuak.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Bost hillebete etxetik kanpora Araban egon nintzuan, erderaz ikesten. Tripa-truke egon nintzuan ni...

Aittajunak esa’stan: “Ez xakixat erderaz asko ikesi duan, askorik ez, baiña boldan majo ikesi dok”.

(Agustin, Txomena)

Astuakin-eta faten zien...

Ardaua ekartera be Arabara faten zien lenaa.

Len-lenaa ardaua be kontrabanduen ekarriko zan Arabatik. Eta gero, berriz, garixa eta patatia eta, hori ezautu neben.

Mañako jentia ez, banakan batzuk betibe faten zien, baiña ez.

Mikeletiak ibiltten zien, Mikeletetxia eguen goixen eta... Itxia eukein politta, bi bizitzako itxia, oso itxe politta; ha be bota euen eta...

Baiña mikeletiak neuk ezautu egin nittun hor, e!

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)

Ferminek:

Arabara askotan na ni fanda.

Larráa, ardotara, askotan, e! Astuekin, bi astokin, bikin be bai, eta batekin be bai... Egunez, beti egunez.

(Fermin, Borjena)

Bidea?

Araozdik bertatik, Koóstolatik Úxakotxenera...

Oin eolikuak jarritta xazek.

(Fermin, Borjena)





Arabara kontrabandoa, Gernetako ahizpek kontatua

Legala ez zan (kontrabandua).

Aurrekuendako... Aittajuna-eta daz mendittik salto egindda, gure aittajuna-eta. Mikeletiak faten zien hain denporan, eta Árgaiko nardatik salto egin xonan aittajunak...

Gaiñera bixkarrien ekarten euen zaraixa, e!

Guk ez geben hori zeatu. Gure aittajuna ezautu geben ondo... Esaten euen, ardua ekartera fan eta orduen zaraixa bixkarrien pasauten euen, zaraixa bixkarrien...

Eta mikeletiak, itxuria, hor egoten zien.

Gaiñera daz, bi itxe daz mikeletienak. Eta itxuria atzetik etozen, eta...

Baiña narda haundixen egin eben salto, e! Árgaiko zeien egin xonan, altuenetik igual ez xonan egingo, baiña... Handik behera salto egin xonan; handik salto egin ezkerro, ba gero euken biria, Aixkórbeera fateko biria. Bestela bestealdetik ikusten eben lotuta eguela.

Handik egin eben salto, handik samurraa fango zunan, Aixkorbe aldera-ero ihes egitteko. Ardua bertan itxitta igual. Hori beti esan izan da.

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Seguramente.

Zaraixa itxi, eta Gernetara basotik datorren mouen... Horreik aittajunok ondo xakiñain hango biriak, e! Lengo biriak ondo xakiñain.

Ardixak eta behixak orduen kanpuen ibiltten zien, oin piñuak daz, baiña orduen dana zan (zelai, soro)...

Geure denporan be bai, e! Geure denporan be goizien ardixak eruen, eta illunkararako egitten euen euren bueltatxua. Hori segun ze denpora. Jaizteko denporia, ero billotz denporia... Mariuntz aldera etorten zien.

Harri-arte zea bat... Árgarai, ba hantxe tontor bat dana harriz betetakua, eta gero saltua.

Gero behien biretxua egongo zan, baiña saltua... Nardatik behera, ez zan hillteko moukua, baiña saltua bastantia egongo zan. Segun nundik egitten donen!

Gero hor daukén biria, ba Aixkorbeera fateko...

Danetik xazen hor, biria-txazen (biriak xauzen, xagozan). Bestela Gernetara... Biria zuzen hartu ezkerro, harrapo egingo xonain, eta handixe salto egin eben.

Horreik bizi be, mendixen egitten zien bizi be. Mikeletiek esaten xaten orduen. Etxiak egozen, bi itxe, bat zeien, goixen, Arabako pasuen, eta besta bat hortxe bertan.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)





Kontrabandoa, Joxemaik kontatua

Méejildo, gogorra kontrabandistia!

Méejildok orduen i xakuan Araoz dana erosteko beste diru!

Gero Máñara fan zuan bizittera.

Eta hillebetien, beak euken beste diru irabazten xuan, fabrikan, Juanitok, bere semiak! Hasarratu egitten zuan. “Mekauen dios, nik hainbeste kosta, irabazi, Araoz dana erosteko lain diru neukan, eta gaur ezebe ez xakuat, eta ezek be ez’tak balixo, kitto, niria fan dok! Kakamutiko honeik nik bizi danien aurreratu doten beste hillabetien, hori ez dok posible! Hola ezin leike!”.

Hasarre ibiltten zuan. Baiña orduen i xakuan Araoz dana erosteko beste, kontrabanduen egindako diruakin.

Méejildo. Méejildo Barrena, Ojala Txikiñekua. Mutilzarra zuan ha...

Gero Ojala Txikiñeko alaba bat ezkondu zuan Mañako Juanitokin, eta haik hartu xuain, puska bat zahartu zanien, ez zuan kapaz be larrei eta azkenengo urtiak Mañan egin txuan, Máña Beitti Goikuan.

(Joxemai, Goittikua)



Kontrabandoa, Matildek kontatua

Gure aittak tabernia euken Errekatxikiñen. Eta Arabara faten zan, eta ekarten zittun ardua eta erarixak. Eta Mikeletiak jarraiketan otzain, zeak, zaintzallak.

Eta zenbat bider, bota kargia sasira, eta itxabolaan baten gorde eurak... Eta mikeletioak faten zienien, hartu bizkarrien, eta... Bizkarrez, e, Arabatik!

Zaraixen ekarten euen...

Mantxuena eta Zumaalde, horreik gero hasi zien.

Liburio, Górrrenak erei eben Zumáalde, eta gero horrek hartu eben (lanerako) Mantxuen andria, Eluteri.

(Txapelen Matilde)





Kontrabandoa, Maximok kontatua



*Araoztarrak sa-
totik ardoa edaten.
Behean eserita
Tomas Altube,
Goittikua.*

Kontrabandoa ezautu zenuen?

Hoixe ezautu!

Nere tio bat asko ibilli zan kontrabanduen.

Kontrabandua al zan ba ha!

Araban garixa hartu eta hona ekarten euen astuen. Enda guardazibillak gurien, ene, zenbat aldiz lo egitten euen!

Gurien guardazibillak souen hemen lagunketan eta, bertan lo egin eta... bueno, zenbat aldiz!

Eta hiru astoaz ero lauaz ibiltten zan tio, garixoi ekarten, eta gero hemen kamiona kargau eta erueten euen. Baiña, guardazibilla jakiñian bai. Baiña alde batetik baxoiazan, beste aldera beitu eta ba pasau.

Ardaua, berriz, etxien erateko eta... Nere aittajuna-eta esaten euen faten ziela. Hemen auzokuak hiru ero lau juntau, gustora; gabaz gaiñera, e!

Hartu zea (zaragia) bixkarrien, eta hemetik hara lau orduko biria da (dago). Eta lau orduko birien fan, han hartu ardaua bixkarrien... baiña gustora, gabaz. Biretik be ez gaiñera, e; hor mikeletiak egoten zien goixen, eta ikusiko ete zittuen, eta albotik.

Etxien erateko ekarten euen ardao apurraatik, kontrabando haundixa ez zan ha!

Hor bi mikeletetxe egozen, bat hemen behien eta besta bat mendixen goixen.

Eta andria (una mujer) han goixen bakarrik, eta mikeletiok fanik norabait, eta Arabatik badator, esaten euen, bixkarrien ardaua dala, bat, eta andriorrek, ardaua gustauten i xakon hari be eta egin xaa alto, eta bestiorrek itxi bixkarrien ekarren kargioi, eta biaje!

Eta andriorrek, zeoi, ardauoi, eruen barrura eta tremendako mozkorrakin topau euela gero han.

Baiña honeik guriok, aittajuna-eta, ardittara... Ardixok hor goixen, oin be bai, eta orduen be bai, eta mikeletiak hor, eta mikeletiakin beti lagunak, eta beruzkuen ardixakana fan, eta beruzkuen mikeletiakin, musian egin eta behien egoten zien...

Holako zea haundirik ez, billur haundirik ez.

Guardiazibillak?

Gurien zenbat aldiz jan euen! Jan eta hemen bertan lo egin, eta gero eurak lagunketan be ibiltten zien, gari-ebaten eta atxurren eta, ondo akordauten naiz zela ibiltten zien.

Atxurren nola egiten zuten?

Atxurren, bat oso ona be bai, ibilli zan atxurren, oso ona, e! Horreik be danerakuak.

Onddio ondo goguen dakot hor behien zela ibilli zan.

(Maximo, Maña-tti Behekua)



Kontrabandoa, Agerrekuak kontatua

Garai bateko kontuak kontatzen zizkizueten aittajunak-eta?

Bai, lenaa mikeletiekin zela ibiltten zien-eta kontaute'skuen.

Uásteiar bat, gogorrak zien horreik, Urkia... Eta Degurixatik gora, eta badatoz handik, kargia bixkarrien hartuta, eta mikeletiok: "Hor xatok, hor xatok goittik behera".

Eta heldu xaa, eta burrukan! Eta bestiai diaarka, etorteko. Eta bestiak hanka in'sten eta kitto!

Egixak dira horreik, e! Baiña gizona baltza, e!

(Rikardo Agerrekua)

Araba aldera be ibilli zan burrundaa apur bat, zulua egin biher zala... Hor be ibilli zan burrundaa apur bat... baiña aspaldiko kontuak, e!

Ha (bidea Arabara Araozdik) egin bazan, hobeto!

Guk ardaua Arabatik ekarten geben astuakin, e! Kontrabando!

(Rikardo, Agerrekua)

Gari-joteko ardaua handik ekarten zan.

(Xeberi, Agerrekua)

Eta Mikeletiak hor batien-bestien... Eta aurrera!

Araban hor, zeien, ekin Larreatik eta Aspuru, Barria... ardaua hor.

Neri baten pasau xaten, Arabara ardotara, gabonetako ardotara, astuaaz, aittajuna zana eta bixok, eta ardi bat eguela larran, geria izan biher ebela, eta gabonetako ardaua ekarriaz fan gitzan, Barriara.

Eta fan gitzan eta ardixoi ezkutau egin izan biher zala eta astua kargau eta abaria nerekin, eta aittajuna han geldittu zan, harrapau ebenoi estutu biher euela-eta.

Han mendiraiño lagundu nostan, abariorrek...

(Rikardo, Agerrekua)



Kontrabandoa, Benittok kontatua

Araoztarrak ardoa saatotik edaten. Tarteana dira, lehen lerroan, Joxe Txiki eta bere emaztea Juana Guridi.

Nere anaia, zaharrena, bastante ibilli zuan kontrabanduen. Neu be bai, neuk be egin txuat biajeen batzuk. Patatia eta, ardua be bai eta... ardua be ekarritta nak.

Normalez, garittara gabez, illunkaarako hara aillau, eta goizien be illun eguela urten atzera handik. Guardazibillen billurra egoten zuan eta...



Araoztarrak ardoa saatotik edaten. Tarteana dira, lehen lerroan, Joxe Txiki eta bere emaztea Juana Guridi.

Illunkaran hara aillau, han astua kargau eta hurrengo goizien, baiña illun eguela urten. Illun eguela aillau, eta illun eguela urten handik!

Biriak ondo jakin! Tokau zittuan orduen be, egunen baten, galtzeia baten bat, baiña ez, biriak peapa jakitten gixuan. Claro, mutiko-mutikotatik pastore ibilli gintzuan... Gure ardixak Araba mendixen xaukain pasua... San Juanak aldera arte hemen Haizgaiñen ibiltten zittuan, baiña hoi Haizgaiñoi sikatu egitten zuan, enda gero San Juanetatik aurrera, itxabolía han geukan Añabarran, eta gero handik Araba partien...

Nere anae zaharra, koñatua... ibili zittuan, hamar astokin be bai, nere koñatua-eta, hamar astokin, e!

Aldiko milla kilo ekarten txuain haik (uruna). Asto baikotzak ehun kilo. Baten batzuk igual gehitxuaa be bai, baiña ehun kilo.

(Benitto, Ojala Haundikua)





Kontrabandoa, Marijoxepak kontatua



*Maxima Zumalde eta Marijoxepa Zumalde. Mielen Txikiñekoak.
Maxima Txantonbalduenara ezkondu zen.*

Gero berriz, estraperlua, gerra-denporan... Nere gizona be asko ibilli zan orduen. Astuakin, orduen. Garixak eta... Nere gizonen anaia eta Erremitteriko Eugenio... Bi Eugenio ibiltten zien (kontrabanduan).

Hiru astoaz... hartu garixa eta.

Halakotxe bizimorua eguen.

Ze esaten euen irabazten euela... Hoge duro, astokaiaaz.

Bixkarrien ekarten euen, e! Ondo etorten zien, han tragotxo bat ero bi egin eta bixkarrien apurtxo bat hartu eta hola ibiltten zien.

Holakotxe bizimorua orduen!

Kontrabanduen etorten zien, baiña Andartotik bueltan etorten zien, ez euen sekula mikeleterik ikusten. Mikeletiak Espeta Sakonen bizi zien, hortxe bizi zien mikeletiak orduen. San Juanen gaiñien, etxia. Espeta Sakon esaten xakon.

Mikeletiak, horrekin akordauten naiz ni.

Aittajuna-eta Larráa. Lárran ardua hartu eta...

Gerra-denporan hasi zien hemen guardazibillak. Urriñaatik etorten zien.

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)





Kontrabandoa, Benittok kontatua

Arabatik ardoa zaraixan ekarri eta zaraittik nora pasatzen zen?

Botilla haundi bat egoten zan, haraxe pasauten zan, zaraittik. Inbittua ifiñi zea puntan, eta puska bat zapaldu zaraixa, eta botillia bete eta atzera zerrau fuerte, zaraixoi.

Botaan be, basora ero nunbaittera doienien... baiña etxien be bai e, botatik zurrutaatxua eta...

Ardua ekarri Arabatik egitten zan.

Hori mendixorren hortikaldia Araba da.

Hortik harutza ez ekixen (zekiten) euskeraz arrastorik, e!

Gero hona etorri handikaldekuak eta “¿dónde están los padres?”, eta “en el baso” guk, basuen diela esateko! Holaxe enterau biher. Erderaz guk bapez jakin ez eta!

Eskolara fan eta euskeraz egitten ebenari ereztuna! Eta jolas holaxe egin biher. Ereztun haunditxua, danai kabiuteko.

Eta gero jolas holaxe egin biher. Bai. Eskolaan euskeraz egin ezkerro, kitto, kastigua.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)



Mikeletiek, Bittoinak kontatua

Txarrixia hiltten zanien, afaittera ekarten zien, bi mikelete ero. Badakitzu, hairi ondo egitteko. Ondo egitteko eureiri, afaittera ekarri.

Eta gu umiak, jolasen haruz da honutz, eta mikelete batek kantau egitten eben, eta hola maixa jotzen eben, eta... sekula ez xat ahaztu (kanta hura). Esango zittun beste zerbaitzuk be, baiña hoixe kantuo, entzundakua, beti goguen dakot.

Mikeletiek danak gose-antzien. Hoixe. Orduen justotxo. T'hola baten bat itxera etorten zanien be, arrautza bi ero zeozertxo emun.

Txarrixia bi aldiz hiltten zan. Batien uraazkenien, eta bestien urabarrixen.

Mikeleteak noiz arte?

Nik bost sei urte neukela. Gerria hasi zanien zortzi neuken... Baiña haik, bizi be hortxe zien, e, Lurgorritatik goora.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)





Otala Txikiñeko dendia. Otala Txikiñeko ahizpek kontatua

Gure oillateixak bere istorixia dako.

Zan etxabola bat, itxe onduen... Eta gure tio bat solterua zan, eta ipiñi eben dendia. Eta juaten zan Arabara, gauza biharrekuenak ekartera, estraperluen.

Onddiok “dendatxua” esaten xako.

Gerra-denporia izango zan. Pedro eta Juanito eta estraperluen faten zien. Gure anaia’tzien (anaiak ziran).

Normalien garixa, ardua, patatia. Kaleko aberaskilluendako garixa be bai. Badakitt Upaiñera-eta garixa ekarten euen, hor Zañartu aldera.

Dana zan estraperluen ekarritakua.

Horreik ibilli zien Zumaldeko amerikenuak eta, Ameriketara jua zienak... Laguna’tzien (lagunak ziran).

Guardazibillak egoten zien “al tanto”. Eta askotan mendixa hartzen euenien Arabatik honutz, gure etxia oso ondo hartzen zan. Eta guardazibillak béozen (bazeuden), ipintten euen izara haundi bat, ikusteko guardazibillak egozela. Eta orduen geratu egitten zien.

Hori izariori izaten zan, gu ganauzain gebitzenien urrin, ordurik ez geben eukitten... Eta halako ordutan behixak itxera erueteko hori seiñale hori ifintten zan, izara hori.

Boliñon gebitzenien, Boliñoko Gaiñen, zeakin, behixakin, hamaiketardittan...

Eta nik itxabola bateri hartuta neuken hamaiketardittan keizpeia noraiño

aillauten zan. Eta esaten neben: “Ba, hamaiketardixak izan biher daue”.

Eta etxien be izaria. Hola giauten giñan!

(Otalá Txikiñeko ahizpak)





Sanbernado Eguneko kontuak

Ointxe itxi xuat.

Oin arte danetan fan nauk ni, zazpi urtekin hasi eta Arabara, San Bernarduetan. Araoz dana faten zuan. Kapaz zan dana. Lekaixoka. Auzokuok juntauteko... lekaixo egindda juntau eta faten gintzuan.

Batzuk faten gintzuan Añabarra aldetik, beste batzuk Usakotxe aldetik. Baiña atzenien danok Narbáxara.

(Benitto, Ojala Haundikua)

Eta Sanbernardora be oiñez faten zan... Sanbernardo Egunien, oiñez!

Eta nik ez dot ikusi baiña honek (gizonak) esaten dau astua hartuta faten ziela lenaa... Enda bueltan lekaixoka hor goittik behera.

Zelako neska-mutil pillia uste dozu?

Hemen bertatik be atzo-agurok, erarekuak be faten zien... Lekaixoka! Bazkaixa hartu eta faten giñan. Han bazkaldu, beste merienda apurren bat egin, eta illuna baiño len atzera buelta egin eta...

(Xeberi, Agerrekua)

“El día 20 de agosto”, Sanbernardo Eguna izaten zan. Arabara, oiñez, e!

Gu juntauten giñan Andráan, hemen behekuok, honeik (Gernetakoak) bestekaldetik erosotxuaa...

Pentzau izu, San Bernardora fan, han mezia entzun... Bazkaixa itxetik erueten zan. Ha jan, eta atzera buelta.

Eta gero, sobrauten zana, itxi egin biher meriendauteko-ero. Eta gero erromerixia Andráan. Lekaixua eta...

Nagusiak joaten ziren?

Bai, bai, astuakin-eta! Honeik, máñarrok, famelixa osuak-eta faten zien, astuakin-eta.

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)



Sanbernardo Eguna, Marijoxepak kontatua

San Bernardo, "20 de agosto", ointxe izaten da.

Asko faten gitzan gu. Bazkai sikua erueten geben. Eta mendittik fan eta mendittik etorri, egitten zan orduen.

Sanbernardo Eguna izaten zan, goizien pozik... Lenengo afraketa zaharrak eta jantzi, eta maletaan barrixaguak. Eta hor mendittik faten zan... Eta bustitta eta



Marijoxepa eta bere ahizpa, senarrekin.

apurtuta aillauten gitzan. Eta Larráko errekan hankak garbittu... Erreka bat eguen Larráa aillau baiño lentxuua.

Bazkai sikuak erueten gittun betik orduen, jan sikuok.

Akordauten naiz ni aittajunaaz lenengo fan nintzanien... Eta hara fan gitzanien, bokadillua, tortillia, garbi-garbixa. Eta hemen etxien zikiñagua, itxuria olixo hondarrakin eginddakuak jaango gittun itxuria...

Eta: "Aittajuná, hau tortilliau, gerie da?". Tortilla garbixa, eta txokau neskatiillai, eta: "Aittajuná, hau tortilliau gerie da?", neuk esan notzan. Eta: "Bai, hoi tortillioi gerie da". Eta: "Guk holakorik ez xuau jaaten etxien!" (bere artean). Olixo hondarrak aprobetxau egingo zittuen danak! Jaaten gebenien gaiñera arrautzak... gutxittan jaaten geben guk arrautzaak hola.

Meza Nausixa be hantxe entzun biher izaten geben, obligaziño moruen. Mojaak egozen orduen San Bernardon.

Orduen korruak egoten zien, dantzaarixak. Dana euskalduna egoten zan eta! Arantzazu mendi dana han egoten zan, araoztarrak asko. Eta beste leku askotatik, Atxabaltatik eta be baitta. Eta korruak egoten zien dantzaarixak. Hemengo jentia egoten zan.

Ilunduta bueltatzen zineten?

Illunduta? Barregarri be bai, batzuetan!

Behin behintzet akordauten naiz... Añabarran egitten zan gero fiestia. Hemengo soiñujolia, Teofiloto esaten otzain hori... Eta gu aittajunaaz fan ezker handik ez gitzan etorten. Hamendik goittik etorten zan atzera. Eta hor ez zan fiestarik egoten. Eta guk behetik etortia gura geuk be!

Handik etorri ezker, ba fiestia, Añabarran. Eta meriendauten egoten zien. Jente asko faaten zan. Baiña aittajunak gu goittik ekarten ginddun neskatiillia eta mutikua. Eta guk behetik etortia gura, eta hango soiñua entzuten etorten gitzan askotan goitti. Baiña artien, aittajunak beak ez eben gura izaten handik eta.

Honaiñokotxe illarrakin, birien galduta, bustitta... Behin goguangerriko Sanbernardo biajia egin geben orduen. Ez ekixen (zekiten) danak honuzko bireik... Eta ez ekixenak nautsi mobiu ezker...

Holakotxe San Bernardo biajia. Oiñez fan eta oiñez etorri.

Baiña illunkaran denporaz urteten ibilliaatik be, artien illundu, birien, itte'skun. Soiñujolia be beti egoten zan han-eta, urteteko perezaz!

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)





Sanbernardo Eguna, Marijoxepak kontatua



Paulo Errasti eta Maria Zumalde. Neskatila Mariaren ahizpa, Amparo Zumalde, Mañako Azkoittin-Haundi-kuak. Paulo Maña Zubittan egurtu zutenetako bat da, Koruetako Sardaneta baserrikoa zen.

Lenaa hemetik, Sanbernardo Egunien Arabara...

Eta hoi zan zeoi hemengo bakaziño salidioi. beste iñora iñor ez zan faaten. Baiña Sanbernardora, hara bai, hara danak faten zien Sanbernardo Egunien. hil honen hogeixen izango da (abuztua).

Neu be akordauten naiz zela fan giñen urte baten, enda han illundu arte egon, eta gero birien ez linterna, ezebez...

Enda danok, bireik be iñok be jakin ez. Gu etorri giñen etortekuak! Baiña hola, galduta konpleto, e! Illunetan... Baiña gaztiak izanda, aillau giñen.

Baiña hemen Sanbernardora, arantzazuarrak be bai, eta hemenguak eta Úrsula, eta hemen danak e, faten zien. Eta hor Atxabalta aldekuak be bai.

Orduen beste iñora ez zan faaten. Sanbernardora fan ezkerro, bueno... Eta Sanbernardora faateko, aurki da arbixak ereitteko denporia, erein egin biher hara faateko, arbixak ereitten ez bazien, ezin fan.

Holaxe izaten zien kontuok.

Egun handia izaten zen?

Hoixe bai! Bueno...

(Maximo, Maña-tti Behekua)





Sanbernardo Eguna, Txomenak kontatua

Sanbernardo Egunien Arabara, oiñez fan eta oiñez etorri, e! Abuztuen hogeixa.

Bazkaixa hartzen geben... hamarretakuak hartu, eta hemendik Arabara astuakin. Honeik (alabak) astuan hartuta txikitxuak ziela, asto-zestuen sartu eta erueten gittun.

Eta eguna han pasauten geben. Eta ba illunkaran itxera etorten giñen. Illunketan oskun birien eta...

Dantza egitteko egoten zien soiñujolliak. Konparaziño baterako, hemen soiñujolle bat eta besta bat hor; eta hola... Zelai haundi baten eta danak hantxe dantzan, nun joten euen piezarik polittena, ba hara, ero hau bestera... Eta hola jente dana.

(Enkarna, Txomena)

Emakumiak ondo, gizakumiak pagau egin biher (erromerian). Hamen be bai (Araotzen), soiñujollia pagauteko (zen dirua).

(Agustin, Txomena)

Pesetia ero pagauten euen gizonok... Baiña jente asko faten zan, e!

(Enkarna, Txomena)



Sanbernardo Eguna, Goittikuak kontatua



Amparo, Mañako Azkoi-ttin-Haundikua eta bere gizona Hilario Igartua, Sanbernardo Egunean. Hilario Maña Garaikoa zen.

Sanbernardotan joaten zineten Arabara?

Ené, Sanbernardotan! Hori izaten zan... Aitta-amakin, txikixak gintzala...

(Joxemai, Goittikua)

Bidetan lekaixua botatzen zen?

Bai, goixen. Amak ero... Tontorrera aillautakuen, kriston lekaixuak, eta pozik!

Araba ikusten zanien, ya han goittik behera, bueno, jera-jeraka! Askotan astuakin, claro, bazkaixa-eta erueten zan, eta asto eta guzti. Gu faten giñan Úxakotxenetik gora. Ero batzutan Koóstolatik gora be bai; Arantzazukuak Sanjuándik faten zien, ero Artásotik...

Nere biziko mozkorrik haundixena hantxe harrapo nixuan, aittakin fan paatxia ekartera, Arabara, San Bernarduetan, eta honeik aldeko Felix eta honeik mutil haundixak, eta ni mutiko-zartxua, eta itxuria euren artien pentzau xuain: "Honi mozkorra harrapo erain biher xau".

Ardua emun eta nik "ta" eran, "ta" eran... Harrapo dot Jéskriston mozkorra... Paatxa pillan, "blau", seko lo gizona.

Illunkaran iretzarri nintzenien aittakin etxera, formal mutikua!

(Joxemai, Goittikua)

Oiñez, fan be bai eta etorri be bai. Asto baarik jeneralien. Paatxia falta bazan ero holokotxeen bat, astuakin, baiña bestela asto baarik.

(Juanito, Goittikua)

Bidea nolakoa zen?

Biria leku batetik ez, hemen Añábarratik, Usábakotxenetik... Eozein lekutatik faten zuan... Kuadrillaak... Kuadrillaak baiña haundixak, e!

Arantzazutik be bai eta Araozdik be bai; eta Ursulatik. Arantzazu dana, ursuldarrak danak, araoztarrak danak.

San Bernardo dana bete-bete egindda egoten zuan hemengo jentiakin, bete-bete egindda. Jente pillak, hola...

(Joxemai, Goittikua)





Arantzazuko fraideak Araotzen

Baten bat gaixotzen bazen?

Medikua zeatu biher...

Eta gaizki eguenien, elizakuak emutera abaria etorten zan... Gaixoi'tauenien (gaixorik daguenian) abariai abixau, eta bea etorri, eta beak egitten zittun zeak, eta ordun gu kuartora fanda egoten gitzan, Pater Noster bat errezaute eta zeien, ibiltten gitzan.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Jaunakin etorrenien, abaria, elizakuak emutera, birien parien suertau ezker, belauniko jarri biher izaten zan.

(Joxeanjel, Gerneta Etxebarrikua)

Fraideak eskean?

Txarrankia baiño gauza gozuagorik ez xak ezebe eta, txarrankaak batzen etorten zuzan (zituan). Eta emun, gurien amak-eta emun!

Eman ezean?

Infernura. Satanasek hartu sardiaaz eta "tú vas al infierno", frailiai ez'tezu emun txarrankaak eta!

Lenaa hemengo Jangoikua frailia'tzien (frailiak ziran), e! Lenaa ez eguen beste Jangoikorik.

(Joxemai, Goittikua)

Frairiak oiñez etorten zien; askotan hemendik Arrikruzdik hemendik buelta faten zien gaiñera, Arantzazuko frairiak.

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)

Arantzazuko fraileetaz, akordatzen zara?

Akordauko ez gara ba!

Araotzen Aste Santuetan hiru fraire-eta etorten zien. Paskuetan komuniua derrigorrekua izaten zan.

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)

Frairiak eta abariak, egitten zittuen sermoiak, orduen jentia dana billurrez... Sermoiak gogorrak egitten zittuen orduen. Aste Santuan Arantzazutik etorten zien bi fraire ero, eta bueno, haik egitten zittuen sermoiak!

(Maximo, Maña-tti Behekua)

Garai baten etorten zien (Arantzazuko fraideak) txarranka billa eta. Frairiak eta mojak eta eskien ibiltten zien. Txarrankak eta txarri-muturrak eta...

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)

Gure amandriai gaztaia (eskatu zioten), eta haundixegixa emuterik ez xuan gura, baiña billa ebillela jausi xakuan haundi bat lurrera, eta "bum!".

Eta behien fraidia. Eta txikiña hartu xuan eta bajau zanien fraidiak: "Gazta txiki honek, hots handia atera du!".

(Joxeanjel, Gerneta Etxebarrikua)

Moja bat etorri zan eskien, kanpotik. Eta urten eben neskatiillorrek (baserritik ateetara), eta: "Amak esan dau iñor ez daguela etxien!"

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)

Intxaurrakin ibilitta sokaanاک eukitten gitxuan, eta bihetzok zeetuta, eta esate'skuein kaputxinuak ikusten ba'skuein moztu egingo'skuela bihetzak!

(Joxeanjel, Gerneta Etxebarrikua)

Fraideak?

Bai, betik gauza onen danak haik erueten zittuen...

"Ta-ta" atia jo, eta: "Zer?", eta: "Txarri-belarrixak batzen gabitz"... Gosiak haik be. Ero, hurrengo, baba garaixen, "babia batzen gabitz". Eta babia emun biher!...

Behin esan osten nire tiok... "Arantzazuko Ama Birjiñendako txarrankak batzen gabitz", eta: "Arantzazuko Ama Birjiñiak ez xok jaaten! "Asi es ke" hak ez xakok txarranka biharrik".

Nire tiok esan otzan hoi, Errekatzikiñeko nire tiok. "Txanberlain" esaten otzain.

(Txapelen Matilde)

Beste bat behixak erosten ibiltten zuan, Joxé-Frantzisko, bersolarixa zuan. Ha zuan Arantzazuko karnazerua. Orduen Arantzazun hirurehun lagun inguru xazen, estudiante eta guzti. Eta Arantzazura guk behi eta txahal asko saltzen gixuan...

Fraire haundi bat zuan, legua zuan, mezarik ez xuan emuten.

(Benitto, Ojala Haundikua)

Frailiak etorten zien, txarri-hankak eta belarrixak eskaketara etorten zien. Mojak be etorten zien, ez dakitt ze moja zien.

(Ojala Txikiñeko ahizpak)

Frailiak ibiltten zittuan, normalien babia batzen. Kolegixuan han mutiko pillia xaguan, nunbaittetik emun biher xaten, eta babia batzen ibiltten zittuan baserririk baserri.

Gero beste fraile batzuk etorten zittuan aber baten bat arrestauko ete dauen Arantzazura.

Anaia, Paulo, ha xaguan kriauro Erostarben, Urrusulan. Ha fan zuan Arantzazura kolegixora, eta ni fan nintzuan Erostarbera (kriauro).

Harek hiru urte egin txuan, eta gero ni fan nintzuan eta urtebete be ez nixuan egin, zeatik eurak itxi txain baserrixari, eta kalera bajau ttuzan (zittuan), eta...

(Floren, Jausoro Garaikua)



Baserriz baserri, Nievesek kontatua

Mañara, Gernetara... joaten zineten?

Bai, claro, nere aittak dirutan ez eben irabazten sakristautzaia, sino jenerua. Emuten otzain baserri baikotzeko garixa, artua eta arrautzak. Eta horreik batzeera faten giñan.

Ogixa, hori be izaten zan pagauteko beste modu bat.

Baserri baikotzak ekarten eben olatia. Entzunda dako zu “olatia”? Hola hiru puntako zee bat zan, ogitxo bat. Baserri baikotzak ekarten eben. Monagilluak jasoten eben sakura eta abarien itxera erueten zien danak.

Erdixak izaten zien abariandako eta beste erdixak sakristauandako, olata horreik. Domeketan ekarten euen.

Su-egurra ere ekarri egiten zizueten?

Bai, baserri batzuk eukein zea, ez dakitt hori zela eguen egindda, zeatik betik ekarten euen elizondotik goorako zeak, baserrixak.

Mañakuak eta, horreik ez euen ekarten.

Ez dakitt ze tratu egindda euko euen, baiña ekarri itte'skuen. Bai.

(Nieves, Sakristauena)



Frairiek eskien, Bittoinak kontatua

Eskien, ba, txarriin bat hilddakuen, txarrankaak. Eta gaztaa denporan be bai. Guk txarrankaak, ba emuten gisten, erueten zittuen.

Eta beste egun baten gaztaien eske etorritta...

Gaztaak eukittek holoko zapaldataxo bat, zootzakin egindda, e... holoko hiru leku ero eukitten zittun.

Eta nik, hemendikaldetik: “Haundixena ezingo xaat emun”, eta txikitxuagua hartzen nabillela, hortiko zeatik, haundixa jausi lurrera!

Eta bea (fraidea) behien, hortxe atien...

Eta gero entregautera fan nintzan... Amak esan nontan: “Ekarri xon gaztaa bat horri”. Eta gaztaioi hartu nebenien, txikitxuagua hartu eta haundixa lurrera jausi.

Eta gero “hemen gaztaia!” esan notzan eta: “Gazta txiki honek zarata handia ateratzen du, e!” esan nontan zeorrek, fraidiorrek.

Haak be haundixa gura!

Horreik larogetaka mutikuak-eta eukein-eta, hareik danak gobernauteko zerbaitt biher euen, e!

Baba, baba alea, eskatzen zizueten?

Baba-alia, zeak ez, horreik ez, bestela zearako bai, Sanelias zainketan euenendako, kanpaak han joten zittunendako, eta Jaáturabekuendako.

Jaáturabekuak, horreik etorten zien eskien. Horreik bai. Eta sakristaua be bai. Eta abariendako be bai. Zea be bai, babia be bai, eta artua be bai, eta hola etorten zien eske zearako...

Sakristaua bea (etortzen zen), eta abariendako monagilloon bat.

Baikotzak ba, imillauna bete ez, baiña bestekaldien eukitten eben beste txikitxuaa bat, imillaun erdi ero halako bat. Hareikin gobernauten zien.

Saneliasen kanpaak joten zituen a ezagutu zenuen?

Bai. Horreik ezautu nittun. Jaaturabekuak be bai, eta Makiñetxeuak be bai. Makiñetxien beste batzuk egozen eta...

Horreik zaharrok ezautu nittun.

Ze ardura zuten?

Ba, hoixe, Sanelias zainketia. Goizien kanpaak jo, illunkaran avemaitakua jo...

Makiñetxien famelixa osua bizi izan zan, zortzi-beraatzi bat umeaz... Hangua be bai, eta behekuak be bai (joaten ziren Saneliasera). Eurek txandan egitten euen.

Jaaturabekuak, horreik Eibarrera fan zien. Ezautu nittun. Ondo ezautu gittun.

Horreik bixen artien jirauten zien.

Errotia egongo zan behehenguen. Neuk ez neben ezautu han errota zan artien ez neben ezautu.

Soo-eskiñatxoon bat, eta ortutxo bat hemen, eta hutza. Eta Makiñetxekuek be beste holokotxeen bat, eta haik biher euen jaana.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)





Fraideak Araotzen, Nievesek kontatua

Frailliak, eguen kostunbria... konfesiñuak hillero egitten zien, eta bat, fraille bat, etorten zan hillien behin konfesiñuak egittera. Hori fraille hori gure etxien geraketan zan. Zapatuan etorri, eta lo egin, eta hurrengo egunien goizien mezia be emuten eben, eta bazkalostien faten zan.

Hori zan, ba, parrokuakin berba asko egitten zalako, ezaunak zielako, ba persona diferente bat ekartiaarren. Hola hasittako gauzia zala.

Baiña nere denpora danien etorri zan ha fraillia, hillero-hillero.

Araoztarrak konfesatu egiten ziren?

Bueno... Bai hoixe! Pilla bat gaiñera. Bueno... Anedota bat, gura badozu, esango dotzut.

Gure etxien aittak ez eben eraaten ardorik, astien puru. Fraillia etorten zanien, hillien behin, Mantxuenetik ekarten geben litro bat ardo, eta frailliakin ardauoi eraten zan gure etxien, fraillia etorten zanien.

Baiña arduen billa fan egin biher zan. Eta claro, nire denporan, neskailla denporan, ni. Aurretik ahizpia-eta fango zien, baiña orduen ni.

Eta akordauten naiz, zortzi urte neuken, eta: “Umé, Mantxuenera fan biher zara ardaua ekartera, e!”. Eta “bai”, eta jolasen.

Ni jolasen, eta hirugarren aldiz esan nontan: “Bueno, umé, fraillia be etorri da, eta fan egin biher zara zea ekartera, ardaua ekartera”. Eta nere kontestaziñua: “Fraille-zarrok!”. Orduen hori esatia zan, bueno...

Oso salaua zan fraillia, egun haretan etorri zana. Padre Gastezi. Ez dakozu entzuna? Oso salaua zan izan. Eta nere aittak Jose euken izena.

Eta: “Jose, ez dakizu gaur zer gertatu zaidan!”. “Zer? Mutillen batek jo ero egin dau?”. “Keba, ez, ez dijoa hortik. Mutillak ondo portatzen dira”. “Zer, baten batek zeozer esan xaa ero?”.

Aitta larrittuta.

Eta “eez...”, luziak emonaz, ez dakitzu?

Eta neu be interesauta: “Ze pasau ete xakok honi?”. Eta halako baten hor esaten dau: ““Fraille-zarrak” esan didate”.

“Ai ama...”.

Orduen ezin zekien kontestau eta halakorik egin. Eta ni enterau nintzanien entzun egin nostana... Bueno, handik aurrera ule-hartzeiak izan zien...

Ba holaxe ibiltten giñan.

Gure mundua holaxe zan. Ezin genkien ezebe esan.

“Beori” esaten zenieten?

Bai. Abariai be bai. Eta horreik fraille danoiri.

(Nieves, Sakristauena)



— — — — —

Sanbernardo Eguna, Marijoxepak kontatua

Bi anae zien, Eugenio eta Paulo. Eta amandria bizi zan han Azpikuan. Eta aitten-eta anae bat zan frailia, eta lo egittera hara faten zien frailiak. Gandiaga be bai.

(Mielen Txikiñeko ahizpak)



Araoztarrak komunio egunean. Ezkerreko fraidea Gandiaga da. Eskumakoa, Don Benigno abadea.

Gandiaga asko ibiltten zan (hemendik). Hona asko etorten zan, pregunta batzuk egittera etorten zan.

Oso onraua gizona, e!

Neri tokau xaten harekin eskurziño bat egittia, Santander aldera. Orduen egun baten fan eta bestien etorri egin geben. Baiña gizona zea zan, e, onraua.

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)





Gandiaga, Txomenak kontatua

Gandiaga?

Aurreko egunien etorten zan eta hemen afaldu eta lo egin eta...

*Hak hemen nik ez dakitt ba urte pareen bat ero hirun bat ero ze egin zittun be.
Gehixaa igual e...*

(Enkarna, Txomena)

Gandiaga asko ezautu geben guk, etorten zan ha hona be.

(Xeberi, Agerrekua)

Nolakoa zen?

Ze esango dotzut... Salida raro batzuk euken harek.

Asko ezautu geben, hemen denporalien egon zan (Araotzen) parroko moura.

*Gurien aittajuna eta amandria Araotz-Urtin bizi zien, eta haikana be asko
etorten zan, eta guk asko ezautu geben.*

(Xeberi, Agerrekua)

(Aizkorbe) Azpikuen egitten eben lo.

(Xeberi, Agerrekua)

Kantuan etorten zala... zapatu illunkaratan mezia emun biher izaten eben, eta oiñez e, Arantzazutik, eta behetik gora kantu baten etorten zan.

Eta holako salida batzuk baeuken, baiña beste partikularrik ezebez.

(Xeberi, Agerrekua)

Baiña gogor-samarra be bai, e!

(Rikardo, Agerrekua)





Gandiaga, Maximok kontatua

Mezia emutera betibe etorten zan (Gandiaga, Araotzera).

(Maximo, Maña-tti Behekua)

Araba mendian bada harri handi bat...

Hoi harrixoi eguen lurpeien tapauta. Eta hor Gandiaga frairia ibiltten zan, hor mendittan-eta...

Eta hak ikusi eben eta hak bistaatu eben harrixoi.

*Eta gero zutittu biher euela, baiña han da (dago) onddiok, harrixoi lurrien da...
Hori Gabóño, Artia Gaboño zeien, handik hurrengo hemetikalderako mendixan da.*

Baiña harrixa haundixa, e!

(Maximo, Maña-tti Behekua)





Erljioa Araotzen

Eta holaxe ba, orduen holaxe. Eta oin dana libre! Ze egingo da ba? Mundua holaxe da eta!

(Maximo, Maña-tti Behekua)

Errosarixua errezauteen geben guk arta-zuriketan.

Arta-zuriketako kontuak aspaldikua'tia (aspaldikuak dira), enee...



Jaione Guridi, Txomena, komunio egunean.

Afaldu eta gero arta-zuriketara, errosarixua errezau eta... Aittajunai ez xakon gustauten errosarixorik.

Ez zan hola amandria mouko katolikua. Gizon bat oso ona e, ona baiño hobia, amandria baiño hobia, baiña amandria beti elizan eta aittajunai ez xakon gustauten elizia.

Eta txapelik ez eben kentzen, eta errezau be ez. Eta amandriorrek "tta" kendu xaa txapeleri...

Errosarixuak akabera bakuak...

(Enkarna, Txomena)



*Jaione Guridi,
Txomena,
komunio
egunean,
arbi artean.
Arbi-garak
direla esan
digute.*





Misiñuak Araotzen, Amparok kontatua

Misioak Araotzen?

Nere akuerduan baten Araotzen bai, euakotzien hasi eta hurrengo astelehenera arte, sermoiak entzun goizien, gero eguardixan, atzaldien...

Segiru elizan. Maiñatxo bat gauza entzun gittun...

Oin holako gauzarik ez da entzuten eta ez dakitt ba nik, Jangoikorik be daguen ala ez daguen, ez daguela be esaten daue-eta...

Baiña lenaa sermoiak...

Frairia etorten zan zeien, Erramu Zapatuan etorri eta egoten zan hiru egunien. Kontzeziñuetan be etorten zan frairia. Kandelaetan be bai, uste dot, zapatuan atzaldian etorri eta domekan sermoiak egittera... (Sermoietan) esan gogorrek egitten zittuen, hola pulpittuai ezkiñia jota.

Ba, ez dakitt zenbat urte dien hemen, Araotzen, misiñuak egon ziena. Bastante urte. Padre Garmendia egon zan orduen hemen; baiña sermolari gogorra, e!

Baiña orduko konturik ez da (dago) oin.

Orduen domeketan mezetara derrigor fan biher izaten zan; oin berriz bapez! Gaztiak be ez diela faten, esaten daue. Oin bautizau be gutxi egitten diela. Ezkondu, oin, aiuntamentuan egitten diela gehixenak...

Lenaatik oso diferentiak (gauzak).

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)





Don-Léandro Haundixa eta Txikiña, Bittoinak kontatua

Don-Léandro Haundixa, kazan eta egitten ebena eta, ha etorten zan. Eta gure beheko sooko zeien, keizetara eta kazara be faaten zan.

Hor zozua ero txoriin batzuk harrapota faaten zan.

Don-Léandro zan abaria, hemengo parrokixaan. Araotzen bizi izaten zien orduen, damaakasiaz (ama de casa) egoten zien. Horreik gero Antzuelara fan zien.

Neu Antzuelara fan nintzan kriara mouen.

Lenengo Besaiñera fanda, tokau xaten oso itxe txaarra. Gutxi jana be, eta gerra denporia be bai eta...

Eta gero Antzuelakuak biher euela, gure ahizpiai ero eskatu otzain, eta gero Antzuelara. Eta urte eta erdi bat ero holoko bat egin neben. Lenengo erderaz ikestera Beasaiñera, eta gero Antzuelara. Eta hemen egondako Leandro hori, gero Antzuelan eguen.

Don-Léandro Txikiña ha zorrotzagua zan. Besta bat, ha egon zan... beste mehetxo bat. Ha kartzelara be eruen euen gerraan. Konfiteruena.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)





Mezia, Nievesek kontatua

Zortzittardittan goizekua, eta hamaiketan meza-nausixa...

Jente erarekua etorten zan meza-nausittara.

Eta gizonak egitten euen elizpeien txapetan, eta mutil gaztetxuaguak, hareik boletan, ibiltten zien. Eta emakumiak barriketan egitten euen. Haik bazkaixa preparautera agurotxuaa faten zien.

Eta gu neskailla-mutikuok, ba, hantxe, jolasen, pilla bat, ibiltten giñan, plaza eta elizpe eta zona hortan.

(Nieves, Sakristauena)





Araoztarrak “elizpeien arraran”, hala esan digute Mielen Txikiñeko ahizpek, argazki hauek eman dizkigutenek. “Arraran” eta “txapetan” ibiltzea gauza berdina da.





Bijili eta baru, Benittok kontatua

Esate baterako komuniua hartzera barurik fan biher zuan. Orduen komuniorik ezin zekien hartu... Hi zapatu illunkaran konfesauten bahintzan, eta hurrengo egunien Jauna hartzera fan biher bahian, barurik fan biher zuan, bittarte hortan barurik egon biher zuan.



Ezkerretik bigarrena, Benittoren ama, Juana Odriozola.

Ni akordauten nauk, ni amakin Arantzazura novenan, gure ama Arantzazukua zuan, oso relijiosia zuan, eta han Arrikruzgo itturrixan nik ura eratia gura eta: "Mutikuá ez, e, urik ez dok eran biher, barurik fan biher dok komuniua hartzera".

Garizuman, ebaikotz danetan egitten zuan bijili, eta orduen ez zuan jaten okelarik, txarri-gauzarik eta holako gauzarik ez zuan jaten.

(Benitto, Ojala Haundikua)





Baru, Gerneta Etxebarriko ahizpek kontatua

Garizuman egin biher izaten zan baru. Gu etxien, neskatillak izanaatik, goizien ezer jan baarik baru egitten geben, eta igual orbela batzera, ero irak, ero ardixakin, eta gu baru egindda, ezer jan baarik.

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Masustak kusi, eta akordau baarik masustia jan, eta gero ezin komulgau, eta komuniua ezin hartu gero...

Arantzazura goiezela, birien, sasixak masustaak, ez dakitzu? Eta “da!” hartu eta gero, zelako penia gero! Arantzazun komulgauko gailla (gariela), eta ezin komulgau!

Novena denporan, egunero baten bat, batien neskailla bat bestien beste bat, holaxe egunero.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Errezau, Bittoinak kontatua

Illunkaratan, gu gaztiak gitzanien, etxien errezautez zan, itxeko danak juntauten zienien. Eta jaaterakuen be, pater noster esaten xakun (zitzaion), aitta guria, agur maria, santa maria eta gloria, jaaterakuen be holako bat errezau egitten zan.

Lenaako kostunbria.

Eta gero gabien errosarixo osua.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)



Atzean, Otxuen Frantziska eta bere alaba. Aurrean ezkerretik hasita Leona Guridi, Txantonbalduena; Mielen Txikiñeko Marijoxepa eta Ojala Haundiko Juana Odriozola.



Abaria Ursulara, Bittoinak kontatua

Araozko abaria Ursulara faaten zan musian egittera Ursulako abariaana. Eta gero berandu etorri, oso berandu.

Eta gero hemen elizakuak emuteko-ero abaria biher, eta abarioi falta. Eta: "Horri zeozer egin biher txau ba, zeozer egin biher txau horri abariorri".

Eta bat jarri da Maña aldetik, eta bestia Zubi aldetik, tontorrien, jarri dira eta: "Ointxe xatok abarioi".



Eta zea: "Barrabas!" eta: "Zee?", eta: "Noiz eraman behar dek inpernura Don-Tómas?" beste aldetik, eta: "Berehala!"

Eta abarioi, hango atxintxikia eta hango ibilleria. Eta itxera etorri zala.

Istorixaak izango dira, baiña horreik be esaten zien lenaa.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)





Gabonak, astopikuak, Gerneta Etxebarriko ahizpek kontatua



Paula Iriarte eta bere bilobak, Esteban eta Espe Ibabe. Paula Emienien jaioa zen, eta Aramaixotik etorritako Adrian Ibabe baserrira ezkondu zen.



Aurrean dagoen neskatala Mielen Lurdes da, Lurdes Elkorobarrutia da. Bere atzekoa Izaskun Ibabe, Emiemena.

Gabonetan-eta be zeak ifintten gittun, zapataak, platuak ero... Bentanaan. Eta ba han ifintte'skuen erriela ero, bi txakur-haundi eta txikiña ero, holokoon bat. Gero pikuak ero...

Eta zea, tio Felix, operauta egon zan, belauna ero fastiixau xakun eta etxien egon zan, aittajunen anaia.

Eta harek irakuste'skun holoko gauza asko.

Ahizpa zaharrena zan hola danai ainketakua, ezta? Eta guk hari obedeziuten gutzan ba zaharrenen mouen. Eta bigarrenak be... Bigarrenak eta zaharrenak ifiñi zittuen kuartuen zapataak, eta zeairi, bigarrenai ifiñi dirua, bi erriel ero izango zien. Eta zaharrenai astopikuak, asto-kootzak, ifiñi!

Ha ainketan eta zeien ibiltten zalako eta! Guk amai mouen hari jarraiketan gotzan. Baiña ba, bea aintzallia eta bestia ba obedeziuten dana.

Eta gero, goitzxuaa jai, eta beittu, Paulak. Eta astopikuak bigarrenai ifiñi, eta beretako dirua hartu!

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Ni akordauten naiz, siñisketan geben, baiña oso, e!

Kuartuen zea jarri eta kuartora goiezela, bentanaan norbaitten keizpeia ero zea ikusten zonan. Eta hoixe, erregia zalakuan!

Norberen zea bentanako kristalien ikusten dozu, keizpeia. Eta “baxatok erregioi!”.

Gu txikiñak gitzan.

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Tio beti ule-hartzeen eta... Eta honi, hau txikitxuagua, eta beti ondo. Eta niri “sorgintxo!”. Niri beti “sorgintxo!”. Ni ibilliko nintzan honi ainddu-guran ero...

Eta gero, gabonetan, zapataak ekarri honi. Honendako. Eta haunditxo honek, eta gero neutako! Eta gero ni pozik!

Hi zainttu egitten haunan, holaxe.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Emun ostanan behin belarrondokua! Beheko souen eukitten gittun sagarrak...

Sagarrak batzen. Eta egitten geben guk, tiok egitten xonan, kojua zonan, eta astokaia. Zestuak-eta bete, eta gero itxera ekarri. Eta ni tiokin batera.

Eta nik ze egitten neben? Hartu bat, birien, zestotik, zestotik hartu bat, eta ez zan nere gustokua, eta bota, atzera besta bat hartzeko.

Eta tio eguen orduko, bizimorua ikusitta kanpuen. Eta gosia zer dan be ikusitta. Eta hori ez egitteko “zapla!” jo ninddun. Ikesteko.

Belarrondokua emun! Hori ez xat sekula ahaztuko! Tiok hainbeste ondo egitten nostana... Eta hori egin nebenien, “zapla!”, belarrondokua.

Hori ez xat ahaztuko, zeatik beti ondo egitten nostan. Baiña bea bizimorua ikusitta eguen, eta esan eben: “Honei ondo irakutzi biher xat!”.

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)



Araozko sakristaua 1, Nievesek kontatua

Sakristautzaia aittak egitten eben. Eta aitta hil zanien, anaiak egitten eben.

Nere aitta jarri zanien sakristau, egozen seroraak.

“Seroraak” esaten xaten, emakumiak zien, eta horreik serora horreik itxuria zien, abare bat etorri zanien, bere arrebak. Eta hareik atendiuten euen elizia.



Sakristaua.

Nire aitta sakristau jarri zanien bi abare egozen. Eta bata organistia zan eta bestia parrokoa zan. Beste gauza batzuk be egingo zittun, baiña behintzet organistia, prinsipala. Eta itxuria, oso zahartu egin zan. Claro, izango zan gaztia, baiña zahartu egin zan...

Eta nere aittak, musikia, berezkua...

Musikia gustauten i xakon asko. Eta hamabost urtekin, aittajunak, nere aittajunak, erosi otzan soiñua. Eta Araotzen plazan dantza egitten zan. Eta nere aittak hamabost urtekin... baiña buruz ikessitakua, e, ez euen zerik, solfeorik ez euen...

Baiña, claro, abarioi zahartuaz, eta parrokuak, itxuria, bota otzan begia: "Hauxe organista jarriko balitza!"

Han armoniua da (dago), Araotzen, han organorik ez da (dago),

Eta, ba, abare zaharriorri supliuteko, hemeretzi urtekin aittajunai esan i otzan: "Joño, hoixe mutilloi, yake dakon afeziñua... Eta musikarako hainbeste balixo dau... Ze pentzauten xatzu. Sakristautzaia egingo leuke? Zeatik abaria oso zahartu da eta ya korura ezin dau igo eta...". Eta: "Bueno, neri ez dost inporta, beorrek gura baldin badau".

Eta halaxe esan otzala nere aittiorri, parrokuak: "Hau eta hau egingo zeuke? Solfeua geuk pagauko dou. Kalera fango zara, solfeua ikessiko dozu, eta..."

Eta aittak onartu egin eben. Eta halaxe abare horrekin bizitten jarri zan, abare zahartxo horrekin, sakristauenien.

Serora horreik, ez dakitt nunguak zien, baiña fan egin zien. Eta halaxe jarraitu eben aittak, urte pillia. Hemeretzi urtetik, 71kin hil zan. Hori denpora danoi, sakristautzaia. Kanpaak jo, elizia garbittu, bankuak eta arrelau... Parrokuakin batera, horreik gauza pillok egitten. Kantuan be beak egitten eben, armoniua jo eta kantuan be beak egitten eben...

Eta gero anaiak hartu eben, aitta hil zanien.

Hau aitta da, besartekaia, artuak, artamaskalak, harekin etorren eta abariak etara otzan fotografia hori.

Guk baserririx, ez geuken. Soo batzuk, eta ortua eta... Animalixarik be ez geben eukitten. Txarrixak, hori bai, txarrixak bi, oilluak... Baiña baserri hola fuerterik ez. Eta asko, gure aitta, ibiltten zan, ba, karriuen, bizkarrien, ero zesta baten...

Holaxe etaratako fotografia da hori. Araozko plazan.

(Nieves, Sakristaueña)





Domeketan mezetara eta gero dantzan, Gerneta Etxebarriko ahizpek kontatua

*Gintzan sei ahizpa eta bi mutil. Eta souen eta lana egitten geben, ba danetik, e!
Zaharraguak be gaiñera oso langillaa 'tzien (langillaak ziran) eta...*

*Jaixa (domekia) aillauten zan bai, eta bi meza egoten zien. Gu faaten gintzan
lenengo mezara, neskaak, eta bigarrenera andrak. Andrak ume-txikiñakin, e!*

Baiña gero itxera etorri...

*Danen artien kántu báten etxia garbiketan geben. Kantu baten, e! Eta barre be,
gaur baiño gehixaa egitten zan. Barre be egitten zan gaur baiño gehixaa, e!*

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

*Eta artien dantza, sukaldien dantza gero, librien. Eta ama irakusten, gere tartien.
Artien dantza librien egitten geben zeien.*

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

*Gintzan neskaak. En cambio, nere gizonen aldetik zaharrena 'tzien (zaharrenak
ziran) gizonak, horreik danok fan biher izan euen gerrara.*

Eta badaaz zazpi urte eginddakuak gerra eta gerra-ostien.

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)



Araozko sakristaua 2, Nievesek kontatua

Joxe Agirre. Araotzen jaixo zan. Agerren.

Baiña itxuria Agerren eukein terreno gutxi. Eta gero kanbixau zien Txapelenera. Gazte denpora dana Txapelenien, aittak, pasau eben. Baiña jaixo Agerren, e! Txikiña zala, esaten euen, fan zala.

Eta urte gehixenak Txapelenien egin zittun (gaztetan).

Han soo gehixaa itxuria hartu euen, eta horreatik, itxuria, zan kanbixuoi. Gero nere tia ezkondu zan baserrira, eta claro, gizonen apeliduak jarraitu dau (Uriarte).

Agerren daz Ibabe-Elorza, bestia Beitia. Eta beste baserri bat zan guria. Agerre Erdi. Erdixen eguen itxuria gure aitten-eta baserri hori.

Gure aittak ikesi eben alpargatak egitten. Auzoko alpargatak beak egitten zittun. Ikesi eben barbero. Auzoko gehixenai beak ebate'sten. Len... "labaiña" esaten xakon. Labaiña hola bastante luzia... Harekin ebaten eben...

Gero sakristautzaia. Eta gero baserri ttikiñoi be beak erueten eben...

Joxe, nere aitta, ezkondu zan, esate'tzut, soiñujolia zala, eta Urrusulara fiestetan soiñujolia erueten euen.

Eta Urrusulan nere ama pandero jotzallia. Bai. Eta hor enparejau zien. Hor egin zien lagun. Bata pandero jotzallia eta bestia soiñujolia, eta hola zea, arreglautako pareja da hori.

Ama Urrusulako Barrenetxe baserrikoa zuten.

Agerreko aittajuna eta amandria ezagutu zenituen?

Ez, ez nittun ezautu bata be.

Aittajauna Agirre, eta amandria Madinagoitia zien.

(Nieves, Sakristauena)





Sakristauaren andrea nola hil zen, Nievesek kontatua

Medikua, pentza izu...

Mantxuenera fan biher ziñan. Telefonua hantxe eguen bakarrik. Zeozer pasauten bazan, hara fan biher ziñan. Medikuen numeruak baegozen.

Araotzera normalien Don-Básiliok atendiuten eben. Don-Jósemariak gero. Urten biher zebe Urtiañera. Diarixuen (autobus diario) han igoten eben medikuorrek.

Hara urten biher xatzun astuakin ero zaldixakin ero... Urtiainddik baserrira, hala faten zan medikuoi. Osea ke, pentzau zeike, oso gaizki ezin egon.

Nere ama be horreatik hil zan.

Tronbua emun otzan bernan. Diar egin eta ohien egoteko, geldik eukitteko bernia. “Todo lo contrario de lo que había que hacer”. Baiña lenaa holaxe zien gauzak. Eta kangrenau egin xakon, eta hoi bihotzera aillau xakon, eta 48 años, eta hil.

Donostiara eruen euen, eta ebai egin otzain bernia eta gauzia uste dot konplikau zala, denbora askuen e!

Eta ni lau urteko neskaillia, ba eruen nindduen, Urrusulara, tian itxera, Osiñanera. Urtebete pasau neben nik han. Amioi hil eta ba horreik danokin, ni ez nintzan enterau. Baiña holaxe pasau zan.

Eta gero ba, aitta eta neskailla-mutikuak geontzen gu. Nik lau urte, eta anaiak zortzi urte, eta bata aittajunen itxera, eta ni tian itxera eta ahizpa zaharrena mojetan eguen Durangon, kriara, eta hemezortzi urtekin itxera etorri biher.

*Eta aittakin ahizparik zaharrena egon zan. Nik urtebete pasau neben Urrusulan,
eta atzera itxera eruen nindduen.*

(Nieves, Sakristauena)





Bodak, Floren eta Joxeanjelek kontatua

Ni neu ez nauk akordauten etxien egindako bodarik... Garai baten izaten i zittuan hiru eguneko bodak-eta izaten i txuzan (zitian) etxien.

Akordauten naizen bodarik, puxkatxo bat zelebretxuena honen aitta-amena (Joxeanjel Urkiaren gurasoena)...

Gu eskolan bai, eta Araotzen ezkondu zittuan bai, eta gero bazkaitteko, ez xakixat nun egin euen bazkaixa... Kriston edurra! Ondo akordauten nauk ni. Elizatik urten eta nik ez xakixat azkenien nola fango zien.

(Floren, Jausoro Garaikua)

Aitta aurreko egunien etorritta xaguan Uesteittik, edurra egin biher ebela-eta, bestela ez eguela bajauteko zerik, eta aurreko egunien bajauta xaguan Gernetara, gure aitta.

(Joxeanjel, Gerneta Etxebarrikua)

Bai, baiña gero han ezkondu eta Aráozdik bazkaldu euen lekura, Etxeberrianera... Eske edur asko xaguan! Zela bajau zien, hoixe ez xakixat!

(Floren, Jausoro Garaikua)

Mantxuenien ez xuain egin? Baiña ez xakixat seguru esateko, e!

(Joxeanjel, Gerneta Etxebarrikua)



Txiikilletan garizuman, Gerneta Etxebarriko ahizpek kontatua

Lena, jolas egitten geben, garizuman, txiikilletan.

Garizuman ezin zekien dantzarik egin, eta helduta gutxiaa, agarrauta gutxiaa. Eta egitten geben, txiikillan egitten geben.

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Otákozabalera be etorten zien, gure Páula-eta Otákozabalera be etorten zien. Gu Gernetatik bost urteaz ikustera, hara, eta eurek Otákozabalien egitten (txiikilletan)...

Txiikilla Lekuoi be, hara be faaten zien txiikillan egittera. Han be leku haundixa eta hantxe be egitten euen txiikillan. Neska-mutillak pozik, danak batera mendira! Gustora!

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)





Arto-zuriketan, Juanitok kontatua

Artua batu souen... baiña burdikaak! Hau pasariau (pasara, pasillo) dana beteta artuakin, hola illarak behetik gora goixa joteraíño.

Danok illaran jarri eta buruak zuriketan eta errezauteen errosarixua. Hamabost misterixoko errosarixua errezauteen zan.

Ze ekiñaldixa egitten geben guk arto-zuriketan!

Dana beteta, e, zortzi-hamar lagun! Zortzi-hamar lagun illaran sillan jarritta buruak zea egitten, maskalak kendu eta banastia betetakuen kamarara.

Arto-pillak hartzen zien lenaa...

(Juanito, Goittikua)



Gurutzeak bedeinkaketan, Nievesek kontatua

Degurixara faten zien... Fotografia abariak etarata da (dago). Urtien behin faten zien, mendixen, Araozko mendittan kurtziak egozen lekutara, bedeinkaketara.

Faten zien astuakin, eta jana preparauten euen pastoriak.

Mendi puntan egozen kurtze danak... Egun baten egitten euen hoi pasarioi. Eta bazkaixoi zeokin, pastoriokin, eta...

Hola zan kostunbria.

Souak bedeinkaketan zien, baiña “más bien” bedeinkaketan zien... Erramu egunien kurtzetxo batzuk egitten zien, eta hareik sartzen zien souen.

(Nieves, Sakristauena)



Hau nere aitta (eskumakua). Hau maistrua (esku-matik bigarrena). Maistrua be egoten zan Araotzen. Angel Osinaga. Honek urte asko egin zittun Araotzen. Arabarra zan, Arbúlukua. Eta andria Matú-ranakua (Nieves, Sakristauena).



Gurutzeak bedeinkaketan, Fermin eta Bittoina

Lenaa mendi danetara egitten zuan bueltia, gurutziak dazen lekuetara. Dana bedeinkaketan egitten zan aleiña; Esáte Gaiñien be baxaguan, Mañako Gaiñien be bai, Aúmategin be bai, Mañako Gaiñien be bai, San Juan Artixan be bai...

Gehixenak harrixakin egindda, harenarrixakin egindda xazek.

(Femin, Borjena)

Baitta Eskortako gurutzer a be. Handik soo dana bedeinkaketan zan.

Souen, garixak-eta egozenien, haik bedeinkaketara be etorten zan abaria. Hortxe, gure zelaixen goixen eguen... Harrizko tontor bat daa, oin ixa piñuak tapauen. Gaiñien kurtzia be ifiñitta euken hantxe, eta handik bedeinkaketan zittun hemengo soo danak. Espillondo esaten gotzan.

Kurtze eta guzti daa ointxe be, e!

Nola dauka izena, tontorrak?

Espillondo. Aspaldixen ez xuau esan!

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)



Gurutzeak bedeinkaketan, Rosariok kontatua

Gurutze bat sartzen zan souen... San Juan egunien atien ipintten danien, orduen ipintten zan bat souen (gurutzea).

Zer egur izaten zen?

Sahatza. Azala kendu, eta ebai bat egin, eta han sartzen xakon sahas-pedazo bat.

Ze abesten zen?

San Juan San Juan berde, sugak eta zapuak erre...

Nolakoa zen San Juan gaua?

Ba, ezebez, hoixe, sua egin eta hantxe diar batzuk etara eta guk ez geben beste ezer diferenterik egitten.

Eta goizetan ba hoixe ipintten euen, esan doten mouen, gurutziak.

Salto egiten zenuten suaren gainetik?

Hori bai, baiña oso haundixa egon ezkerro (sua) ez, e?

(Rosario, Beittikua)



Ateetako kurtziak, Benittok kontatua

Atetako kurtziak neuk egitten txuat onddiok be sahatzakin.

Hori izaten zuan Erramu Zapatuan egitten zittuan gurutziak. Eta gurutze horreik Erramu Zapatuan egitten zittuan bedeinkatu elizan, enda gero sartzen zittuan souen, eta holako bat ifintten zuan atien.

Oin taladruarekin egitten xuau, baiña orduen aixkoriakin “ttak!” jo eta zotzak hartu eta sartu.

(Benitto, Ojala Haundikua)





Suaren bedeinkaziñua

Benittok azaldu digu zer den “sultzúa”:

Sultzua zea dok, arboliak eukitten dauen zea... Hori nere aittajuna zanak ebalten xuan.

Lenengo ez xakixat, garbittu ero egitten xuan etxien, eta gero kamaran ondo sikatu eta gero kontravientosari emuten xakuan, sua emun, eta zigarrua ixuketako, sultzua ebalten zuan! Hori entzun barik hakuan?

Perretxikua mouen urteten txak arboliari, gaztaiñiai eta keiziai bastante urteten txai, sagarra ez hainbeste!

(Benitto, Ojala Haundikua)

Aizkorbeke Mielen Txikiñean ere ezagutu dute:

Sultzua, Aste Santuan ekarten zana... Gaztaiña ipurdittatik hartu eta hari sua emuten xakonan, lenengo sua Aste Santukua; Araotzen sakristauak bere itxetik ekarten eben ixututa, elizara. Orduen ura eta, sua eta, bedeinkatu egitten zittunan.

Nik ahaztuta neukan hori, sultzua, enee!

(Mielen Txikiñeko ahizpak)

Sultzua, sua egitteko; hori izaten da, arbolan egitten da holako... Ha kendu, sikatu, eta gero emun sua metxeruakin-ero, eta hartzen dau, eta aguantau egitten dau, gero sua ixuketako-ero; esaten xako “sultzua”.

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)

Pasku Egunien egitten zan suoi, eta bedeinkaketan zan eta sakristauak egitten eben partiu hori su bedeinkatu izeneko...

Egitten zan sua, egurrakin eta zeakin, eta gero bedeinkaketan zan eta...

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)

Erueten xuan sua sultzuakin, asko irauten xuan sultzuak...

Bedeinkaketan zuan plazan eta baserri danetara erueten zuan... Izten zuan zatitxo bat, eta sua bedeinkatuta geldiketan zuan, eta hori urtero egitten zuan.

(Joxeanjel, Gerneta Etxebarrikua)

Sua bedeinkatzen zen?

Bai, Eguen Santu eguna pasautakuen bedeinkaziñua zeaketara monagillua etorten zan...

Sultzua izaten da holoko, zeak eukitten daue, arbolaak eukitten daue, perretxiko antzeko bat, eta ha oso su hartzallia zan eta kandelaan ha pittin bat hartu eta sutondo danak korriuten zittun monagilluak,

Baserririk baserri ibiltten zan, danak bedeinkatu arte.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)





Sua bedeinkaketan, Nievesek kontatua

Sultzua badakitzu zer dan? Sultzua da arbolairi urteten xaue ba hola perretxiko moruen.. hori da sultzua.

Su-barrixa, eta urr-bedeinkatu barrixa egitten zien zeien, Aste Santuetan, urtero.

Eta sakristauak euken ardura bat zabalketako su-barri hori baserri danetara.

Eta sultzuak... holaxe pusketatxo bat, tiratxo bat egitten geben, aittak normalien egitten eben... Eta bedeinkaketan zan sutik, gure etxeko sutonduai su hori bota, bedeinkatu barrixa, eta handik kandeliai ixutu biher xakon eta kandela hortatik sultzua baserri baikotzeko ixutu eta botaten zan sutara.

Baldin bazoiezen Gérgnetara, zeien erueten geben, farolien, suoi, kandelioi... eta itxungitten baxaten birien, atzera sakristaueneraiño etorri biher nintzan, beheko sua bedeinkatuta nola eguen, handik hartzeko!

Ezin zan birien poxpoluakin-ero ixutu, no, no! Itxera.

Eta Gernetatik bajauta na, e! Ixa Gernetara aillau, eta itxungi.

Abariak urr-bedenikatua bota, eta oraziño batzuk egitten zittun, eta ura bedeinkaketan eben, urr-barrixa, eta urr-bedeinkatu ontzixa, elizan, sartzen dan lekuetan... Ezautuko zebe... Han be botaten zan, zaharra kendu eta barrixa.

Eta suai be gauza berdiña egitten xakon. Hori suoi izan biher zan bedeinkatutako sua.

Katxarrotxo baten (lehenengo bedeinkazioa). Aittak kamaran eukitten eben. Burdiña, pixu haundiko katxarrua zan. Zee batzuk, rejilla mouko gauza batzuk euken, suak urten ez daixen kanpora. Eta hantxe, abartxuak lenengo, eta iketza, eta...

Elizan egitten zan hori bedeinkaziñuori eta elizan egoten zan suori, meza denpora danien. Eta gero gure itxera erueten zan, eta beheko suen bota, eta ha ya sua bedeinkatuta eguen. Baiña handik partiu biher zan baserri danetara.

Lurgorritta eta horietara ere eramaten zenuten?

Ez. Lurgorrittak beak erueten eben Elortotik, baserri hurrenetik, beak erueten eben. Zapatuen ero domekan ero hurrengo etorten zienien. Eta Haizgaiñekuak be bai. Araotz Urti Goittikotik. Horreik itxe bixok. Eta Jaturabera (Makiñetxera) be ez geben erueten. Honek, len esan dounak, Alejandrok be beak erueten eben. Harek beak ekarten eben farola, eta ixutu gure sutonduen, eta beak erueten eben. Eta Jaturabera be seguru beak eruengo ebena, seguru.

(Nieves, Sakristauena)





Kanpaak

Araotzen kanpaia joten zan, goizien egunsentikua. Gero eguerdixen, hamabittardittan ero ordubatetan. Eta gero illunkaran amaittakua. Eta gero zapatu eguardixen, errepikia izaten zan, hurrengo egunien jaixa zala (adierazteko)...

(Otal Txikiñeko ahizpak)

Zapatuan hiruretan joten euen kanpaak. Kanpaa luziak joten zittuen, ttin ttin ttin...

(Rikardo, Agerrekua)

Len sankristaua egoten zan, abariakin, eta sankristauak gabien amaittakua jotzen eben.

(Xeberi, Agerrekua)

San Eliasen be hantxe egoten zan gizon bat, eguardikua be jotzen, gabekua be jotzen, gixaaajua!

(Rikardo, Agerrekua)

Baten bat hiltten zanien, kanpaak joteko abixautera baten bat, eta kanpaak jo eta: “Ez dakitt zein hil i da”, eta hola entendiuten zan.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Kanpaiena... gizona hiltten bazan, ez dakitt, zien hamar-ero; emakumia hiltten bazan bi gehixaa ero izaten zien; hori lenaakuak badakixe.

(Rikardo, Agerrekua)



Kanpaak, Nievesek kontatua

Auzua juntauteko, alkatiak gure aittai esaten otzan: “Entzun, gero arratzaldien auzua egin biher da, eta jo kanpaia”. Harendako jotzen zan klase bat. Ta lara la larala... Eta mezetarako beste kalse bat jotzen zan. Goizien argiketan zanian, eguardixan eta illunkaran. Orduen be diferenteko zea jotzen zan, kanpaia.

Baten bat hiltzen zenean?

Jotzen zan, ez dakitt, bat gehixaa gizonari eta emakumiari bat gutxiaa. Lau aldiz gizonari eta emakumiari hiru... Diferente jotzen zan. Ezaun zan, “baten bat hil da!”.

Amaittakua zan illunkaran jotzen zanoi. Horreik zien oraziñuak egitteko. Goizien, eguerdixan angelusa, eta gero amaittakua. Amaittakua gabeko erretiro moruen. Baiña horreik oraziñuak egitteko jotzen zien. Bai. Goizien seittardixak inguruen. Ordu baarik, baiña egunsenti, hoixe... Seittardixak inguruen ibiltten zan gure aitta. Bai. Akordauten naiz, bezina batek esaten otzan: “Jo, sakristauá, ordu horreittan kanpaak jotzen, zea, zaratiakin iratzarri egitten dozu”. Eta gure aittak: “Penia emungo dotzu, ezta, sakristau gizaajua han kanpantorre puntan...”. Bata gauza bateatik esaten, eta bestia ulia hartzen.

Claro, lenaa-lenaa kanpantorre puntara fan biher izaten zan. Gero sokiakin, eta gauzak hobetuaz fan dira, baiña lenaa-lenaa...

Gure aittak lenengotan goraiño igoten ebela (esaten zuen). Bai.

Sua hartu ezkeren bateren batek?

Orduen kanpaak danak martxan. Orduen aitta eta maistrua eta abaria eta danok martxan ipiñitta.

Suertau zaizu baten bat?

Bai. Sesiñan etxia ikusi neben erreten. Bai. Eta bueno, mobimentu ona!

Lenaa-lenaa egozen zeak, baldiak, han zeien, elizan goixen, eliz-kamaraan. Eliz-kamaraan ze bat eguen, lokal haundi bat. Neskatilla-mutikuai katekisisa emuteko be baeguen lokal bat, eta ereixa zan eta balde pillat bat... Baserritarrak, eurak al danik eta aguruen, balde horreik bata bestiai...

Claro, ura ez zan egoten hantxe onduen eta, ba, nunbaitzuetatik pasauaz-pasauaz baldiakin, eta ba... Itxungittek.

Lenaa hala egitten zan. Nik ezautu neben hori. Oin balde hareik desapareziuta daz, nik ez dakitt nora fan dien! Baiña hala egitten zan. Bai.

(Nieves, Sakristauena)



Aizkorbe Azpikuan sua itxungitten, 1985ko uztaila.





Argizaiola, Nievesek kontatua

Mezia akaboten zanien, normalien, argixaiol danak ezkiña batera jasoten zien. Bai, zeatik gero elizia garbittu be egin biher zan...

Eta gero domeka goizien, goizeko mezetarako ez zien ipintten, baiña meza-nausittarako danak atzera ereitta. Eta nik danak buruen nekixen, aurretik nere ahizpak jakingo euen, baiña nik nere denporan, neskailla neska egin nintzanien, ze argizaiol ze (lekutan zen, banekien).

Zeatik egoten zien puntutxo batzuk, ultzetxo batzuk, baserri baikotzeko, referentzia mouen. Ultze-horitxo bat. Eta ze argizaiol ze baserri parien, nekixen danak buruz.

Sillak be baitta. Sillak be danak erretirau egittten zien garbiketako. Eta gero baserri baikotzien sepultura parien ipintten zien silla horreik.

Eta nik danak buruz nekixen.

Baikotzak euen bere sepultura bere sillia, dana parien, beti leku baten.

Len elizan enterrauten zien.

Argizaiolan ipintten dan argixaixoi etxien egitten zan. Eztixak ekarten dau argixaixa. Eta hari apartauten otzain. Ni hori egindda na. Silla batetik bestera haritxo bat bota, eta kazuela baten argixaixa eta holaxe pegauaz-pegauaz... Eta gero hori argixaiolien bueltan-bueltan batzen zan, eta claro, gero ipiñi biher zan puntara gora begira bat ixuketako.

Hola zan. Norberak egitten eben argixaixoi.

Eztia egiten zenuten?

Elizan eguen zee bat, paretan, erlauntza. Eta gizon batek, beti batek etaraten

eben, Narziso Txantonbalduenak etaraten eben. Elizan, ventana baten onduen. Kanpotik ez eben batzen. Eliz-kamaratik batzen eben. Bai. Pusketatzar batzuk! Nik hareik asko ikusitta dakot. Banasta baten sartzen zittun, baiña tremendako pusketak, e!

(Nieves, Sakristauena)





Bizkarrean

*Lana gogorra, e... Gero Mantxúenetik bire-zar hartan, gero maillaak, gaixki, e!
Han ez xaguan kamiñorik, e!*

*Onddiok maillaak han egongo ttuk. Han xaguan burdibiria behetik, burdibire
txarra zuan, eta mailletatik faten gintzuan.*

(Benitto, Ojala Haundikua)

Bizkarrien, hemetik elizaráño! Hartu bizkarrien eta traka traka traka...

*Baten bat gaixorik éuenien, eta abaria etorten zanien zea egittera, gu mutikuak
eskolara, eta abaria biretan zea egin ezker (tokau ezker), birien belauniko jarri
eta abaria pasau arte belauniko.*

Ñoo, hori gogorra izaten zuan, e!

*Monagilluakin etorten zuan ha betik, monagillua kanpanilliakin. Kanpanillia
trrrrrra jotzen xuan, eta "da!" belauniko mutikuak.*

(Juanito, Goitikua)

Bizkarrean eraman zenituzten hemengoak ere, Goitikuak?

Bai, aittajuna be bai, eta amandria be bai... Anderuak egoten zuzan (zituan).

(Joxemai, Goitikua)

Baten bat hiltzen zenean?

*Bizkarrien. Oin pistia daguez lekutik. Elizbiria. Eta han Etxetxoko etxia baiño
beraatxua esaten daue lena zala kanposantua...*

Han eguen paretan harri bat kurtziakin, eta han geratu, eta aittagure bat ero errezautez zan... Bizkarrien erueten zien, eta kanbixau egitten zien birien, zeatik Araotz-Urtittik elizara kilometro eta erdi behintzet bada (badago)!

(Jabier, Etxeberri Txikeñekua)





Bizkarrean, Gerneta Etxebarriko ahizpek kontatua

Úntzun Txikiñekua, Joxemari euen izena, eta hamar urtekin hil zan. Medikuak etorri egingo zien baiña... Gutxiaa estuixauta medikukak be (orduan).

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Geuk eruen geben elizara, eta kanposantura, bixkarrien, laun artien. Eliza barrura ez zuan sartzen, eliza aurrekaldera.

(Femin, Borjena)

Elizpeien izten zan hilddakua. Hoixe ahaztuta neuken...

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Arantzazutik etorten zien frairiak, sakristaua be han egoten zan. Oso entierro zea egitten zan. Eta hilddakua izten euen elizpeien, bere zeakin, ate-haundixen. Eta gero elizatik urteterakuen egitten euen kajia erai.

Eta gu eskolatik geu be korrika faten gitzan ikustera, kajia ikustera.

Eta orduen ez zien arrelauten oingo mouen.

Eta ikusten neben, eta neuk egun hortantxe bazkaitteko gogua (ez nuen izaten), oso jatun ona izan naiz baiña!

Inpresiñua egitten nostan.

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)



Bizkarrean, Txomenak kontatua

Lenengo, entierro aurretik, eruen biher euenak anderuak izaten zien, eta hareiri hamarretakua, eta gero etxeko senire danairi bazkaixa, eta danok ple egin eta azkenerako danok alegere; entierruoi ahaztuta...

Bazkaixoi kendu euenien... hor hil zan neska gaztetxo bat, Ojala Txikiñien, eta honeik nehikua desgrazia eukeilla eta ez doiezela bazkaittera, eta horko maiaazkuorrek, aittajuna zaharrorrek, galdu egitten dabitzela, gauza onak galtzen dabitzela.

Orduantxe kendu euen, ya holako gauzarik ez zala egin biher... Baiña orduen, bueno, bueno, iñun-dien primuok eta iñun-dien danok, e!

(Enkarna, Txomena)

Orduen faten zan izaran batuta (hildakoa), garai hartan; kamilla bat da (dago, elizan) hanka eta guzti, izara bateaz batu eta... aittajunai eta amai eta entzunda na.

(Agustin, Txomena)

Hasi zien gero, kajak etxien egitten, arotzen bat egoten zan hola afiziñaua, eta hak egitten eben kajia, eta gero faten zien andraak forrautera kajiori, tela-baltzakin, eta beste adorno batzukin.

Edozein bidetatik eramaten zen hildakoa?

Ez, Kurtzebiria... Bire estu bat eguen, eta gero eguen kaltzaatxo bat.

Zebat kanpae?

Emakumiari joten xakon bi; kanpaa bixak batera. Gizakumiai bat, hortik ezauketan zan gizonezkua ero emakumia zan.

(Agustin, Txomena)

Aittajuna eta amandria zortzi egunen barruen hil xatien bai, eta hemen lenaa entierruetan jente asko, primuak eta iñun-dian danoiri, telefonorik ez eguen eta abixautera baten bat fan eta jente pillia gero jaateko.

Eta mixeixa bat etxien! Etxeko oilluok eta danok gastauta...

Eta uruna be nola eguen gastauta, orduen, hurrengo egunien labesua egitteko gabien uruna ekartera Arabara.

(Enkarna, Txomena)

Etorten zien lau fraire (entierrotara), bertan egozen abariok... Danentzako hemendik itxetik tokauten xakonak eruen biher hareintzako. Eta arruina baten, etxiak geldiketen zien...

(Agustin, Txomena)

Nola ziren entierroak?

Bixkarrien hartu, eta bidakurtzetan egoten zien kurtziak, eta han errezaui paterrnosterra, apur bat deskantzau eta atzera...

(Enkarna, Txomena)





Bizkarrean, Benittok kontatua

Dana bixkarrien... Enda hortik aparte, guk behintzet, hemen Maiña eta Zubixa eta honeik... ikusitta euko dok Uriarten palaziotik aurreratxuaa han gurutze bat, Santaana dok ha, izena xakok, eta han egitten zuan paradia; parrokuak egitten xuan han errezu bat, ha izaten zuan paradia, baiña beste dana bixkarrien gero atzera.

(Benitto, Ojala Haundikua)

Zuk eraman zenuen inoiz?

Bai, bai, tokau xatian, Enpáantzakua eta... bi ero hiru tokau xatian. “ándia” esaten xakuan, kajia erueteko... Hori kanposantu onduen egoten zuan. Zuan, holako hanka batzugin... eta gero bixkarrerako oso zea onak, almuadilla eta guzti, oso ondo xaguan preparauta, baiña hortik aparte, agura haundiin bat bazan, artien pixua, e!

(Benitto, Ojala Haundikua)



Bizkarrean, Amparok kontatua

Zela izaten zen, bizkarrean eramane eta...

Konparaziño baterako, hemen (Mañan) hiltten zaniene (baten bat), ba auzoko gizonak eruetene euen, auzuan auzokuak...

Abaria etortene zan, banderiakin beste gizon bat, maiordomua, eta harekin batera besta bat, atxerua, kandelaakin, etortene zien, enda len esan duana, Arantzazuko hiru ero lau fraire etortene zien, batzuk mezia emutera altarara, eta beste batzuek korura kantura.

Ni akordautene naiz, nik bi urte ero pasatxo euko nittun hango (jaiotetxeko) amandria hil zaniene, eta esan notzan: “Amá, itturrixan gora dator gizon bat guardasol haundi batekin...”.

Banderia eukene hak, eta nik guardasola, artiene umia izane eta...

Baiña beste zerik, amandrian akuerdorik ez dakot. Han, etxien goittik bera zela xoiene, eta euzkixakin zela egon nintzan neu bentanaan, ha negarrez eta ni zela egon nintzan haren onduene, hori goguen dakot, baiña beste akuerdorik ez dakot.

Danak illaran fatene zien.

Lenengo-lenengo entierrua dakot goguan, han Gernetakua, aitta eta ama fan zien entierrora, goguen dakot. Ez dakitt zenbat urte euko nittun, eta anae gaztiena eta bixok etxien, eta esan nostan harek: “Han, entierrua, behera”.

Eta, claro, nik hemendik ikusi bai, jentia zela xoiene, oin ez da ikustene, baiña orduene ez eguen piñurik eta zerik, eta ikustene zan jentia zela xoiene, eta neuk esan notzan: “Handik gora fatene dok zerura, ero?”, anaiai esan notzan. Hoixe goguen dakot. “Handik gora fatene dok zerura, ero?”.

Umetako kontuak.

Ze erropa jazten ziren halakoetan?

Danak baltzak. Gizonak be bai, gizonak be besuan guantia ifiñitta baltza, ero gabardiñan ero txaketan ero zeien...

Eta mantilla haundi bat jantzi eta zeien, emakumiak, faten zien.

Beti baltzik ibilli biher... Orduen bizi guztia, haiketa hil arte. Oin berriz, ba lutorik ez da (dago) eta...

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)



Borjenak ilaran, euren anaa Nikolas Zumalderi mun emuten.





Bizkarrean, Matildek kontatua

Araotz-Urtittik biria Zubira fateko... Epáantza badakizu nun dagueen? Handik, Zubira fateko...

Elizondora fateko, Errekondora... Ándramaixatik Mantxuenera, eta handik Elizondora.

Norbait hiltzen zenean?

Bizkarrien, handixek.

Gurutziak egozen biretan, eta gurutziak egozen lekutik... Nire aitta hil zanienean, por ejemplo, nik hemezortzi urte neuken, eta beziñuak erueten euen...

Itxitxoko (Etxatxoko) Dionixio andero, eta Txapelenetik Elizondora, eta ezin eruen horrek, eta gure anaia Nikolas inddartzua zan, eta jentia ikusten ez eben lekuetan lagunketan otzan aitta bizkarrien erueten, eta gero jentien bistarako atzera Dionixio; baiña txikiña eta kojua zan gixaajua eta ezin...

Eta elizan entierrua egin eta...

Funeralen (funeralaren) ondorien, kostunbria zan entierrora etorren jentiendako zeak egin biher, bazkaixa, kamaran.

Txapelenien kamaran ifiñi zan, eta ni Éibardik fan nintzan, eta hoi bazkaixoi zelebrauteko, ni Éibardik fan nitzenien, beziñuak eta eruenda egozen beraatzi-hamar oillaasko, bizirik, beste ez dakitt zenbat oillo, bazkaixa preparauteko hurrengo egunerako, entierrorako...

Ama ez zan kapaz.

Eta oilluak artien bizirik. Hartu aizkoria “txasta, txasta”, danai lepua moztu

nosten, eta, claro, aizkoriaz lepua moztuatik, lepo baarik faaten zien, buru baarik, abar artien eta zeien...

Lumatu, preparau, eta kamaran emun geben bazkaixa, kostunbria hori zan; gero ya itxi zan, e!

(Txapelen Matilde)





Bizkarrean, Bittoinak kontatua

Parrokixa onduen eguen kanposantua, eta hantxe enterrauten zan, zulua egin eta... Bat enterradore egoten zan auzuen, hari pagauko xakon zeozer. Eta harek zulua egitten eben, eta gero ba kajia hantxe sartu, eta...

Bizkarrien erueten zan, eta hemengo jentiak behekuak, Ugaranguak, erueten eben, eta behien hiltten zienien, hemenguak erueten zittuen. Baiña bertakuak, beziñuak, ez euen erueten...

Ze bidetatik eramaten ziren?

Hortixe behera. Orduen bire txaarrak egozen, e, eta bizkarrien hartuta, ba hortixe behera.

Hamen bertan eguen biria, eta gero, Otákormuño esaten xau, eta handik beratxuaa, deskantzauteko lekua daa, Birékurtzeta esaten xakon hari.

Eta han errezau Pater Noster bat, eta gero Antzázuko estraia, baiña oso bire txaarra, e, bizkarrien hartuta handik behera be. Gero Malgórra, eta gero Ugáran, eta gero Ugáranetik gora...

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)





Bizkarrean, Jesusak kontatua

Lenaa dana zeien, bixkarrien...

Ni nahikua txikixa izango nintzan, baiña... anderuak, txandan egitten zan hori, eta tokauten xakonak, Mañatik-eta... akordauten naiz ni, entzunda, egualdi txarrakin-eta, ez pentzau e, ekarri egin biher zan, e! Aixkorbe hurrien eguen, baiña beste leku batzuetatik!

Bueno, burdixen-eta esaten euen, burdixen be entzunda dakot nik, ekarritta! Gero entierrua egin, eta enterrau danak hantxe, zeien, kanposantua han da (dago) Araotzen, eliza ostien.

Mañatik eta Gernetatik eta, ez dakitt bixkarrien ekarriko euen; orduen gizon asko eguen Araotzen, igual gehixaa ibilliko zien; hoixe ezin dotzut esan nik horrenbesteraíño.

(Jesusa, Aizkorbe Azpikua)



Entierruak eta gero bazkaria, Amparok kontatua

*Lenaa etorten zien hiru fraire ero lau etorten zien Arantzazutik, eta zee haundixa...
Goizien entierrua, eta gero bazkaixa etxien eta, egitten zien lenaa.*

*Bat hiltten zanien, ardaua ekartera bat Arabara hurrengo egunien bazkaixa
egitteko, eta jente-mordua bazkaitten, egoten zan lenaa.*

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)



Borjenak.



Entierrua eta gero bazkaria, Nievesek kontatua

Entierroak eta gero bazkariak egiten omen ziren. Hori ezagutu zenuen?

Ezautuko ez neben ba. Neu be askotan fan naiz-eta! Zeatik sakristauai emuten otzain bazkaixa. Osea, entierro ostien danak elizatik faten zienien, etxe hortako parientiak egitten euen bazkaixa. Eta sakristaua eta abaria egoten zien inbitauta.

Eta gure aitta ya zahartu... oso zahartu be ez zan egin, 71 urtekin hil zan... Baiña neu bialketan ninddun, ya haunditxuagua egin nintzanien, ba, bazkai horretara. Ni itxe askotan egon naiz bazkaitten, entierro ostien.

Garbantzuak eta oillaskua zan zea. Zopia lenengo, eta garbantzuak, eta oillaaskua, hori jenerala zan.

Beziñuak? Asko. Claro, ingurukuak be han egoten zien. Lagunketan be bai.

Koziñeria normalien kanpotik ekarten zan. Kaletik ekarten zan koziñeria. Goiko Bentakua be ezautu dot. Goiko Bentako Juanita. Baserrittara koziñera mouen ekarritta. Bai.

(Nieves, Sakristauena)



Harrizko gurutzea, Rosariok kontatua

Lena ni akordauten naiz, ez dakitt zeintzunak izango zien, baiña ni neskatiillia eta zeien, eta bizkarrien... Eta gurutzia eguen lekuen geratu eta pater nosterra errezau eta...

Eta gure etxia baiño beraa, beheko erre kara aillau baiño goratxuaa eguen gurutze bat, eta harrixa, harlandua zea egindda, beai etarata. Eta han geratu eta errezauten eta holaxe.

Lenaako kontuak!

Harrizkua zan. Baiña uste dot, paretaak jausi egin zien, eta zan muga bat, eta oin ez dakitt, ez naiz fjjau. Baiña honezkero jausitta egongo da ha!

(Rosario, Beittikua)



Entierruak, Marijoxepak kontatua

Nik ikusi ttut entierruak aittajunena, amena, Bizentena... Orduen badakitzu zela izaten zan entierrua.

Anaia hil zan hogetalau urtekin, soldautzatik etorri gaixotuta, eta hil zan. Eta hilddakua kuartuan kajan. Eta bazkaixa gertatu biher, maiordomo danendako eta... Labesua egitten, hilddakuaz ahaztuta. Holakoxe entierruak.

Lenengotik gaiñera, abaria itxera etorten zan difuntuaana. Eta ardaua eta zea kanpuen, ardaua eta ogixa. Eta hara etorten zan jente dana ardaua eta ogixa jaaten. Eta hilddakua kajan. Eta abare batek kendu eben hori (ohitura hori).



Marijoxepa, gizonarekin eta alabarekin.

Bea ez zala etorriko gaztaia eta ogixa jaatera. Bea difuntuana etorten zala, eta oraziñuak egin eta erueten hasi zan. Eta gero bestaan batek be, elizaan be olatok eta zerbaitzuk, eta harek kendu eben, olatak eta, elizaan...

Entierruak orduen izaten zien... banketia. Etorten zien maiordomo nausixa, auzoko ez dakitt zer... Gero pariente danak, entierrora etorritako parientiak.

Ohia kenduta akordauten naiz, maixa ifiñitta, difuntuen bazkaixa egitteko! Holakotxe entierruek egitten zien orduen.

Baiña gero horreik abare batek ero bik kendu zittuen.

Arantzazuko frairiak etorten zien. Gere anaia hil zanién, ez dakitt zelako edurrak. Urte barri eguna zan. Kajia eruen eta zea egin zan, baiña frairiek ez zien etorri.

Lurr-emitia egin zan aurretik.

Baekixen hil biher zana. Beak esaten eben, “hogetalau urteaz hil egin biher, baiña honeik berdura-zarrok jaten nik ez xonat ibilli biher!”

Bi ahizpa eta bea bizi gintzan. Orduko danok hildda egozen. Eta gertaketan gu, beretako berdurook, medikuak esanda. Beak hori ez dala (dauela) biher. “Ni honeik berdura-zarrok jan ezindda, eta hil egin biher... Gustora jan biher xonat zerbait”.

Eta orduen egozen izugarriko edurrak.. Eta ha hil. Eta dana edurra. Eta maiordomuak eta inguru guztiok bazkaittera. Eta fraidiek etorri zien entierrorako. Gazte pilla bat. Izugarriko fraide pilla bat. Kantu batzuk egin otzain entierruorri. Neuk esan be egin neben: “Jesus, honeik ondo enterauta etorri ttuk gaur”. Oiñez etorri zien Arantzazutik. Orduen danak oiñez.

Baiña halakotxe entierruek egitten zien. Baiña bazkaixa, abariek kendu artien, honenbeste okela ekarri biher zala, dirurik be ez ixa etxien, eta kajaan hilddakua, eta bazkaixa gertaketan andrak, ahaztuta difuntuok... Hurrengo egunien jente pilliak jaateko, gertaketan.

Baiña gero abariok kejau zien, eta abariok kendu zittuen.

Kajia gaiñera etxien egitten zan.

Gernetako aittajunatxo batek egitten zittun, nere akorduen. Aurretik bestan batek egingo zittun. Gero hasi zan jentia kaletik ekarten, ha aittajuna hil zanién.

Baiña neu be akordauten naiz, geurien be, baten batena etxien egitten kajia. Bizentena ero. Bizente euken anaiak izena... Oholak eta topauta egoten zien, itxuria.

Bizkarrien erueten zien (hildakoak). Hemen ez eguen kotxerik sekula be.

Lurra ifiñittakuen oin kurtziak ifintten ttu jentia. Lenaa ez. Guk ez geben sekula be ifiñi.

Guriak hor dira danak. Baiña nik ez dakitt zein nun dazen. Ez dakou kurtzerik. Baiña hor dira...

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)



Aitta zeruen, Marijoxepak kontatua

Esaten euen beti zeruen eguena gure aitta. “Gure aitta zetan da (dago) zeruen?”, akordauten naiz zela esaten nosten gurasuai, aittajunai eta amandriai...

Behin negar egin euen. Orduantxe sartu xaten neri, “Ze pasauten ete dok? Hil, eta zeruen aitta”.

Hemen (auzounean) aittak danien egozen, eta umiek be danetan.

Eta danetan ume txikiñak be ekarten zittuen. Eta nik umiek gura, eta neri trapuaz egitten nostain umia. Amak trapuakin eginddako...

Eta gero: “Aitta zeatik dakou ba zeruen?”, nik, arto-zuriketan kamaran, hori behintzet behin akordauten naiz negar egin euenien.

Aitta zeien... Hemen ume-txikiñak ekarrirta, gurien umerik ez dala ekarten, eta nik umia gura. Eta trapuaz eginddako umioi, ez neben apreziau itxuria.

Eta amen (amaren) kontestaziñua izaten zan: “Aitta zeruen daa eta”. Eta: “Noiz etorri biher dau ba zeruti?”, beti amari neuk.

Eta orduen esan nosten, bastante zea: “Andreetan be aitta, aldekuen be aitta, Mielenien be aitta, eta danetan aitta. Eta guriek noiz etorri birau (bihar dau>bidau>birau) ba zeruti? Zetan daa ba zeruen hainbeste denporan?”.

Eta gogor samar egin neben itxuria, neskatiillia, zeien, arto-zuriketan gebitzela. Eta handik pittin batera, akordauten naiz, negarrak urtenda zeok. Neuk esaten nittulako zeok.

Eta orduantxe igarri notzan nik, “zerbaitt pasauko dok, honeik hola negar egitteko”.

Eta hola.

Eta ez neben preguntau izan nik gehixaa aitta zetan euen zeruen...

Baiña akordauten naiz, zeruen eguena, eta hemen agiri ez aitta, eta aitta gura neuk be.

Eta holakotxe gauzaak.

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)





Bautizau gabeko umeak, Nievesek kontatua

Da (dago) kanposantua Araotzen, ezta?

Eta umetxo hori, bautizau baarik hil zan hori... Horreik enterrauteko beste lekutxo bat da (dago)...

(Horra joateko) pasau biher izaten zan geure itxetik, Sakristauen itxetik. Obispauen itxetik, zeatik, claro, beste itxe partikularretan horreik gauzok ez daz hola.

Handik pasauten zan ortutik, eta eguen ate bat... Izango da lokal bat “tres por tres” ero holaxe. (Handik) kanposantura ezin leike fan, paretia da (dago). Bakarrik ortutik, gure ortutik, pasauten zan. Atia eguen, eta hantxe enterrauten zien umetxo horreik.

Enterradoria bat eguen, Bixente Lopena esaten xakona.

Enterradore horrek kaja baten ekarri eben, zapata kaja baten, umetxua hildda etorrela.

Egin nontan inpresio bat!

Zapata kaja hori Arantzazura faten giñanien bokadilluak eta, hola gauza inportantiak ibiltteko izaten zan.

Eta gero ha umetxua, han kajan etorrela... Inpresioa tremendua!

Hori ezautu neben. Eta ezautu neben beste bat. Uste dot Jausoro-Garaikua zala. Ha ekarri euen izaraan ero tela-zuri baten.

Ba, bi ezautu ttut umetxuak han enterrauten.

(Nieves, Sakristauena)





Txintxin azpixon, Rosariok kontatua

Lenaa badakitzu, gure ama zanak...

Hil xakon ume asko, eta bautizau baarik egon ezkeru, teilla-azpixon sartzen zittuen. Bueno, gaizki esa'tzut, teilla-azpixon ez, txintxin-azpixon enterrau egitten zittuen, "en aquellos tiempos".

Zela dien gauzaak, e!

Kanposantuan. Lenaa badakitzu zela zan... Ba hiltten zanien bautizau baarik...

Eta hak denporia baiño lenaa eukitten zittun asko eta haraxe eruen eta hantxe enterrauten zittuen.

Amari zela hil xakon ume asko, han enterrauten otzain.

Baiña tristia da hori, e!

Norberan umia beste batzun mouen ez zea egittia be!

(Rosario, Beittikua)





Bodak Araotzen

Guk ez dou ezautu gure etxien bodarik. Baiña aitta eta amak bodia han egin euen. Bi eguneko bodaak izaten zien. Oin, e'izut esango ze jaten zan eta...

(Ojala Txikiñeko ahizpak)

Bodak Araotzen?

Bai. Hauxe por ejemplo, nere ahizpia ezkondu zaneke zea. Hau aitta, eta bestiok anaiarrebak.

(Nieves, Sakristauena)



Enrike, ni (Nieves), Felisa, aitta, Euloji eta Jesus (denak Agirre). Eta gure etxia hauxe, atzekaldien daguen hau, Sakristauenoi (Nieves, Sakristauena).



Bodak, Marijoxepak kontatua

Soldau egin eben denpora gehixena nere gizonak, e! Soldau jua zan hemeretzi urtekin ero, mobilizauta etorritta ezkondu gitzan gaiñera.

Nere ahizpia ezkonketako larri eguen orduko (ordurako). Bertan, nobixua hor euen, Txantónbalduena...

Eta hemen neu bakarrik ez geldiketako (ezkondu nintzen). Eta atzera beste urtebete soldau egin biher izan eben, mobilizauta, nere gizonak. Eta ni orduko enbarazauta!

Artian be bakarrik, hementxe. Ira-ebaten be ibiltten nintzan sikiera, basora fanda. Ganauak geuken, eta ganauak zainttu egin biher izaten gittun.

Holakotxe bizimoruaaz egondakuak!

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)



Marijoxepa eta Pauloren ezkontza.

Bodak, Bittoinak kontatua

Nere ahizpa zaharrenak be bodia hortxe bordien egin eben, eta arroza ifinttea pentzau euen.

Gure aitta kanpuen asko ibilitta eta arroza ordun ikusi be ez zan egitten, eta arroza ifinttea pentzau euen, eta gero amandria Marien (Mariaren) ahizpia zan entierrotan eta etxietara faten zana koziñan egitten, eta ha etorri zan aittak aindduta, eta hortiko eta hemetiko behintzet egin euen arrozoi.



Otxuen Martina eta Klaudioren bodia.



Ezkerrean, Demetrio Goitia. Bittoinaren aita.

Goian, Agerreko Xeberiren ezkontza.

Baiña arroza pittin bat lentxuaa bota, eta “gutxitxo izango dok hau”, eta gerotxuaa beste puska bat bota arrozorri, eta gero batzuk ale gogortxuaguak geldittu, eta aittak esan otzala zeorri, Narzisaorri: “Oin esango dosteu arroza tokau xakula urte batekua eta bestekua, gogor geldiketan bada”.

Gero ez zan asko igarri, e! Aittak asmau otzan zeoi: “Ez dakitt zelakua egongo dan, urte bittakua tokau xaku arrozoi eta!”.

Hor beheko etxe baten ezkondu zan nere gizonen anaia, eta horkotxe kamaran egin geben... bordien, hantxe maixak-eta ifiñi, eta...

Geria ez geben hor egin, e, baiña aurrekuak bai!

Elizaan ezkondu, eta gero etorri, eta hemen bazkaixa; nere ahizpa zaharrena-eta, bigarrenetik aurrera, danak ya kalien.

Neria Mantxúenien egin zan. Uéstei ero horkua zan nere gizona be, eta hortxe egin biher doula, eta bueno ba, hortxe...

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)





“Viaje de novios”, Bittoinak kontatua

Baiña belaunetaraiñoako edurra, e! “Catorce de febrero”, belaunetaraiñoako edurra.

Eta artulezko kaltzaak eta abarkakin kalera oiñez, gero viajera faateko. Bergararaiño fan, eta Bergaran lo egin, eta gero zeara, Donostiara fan gitzan.

Eta Donostian taberna baten sartu gitzan, eta han kontuak esaten zel’ezkondu gitzan eta zela zea, eta gero handik Tolosara.

Han zelebtrauten zien karnabalak!

Fidelek esa’skun beak erakutziko oskula, eta haraxe fango gailla (gariala), eta hantxe ikusi gittun karnabalak. “Viaje de novios”.

Gero, egun bi Vittorixan. Bea soldau egonda eguen Vittorixan, nere gizona, eta “Vittorixa be ikusi egin biher dou”, eta Vittorixara egun bi!

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)



Ardura gutxi, Bittoinak kontatua

Ez gebela ardurarik hartu...

Belaunetaraiñoako edurrak in'skun. "Catorce de febrero" ezkondu gitzan. Belaunetaraiñoako edurrak. Eta kaltzaak honaiñoak, esportaak, ardi lanazkuak jantzi, eta abarkaakin fan gitzan kaleraiño. Eta gero kaletik, taxistia... Zein zuan ha?

Arralde, hori dok. Izena akordau ezindda!

Arraldek eruen ginddun Bergarara. Eta Bergaran holako itxe zea baten itxi ginddun, eta hantxe lo egin eta Donostiara.

Eta gero Donostian zortzi egun pasau.

Nire hurrengo ahizpia itxera ekarrirta faan gitzen ezkondata. Baiña belaunetaraiñoako edurrakin, ardixakin, itxabolara... hor ixa errekaraiño erun biher bearra.

Eta gero "ardura gutxi ebali dozue!", amak pittin bat demanda, zortzi egun pasau gittulako.

Eta beste egun bat Vittorixan pasau geben, atzena.

Bea Vittorixan soldau egonda eguen, eta Donostian: "Nik ez dot hemen igarten mundik nora gabitzen! Ez dot igarten", hola ibilli zan, eta "ba hauxe pasau dou, hemenditxek topauko dou", eta horreik neuk asmau eta hola Donostian ibilli gitzan.

Eta gero Vittorixan beak giauta, soldau egonda eguen, eta han pasau geben egun bat, eta gero itxera.

Hoixe gure "vieje de bodioi".

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Gerrako kontuak, Marijoxepak kontatua

Gerrako kontuak aparte utzi ditugu, normaz. Asko jaso zituzten Gerrako Garra proiekturako, Araotzen.

Gutxi batzuk ekarriko ditugu, hala ere:

Ni akordauten naiz, gerra-denporan ez dakitt nundik ihes egin euela presuak. Eta guardazibillak hareik topauteko urtenda.

Eta Zumáalden jarri zien, lo egitten ez dakitt, baiña behintzet jaaten eta. Eta gero



Mielen Txikiñekoak, baserri kanpoan.

auzuakin juntau zien... Auzuen orduantxe gerrarako juntauta mutillak etorritta, ero zerbaitt baeguen...

Eta izugarriko dantzaak egitten, han prazueletan, guardazibillak. Hemengo neskaitilla ederrenok apartauten.

Soñujolia bertan eguen bai, kaskar bat, Teofilo Txikiña ero esaten xakona, eta holaxe.

Hori gerra denporakua zan, e!

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)





Ahuntzak, Goittikuak kontatua



Ahuntz hori (argazkikoa) joteratortzen zuan, suabe-suabe, eta eskua ipintzen nitxan eta “bla!” eskuakin jo, eta hurrengo hola jarten nintzuan (makurtuta), eta bixkarrera.

“Tzi!” salto egin eta bixkarrera!

(Joxemai, Goittikua)

Ni ahuntzakeukittan nak (Oñatin, “ñaok”; Araotzen “nak”).

Hor Kúrtzebarrin-eta egiten gitxuan kristonak ahuntzak topauten.

Andartotik... ibiltzen zittuan nunbaitetik nunbaittera.

Eurak topauten...

Gero haitzien behera sartzen zittuan Infernuko Arrátien. Haizmaillak xazek. Sokakin sartu eta... goixen sartu eta behien urten, burdi-sokiakin!

Joxemai Altube, Goittikua, Araotzen.

Eta goixen trabau nunbaitten, eta sokaan, eskuakin bajau goittik behera, haitzien! Punta bixak behera bota eta gero soka bixairi obatu, korriu ez daixen.

Eta goixen sartu, eta behien urten, eta ahuntzak etara eta itxera, mutikuak!

(Juanito, Goittikua)

Zenbat ahuntz zenituzten?

Lau-bost bat eukitten gitxuan.

Zertarako?

Jaateko.

Antxumia ederra dok jaateko, e!

Nork prestatzen zuen, nola?

Amak. Ama koziñeria ona zuan guria. Kazuelan ipiñi eta...

Saldu bakarren bat igual bai, baiña ez. Danak etxien jaateko. Lenaa ez xaguan babia eta patatia besterik, e!

(Juanito, Goittikua)





Ahuntzak, Benittok kontatua

Zubixa auzunean, ahuntzik bazen?

Bai, gerien, dozenaerdi bat eukitten gitxuan.

Ahuntzak ardixak baiño probetxu gehixaa emuten xuan, esne gehixaa xakuan.

Gaiñera, gure itxe-ostia eta... ahuntzandako leku ona zuan. Bestela geiztuak ttuk, plantakin-eta (landareekin-eta), bastante haundixa be hankiakin hartu (bi hankatan jarrita) eta zea egin eta azala kendu eta...



Maximo ahuntzekin.

Horretxeatik kendu gitxuan, frutalak-eta ezin dok euki; arbola gaztai... zeatik ahuntza dok pua zalia bai, eta claro, izerdixa dakoilla, arbolak berihela hondaketan ttuk.

Atzenien horreatik kendu gixuan guk ahuntzak. Bestela gure itxe ostien, han kobak-eta... han ahuntzak oso ondo ibiltten zittuan.

Baiña arbola bat ezin euki, e, gazterik!

Esnea aprobetxatzen zenuten?

Bai, bai, esnia aprobetxauten gixuan... Eta gaiñera umiak bi egitten txuin gehixenak, umiak gehixenak bi. Zubixen, Ojala Txikiñien be baxaukain, enda ez xakixat Txantonbalduenien euki euen...

Gero, Mantxuenien be baxaukain, eta Agerren, eta Uastein. Bastante xaguan. Araotz-Urtin be bai, Goittikuak be baxaukain, Beittikuak be bai. Angelek-eta euki xuain ahuntzak...

Beti gutxi, ezta?

Ahuntzak, gurien, sei-zazpi bat ero hola egoten zittuan.

Umetatik ezagutu zenituen ahuntzak zuenean?

Bai, bai, ume-umetatik...

Otalan hi egon haiz pasilluan, pasara zaharrien sartuta? Han erloju bat xak, Bidaurretan baxak ba erlojua? Igual-iguala Otalan xak onddiok.

Eta ha ahuntzen truke erositta xak, Saneliasgo Alejandrori ahuntzen truke, esaten xuan, gurien amak, erosi ebela aittak.

(Benitto, Ojala Haundikua)





Ahuntzak, Otal Txikiñeko ahizpek kontatua

Ahuntzik ezagutu zenuten baserrian?

Bai. Ahuntzak bai. Antxumatxuak-eta egoten zien.

Gure aurretik, Juanitok-eta ez dakitt ezautu euen, baiña egonda egozen ardixak be.

Ahuntzak guk ezautu geben. Gure aittak eukitten zittun, hiru-laun bat.

Itxe azpixen antxumatxuak saltoka, ni horrekin akordauten naiz (Juanitak esanda).

Non ibiltzen ziren?

Itxe inguruen. Itxe azpixen.

Lotuta?

Lotuta ez, suelto.

(Otal txikiñeko ahizpak)



Ahuntzak, Benittok kontatua

Gure etxien ahuntza... Ama bizi zan artien ahuntza euki zan beti. Bat. Oin, ahunzkumak eta eukitten zittun, e!

Han Txartikulun leku handixa da (dago), gure itxetik behera atzekaldien, Elizondon, atzekaldien. Txartikulu. Han leku haundixa da, arbolak eta gaztaiñak eta... Eta ahuntzoi hor ibiltten zan itxuria, eta beste ahuntzen batzuk be bai, eta...



Sakristaua, bere emaztea eta semealabak ahuntzarekin.

Eta itxuria ahuntzorek iges eta be egitten eben eta ahuntzorren billa harutz eta honutz... Eta ama hil zanien, ahuntzorek bihalekua besterik ez ebela emuten eta kendu eben.

(Nieves, Sakristauena)





Astuak, Gerneta Etxebarriko ahizpek kontatua



Astuak-eta hezi?

*Gaztetan hezi biher izaten da,
gero ya asko kostaten da...*

*Lenengo bastia ifiñitta, bastia
esaten xaku (zaio)... Bizkarrien
holoko bat, sendo samarra, zeakin
egindda, lastuakin-eta egindda...
Neu egindda na bastia be, gero tia
Felipak eta kendu'stanain baiña!*

*Bastia, holoko sendoeramoukua,
ba beai (astoari) bizkarrien miñik
ez egitteko... Zestuak, ba bi otzara
alde banatan, bata bestiai sokatxo
bateaz lotu... Tripa-azpittik eta
lotu ondo bastia lenengo, eta gero
zestuak be ondo sokiakin-eta lotu,
eta buztanetik bueltan...*

*Trastiak-eta pixua ondo
eustzeko ("stz" eustzeko, Oñatiko
Euskara Zaharra). Lotu egin biher
zelabait!*

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Eduardo Urzelai, eta Mikel, Beittikua, lehengusuak.

Astua etzindda ez don ikusten, e!

Garagarrak irabazten bai! Badakitzu garagarrak irabazia zer dan? Astuak egitten dau, bizkarreko hazkura kentzeko, etzitten da, eta lau hankak... Buelta osua ez dau egitten askotan, kostaten xaku (zaio), gero beste aldera...

Baiña astua etzindda ez da ikusten, astakumak bai, astakumatxuak egoten dira etzindda.

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)



Astoak,
Joxemaik kontatua

Astuak hain domauta egoten zittuan... Bazkaixa zestuetan jarri eta zainttu baibena. Eta fan nauk hara, Lurgórrittaraiño... Lurgorritta badakik nun dagueen? Lurgórrittara fan nauk eta han urtete'stak amandriatxo batek.

Eta han lau kurtze, lau bidekurtze, xazen, eta nora fan! Haraiño ondo fan nintzuan eta han nora juan?



Jabier Altube, Goittikua; eta alemana.

Eta amandriatxuak urten xuan handik (Lurgorritatik) eta: “Zuen basora hortik faten da, hortik!”. Eta halaxe, emun xostan direziñuoi eta aillau nintzuan basora.

Bazkaixa eruen biher izaten zuan. Ira-batzen xabitzan...

Beziñuak eta bixok xaku terreno bat geria, Basóarri (hara joan behar zuen astoarekin).

Zenbat urte zenituen?

Oso gutxi; orduen ume-ume-umetxua, eta...

(Joxemai, Goittikua)

Alemanak bizitzen egon ziren Goittikuan?

Hareik bizitten ez, harek umerik ezin xuan hazi, eta amandriak hazi txan ume bat.

Lenengo ume bat hazi txan, eta gero beste bat hazteko, eta beste bat hazteko. Eta azkenien bi hazi txan.

Eta orduen hartutako relaziñuakin...

Mendittik etorten zuan astuaaz (bisitan). Urte danetan etorten zuan bakaziñotan. Hor Arabatik mendiz etorten zuan astuakin. Eta atzera hemen buelta egin eta Vittorixara.

Ez xakixat nun bizi zan, ez nauk akordauten nun bizi zan.

(Juanito, Goittikua)



Behiak,
Marijoxepak kontatua

Behiak?

Hiru be bai, hiru beti, gure akorduetan. Lau geukenien, gosiak. Baiña hiru bai.

Bi ifiñi gittunien, fabrikara fanda, zelai itxita souak, esnerik gehixen orduantxe, eta txahalik onenak be bai eta...



Eugenio, Aizkorbe Azpikua.

Halaxe izaten zan baserrixa.

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)

Izenak?

*Batak Pintta. Onenak Pintta. Eta gero beste behi bat, baiña oso listia, e!
Hemezortzi urte euken orduko (ordurako).*

*Azkenien be, kentzen be, pena emun nostain neri, kamionien ikusi nittunien
faaten, izugarriko penia!*

Fraidiai saltzen gotzan txahala, hazten gebenien.

(Mielen Txikiñeko Marijoxepa)



Behiak,
Gerneta Etxebarriko
ahizpek kontatua

Guk astuai izenik ez gotzan esaten, bat euki eta beai “astua”.

Behixai-eta bai, behixai Gorri, Txuri, Linda, Noble eta Baltza, eta Gorrixa, eta Txórdo be bai. Txórdo adarra hola dákonari (buelta osoa eta barrurantz)... Eta



Maña-tti Beheko andragizonak (Maximoren aita-amak), “artua irakurten” (1990ean).

gizon batek egitten eben dántz' hola (besoak gora, eskuak behera) librien, eta harei Txórdo esaten gotzan.

Eta gero beti "Txordok esa'stan ez dakitt zer" eta "Txordok esa'stan badakitt zer", eta hola...

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Lizarra eta haitza .. Egitten xakun (zitzaion), ganau-janetarako, adarrak ebai...

Horreik fan eta ebaitten ttuzu, eta gero itxera erun burdixen, eta harein orri danak ganauentzako, ganauai emuten xaten. Hori urtien behin egitten zan.

Lizarrai, eta haitzai be bai... Haitzak zien orduen, mendiko haitz haundi horreik ez, zien zuzen gora xoiezenak, eta hain (haien) adarrak... "Heu be ibillitta hao mozten behin baiño gehixaatan!" (ahizpari esanda).

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)

Paulak, eta gero hurrengo neuk, holakotxe adartxuak, hola urtekuak (metrobetekoak), igo gora, eta haik "taka taka" aixkoriaaz ebai, beai (arbolari) helduta. Gero sendorra egin, eta gero itxera ekarri eta gero etxien ostrotxuak kendu, eta gero ganauairi emun.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Etxien egitten zien horreik illunkaratan, errosarixua errezauaz, e! Errosaixua errezauaz egitten zien horreik lanok... Orrixak handik banastara. Itxera erun zeien, burdixen, eta... Hori eta artua zuriketia be bai.. Banastia han ifiñi, gaiñien, eta "da!", artua zurittu, eta burua hara. Eta gure aldeko... gure osaba, oso hiz gutxikua, zan oso hiz gutxikua, Patxi-Osaba, eta artuak zeaketan...

Orduen ekarten zien, burdikaa artua...

Eta manastia ifiñi nunbaiten, al-dozun lekuen, eta aurrekaldien igual banastia, eta maskala behera, eta artua "da!", banastara... Eta osaba oso hiz gutxikua zan, eta bere semiak esaten eben: "Gure aitta hola egoten dok... azpittik nola kentzen xaazun mastria, mastria doia pittintxo bat ikera eraiñez, eta zeien". Bere artian egoten zala "Jausiko dok ba, jausiko dok ba"... Claro, azpittik nola jarten xaazun, ikera egitten eben eta... Oso gizon ona zan, e!

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)




Behiak,
Benittok kontatua

Behirik edukitzen zenuten?

Bai, bost behi eukitten gitxuan, zeatik lanerako bi pare biher izaten zittuan, bi pare; orduen ez xaguan tratorerik!

Goldáan egitteko be bi pare biher izaten zittuan, zeatik goldiak inddar asko biher izaten xuan. Eta hortara, bi pare eukitteko ba bost behi euki biher zittuan, baten bat



Agustin, Txomena, ganauzain.

dispuesto ez zuan egoten, ero txahala egitteko eguela ero...

Guk bost behi eukitten gitxuan betik. Bost behi eta 50-60 ardi.

Jaizten zenituzten?

Bai, guk saltzeko ez gixuan jaizten, baiña geuretako biher zana... Txahalendako izten gitxan bi erro, eta bestiak geuretako, normalien hola egitten zuan...

Etixerako biher zana jaizten gixuan, zeatik esnerik ez zuan gurien saldu egin sekula...

...Haitza normalian izaten zuan materialetarako. Kapirixuak eta postiak eta egitteko haitza oso ona dok. Eta ezkurra ganauandako oso ona zuan, bai ardixandako eta bai behixandako.

Oso pentzu ona dok ezkurra!

Gure etxe ostian lizar asko xaguan lenago, eta han bi urtetik behin adarrak botaten xatian eta illunkaran famelixa dana juntau eta adarra hostro danak kendu eta behixai emuten xatian, "guazen orrixa egittera!"

Bi bixkarkaa (adar) eruen zelaira, eta han danai hostruak kendu, atzenien hostro-pillia egitten zuan.

(Benitto, Ojala Haundikua)



Agustin, Txomena, ganauzain.



Behiak, Jesusak kontatua

Guk sei behi eukitten gittun, eta iri-paria.

*Nik hamabost hamasei urte euko nittun irixak onddiok atzenenguak erosi zittula,
Pasku egun baten, Bergaran, aittak.*

Jaizten zenituen?

*Bai, jaizten ibiltten nintzan ni, ez aman mouen, e? Baiña... Bat Txiki eukena
izena, oso mantzua zan, eta ha jaizten gustora, geldi-geldik egoten zan.*

*Behiak danak eukein izena, danak. Txiki, Noble, Gorri, Txata, Morica... Irixak
be bai, beti euki zittuen euren izenak, Nabarro eta Txato zien atzenenguak.*

(Jesusa, Aizkorbe Azpikua)



Behiak, Manuelek kontatua

Behittarako izten zan biantxa bat, ixa urtia egin artien ituan. Eta hak, ba... jareten baxazu txiki-txikittatik amaaz, bere esnia eran eta hak lanik behintzet e'tzu emuten.

Hortan neu sartu nintzan lenengo hemen, lana ebittauteatik, e! Jare.

Txahal-txikiñak, bi urrusa zien, eta behixakin ituan. Eta neri lana gutxittu, t'eurok bizitten ikesi.

Txikittik ikesi biher dau bizimorua egitten. Eta gero hemen jentia, danak saillien ekin zien jareten txikittik.

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Behiak, Jabierrek kontatua

Lau behi behintzet derrigor euki biher izaten zien...

Izaten zien lagun egitteko, lenengo behi pare bat eta gero beste pare bat...

Behien izenekin gogoratzen zara?

Palomo, Txato...

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)

Ganauzain, Zumaaldeko Eugenik kontatua



Maña-tti Beheko Julian Zumalde, ganauzain.

Gure amen etxia zan Aizkorbe aldekua, Otxúena.

Baserritar netua'tzien (netuak ziran), e!

Guk geuken kale asuntotxua gehixaa, baiña hareik zien baserritar netuak. Eta ni, bi urtien ero... Lenaa faten zien, neskatilla-mutikorik ez eukein etxietan-eta, ba ganauak zainketako eta ittaurren egitteko eta...

Eta ni fan nintzan tiuen itxera, bi urtien egon nintzen. Baserritar netia!

Beratzittik hamaika urte bittartien egon nintzan ba i ¿¿, eta denpora hortan, sei ero zazpi behi zainketan nittun.

Eta zainttu, ez hola zelai eder baten, e! Zelai batera fan bai, eta alde baten ez dakitt nungo zelaixa, eta hara ez pasau biher; beraa (beherago) fan eta igual patata-sailla, alde guztietan, ezkiña danetan zainttu biher, sei behi.

Eguen kostunbre bat, Araotzen, ba ganauzain, eta zuk ikusi egitten zittuen “han, behixak zainketan han xabitzek, ez dakitt nunguak han xabitzek...”

Eta egunen baten ganauak zainketan zabituela, akordau barik behixa okerrera fanda, eta haik urriñekuak ikusi, eta kontraseñia izaten zan: “Libiri, labara, bai ganauzaiña, ez ganauzaiña, Zumaldeko ganauzaiña beti lo!”, eta kontraseñiorreaz: “Ene, behin (behiren bat) bat baxatok okerrera”.

Eta efetivamente, behixa igual patata-sailla jaten!

Eta gero neuk be bai, bestaan batzui: “Libiri labara...” urriñetik entzuteko mouen.

Neskatilla-mutikuak alkarrei burla egitten gotzan horreaz: “Libiri labara...”

(Eugeni, Zumaaldekua)





Iiskua

Argazkia erakutsi diegu Goittikoei, eta Joxemaik Juanitori:

Aguria iixkuakin hemen, hi?

(Joxemai, Goittikua)

Lénaa, Araozgo (araozgo) behi danak gerera etorten txuzan (zituan). Gero Otáduira...

(Juanito, Goittikua)



Ezkerrekoa Pedro Guridi. Eskumakoa Joxe-Txiki. Iiskuaaz.

Aitta ibiltten zuan, iiskuakin. Bat behintzet bai, gehixaa ez xakixat.

Akordauten nauk. Kriston iiskotzar bat. Ganauakin etorten zittuan auzotarrak...

(Joxemai, Goittikua)

Apua egoten zan Mantxúenien. Apua eta iixkua Mantxúenien. Erueten zebe txarrixa eta pagauten xotzan honenbestekon bat-ero.

Eta gero txarrikumak etxien hazten zien normalien...

Gero kendu euen asuntuoi, eta iiskotara, Urúbarrira, Otáduira.

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)



Maximo iiskuaaz.



Maximo iiskuaaz.





Txarrixak, Benittok kontatua

Ferixara txarrikumak saltzeera be etorten gintzuan, burdikaa txarrikumia ekarten gixuan.

Gaiñera gure ama'txakuan (amak xakuan) txarrixak hazteko zea haundixa, eta guk eukitten gitxuan igual bi ero hiru txarrama. Eta haik egitten xuain zazpi zortzi ume.

Eta haik bi hillebete egitten euenien, saldu egitten gitxuan ferixa egunien.

Burdixen ekarten gitxuan, hiru lau bazien astuan be ekarten gitxuan. Astuan zestuetan-eta, baiña bestela, kuadrillia bazan, burdixen. Baiña saltzeeko hoba izaten zuan behixakin... Burdixa hola sariakin ifiñi eta, ba ikusteko eta...

Santamañan egitten zuan, zeoi, ferixioi. Behixa kantzauta... Eta behixai eusten egoten zuan nehikua lan, mutikua larri. Behixak kantzauta han jente artien eta larri, eta...

Apua edukitzen zenuten?

Guk eukitten gixuan bai. Araotzen bi hiru itxek eukitten xuin, txandan... Guk geuk euki gixuan apua. Arabatik ekarten gitxuan sementalak eta... Guk urte mordo baten geuk euki gixuan, eta faten zittuan Urrusulatik, Arantzazutik, géuana, baitta Arantzazutik, komentutik be bai, komentutik be kamionakin bi ero hiru txarri ekarten txuain. Han txarrixak asko euki txuain eta gurera etorten zittuan.

Andrak izaten zittuan hor be... Txarrixa umia hartzeko zél'euen... "Irusi" esaten xakuan horri, eta irusi eguen egunien ekarten bada, igual ekarri eta segiran zerbiu eta atzera faten zittuan. Eta bestela, hiru lau egun be bai, egitten txuain gurien. Han beheko arteixan egoten zittuan. Aza-buru batzuk bota eta...

(Benitto, Ojala Haundi)

Zerriak hariztuian?

Ez, guk ez geukan hariztuirik Haizgain aldien. Oin, ezkurak-eta ekarri eta emun bai...

Gaztaiña asko eukitten gixuan guk, eta txarrixai gaztaiña asko gustauten xakuan. Txikiñak emuten gitxan txarrixai.

(Benitto, Ojala Haundikua)





Txarrixak, Bittoinak kontatua

Apua egoten zan Mantxúenien eta hara erueten zan txarramia eta gero txarrikumaak egin, eta txarrikumaak, bi etxien itxi, eta bestiak saldu, ferixa egunien.

Ferixa eguna, behiak eta txahalak eta danak hara erueten zien, eta txarrixak be bai, txarrikumaak be.



Txarrixak, Mañan. Emakumea Maximoren ama da, Mari Juana Ezkurra.

Txarrikumaak erosi egitten zittuen (zituzten), eta orduen txarrikumaak etxe danetan egoten zien.

Zeinek eramaten zituen?

Gizakumiak, asto-zestuen erueten zittuen, gaiña tapauta eta zelabaitt; haik hankak lotu baarik. Billotza hankaak lotuta erueten zan asto-zestuen, billotzak be saldu egitten zien. Bat izten zan araittarako, baiña bestelakuak danak saldu.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)





Zaldi behor



Miel Angel Goitia, Manueltxoren anaia



*Marisol Lazkano, Joxeanjel Urkia,
Jesus Mari Goitia (Manueltxo);
behean Migel Angel Goitia.*



*Maximo, besteko German eta
Jon ilobarekin, bihor gainean.*



Oiloak, Benittok kontatua

Oilategi gehienak etxetik urrun egoten zirela esan du Benittok:

Hori zeatik dan badakik? Etxien bueltan egoten zittuan gari-souak, eta fetxa horreittan, orduen erueten gitxuan beste leku batera. Zeatik bestela oilluak garixa jan eta garixa asko hondatu egitten xuain. Claro, garixa gozua dok ba!



Miren, Emiemen, oiloekin.

Gurien berrogei-berrogeta hamar oillo egoten zittuan. Eta hak oillo pilliak gari-soora fan eta izugarriko okerra egitten xuain!

Hil pare baten ero Maiña aldera geukan terrenotxo baten eukitten gixuan. Eta atzera gari-denporia pasauten zanien, atzera itxera.

Araotzen ez zuan baserririk egongo, oillategixa kanpuen ez eukenik.

Danak kanpuen, batzuk bastante urrin be bai gaiñera, e, han Lurgorritta aldera-eta be bai, e!

(Benitto, Ojala Haundikua)





Oiloak, Zumaaldeko Eugenik kontatua

Saperua zan ba, arbixakin eta erremolatzakin eta patatiakin ero, egosi bai, eta gero saixa bota saperua egiteko, eta gustora jaten euen (oiloek).

Egoten zan, oilluak jaateko holako tronko luze bat eukitten euen (zulua eginda)... hurrengo, alia zanian púurra egin eta botaten gosten eta... Hogetaka oilluak! Bai



Marilu, Karmele eta Mila Altube, aitarekin.

ba!

Eta nik hori ez nekixen, baiña nere primia, ha zan ordurako neska dezentia, eta oillanda batek egitten zittuen, itxabolan egin biharrien, aafixak egozen lekuen egin biharrien arrautzak, beak gura eben lekuen egitten zittun. Eta: "Galdu egitten txun oillandiorrek, arrautzak!".

Ze itte'stien? Goizien fan, eta ipurdixen gatza, eta orduen kakáazaka faten zan arrautzia egittera, eta orduen topauten gotzan nun euken aafixia.

(Eugeni, Zumaaldekua)



*Txantonbalduena
oiloekin.*



Agerreazpikuen Virginio Leon alimañeruak eduki xuan. Aixeixak eta piztixak harrapauteko kontratautako Albaceteko gizon batek. Zepuak eta beenua ebali txuan piztixak harrapauteko. Ixa galdu zittuan (60ko hamarkadan, azeriak). Lotuta euki xuan baserri aurrien, ez xakixat zenbat denbora. Gure amandriak "aixel-harrapotzaillia" esaten txan (Joxeanjel, Gerneta Etxebarrikua)





Aixeixa, Benittok kontatua

Orduen aixeixak harrapau egin biher izaten zittuan, zeatik ardixak-eta hiltten xuain aixeixak. Eta aixeixa harrapauten zanien, zepuakin harrapauten gitxuan... Lotu hankak, eta gero, bizirik, makillan hartu eta itxerik itxe...

Neu be ibilitta nak; nere anaiak gehixaa, berriz! Eta Joxe-Txiki, auskalo zenbat ibilliko zan! Joxe-Txiki zuan oso aixeixak harrapauten artistia-eta. Araotz, Úrsula, Urúbarri... aixeixa akabo arte.

Leku baten txorixua emungo txain, beste baten bi arrautza eta... Pentza ik, oin prohibiuta daguen gauzia dok, baiña hori hola egitten zuan.

Nere anaia be Urrusulan ibilitta xak, Paulo Barrena, lotu hankak eta. Hankak lotzen xakuan eta gero muturra, hagiñetan zotza sartzen xakuan, gero bueltaka lotu, ondo asegurau eta bixkarrien ebalten zuan. Aixeixa gogorra dok e, hiru-lau bat egun ero, gehixaa igual, egitten xuan bizirik. Bizirik ebali biher zuan aixeixa. Hori, pentza ik, gaur animalistak ikusiko baleue!

Bildotsak jaten zituzten?

Ardixak umiakin egozenien eta, okerrak haundixak egitten xuain aixeixak. Han, esate baterako, Usakotxetik behera eta...

Bestela aixeixak ez xakuan inddarrik ardixa akabauteko, baiña erripatan-eta jarraitu eta jarraitu egin, eta beak bere burua hiltten xuan ardixak atzenien. Eta bea nunbaiten jausten zanien, orduen odola etaraten txain.

Eurak be golosuak zittuan, hemendik (lepotik) zulua egin eta odola txupauten txain.

Oiloak?

Oilluak be bai, eta konejuak begozen, konejuak be bai eta... Gero, handik urte batzuetara, Terueldik (Te-rú-el-dik) ero, aixal-harrapatzalle bat ekarri xuain.

Herrixak beak ekarri xuan. Hak bastante harrapau xuan. Baiña neuk be bastante harrapau txuat; lazuakin ero zepuakin ero...

Kobazuluetan, edurrakin eta, nun sartzen zan ikusi, eta gero zepua ifiñi han, koba atakan, eta... Horreik zulotxuetan sartzen ttuk, eta beste salidarik ez badakoi, ba seguruena dok...

Urteixeran harrixakin preparau holako lekutxo bat, eta han zepua ifiñi, eta han hartzen zittuan.

Ez zittuan lenengo egunien jausiko, e! Hamar egun igual barruen, e! Igarri egitten otzain, baiña gosiak larriketan zienien...

Aixeixa oso listua dok. Gu urtietan ibilli gintzuan Urtiagaingo Fernando eta kuadrillia aixeittan.

Guk urtian hogetakak harrapaitten gitxuan tiroz be, txakurrakin. Bai. Gaiñera premixotxua xakuain narruak...

Guk urtian afai bat oso ona egitten gixuan Urtiagaiñen gero, aixeixan narruakin.

Teruelgoa?

Ha pagauta ekarri xuain; gizon txiki bat zuan. Teruel ez, beste izen bat zuan, alde hortakua zuan.

Oso artistia zuan, e!

(Benitto, Ojala Haundikua)



Aixeixa,
Amparok kontatua

Aixeixa harrapau ezkerro, len esan doana, bixkarrien hartu, eta itxerik itxe.

Aixeixa bazan, bixkarrien hartu eta itxerik itxe ibilli. Baten batek arrautzaen bat ero pesetaen bat emuten baotzan, haxe batzen...

Aixeixa ero azkonarra ero holako zeak.



Amparo Zumalde oiloekin.

Erbixak, berriz, jan. Eta oin, berriz, hementxe danak bueltan erbixok eta aixeixok, danak.

Lenea aixeixak be harrapo egitten zien, zepuan ero lazuan, baiña oin ez. Batzun batzuk harrapoko ttue, baiña hemen ez xat iñori entzun harrapauten ttuenik.

Aixeixa harrapo ezkerro, len esan duana, itxerik itxe; aixeixa ero azkonarra ero mixelarra ero basakatua.

Lenea hemen Araozguak eta Arantzazukuak ibiltten zien, e; Araotzen harrapauten bazan, hau Araotz pasau eta Arantzazura fango zan; eta Arantzazukuak etorten zien hona.

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)





Aixeixa, Txomenak kontatua

Aixeixa ero azkonarra harrapo ezkerro, itxerik itxe, batzen.

(Agustin, Txomena)

Aixeixakin neu be ibilitta na. Gu neskailla mutikuak ibilitta gaz aixeixakin.

Eta pastoriak hala be betik emuten euen pesetia. Garai hartako peseta bat asko zan, eta ba bestaan batzuk erriela ero dirua ero jateko zeen bat ero; danak emuten euen zeozer.

(Enkarna, Txomena)





Aixeixa, Goittikuak kontatua



*Ezkerrean Jose Altube
Errasti, Joxe Txiki.
Eskuman bere koinatua,
Roman Guridi.*

Aixeixakin asko ibiltten zuan, baserririk baserri (Joxe Txiki, euren aita).

Geu be ibilitta gazez, e!

Hemen oin etxe artien ibiltten ttuk, baiña len ez zittuan ibiltten. Len zepua ipintten zuan hor haitzien... Haizgain aldera. Hor lekuak eukitten txuain.

Hor harrapo aixeixak, eta gero aixeixakin batzen, dirua batzen.

Bixkarrien hartu eta kriston usaiñakin.

(Joxemai, Goittikua)

Ze egiten zuten azeriek?

Oilluak-eta manejau, oillua libre ibiltten zuan-eta, lenaa oillua libre! Politta izaten zuan. Artua igual e, eta prrrr oilluak goora fanda eta artua prrrr bota, arta-alia, eta oillo danak hegaan artua jaatera etorten zien.

Oillo-mordotxua...

Egun osua libre eta igual kriston arrautza pillak, sasi-zuloon baten kriston arrautza pillak, eta oillua etorten ez, eta etorten ez, eta halakon baten kriston txitta pilliakin hor agerketan dok oillua.

Ikustekua izaten zuan.

(Joxemai, Goittikua)





Zakurrak



*Pilar Barrena,
zakurrarekin.*

Guk txakurak betik, bat e!

Betik txakurra.

Etxien, normalmente egoten zan atien, bordepeien lotuta, ez hola txakur fuertiak. Árgi zan bat, Árgi denpora askuen euki geben.

Ez naiz akordauten izena atzenenguen. Txakurra, nik uste dot, baserri danetan, nik uste dot baietz. Gurien bat, eta beste baserrittan be bat baiño gehixaa ez zan egongo, ate-txakur bat, ba zaunka egitteko, baten bat etorten zanien.

Lotuta. Betibe jare be egittten xakon, baiña ez oingo mouen.

(Jesusa, Aizkorbe Azpikua)

Zuenean bazen txakurrik?

Gurien be bai, eta aldekuen be bai. Hiru etxetan, txakurra.

Gurien txakurra bakarra.

Gurien be bai, Txantónenien be bai, eta Txurdiñenien be bai. Txurdiñenien ni mutikua nintzala ez zuan egoten txakurrik. Geruaa bai. Guria zuan "Li". Lenengo txakurra "Li", bigarrena be "Li", bigarren txakurra be... Txantonenien "Toni".

(Floren, Jausoro Garaikua)



Otala Haundikuak.

“Potto” zuan, baltza zuan, muturra zurixa xakuan, baiña baltza zuan hoi txakurroi.

(Benitto, Ojala Haundikua)



Mielen Txikiñekuak.





Pastoriak

Pastorerik bazen Aixkorben?

Ardixak, Úntzutenien, akordauten naiz ni, Úntzuten Txikiñien ardixak, Miélenien be ardixak uste dot eukitten zittuela (zituztela), eta Góittikuen be, bai, ardixak danien zeozer, e!

Hola pastore pastorerik ez, e!

Gehitxuen Úntzuten Txikiñien.

(Jesusa, Aizkorbe Azpikua)

Txabolatara igotzen zituzten ardiak, bazuten txabolarik?

Nik dakíala ez, bialduko zittuen igual Degúrixa aldera ero, alde hortara bialduko zittuen igual, baiña hola pastore pastorerik Aixkorben ez eguen, e!

(Jesusa, Aizkorbe Azpikua)

Eta pastore be bai, e, pastore be nik lau bost urteaz lo egitten neben, e! Aittajuna zanakin.

(Rikardo, Agerrekua)

Andráan nortzuk ibiltzen ziren pastore?

Máñarrok-eta ebalten euen hori.

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)

Zuen etxean pastorerik izan zen?

Ni ez naiz akordauten. Entzunda badakot ardixak egon ziela. Neu ez naiz akordauten.

(Jabier, Etxeberri Txikiñekua)





Aixeixa, Amparok kontatua

Ardiak nora bidalten zenituzten?

Ardixak basora bialdu eta hor ibiltten zien, Zamálbire eta hor ibiltten zien urán...

Uran ekarri barik be bai era baten...



Bittoina zelaian.

Jaizten zenituzten?

Bai, kaikua izaten zan zea hartzekua, esnia hartzekua kaikua izaten zan. Neskailla batek eutzi lepotik, eta bestiak jaitzi; gehixen neuk.

Ni itxera geldittu nintzan, itxerako, zortzittik neu apartau nindduen (ninduten), burdixa kargauten-eta atrebida samarra nintzan, ez nintzan oso gizena eta zea baiña, eozain gauzai heltzekua, eta neu itxi nindduen itxera, zortzittik, eta neri geldittu xaten etxia.

Ardixak jaitzi biher dien denporan hemen, itxera ekarri jaitzi biher dien denporan. Eta gero bialdu zeara.

Gaztaiak egiten ikasi zenuen?

Bai, bai, ointxe be egingo neuke nik gaztaia; eskuakin egitten zien, ontzitxo batzuk zulotxo batzuket egoten zien, eta eskuz.

Lenengo gátzaixa bota, eta bea gogorketan da, eta gero dana nahastu, eta gero batu. Eta gero, ha gaztaian urtxua gázuria izaten zan, eta ha gero, tremesa -erreondoko ogixa mouan izaten zan-, eta haren tajaria ebai, eta zati-zati egin, eta katillutxuen han behien...

Eta gero ganauen esne apur bat bota, t'egosi egitten zan. Eta nola gatzaxa-eta euken, mamiña egitten xakon, eta gero ha mamiña afaitten partiu, eta tremesa nahas-nahas egin eta oso gozua izaten zan.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)



Ezkerretik: Araxeli Elkorobarrutia, Mielena. Esther Zumalde Mielen Txikiñekua eta Arantxa Orueta, Aizkorbe Aldekua.

Degurixako itxabolia, Manuelek kontatua 1

Gure itxabolia zan Degurixako itxabola haundi ha. Eta jabiak bi giñan. Nere primo bat, Errástikua eta ni.

Gure gurasuak egin euen ha itxabolia.

Nere aittak ez dakitt ze erare euko eben ha egin euenien, baiña gurasuak eginddako itxabolia da.



Manuel (goian eskuman) lagunekin.

Nere amen aitta, ha egongo zan erareik onenien orduen, ha egin zanien. Egin euen itxabola haundi hori bik, aitten aittaiñarrebak eta aittak. Nire aittak bere aitta hildda eben ya orduko, hildda zan, eta aittaiñarrebak eta nire aittak egin euen hori itxabola haundi hori.

Zelaixen erdi-erdixen, itxabola haundi ha, lau ateko itxabolia. Eta gero ha ezautu geben guk... Zazpi urtekin ero hola fan nintzan ni.

Orduen ikusi neben nik ha lenengo aldiz. Eta pastoriak euren itxabolatxuak eurendako eukein. Eta ardixak jaizteko zerrauria, eskortaak, ardixak jaizteko.

Ardixak barruen ez euen egitten lorik, ardixak kanpuen. Hobeto egoten dira gaiñera kanpuen.

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)



Degurixako ibilaldiak, Manuelek kontatua

Pastore horreik igoten euen mariatzien aurrenetan. Maiatzen (maiatzaren) hamarrerako danak izaten zien mendixen.

Horreik egunok dira mendirako egunak, ganauak mendira etarateko egunak dira. Gero bearra zelaittan atzera ebateko egin egin biher izaten dau. Eta kendu egin bihar dira. Eta gaiñera eurak be mendirako desiauten egoten dira, ardi horreik.



Ezkerretik: Maximo Zumalde (Maiñatti-behekua), Uribarriko Gorordoko Roke Kortabarria, Hilario Igartua (Garaiko-haundikua), Manuel Goitia (Gerneta-handikoetxekua), Narziso Bergara (Txaton-balduena), Julian Zumalde (Maximoren aita).

Bajau egitten zien mendittik... pastore batzuk lentxuua. Pastore batzuk jaisten zien, San Mielak, "primeros de otubre", esaten dana. Bajauten zien negurako behera, beheko basuetara. Mendi altuen geraketan zien hiru bat ero, gerotxuua bajauteko.

Hola izaten zan hori orduen.

Araba parteraiño mendi zabalak dira, eta uraan ardixa kanpuen ondo da (dago). Kanpuen. Barrurik ez dau biher ardixak haiketa negua sartu artien.

Ez da ona!

Nik egitten nittun jaitzi mendi hartan. Eta lo egitten neben, beste pastore baten itxabolaan egitten neben lo.

Hurrien euken larogei urte, harek agura harek.

Hori da Ursábalgo itxabolia. Honeik dira apolidua, Bengoa euko daue, Ursabalgua.

Ardixak han izten zien, eta hemen (Araotzen) lana ugari.

Orduen tratorerik ez eguen. Irixak uztartu eta labrautera. Artuak, patataak...

Eta illunkaran, zaldixen faaten nintzan, e... Illunkaran nahikua berandu.

Eta zaldixa itxi Degurixako zelaixen, eta han ardixak Andarto mendi hortan egoten zien, eta haik batu, jaizteko lekura. Jaitzi, eta gabeko hamarrak... Gehixaa! Jaiztera orduko, hamaikak igual hurrien.

Eta orduen agura hareana lo egittera.

Ni etxien afalduta faten nintzan, eta aguria be afalduta egoten zan orduko. Eta kontualditxo bat egitten geben sutonduen, eta lotara. Ohien sartuaz bat, lokarrasaka jarten nintzan.

Oin gura neuke hala lo egittia, orduko moruen!

Egunero?

Jaizteko denporan, egunéro. San Pedruak arte. Gero antzutu egitten zien. Hiru bat hillabetien jaitziko zien. Mariatza, eta junio, eta juliuen erdi pasa arte.

Hiru hillebete, mendixen jaizten zien.

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Itxaboliak sua hartu, Manuelek kontatua

Han (Degurixan) badakitzu ze pasau zan gau baten?

Nik egitten neben lo etzan orduko... Eta gau baten pasau zan, aguria nagixa danien... Nagixa izatia ez da ona, baiña fiñegixa izatia be, ez da ona...

Agura harek, goizien sua... Kafia hartzen geben, kafia hartu eta ardixak jaiztera... Eta egitten eben mendiko illarra iarrak, suen gaiñien... Goizien (sua) aguro pizteeko gertu eukitten zittun han.

Eta su-apurren bat itxi eben itxabolaan, eta orduen etorri zan hego-haizia fuertia. Txispaak illarraak hartu, eta itxabolia sutan. Goizeko ordubittan.

Ni lo seko. Ni mouen lo egittekua izan balitza, bixok han erreko giñan.

Dudarik ez, e!

Bea jaitten zan txixa egittera ordubixak inguruen. Betik jaitten zan. Claro, erareko gizona zan, eta erarekua danien, ba txixa sarrixaa egittia sortzen da.

Eta “Manuel!”, eta “Manuel!”. Eta ni lo gogorrien ninguen. Susto ona! Salto egin neben. Hango keia! Arnasarik ezin hartu.

Bea kanpotik diaarka. Urten neben kanpora. Sutan baxoien aurrera itxaboloi, goittik aurrera. Ez eguen beste pastoriai hotz egitten ekitteko astirik...

“Ekarri baldia!”.

Eta deposittua euken beak, eta ura etara eta bota, etara eta bota... Azpittik, behetik goora.

Han ez eguen frakarik jazteko astirik, e...

Eta ba itxungi geben. Erre zan goi partia. Itxungi ez bageu, dana erreko zan.

Baiña itxungi egin geben.

Baiña bai ler egin be, e!

Ler egindda geratu giñan itxugittera orduko. Aguro ibilli biher zan, e!

Etara eta bota, etara eta bota...

Domiñau gebenien, etzan giñan artien kamañaan puska bat eta...

Baiña gehixaa ez neben nik begirik zerrau.

Teillaatua dana barrixa jarri gotzan. Egurrak erre egin zien. Eta zela konpondu? Bueno, hemen (Gernetan) teillaak, koñatuai sobrauta banekixen egozena. Eta neuk jasoko nittula teillaak.

Hartu gittun, zaldi ero asto, bost kaballerixa.

Eta mutil bat, hango pastore gazte bat neurekin. Guk teillaak jaso, eta hango pastoriek-eta arrimau zien eta teillaatua kendu, guk jaso... Egurrak danak preparau zien, eta “di-da!”.

Hogetalau ordugarrengo atzera gertu, konponduta itxabolia.

Eta gero jarri giñan martxan atzera.

Orduko eraria baneko oin... Ha badaukot!

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Múxibargo pastoria, Manuelek kontatua

Esnia zaldixakin ekarten geben, hemen (baserrian) gaztaia egitteko.

Haik egitten euen bertan gaztaia (Ursabalgoek). Haik egitten euen bizimorua bertan. Nik etxien egitten duan moruen, haik han, haiketa antzutu artien, ardixak. Eurak ez zien faaten. Suministrua altzauten osten itxetik, astuen, asterako suministrua.



Claudio Goitia, Manuelen aita, Gerneta Handiketxean.

Hamen nere amak egitten eben gaztaia. Nik ez neuken astirik gaztaagiñen ekitteko.

Hango pastoriak domekia aillauten zanien, mezetara etorten zien hona, elizara. Hamarretako mezia entzun, eta mendira, e!

Gaur hola bizimorua egingo balitza, krisirik ez litzake aillauko. Ez, ez, egon seguru! Baiña gaur beste pentzakera batzuk, beste dibersiño batzuk, gastuak be haundixak...

Orduen pastore batek esandakua... Ni mutikua nintzan. Eta aitta neriakin fan nintzan hara.

Eta Múxibarko aguria, Pedro euken izena... Ondo goguen jaso notzan, mutikua nintzan, zortzi bat urte ero hola... Múxibargo agura horrek egitten eben kasik bizimoru dana han.

Arbizale gogorra, eta pastore ona gaiñera.

Bere alimentua, egunekua, txakur-haundi bat, hamar zentimo. Hamar zentimo bere alimentua kostaten zala. Baba-baltza, ardorik ez, e, ura... Baba-baltza, eta ogixa.

Goizien... Araba partien euken ardixak, uraazkena, eta orduen ba Araba mendixen hobeto Degurixan baiño egoten zien, eta han. Eta bea faten zan ardittara, itxi lapikua egosten, baba-baltzak egosten, e... Hartuko eben gaztae koskorren bat, ero ogixa ero... ardittara fateko.

Eta eguna emuten eben Araba Mendixen kaltzia egitten, lania eruenda. Kaltzia, kaltzaak, eskuz. Eta onak! Ardi-ulezko kaltzaak.

Eta esan duana, horrek aittona horrek Araba Mendira erueten eben poltza baten ardi ulia. Eta gero harixa egin kaltzaak egitteko. Irun be egin biherko eben. Eta kaltzaak egin.

Denporarik alperrik galdu baarik han.

Eta atzalde beranduen, ardixak ondo ikusitta itxi, eta txabolara bajauten zan.

Eta babak, erreta baegozen be jan egin biher! Tenple-tenplien egotia be ez zan erreza. Han ez eguen etxeakoandrerik, eta uezaba Araba Mendixen.

Etorten zanien badakitzu ze ekarriko eben? Apetititu bikaiña.

Hobetotxuaa egositta, gaizkitxuaa, jan!

Eta haik jan uraaz (uragaz), eta ogi puska bat haikin, eta gaztaa puska bat, eta arrea!

Gaur be hola hasi ezkerro, bizimorua ez da zailla. Baiña hola hasi biher da, e! Hor ez da (dago) gaupasarik!

Egoten zien (ardiak) Degurixan eta Araban be bai. Ardixak igoten euen lo egitteko mendi altura faten da ardixa egualdixa bape ona bada (badago), alturan.

Eta gero sartzen zien Araba partera be bai. Eta horrenak, Múxibarguak, egoten zien denporale hortan Araba partien. Bea zan pastore bat, ba, ona. Bestetik itxeko lanak nok iña (egina) ba...

Semez Maringua ero zan, horra Múxibarrera etorritta. Eta itxeko lanak bestiek egitten zittuen, eta beak ardixak, ondo zainttu, e, ardixak, ondo zainttu!

Baiña hamar zentimo, e, eguneko gastua. Hamar zentimo!

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Pastore kontuak, Manuelek kontatua



*Manuelen andrea,
Angela Unzurrunzaga
Arratibel, Araotz-Urtiko
Etxebarri Haundian jaio
eta Gerneta Handieke-
txera ezkondua.*

Gehixentzuak izango zien jabiak (Degurixako pastoreak). Errentan akaso bakarren batek? Baiña ez dot uste. Horreik euren itxabolak eukein, pastore horreik. Eta esan duana, marietzi en igoten euen, aurrenetan.

Jaixetan (igandetan) mezetara hona.

Gerora, aurretik hori be ez euen igual egingo, gerora egitten euen uraan, Korpus egunien bazkai bat hamen (Araotzen).

Orduen mezetatik jaaisten zien, Korpus egun hortan, enkargauta eukitten euen bazkaixa. Ez zan izango, oingo mouen, langostinuak eta hau eta bestia, e!

Izango zan oilloon bat, oillo-saldia lenengo, eta gero oillua saltzan.

Eta bazan aittajuna bat, melakotoi potekua jaatiaatik... Neu oin letxe desgastiakin kojua zan. Baiña fango zan kilometro morduen igual, e! Melakotoi potekua jaatiaatik, gizonak hak, eneeeee.

Beretako ez eguen halako postrerik, melakotoi postria. Lenengo bazkaldu eta gero ha gaiñien, eta gero fumatzaille bat zan... enda purutxo bat eta kopatxon bat ero beste. Eta mendira eleante!

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Degurixaren jabetza, Manuelek kontatua

Ardixak egoten dien terrenuak, zati pastoriena eurena da, Degurixako pastoriena, haik ez eukein alkilau biherrik. Zelai ha, Degurixa dana, eta zelaittik gaiñera be bai.

Eta geuria be bada zati bat, dana propieradia da. Han ez da (dago) hau Atxabaltako herrixena da ero hau Oñatikuana. Ez. Han partikularrak gara. Han libertare dana dakuai pastoriak ibiltteko, deretxo dana dakuai, eurena da mendixa eta.

Eta gero Arabara mendira... Ba arabarrak ba bai, eurena defendiu egin gura haik be. Baiña nola eurenak be hona pasauten dien, hamenguek be Arabara. Batak deretxua badauko bestiek be bai. Eta bai, hor zerbaitt urten eben, baiña ezin...

Hori hola biher da, alde bittara libertaria biher daue.

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)



Itxabolak, Manuelek kontatua

Harenarrixa onena paretak egitteko.

Eta len itxabolak, garai baten zea, lurrakin estalduak, soixa esaten xaten. Baiña gerora mejorauten beti pittin bat...

Gero teillakin, teillatuakin.

Gero oin urte honeittan berriz, obra haundixak... Eta sukalde ederrak daukai egindda, refugixo mouko txabolak be bai hiru-lau bat, oso onak.

Eta hori ez da egitten porai gaupasak egindda egitten, e! Hor egin biher da, nik esan duana, baba-baltza jan, ura erateko hartu, gastorik egin baarik, eta gero txabolía mejorau. Txabolía mejorauteko dirua aurreraketan...

Eta oingo gaztiendako aittajunak ero aittak ero amak eginddako txabolak, ederrak txabolak!

Bakaziñuetan fango gara!

Baiña ez hara fan biru (biher dou>bidou>bidu>biru) gaur, eta hurrenguen holako tokittara fan birou eta bestia egin biru eta...

Horreik egindda ez, e! Ezpara eze (sino que), zintzo jokatu eta lana galanki egindda!

Ardixak itxabola onduen eukitten euen jaiztokixa, jaizteko tókixa, eskortia. Gero txabolía aparte da (dago). Ardixa ez zan itxabolan sartzeen, ha personendako da, ha pastoriendako itxabolía da. Eta ardixak ba onduen. Zeatik esnia jaitzittakuen “da!” gatzaxa emoteko eta itxabolía hurrien biher dozu, tenplien esnia harrapauteko han, eta horreik danok hurrien.

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)



Lenagoko eta oraingo pastoreak, Manuelek kontatua

Lenaa makurtuta ardixak jaizten zien, eta oin jarritta daz honeik, jarritta jaizteko traste honeik. Onak.

Ikaragarriko adelantua da hori.



Manuel ezker-ezkerrean, familiarekin.

Nik ez dot hori ezautu neuk jaizteko. Baiña oin ikusi ttut. Eta adelantua enormia da, kantzauta dabillen gizonendako hala be.

Oin, mendixen gazte bat danien, eta bertan bizimorua egitten dabenien, ha ez da (dago) kantzauta, ha deskantzuz da (dago), harendako ez da hori lana! Baiña gure mouko gizonak...

Lan askokin dabillenendako, han jarritta ardixak jaiztia, hori ikeragarriko bentajia da.

Baiña lenaako pastoriak ez geben euki ezeben be bentajarik. Oin pastoriak bentajatxo batzuk badaukai.

Baiña nahikua ez. Nahikua ez!

Hori onduen dakixena da pastoria, laguntasun horreik noraiño aillauten dien.

Eta ondiok ez diela aillauten biher dien maillara!

Eta gero, eskolako pastoriak, ez'tet ezebe kentzeen. Baiña pastoria mutikotik, txikittik, berez sortua, ha da nausi.

Hari ez xaue konpetiuko horreik.

Usteko daue, baiña ez.

Horrei'tia (horreik dira), zuen mouen, eskolaz (ikastiakoak). Teorikamenten doiezenak. Hemen pratika biher da. Hori da nausi.

Teorikia ona da, baiña pratikia da nausi.

Ha apurtuko dan (dauen) teorikarik ez da (dago). Pastore ona datorren mutiko koskorra... Txikittik (txikitatik) biher dau, e, txikittik...

Nire amak esaten eben bi urte nittunerako ardixen ume-garaixen bazkaitteko falta. "Aber arteixen daguen ardixakin". Eta han, mutikua! Han e, fanda.

Horri betenarixo horri esan notzan, biher dala izan pastore on batek urteteko, ttiki ttikittik.

Eta itzua, e, ardixekana.

Ez daguela profesore hobaarik ardixa bea baiño, nola bea tratau biher dan irakusteko mutiko horri.

Mutikua zain da (dago), mutikua alerta da (dago) eurakin, aber nundik onduen, ero nola faten dan onduen, mutikua antz emoten da (dago), hamendi hobeto, horti hobeto.

Han saiaketan da. Bestiek aindduta egitteko lanak ez dira horreik! Horreik norbeak egin biher ttu, norbeen buruen sortu biher dira, ardi horrendako bentajaak.

Eskolara fan eta hau eta bestia. Bai, ikesiko dau. Ederto. Eta esamiñauko da, eta ondo da (dago) hau... Hau preparauta da (dago), bien.

Baiña beste hori, ttikittik etorri dan hori, hori da (dago) hobeto preparauta, beste pastore hori.

Modernua'tia (modernuak dira) honeik oinguak, esate'stet nik "modernos". Hala dira eta.

Baiña lengo erara... Ardixak aurrera etarateko, lengua da nausi. Hatik (hargatik), pratika biher da...

Pratikau egin biher dozu zeure buruakin konfiantzaia eukittek.

Nik ardixak tratauteko konfiantza osua euki dot. Bakarrik falta izan xat neuk gura duan mouen erabiltteko posiblidadia.

Zeatik ardi-larraak be ez egozen, eta larra justuakin pastoria egitten da penau, ardixak gaizki ikusitta, e! Ez da bizi gustora. Ardixak ondo ikusten ba-ttu pastore onai ez xako ezebe falta, nahiz-da baba-baltza janda bizi.

Horreik hola dira.

Eta ez noia oingorik bajautera, eta linguak altzautera be ez.

Baiña normala bizimorua, lengua zan zintxua, justua eta saiatua.

Saiatua, e!

Hemen saiatua ez danak, pinttauko dau segun ze maillatan daguen. Baiña mailla bajukuak iñok be ez, saiatua ez danak. Saiatua danak... defendiuko da.

"Por a base de luchar", erderaz esaten dana. Hori gogorra izaten da lutxa hori.

Gutxi irabazi? Gutxi gastau! Ha defendiuko da.

Baiña gutxi irabazi eta asko gastauten ekitten bada, jai da (dago), e!

Han ez da (dago) ze egiñik!

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Pastoreen erlazioa, Manuelek kontatua

Bata bestiai premiñia eguenien lagun egitten gotzan, ezta?

Izaten zan igual billotxak apartau bi'ria (biher dira>bidia>biria), ekarri egin bi'ria, eta bakarrik egitteko lan txarrak izaten zien, eta orduen, bueno “ardixak jaitzittakuen ni etorriko naiz apartau eraittera, eta martxan ifinttera”.

Horreik tratuok beti, alkarrekin.

Han zan libre dana, zuk letxe nik, eta nik letxe besta batek, eta libre. Han ez eguen pegarik. Libre ardixak. Hala biher be!

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Degurixatik baserrira, Manuelek kontatua

Antzututakuen itxeko lanak egittera eurak, pastoriak bajauten zien.

Ardixak mendixen, e!

Ardixak ez dau biher han makilliaz onduen iñor. Ardixa bere aidera biher dau, bere aidera rekorriu biher dau ardixak mendixa.



Gernetako baserriak.

Eta etxien eukitten zittuen (zituzten) lanak, bearretak eta lanak.

Eta itxera bajauten zien eta gero zortzixen ero, eria hartzen euenien, ardixai bixitta bat egittera, medikua gaixuui faaten dan mouen...

Joder, oin e, jaixa noiz ailleauko hara faateko, hona faateko...

Guk lana ler egiñaz astian, ardixekana faateko desiauten, jaixa kontauta.

Eta jaixen be bearretarako-ero giro onak ba'ria, ezin ailleau. Lanbro-eguna ero laiñua sartzen bazan, orduen faten giñan, hamen bearrien lanik ez bada (badago), eskapadaan baten ardixak ikustera, ze barri daguen.

Kontrolau? Arranetara. Laiñua itzu eguenien eta hola, arranetara. "Hólako tókittan egongo ttuk giro honeaz..."

"Da!", han arranak. Yasta. Guk arranak baikotzak beriak danak ezauketan gittun, belaarrixin. Eta baitta beste pastore askon arranak... danak ezauketan nittun nik.

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Ursabalguak, Manuelek kontatua

Ursábalguak, bi anae zien, Lauriano eta Luxiano...

Bengoa apellidua uste dot dáukailla.

Haik hil zien.

Nik bixakin egin neben lo. Lenengo egin neben Luxíanokin. Eta gero Lauriano horren itxabolan egitten neben. Baiña gero Lauriano egon zan ardixak kenduta...

Eta ipiñi egin eben errebaiñua atzera.

Gero ha etorri zan eta ba bixendako leku gutxitxo eguela eta Luxiano, bere itxabola zahartxo bat han behien, eta hara.

Eta harek gura ni hara fatia, eta bestiak gura ni han goixen geraketia!

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)



Ardiak garaiaren arabera, Manuelek kontatua

Fetxak aillauten dienien... Zuk, e, konparaziño baterako jo izu, San Fermiñak. Badakizu noiz dien... San Fermiñen fetxa inguruen, gure ardixak Degurixatik eurak mobiuko zien horra, e (Araba Mendira), euren lekura. Haik ez euen handi aurrera Degurixan egoterik gura izaten. Toki hobia. Jana euren gustokuagua hor.

Oin, San Fermiñak aldera artien Degurixan gustora. Haitz-bear fiña eta...

Baiña gero ekitten dira sikaketan eta pobreketan.

Eta amosferia be Araba Mendi gain hortan, hamen norte aldera pasau ezkerro freskua da. Eta ardixai berua baiño gehixaa, garai hortan, freskua gustauten xaku (zaio), eta horra faten zien gustora.

Guriek be bai eta Degurixako zelaittik be aguro gaiñera egualdi ona bada (badago), Araba Mendi gaiñera.

Enjéneral gora, lo egittera, goiko gaiñera.

Araba Mendi gaiñien lo egin, eta Degurixako ardixak jatziko (jaitsi) zien hamar hamaikak aldera goizien igual, behera, zelaira. Zelaixen saio bat larran, girua bada (badago), egin. Eta gero atzalde-erdi berandutxuen, mendira atzera, eurak. Goiko gaiñera, lo egitteko.

Eta gaiñera larria be eskaketan doste... Zuk, e, platora jaaten dozunien, gero bigarrena eskatuko dozu, ezta? Potajia-ero jan, eta ba bigarrena.

Eta horreindako zan, lenengo Degurixan saio bat. Baiña han kantzau. Eta oin Araba Mendiko zea, larria gura. Lo egiñaz gora.

Jaizteko garaixen gutxi egoten zien han gaiñien. Igoten euen gabien igual, baiña goizien pastoriak igo biher bajautera, jaizteko. Gutxi izaten zan hoi denporioi. Segun ze denporale doien.

Denpora aidosuakin ardixak goora gura dau, eta gabien jare jaitzitta. Jareten osten, eta ba, ekitten zien han larran, atzera aurrera, atzera aurrera. Eta hala be, iatargixa suertauten bada gabien, hori izaten da espabillauten dana (duena) ardixa.

Hor gaberdi aldera ero, iatargixak... Arte-artien etzindda egon behien, eta urteten barau, bixkarrai astinkaa bat emun, eta baduaz, larran behetik gora.

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Baserriko lanak eta pastore lanak, Manuelek kontatua

Garixak-eta ereitten zien, eta mendi puntatik, hamen haitz bat zelaixen badakitzu zela dagueen... Hor be bada (badago) kurtze bat, eta horti abariak botaten eben bereinkaziñua, harrixa-eta jausi ez dain. Ez ardixakatik, ezpara eze (sino que), joño, garittik ogixa egin biher da, eta garixak-eta triskillau ezkerro, ba ez dakotzu, eta holakorik sortu ez dain...

Baiña bedeinkatuatik, sortzen zien iñoiz, e!

Euren arduria zan hori. Eta bereinkaziñua horti botaten euen...

Baserriko produktuakatik.

Orduen asko ereitten zan garixa, artua danetik ereitten zan. Eta lenaako zaharrak feria enormia be bai euko euen bedeinkatu ezkerro ez dalakuen egingo harri hori. Baiña tartietan egin egitten eben, e! Ez eben itxuria errespetauten bedeinkaziñorik.

Sartzen zanien tormenta txarra, alla voy!

Goizien jaitten (jaikitzen) giñan... Oin orduak aldatuta daz, bi ordu aurreratuta egongo da oin hau. Oin gu jaitten gara hamen, bastante garaiz, zortzirak... Eta lenaa seirak...

Gu seiretan... Gure horarixua izango zan han ikara egitteko, itxabolan. Berotu... Han ez eguen butanorik eta letxerik, e! Sua biztu biher zan. Haatik illarra iarrak!

Berotu aguro, eta kafe bero-berua hartu eta ardixak jaiztera.

Han jaitzi, ni etorri, eta nik gero hamen armozau egitten neben, etorritta, irixak uztarketako ero girua baeguen...

Hemen lana egoten zan buruz gain!

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)



Manuelen gogoetak (1)

Eta ha bizimorua akordau, eta oingua akordau, eta diferentzia enormia izan da, gure erare apur hontan.

Eta nere buruak esaten dau: “Ondo goietzek!”.

Baiña ya esaten hasitta da (dago) nere burua: “Zenbat aguantauko xok honek martxa hontan? Hau ya askotxo dok”.

Batzuk Ameriketari ziher, ez gaizki hartu e, bakaziñuetan, bestiek handik ziher...

Horreik danok erarien in-biria (egin behar dira), e.

Zahartu ezkerre jai da hamen!

Zahartu ezkerre, oin zazen mouen su-onduen (bere illobari esaten dio, sutondoan egonik hura). Ez naiz ni zalia, e, nik ez dot hor egonik egitten...

Baiña gazterik egin biher dira erreik.

Baiña, esan gura duana, aguantauko ete’ran honek? (ete dan, ete dauen).

Eta jarraitzen du lehengo kontuekin:

Zaldixen esnia. Eta gero hamen (Gernetan, baserrian) armozau, eta lana.

Lanak gogorrak... Igual bear-garaixen armozau eta segia... bear-ebatera.

Ez eguen makiñarik orduen. Segaz ebatzen zien.

Eta labrau, erietekuak bazien, ba irixak uztarrira.

Lanak billurgarrixak!

Gaur erreik lanok... Guk egin ttunok badakigu ze bizimoru egin geben. Oin halako bizimorua egitteko, persona asko gauza be ez.

Gauza be ez, e!

Hau neuk esatia ez da ondo egongo, Jainkuai eskerrak osasunez fuerte...

Eta gero inportantiena morala, gogua. Baiña gogua lanerako, eta ganaua aurrera etarateko.

Gogo berdaderua!

Orduen ez eguen Gomiztegirik eta puñetarik ikestera faateko.

Berez ikesi geben guk.

Oin hor ikestia, ba ez naiz kontra. Zeatik hemen adelantua biher da. Bestetik ez da (dago) urteterik aurrera.

Baiña ikesi bai, baiña pratikia biher da. Eta pratikia dator lutzatik. Hau artaldiau aurrera etara biher dozu. Eta faltako dozu dirua, faltako dozu eurendako jana, faltako ttuzu danak.

Eta harek mutikuak aurrera artaldia etara barau, horriek dira pastoriak!

Eta esan duana pastorien esamiña izaten zan esnia aber ze. Egualdi txarrak baria (badira), bajau egitten zan esnia.

Geure komentarixua, hor “parlamentua”, esaten dauen moruen, eukitten geben illunkaran gabien juntaera hortan “ñoo esnia zepoztu... Eta bestia eta...” eta “egualdi kaxkarrau, eta...”. Geure aitzakixak, e!

Ez holako lekutan partidua, eta hara, eta jaixen hara eta bestia eta... Holakorik ezebez, e! Dana bizimorukua.

Haatik, hala jokatu ezkerro ez dator krisirik.

Baiña oin goiezen martxan etorri egin biher dau krisisa, e!

Egon seguru!

Eta gaiñera esango dotzut, bizitten ikesten atzera iguel hasi bihera, mixerixia sartzen bada.

Cuidau, e, cuidau!

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Pastore kontuak, Manuelek kontatua

Zortziretan urteten neben hemen, zaldixen. Baiña gero goixen zaldixa izten neben, han haitzetara gora igoteko...

Andarto mendi hortan, hor ibiltten zien, eta han rrekorrua formala, e, ardixak batzeko atzera, jaizteko tokira batzeko.

Txakurrik barik ezin leike ezebe egin ardixakin.

Txakurrakin ohittutako ardixak, faten bazara txakurrik barik, ha ez da mobiuko, e. Jai da (dago) han.

Txakurrak personiak baiño buru gehixaa dako. Zenbat txakurrek... zu konbestaziñuan igual beste bateaz eta “da!” igarriko xaa “neureatik xabik zerbaitt esaten”, e!

Segiran jarriko da txakurra “de mosca” e, cuidau. Eta eratan beiratu egingo dotzu arpegira be, eta kontu, kontu txakurrakin.

Txakurrak asko dakixe.

Ordubetien hirurogeta hamar, larogei ardi jaizten zien. Eta listo ibilli biher da jaizten. Al-dala listo, zeatik eurak be urten-desioz egoten zien eta, ba, hanbaitt azkarren.

Eta gero, beheko lanak be buruen eukitten nittun, eta hanbaitt azkarren librautera handik.

Gehixen euki duanien euki nittun berrehun eta larogei inguru. Gehixenekua e. Berrehun eta larogei inguru. Eta ama eta bixok bakarrik. Aitta eta ama zaharrak.

Eta zure aitta eta honeik mutikuok estudixora (illobari ari zaio hizketan). Horreik hoge urtera artien ez euen euki denporarik lagun egitteko. Holaxe bakaziñuetan-ero puska bat...

Eta ardixekin, gurien, derrior biherrien, ama hartzen neben. Sekula ardirik euki baia 'tzien (eduki bageak ziren).

Bueno, lenaa-lenaa beorren amak bai, ardixak, baiña beoi ardixakin ohittu-baia zan. Eta ardixakin ba hoixe, neuk derrior biherrien argiketan nintzanien (agertzen nintzenean) hotz egitten notzan.

Jaaten ifntten eta hoi dana amak bai, e, neguen hemen egozenien.

Urte hartan jaixo zien ehun eta larogeta bi billotz. Gero antzuak izaten dira... Antzuak eta urte-billotzak eta aarixak eta aparte.

Ehun eta bi billotz jaixo zien. Ederrak gaiñera billotzak, e!

Bikaiñak jaixo zien urte hartan.

Bakarrik manejaute nintzan. Eta hemen lako komenentziarik barik. Ardi leku onak bai, baiña makilliakin danien zainttu biherrekua.

Hemen jare horra eta sail haundixak libre. Pastore lanik ez. Eta jare hona t'igual. Baiña han ez, e. Hau fulanona, hoi beste sailloi bestiena. Eta hemen saillien nik ebali biher, eta horreittan ezin, eta jode... Makilliakin han egon biher.

Hori kastigu gogorra izaten zan.

Mendixen libre dozu, danendako da. Han ardixak libre daz. Han ez dako zu horren kezkarik. Eukitten dozu kezka, ze pasau ete da? Ero txakurren batek hazañaan bat egin ete dan (dan, dauen), ero bakarren bat galdu dan, ero ez dan ero horreatik eukitten dozu (kezka).

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Aixeixak eta billotxa, Manuelek kontatua

Aixeixak billotxa bai, baiña aixeixak ardixa gutxi hillten dau.

Bilotxa bai. Bilotx txikixa gaztia aixeixak ardixai eruite'ste, umiek etaraten daguenien. Baiña ardittan aixeixak inddar gutxi'rako (gutxi dako), eta...

Txakurrak izaten dira ardixak hiltten dauenak, txakurrak! Txakurrak izaten dira ardixak manejaute dauenak, parte.

Nik esango neuke aixeixak bat galtzen badau, txakurrak hamar galduko ttuela.

Hori egon seguru.

Aixeixak ez dako inddarrik.

Ni aixeixa ikusitta na... Ardixa botaten eben lurrera eratan, eta hainkak egin, eta sangrauten ez azertauten.

Eta ardixak inddarra. Jaiki, eta ospa.

Atzera be bota eben lurrera, eta ospa!

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Lengo pastoriak, Manuelek kontatua

Ardi zaharrek zenbat urte?

Beatzi... Horreik ardi-zarrok zelaira ekarten zien, gizenketako. Entendiuten dozu? Ardi-zarrak egitten zien apartau, eta zelaira ekarri eta gizendu.

Zelairik ez eukenak ebalteko moruik, flakuaa egoten zien, eta flakua daguena flakuen preziuen. Segun zela daguen. Gizen bada (badago), gizenak holako prezio, flakuak halako.

Ma (baiña) hamen izaten zan hainbeste bear, eta guk gizendu egitten gittun.

Inportantia zana zan jaten emutia (ardiei). Horrek ebalten eben orduen pastoria gaixki. Orduen ez eguen.

“Hankabakarra, alfalfa ekarri biher dou!”. Ekarri.

Bearra? Ifiñi.

Dana, gura dan beste.

Horti pastore ona izatia oso erreza da.

Baiña ezer baarik ardixak aurrera etaratia, eta itxura baten etaratia? Horrek dako meritua.

Eta oinguak ba, honeik lenaakuak ezebez joko gaue.

Baiña oinguak aiña bagiñan. Eta gaizki egongo da nik esatia hau...

Ni ez naue billurtuko, nahiz preguntia egittera badatoz, nahiz zer egittera badatoz.

Eta esango niskio erozeiñeri, daukoan (daukadan) mouen, larogeta sei urte egin biher ttut oin egun gutxi barru esateko ya, onddiok ikesten noiela neu, e! Ikesten e, onddiok!

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)



Pastorearen zakurra, Manuelek kontatua

Koloriak ez dau ezer esan gura. Da txakurren izatia. Izan biher dau atentua.

Txakurrari ez makillarik emun, e, ez. Gaizki egin badau, arpegi txarra ifiñi, eta zerbait hasarre egin. Baiña jo ez egin. Jo egitten badozu, adios Madri! Galdu zan. Txakurrak galdu dau konfiantzaia dana.

Eta gaizki egitten daanien (daanien, dauenean), norbeak sufriu egitten dau, baiña aguantau egin biher dau. Al-dala aguantau. Eta demostrau ez dala (dauela) ondo egin. Hori demostrau. Baiña jo ez egin.

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Arratibel, Manuelek kontatua

Arratibel euen apelidua, Prudenxio Arratibel. Oso gizon onrraua. Eskolarik ez ekixen ezebe, “ni mu!”.

Anrriak bai, anrriak eskolia.

Eta hori zan pobre bat. Ezkondu zien horreik txakurraundi ba'paarik (bat baarik), Arratibel hori. Baiña listua zan, eskolarik ez euen, baiña listua zan.

Eta gero jarri zan kriaui, ezkondu eta gero, e, kriaui egon zan hori herriko ganaua zainketan mendixen.

Herrixak, ganaua botaten euen mendira, pastoriaz, eta hori egon zan pastore.

Gero pentzau eben, oillaskuak eta erosi, arrautzak... Eta Oñetiko plazara handi, bihorrien hartu, arrautzak eta oillaskuak, eta plazara.

Saldu hor, eta atzera hara.

Izango dira, zenbat kilometro, Oñatittik Larraa? Hogeta hamar bat kilometro oiñez egindda (joan etorria).

Eta oillaskuak eta arrautzak saltzen bazittun, gustora.

Ze diru etarako euen horrekin?

Eta gero ekin zan, ardi-zarrak erosi, aldiko pittintxo bat...

Han sukaldien, ni mutiko fan nintzan aittai eruen eraittera ardixak, eta hoi tximinixioi (euren etxekoa) baiño baltzagua zan sukaldia dana. Han ez zan mantxarik notauten. Eta esango nauke adelantu bat zala. Garbiketan ez dakotzu lanik! Ha betik kolore baten eguen! Eta hori dotore ifiñttia adelantua dala? Bestia bea haundixagua. Lanik bapez harek.

Eta ekin zien ardixak hiltten, ni mutikua, zortzi bat urte ero hola, aitten lagun fanda.

Eta gaiñera, hori pobria nola zan jentia, ez zan fixauten emuten hola erozein moutan.

Eta saldu otzan aittak, eta hil ttu ardixok. Anrria bea onddiok karnizera hobia gizona baiño. Anrria tremendua ardixak narruketan.

Esei ttu ardixok, pixau ttu, eseittu ttu eta “da!” dirua maixen.

Kontua etara eben anrriak ti ta ta ta, esato! Ez dakitt beraatzi ero. Zortzi ardi eta araixa ero zien.



*Claudio Goitia,
Manuelen aita.*

Bazkaixa ederra. Niretako ez. Nik okelarik ezin neben jan orduen... Niri etara nostan ez dakitt zer.

Dirua pagau eta...

Eta gero propaganda enormia egin eben... “Claudio, si alguno tiene ahí para quitar, ya iré yo a comprar, e?” Eta gero aittai preguntau otzain ze barri, eta jode, hobeto ezin hartu. Dirua “da!” eskuen, bazkai ederra...

Eta hamen badaukotzue iñok, etorriko dala...

Eta gero danak beana.

Eta ekin zan hola, inddarra hartzen... Gero egin eben itxe barrixa be... Restaurantia Larrakua da Arratibel horrena, aittajunaandik sortua da hori.

Oin ikeragarriko restaurantia da (dago) han.

Hasi zan inddar apur bat hartzen, egin eben gero itxe barrixa, sukaldia be nahikua ona, tabernia, dendatxua be bai, gero ganau-saltzeiak, eta aurrera...

Anrriak plumia.

Beak ezebez, beak ez ekixen eskolarik.

Baiña bea listua, e!

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Gaztaia, Manuelek kontatua

Gazta zuk egiten zenuen?

Ez, ez, amak. Nik ez neuken astirik gaztagiñen ekitteko...

Lenaa egin biher izaten euen eskuz. Eta eskuz gaztaia estuketan denpora asko faaten da.



Manuel familiarekin.

Eta hemen bazan agure bat, Aloña Mendi hontan, atzien, ba denpora asko biher, eta loguria itxuria.

Eta pipia erreten eben. Eta entzunda hala dakot, eta hau egixa da, hau ez da kontua.

Ze pasau xakun (zitzaion)? Pipioi jausi xakun itxuria lo daguela ero, eta mamin artien pipia suertau.

Sartu hor eta akordau ez bea. Akordau ez ze pasau zan.

Pipia falta ebena bai.

Arrastorik ez pipienik.

Eta gero, eskurziño moruen datorren jentia mendixen... Eta donostiarrak uste dot. Erosi xaue bi ero hiru gaztaa. Eta gero ebaten hasi'ria, eta argittu da pipia gaztaa barruen.

Hori egixa da, e!

Loguriak jo gizaajua!

Denpora asko biher zan baiña, bi ordu igual gaztaia estuketan, ero gehixaa igual.

Eta loguriak jo ebenien jausi xakun, eta gero ez dakitt ba zela, mamiñera jausiko xakun itxuria, eta gero akordau baarik barruen sartu pipia...

Eta gero ontzixen sartu ebenien, konturatu ez.

Orduko gaztagintzaia be...

Pastoria hona mezetara etorri aurretik eskuz egitteko, denporarik ez euen eukitten.

Ba izten euen, gatzaxa emun eta doiezenerako mamindduta egon dein gertu. Elizati urten eta faaten zienien, ha egin lenengo.

Eta ha estuketan ordu pare bat igual. Segun zenbatek. Batek esku hotza badauko, ba onddiok denpora gehixaa biher haren eskuak.

Enda esaten daue esku hotza gaztaia ona etarateko ona dala. Baiña denporia biher asko.

Gero prentzaak sortu zienien, joño, hori adelantua haundixa. Maminddutakuen, berihelaxe, haik bete eta prentzara, harrira. Hola aguro librau.

Hori be adelantua.

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Domekatan ardiak ikustera, Manuelek kontatua

Jai eguna, ume? (“Ume”, ilobari esanda) Zer danik be ez.

Esango dotzut, domekan...

Antzututakuen Araba Mendira pasauten zienien, hamen hainbeste lan izaten zan... Eta ardixak ikusteko desiauten, amorraturik. Eta ezin aillau eta...

Eta halakon baten, jaixen bearretia-ero egindda, eta ba egunsentirako Araba Mendi gaiña.

Oiñez, e! Orduen zaldirik ez neben hartzen hara.

Enda, kauen, han apur bat itxain egin biher. Artien ardixak mobiru baarik be bai, artaldiak... Arranak zein aldetan... Baiña mobiuten zienien, orroia, arranak, zaratia, eta “ta!”. Holoko lekutan. Hara!

Falta banakaan batzuk igual. Eta gustora danak ikusittakuen etorri! Bestela, bai baiña... Hain billa mobiru eta...

Gero mezia hamen hamarretan egoten zan.

Hamarretako mezetara etorteko ida (idea) osuan fan, ,eta ida osuan jarraitu, eta aillau ez!

*Eta nere ama zanak: “Jode, hori pekatu mortala, ez dakitt zer, badakitt zer...”.
Eta amari esan notzan:*

“Zuk bazekitzu nik korriu ttudan kilometruak zenba’tien (zenbat diran).

Eta mezetarako idian etorri eta hau demanda-zar hau entzutia hamen, zer dan

bazekitzu zuk! Honeik kontuok hola badira, ez da (dago) iñondako zerurik!

Nire gaurko ibillaria izan, eta hau demandiau hartu eta pekatu eta hau eta bestia? Ez naiz arduraketan ezebe. Ez da (dago) iñondako be zerurik. Holako ibilittako gizona...

Zenbat granuja egongo ete da, juerga egin eta meziai kasorik egin baarik aurrera tiratuko dauena. Horreikin ez zai akordauten ala? Neri horreik akordauten xat ba! Zer-ba, hamen abariak eta moja'pakarrik (mojak bakarrik) zerurako, ala? Euren birien ibilli biherko daue horreik be, e! Bestela ez da (dago) horreinddako be".

"Niria hau baldin bada", esan notzan amari, "errepetiu itte'tzut, ez da (dago) iñondako be zerurik, hau pekatu baldin bada. Ni ibili naizen mouen ibilita. Ez naizela ailleau... Ez naizela ailleau? Justuan nintzan, e!".

Nik ez neben jazten denpora asko biher. Ni laister jantziko nintzan. Faaten be ez asko. Baiña mezia pasau eta gero faatia, ba alperrik faatia da. Eta bapez.

Oin esate'stet, oin zenbat faaten da ba mezetara? Eta horreik ardittara fan baia'tia (baiak dira)! Horreik etxien daz!

Eta ler eginddako gizonari, "hau da pekatu..."

Bueno, bueno...

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Manuelen gogoetak (2)

Bizimorua, bueno... Nik ondo dakitt, eta nire erarekuak be bai, gure garaikua ze izan zan. Eta oingua.

Eta nik oinguen ikusten dot “fracaso que va a venir!”.

Frakaso!



*Ezkerrekoa Meltxor Urkia
(Gerneta Etxebarrikua).
Eskumakoa Manuel Goitia
(Gerneta Handiketxekua).*

Eta frakaso hori etorri birau (bihar dau>bidau>birau)... Danok ondo gura dou, danok ondo, "hi ondo, ni hobeto". Danok ondo.

Eta hemen saiatu biherra da (dago). Beste danak kontua'tia (kontuak dira). Danak! Eta hamen kontutik ez da (dago) ezer, e! Hemen iñeti (egiñetik) urten birau. A base de machacar. Batek bere postuen, bestiek berien, bestiek berien, baiña danak, e, puestuetan.

Eta... "y mas igualda!". Iguldare gutxiei da (dago). Gutxiei! Gosiek hiltten maña bat persona da (dago), hor kanpuetan. Eta oin esaten dauenez, krisisa sortuaz, asko gehixaa hilttia etorri birala. Aurreti akordau biher da, e!

Umiek neri pena emute'stai eta ni uhera fan izan naiz horreik ume kuttuok hiltten gosiak ikusten telebisiñuan, eta ezin ikusi, eta aire uhera. Pena emunda umiak, e! Kauen la letxe. Haik umiak ez dakai kulparik.

Gosia gerra ondorien ikusi geben guk.

Zuek ez dozue ikusi, eta hoba!

Bueno gosia, guria gosia ez zan horreik afrikanuana... ikusten ttudan mouen, e. Hemen esnia etxien egoten zan. Gaztaia be bai. Garixa be bai, baiña kamaran. Ezin ixo errotaan. Eta ogi faltia. Francok zerrauta eukelako errotaak! Kandauakin "da!" ifiñi eta yasta. Aqui no se muele. Eta gero gaiñera, entregau eraittera ifiñi eben. Franco.

Haik urtiak ez zittuen zuek ezautu, baiña hareik ezautu gittun guk.

(Manuel, Gerneta Handiketxekua)





Gernetakoak pastore, Eugenik kontatua

Ardixak eukitten dau bihalekua, baiña jatordu asko emuten txun (hika ahizpari)... Horreik kalera ezkontuta egozen tiaak etorten zienien, nahiz hori gazurioi, nahiz zea, gatzatua; gaitz egitteraiño gatzatua janda.

Egun baten banoia, banabil ardixakin, eta hegazti haundi bat, pa pa pa pa, zeatu zan, jaiki zan... Hori pagoduixen, e!

Eta beittu dot eta joño, bi arrautza.

Lenaa ez geuken hori edukaziñuoi txorixai itxi egin biher xatela bakien. Orduen harrapo egitten gittun guk, ikusten bageben txorixena, arrautzak, hartu.

Hartu nittun bi arrautza, banator ardixakin goittik behera, eta neu jausi nintzan, “rraaaa!” lurrien, eta bi arrautza xisko.

Hori akordauten naiz.

Beti esan izan da ardixak diela leléenak (lelo, lela, las mas tontas), ardixa dala animalixarik leléena.

Hori esaten dau ez dakixenak.

Ardixak ez dira tontuak, e! Badakixe bear ona nun daguen, eta nun jan biher dauen, eta...

Eta aparte, akordauten naiz behin, ardi bat, amakin etxien, eta ardi bat goizien eruenda geuken mendira, itxuria billotza egiteko eguen, eta etorri zan “beeee”, “beeee” bazkalostien etorri zan, ardixa, itxera etorri zonan.

Eta gure amak bizi danien ardixak eukitta: “Horrek, billotza egin xon horrek!” esan eben amak, “horrek billotza egin xon. Ifiñi-in basora begira eta jarraitu xon!”.

Eta ni, ardixa “bee” egindda, banoia basora ardixakin, eta baitta topau be ardixa. Badakizu nun eguen? Eguen errekaazulo baten. Egoten dira errekaak azpittik pasauten dienak, eta gero goittik zulua. Hantxe eguen billotza hildda. Baiña haraxe eruen eben, e!

Nik ez dot esango ardixak tontuak dienik.

(Eugeni, Gerneta Etxebarrikua)





Ezezagunak itxabolan, Maximok kontatua

Pastore umetatik ibili zara?

Bai, ume-umetatik.

Itxabolan mutikotan bakarrik, beldurrik ez zenuen izaten?

Nik lenengo bakarrik lo egin nebenien, hamabi bat urte, holakon bat... han itxabolan.



Maximo Zumalde, ardiekin.

Behin akordauten naiz, hori ya geruaa zan, nik ordurako euko nittun hogeta hamar, berrogei urte igual. Eta gabien han ardixak jaitzi eta itxabolan bana (banago), eta etorri zien dozenaan bat lagun.

Ya illunketan, eta etorri zien eta ez “gábon” eta ez “egunon”, eta: “Kauen, honeik ze jente ete dira?”.

Eta neuk lo egitteko itxabolia, txikiña, aparte neuken, eta besta bat eguen, itxabola haundixa, han aldamenien. Eta danak sartu zien hara, eta kitto.

Haik, jákiña, haik nunbaittetik, kantzauta etozen nunbaittetik, eta haik neretako ihesik etozenen batzuk zien. Enda hara sartu zien, eta goizien jai nintzanien, han ez eguen ezer.

Haik han apurren baten egon eta atzera fan zien. Orduen honeik ETako eta holako zea... Halako jenteen bat izan biher, derrior.

Nik ikusi nittun aillau zienien. Gehixaa ez nittun haik... Ni fan nintzan lo egittera, ya illuna zan-eta, eta haik be itxabolan, haik han lo egin euen, baiña goizien ni baiño lenaa jai zien.

Nik goizien pentzauten neben han egongo ziela, baiña han ez eguen iñor.

Baiña barbarik ez egittia! Ez nostain haik ezebe egin barbarik.

Neuk hola gauzarik serixuena, haxe harrapo neben, besterik hola... Betik trankil. Justuixakin-eta, haikin bai, errespetua emuten dau, justui-zartaak, haikin billurrez, baiña bestela trankil.

Non?

Horreik eolikuak dazen lekuen, hortik, hor azkena ikusten dan lekutik, honutzaako len esan doun harri-luzioi daguen lekura... Hor ibiltten dira gure ardixak.

Oinez joaten zinen?

Lenengo oiñez eta gero zaldixa ifiñi geben, eta zaldixa (hartzen nuen).

Lenengo dana oiñez, eta hemetik hara, ardixak egozen lekura, ba ordu eta erdi bat ona biher.

Eta han ardixak hartu, eta ekarri itxabolara, eta jaitzi, eta horreik egin biher.

Eta goizien, lo egitten bazeben, ardixak ihes egitten euen, eta atzera fan biher ekartera. Haik ez euen eukitten logurararik...

Holaxe kontuak.

(Maximo, Maña-tti Behekua)



Manuelen kontu gehiago

Goizien, betiko orduen “tzaa!” iratzarri, despertadore batek jota letxe.

Jaiki naiz.

Euzki bat ederragua ikusten zan torri biher ebela garbi-garbi!

Ardixena (ardien asuntoa) luzia da. Ikesten zoiez, eta pentzauten dozu badakitzula dana, eta ez dakitzu dana!



Ezkerretik: Iñuzentzio Azkoitia (Maiñako Azpiko Txikinekua), Hilario Igartua (Maiñako Garaiko Txikiñekua), Manuel Goitia (Gernetako Handiketxekua), Narziso Bergara (Txantonbalduena).

Beak giauten zau, zela tratau biher dozun bea. Baiña hortarako biher dozu afiziño haundixa, afiziño ikeragarrrixa biher dozu, bea gustau biher; eta beakin bizimorua egitten dozu; oingo mouen ez zan.

Oin mozten ttu ardixak, eta uliak erregalo!

Ni ardixak moztuta na... larehun kilo pasa mozten zien.

Zahartu eta gogobaatu, danak xatozak hamen. Gaztia banitza be, ez xakixat, jarraiketako pozik... Hola? Billotxa, oin hogetaka urtiak egitten neben dirutan billotxa be, eta hola?

Gogorra bizimorua.

Eta hatik ez neben gura semerik nere lekuen.

Lenengo, biher dozu fuertia izan osasunez. Ez hotzak billurtu, eta ez justuixak billurtu, hori biher dozu.

Prinsipalena da afiziñua, afiziñua eta gogua. Eta, bueno, horreik ez xakun falta, eta Jainkuari eskerrak lutzau geben hemen gerra baten moruen!

Gogorra bizimorua, gogorra!

Bost-sei urtegarrengo, mutikua ibilli egitten da, ardixakana, bestiaana...

Ni mutiko zintzua izan nintzan.

Hamar urte neukela... Ez da itxabola eder baten lo egittia, e! Araba Menditik beratxuaa, txapazko txabola negargarri baten ardixak jaitzi eta lo egin!

Mutikua hamar urtekin, e!

Araba Menditik beratxuaa daz gure eskortak, alde hontatik, entendiuten dozu?

Araba Mendi partera fan biher neben egunero ardixakana. Baitta (eguraldi) txarra baeguen be...

Pasauten zien gaiñaz handikaldera. Laiñua itzu. Justuixa eta laiñua!

Belarrittara eskua erueten neben, eta kendu egitten neben, zeatik iñiztuaz batera zartaria danien. Han dako zu, buruen gaiñien da (dago).

Hamar urte eukiaatik, asko ibilittakua nintzan... Arbolauen gizona konturaketan da, lentxuaa gerotxuaa, halako lekutan na.

Baiña rasuen, laiñua itzu, terrenua dana bardiña; emon izu antz!

Eta joten eben justuixa. Ganau dana erretirau zan han inguruetatik!

Eta "Las Peñicas" esaten xaue arabarrak, oin be hala euko'rau hak izena, garain baten harrixak etara eta elizak eta etxiak egitteko kanteria.

Eta kantera horrek losa batzuk saliente euken, eta banekixen. Eta esato! Ezautu neben.

Eta illuna bétorren, eta egon nintzan puxka baten... Eta: “Bueno, nik hemetik gora hartu, eta Burgamendira jo biher xuat”. Mutikuak, e!

Lurgórrittako aittajunen parapetua, Luxío zanen parapetua; Luxío zana han egoten zan uso denporan, aittajuna Lurgórrittakua zaharra, e!

Eta jo neben hara, eta: “Oin ezkerrera, eta Úsakoetxenera”. Mutikua e, mendi-mutiko gogorra!

Sartu naiz Úsakoetxenera, eta illuna!

Eta aber ardi horreik, Nagixan sartuta, horeixak billurtuta-ero dazen. Baiña handik be fánalditxua neuken Nagixara.

Geratu naiz parien, eta ardi batek erain otzan bixkarrari, arrandunak, eta: “hor nun dazen!”.

Azpittik gora eurekana. Jo txistrua eta ..

Eta: “Bueno, sartu dira euren lekura ardixok, jaizteko”. Bestiok geldiketan zien, jaizten ez zienak, kanpuen; jaiztekuak barrura. Kaikua hartu, eta eskortara mutikua, jaiztera. Orduen bista ona, begi onak.

Gaur halako illunaz ardirik ikusi be ez neuke egingo, bistia bajau da-eta!

Baiña ordun bista ona.

Jaitzi ttut ardixak, eta gustora eta kontentuz geratu mutikua!

Tortillia eta txokolatia neuken, eta txokolatia goizerako izten neben, ontza txokolatia, eta etzin naiz ohian, kamañan.

Zuk ez dakitzu mendiko kamañak nolakuak dien. Haik ez dira gero etxeak!

Eta etzin naiz jota kantzauta, jota apurtuta, eta ez nintzen enterau ez justuixak jo ebenik ez.

Lenaa ardixak eskuz jaizten zien, eta oin be eskuz askok, baiña aulkixen jarritta, hori be bada adelantutxua; ardi bateana makurtu, bestiana makurtu...

Degurixa mendixan egonda zazei? Han itxabolak formalak egoten zien.

Horreik pastoriok Aretxabaletakuak, Monrrauekuak, eta Eskoriatzakuak, danetik. Nik ardixak jaitzi, eta itxera etorten nintzan esniakin, eta bestiok han jirauten zien.

Eta nik ez neuken itxabolarik, baiña nere lagun haundixen itxabolan egoten nintzan. Zubillagako Erguiñakuak eta Ursabalgua'tzien (Ursabalgua ziran), bi anae.

Oin esango dotzuet ze tokau xakun itxabola hartan. Oso gizon alertia zan. Ni etzitten nintzanien, kontuak esaten gazela luak hartzen ninddun segiran.

“Lo zaz Manuel?”, hori entzun egitten neben ni lo nengula.



Lauriano Bengoa, Ursabal baserrikoa, Degurixako pastorea, kaltzagiñen.

Goizeko ordubittan jaitteko ordua euen, txixa egittera, beak. Ez euen despertadore biherrik.

Jai da, eta itxabolia sutan.

Hango “Manuel!” diarra. Hango larrixa!

Ikusi be ez neben ezer egitten, keia etorren... Eta ni ura etara, eta beak bota, ura etara eta erun eta bota...

Eta itxungi geben!

Itxabolia baltz, goixa erreta.

Eskerrak ordubittan ordua eukela jaitteko, bestela ni enterau baarik, erreta, eta bea be bai.

Ez zan pasau ezebe, baiña ez xat ahaztuko sekula.

Maiña bat aldiz eskerrak emun notzan: “Zuatik na ni munduen”. “Bai, gogorra izan zan Manuel!”. “Gogorra? Gogorra baiño gogorragua izan zan ha!”.

(Manuel, Gerneta Handikoetxekua)





Benitto Barrena

pastore



*Erdian Benitto. Alboetan
Donostiako lehengusuak,
Araotzera etorriak.*

Degurixako pastoreak jaisten ziren Araotzera?

Domeka danetan. Pastore pillia! Mezetara.

Egitten euen bokautxoan bat ero zeien, eta atzera faten zien.

Orduen mezia sagraua zan!

Mezia entzuten ez bazeen, infernura zuzenien.

San Juan Artixa baserria ezagutu zenuen?

Guk Añabarran geukan itxabolía, baiña atzenien gure ardixak Añabarratik erueten xuain mendira, Etxézar, goixen, jakingo dok igual... eta San Juándik be, beste aldetik, atzenien ardixak leku batera faten zittuan.

Itxabolía non zenuten?

Añabarran, baiña ha be xak herri-terrenuakin pegante... Aldáskorta eta horren (terreno horren) bittartien xaguan gure itxabolía sestran...

Sestria?

Sestria dok, terreno bat hamen akabau eta besta bat hor hasten dana, "séstria" hori dok... "Hori sestran xak", mugarrixak, esate baterako, "mugarrixak egitten dauen séstria" esaten gitxan guk...

Beste elkarriketa batean antzeko gaiak atera genizkion:

Guk urán lenengo partia Otalaatik Haizgaiñera bittartien, baiña gero pittin bat beroketan hasten zaien, Añabarratik Araba Mendira.

Araba Mendixan ibiltten gintzuan, itxabolía han geukan eskorta eta guzti.

Onddiok eskortia han xak lengo moura.

Manuel ezagutu zuen galdetu diogu:

Ezautuko ez gixuan ba? Manueleaz intimua nintzuan ni.

Gizon alegeria, hizketan be egogixa zuan ha.

Arabarrak be arabarrak egitten dauen igual-igual itten'sten erderaz!

Oso egogixa zuan gizona!

Nik estimau euki nixuan beti.

Uxabalguak be bai, Lauriano eta Luxiano, bi anae zittuan hareik,

Degurixan egoten zittuan.

Hareikin guk beti tratu haundixa euki gixuan.

Horreik domekan etorten zittuan Araotzera mezetara. Brusa-baltza jantzi, makilla ederrakin...

Mantxuenien saldia hartu eta tragotxo batzuk be jo, eta laurak ero bostak aldera atzera Degurixara.

Hori domekero-domekero, e!

Behiak jaizteko lana, ardiak jaizteko lana, ardura, norena izaten zen?

Danona, baiña ama izaten zuan gehixenien, e! Ama izaten zuan etxeko... Ganaua gobernauten eta behi-jaizten eta be ama... Ni baiño asko (asko) hobia zuan nere ama behi-jaizten. "En cambio", ardi-jaizten ni hobia nintzuan.

Baiña ni behi-jaizten ez nintzuan hain ona be, esku danakin egin biher dok eta...

En cambio, ardi-jaizten nintzuan "numero uno"! Nik berrogeta hamar ardi jaizten nitxuan, samur!

Lotu egiten zenituen?

Ez, ez, orduen dana libre...

Kaikua hartu... Kaikua badakik zer dan? Kaikua hartu hanka-artien, jarri makurtuta eta...

Gaiñera, buruen danak, e, zein jaizten neben...

Batzuk izaten zien geizto-samarrak, igesi ibiltten zienak. Beste pilla bat jaiztera etorri egitten zienak, e, txandia hartzeko larri...

Atzetik geraketan zien hiru-lau bat, betik igesi, gílixa eukeillako ero...

Gaztaiak nork egiten zituen?

Amak, dana eskuz. 60 ardi badakok, billotza egitten xuain berrogeta pikuk ero, gaztiak lenengo golpian ez xuain egitten, eta ba hain (hain, haien) esniakin, egunien hiru bat gaztaa (gaztaa), 800 gramokuak, hola egitten zittuan.

Lenengo gehixaa be bai, gero gutxiketan faten dok esnia...

(Benitto, Ojala Haundikua)



Elortoko aittajuna pastore, Mariangelesek kontatua

Guk ardixak bageuken; gure aittajunak ardixak euken.

Gure aittajunak Añábarra eukitten eben ardixak. Zuk ez dakitt ezautuko dozun Añábarra... Añábarra, ba, oiñez, nik behintzet biher dot hiru ordularen hara faten, oin.

Eta gure aittajunak euken ága bat, agía. Eta marmitta bat hamen (aurrean), eta besta bat atzien...

Faten zan Añabarrara lo egittera, eta ba, gabien ardixak jaitziko eben, gabekua. Eta atzera goizien jaiki, jaitzi, hartu bi marmitta, eta oiñez Elórtoraiño; Elórton gaztaia egitteko.

Nik orduen euko nittun beraatzi bat urte-ero, eta akordauten naiz kolkuen ekarte'skun apixuak, beak esate'skun "basoko mahatza".

Ezin ebela beste iñun ekarri eta kolkuen ekarte'skun.

Ilusiño batekin, basoko mahatza jaateko!

Gure aittajunak hori egin eben urte pilla baten.

Ikusten na onddiok bea, ekarri ezindda, tremendako marmittatzarrak, e!

(Mariangeles, Elortokua)

✿

Haria egiten, Mariangelesek kontatua



Elortokuak.

Eta gure aittajunak asko egitten eben, gero gaixotu zanian be bai, kardatu (ardi ulea). Bueltatu apurtxo bat, izten eben otzara baten, eta gero harixa egin, maatilliakin.

Baiña zelako egun polittak izaten zien, harixa egitten, hoi lanoi egitten eben bittartien, sutonduen danok kontuak kontauten, zelako politta izaten zan...

Beste bat izaten zan oso politta artua zea egitten, zuriketan.

Hori gure lagun batek esaten dau oso politto, euran amandria zan oso relijiosia, eta eurok hasten zienien artua zea egitten, errosarixua erreza biher zan, eta ixillik egoten ez bazien, makilliakin jotzen i'sten (ei osten), "da!". Eta danak ixillik!

(Mariangeles, Elortokua)



Agustin, Txomena, kardaaketan.



❧

Haria egiten, Benittok kontatua



*Ulea mozten, Maña-tti
Behekuan.*

Pastoriak galtzak egitten, bai, nik ezautu xuat zea, nerekin Añabarran lo egitten eben pastoria, hak galtzak egitten xuan, eta narru-abarkak be bai, Zelaian aittajuna.

Pedro Zelaia, pelotan ibilli zuan ba? Haren aittajuna, araoztarra.

Ha ardizain ebillenien galtzagiñen ibiltten zuan, eta gero harixa-eta be berak eginddakuak.

Harixa egitten neu be asko ibilli nauk, e, ni metro asko egindda nak harixa!

(Benitto, Ojala Haundikua)



Maximo, trallagiñen.



Haria egiten, Amparok kontatua

Sutondoan artoa zuriketan?

Artua zuriketan, bai. Artua zuriketarazkutan, gurien, aittajuna beti kantuan ibiltten zan, eta ni, neskailla txikixa, berriz, haretxei begira, agora begira, artua zurittu baarik.

Eta esate'sten: "Ze egitten don neskailliá, zurittu-in artuak!".



Maña Aldekua baserriko andra-gizonak: Markos Arana eta Leontxa.

Aittajuna (gizonaren aita) arta-zuriketan ibiltten zanien, beti kantuan ibiltten zan.

Ulia kardaaketan ebenien be bai, harixa egitten ebenien be bai; hortan (kantuan) asko egitten eben, kaltzia egitten be bai, burutik buelta harixa hartuta.

Aittak kaltzak egitten zittun, eta zeak be bai, eta ulia kardaatu eta, asko egitten euen, nere aittak be bai, eta hemenguak be bai, eta gizonak be bai.

Gizonak kaltzarik ez eben egitten, aittajunak bai.

Eta gaiñera emakumiak baiño kaltza fiñagua etaraten euen gizakumiak, ez dakitt zeatik dan baiña. Emakumiak atzeruzka egitten euen eta gizakumiak aurreruzka.

Nire anaiak danak ikesi euen kaltzak egitten, bost anae ero baneuken, baiña danak egitten euen kaltzak.

Aittajunak ze kantaten zuen?

Santa Genovevan bersuak, ez dakitt zenbat zien; Erbixana be kantauten eben, kantu asko kantauten eben, Juizioko Egunequak be bai; elizako kanturik ez notzan sekula entzun; baiña bestela, kantuak, bersuak, asko kantauten zittun.

Honeik, len esan duan Oñatiko... Graxianok etaratakuak, be bai. Eta gero, Graxianok, beste berso batzuk zezenenak etara zittun, eta haik be kantauten zittun eta...

Aittak berso asko kantauten eben, kantuan asko egitten eben aittak.

Boza oso ona euen kantuan egitteko. Baiña beak hola bersuetarako zerik ez euen, ikessittakuak kantauten zittun. Buruz ikesten zittun.

(Amparo, Mañako Azkoittin-Haundikua)





Haria egiten, Goittikuak kontatua

Txomen Agustin, kaltzak egitteko harixa egitten (argazkiaz ari da)... Aguriak (euren aitak) be asko egitten xuan hori, ardixen uliak "rra rra rra" kardiakin zea egin, eta...

Neu be asko eginddakua nauk, harixa, gero kaltzaak-eta egitteko.

(Juanito, Goittikua)

Maátilliai "tzi" buelta emun eta "tiirrii" tiirrii", neri gustau egitten xatian, gustora ibiltten nintzuan ni harixa egitten.

Harixa ona egitten zuan, e, uliakin!

Baiña latzak kaltzak, latzak, hanketarako... Pikau egitten xuain ardi-uliakin eginddako kaltzak.

Oingo gaztiak... emun-xak (eman iok) ardi-uliakin eginddako kaltzak.

Ipiñi be ez. Ezta ipiñi be!

(Joxemai, Goittikua)

Goruetan egitea hori ez zen, ez?

Ez, goruetan hola egitten xuain oso diferente... Liñuakin egitten zuan...

Kamaran urtietan egon zuan liñua egitteko zea. Gure kamaran egonda xak, urtietan, azkenien ez xakixat ze burubire...

Amak eta amandriak eta ebalten xuain.

Liñua dok bear-klase bat. Hatxulo aldera daguen zelaixa, Sugá-ittur, hor egitten zuan hoi bearroi, liñua.

(Juanito, Goittikua)

Sugaittur?

Zerbaitt ipiñi biher, eta ipiñi! (izena). Badakik zenbat izen daguen, hemen hasi eta hara mendi gaiñera? Zenbat izen! Enee...

(Joxemai, Goittikua)

Liñuakin izarak eta dana egitten txuin.

Liñuakin eginddako izarak, haren barrura sartu-hai!

(Juanito, Goittikua)





Trallagiñen, Bittoinak kontatua

Abark'horreik lotzeko harixak, trallaak izaten zien, ez dakitt entzunda euko dozun.

Hola, luze, alde batetik batek heldu, eta bestia luze fan, eta abarkendako neurrixen buelta erain eta buelta erain eta buelta erain...

Eta beste haritxo bat ifiñi eta atzera hari be buelta erain eta buelta erain, eta hola zeatu. Trallaak hol'itten zittuen.

Aitttajuna-eta ikusitta dakot egitten.

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

Gure anaiak beak, Eujeniok, zaharrenak, anae zaharrenak, egitten zittun trallaak.

(Fermin, Borjena)

Kalera fan zienien, kalera bajau zienien, JoxeJuakin; kalien trallagiñen!

(Bittoina, Gerneta Etxebarrikua)

